


XABIER AMURIZA

Agur sagar beltzeran

A large red planet with a dark spot, surrounded by smaller celestial bodies and lines on a black background.



leko Maiatzaren 3an Bizkaiko Etxanon jaio zen, gaur Amorebieta-
 txanoko auzoa berau. 1965ean abade eginda, 1968tik hasi eta hiru
 txeanalditan zazpi urte egin ditu preso. Bere militantzia politikoaz
 era, idazle, kazetari, irakasle eta bertsolari lez daroa bizimodua. Bi
 r (1980, 1982) Euskal Herriko Bertsolarien txapeldun. Idatzi dituen
 ruen artean dagoz:

«Menditik Mundura», «Hil ala bizi», «Emea», «Oromenderrieta»,
 ak», «Harriak», «Herri eta irri» (lau maila), «Laurehun herri, mila
 so berri», «Hiztegi errimatua», «Hitzaren Kirol Nazionala», «Zu ere
 solari», «Bizkaieraz bertsotan», «Bertsolaritzaren historia», «Bizkaiko
 ogintza I Izengabeak», «Bizkaiko bertsogintza II Izendunak», Elhu-
 ren bertsolaritzari buruzko CD ROMaren testua, «Xalbador, bat
 ko mirakulua», «Lazkao-txiki, bat bateko sorgina», «Bizkaiko koplun
 logia».

Diskoak: «Menditik mundura», «Herriko plazan», «Anje Duhalde
 rizararen kantari», «Bizkaiko koplak zaharrak», «Xalbador, bat-bateko
 kulua».

Agur sagar beltzeran

*Miren deritxon
gure sagar-landare politari*

Xabier Amuriza

Agur sagar beltzeran



EBERTSOLARI Liburuak

Gutziz debekatuta dago liburu hau bere osoan edo zati batean erreproduzitzea, hala nola edozein sistema informatikotan edo bestelako almagaznamendu edo informazio-lorpenekotan sartzea eta edozein modutan edo dena-delako baliabide erabiliz transmititzea, baliabide hori elektronikoa, mekanikoa, fotokopia, grabazio nahiz bestelako metodozkoa izanda ere, Bertsolari Liburuak argitaletxearen aldez aurretiko eta idatzizko baimenik gabe.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza izan du liburu honek.

Lehen argitaraldia: 2001eko martxoa

© Xabier Amuriza

© Azala eta diseinua: Txema Garzia Urbina

© Bertsolari Liburuak, 2001

Gudari Etorbidea Z/g, Parke Kulturala - 20040 - Andoain

Tf: 943 300 621

ISBN: 84-930227-9-9

Legezko gordailua: NA. 721-2001

Inprimatzailea: Gráficas Lizarra, S.L., Estella

Aurkibidea

Aintzin solasa (*Jon Sarasua*), 13

1. HILKUTXAN ERE, 17

Hilkutxan ere kantari, 19—Neskazaharrak eta apaizak, 23
Anbotorekin trukean, 26—Agur sagar beltzeran, 31
Barruaren barrutik, 37—Ni Trebiñotar, 40
Ogi gogorrari hagin zorrotza, 45—Badut gaia badut nahia, 48
Asteburu aldera, 53—San Fermin bezperie, 57—Ama, 63
Ama, zertarako dut nik, 67—Izarraizko demanda, 70
Urtaroak, 76—Izugarria, 78—Beste urte bat abian, 82
Ikusi nuen, 84—Hirurogeita hamargarrena, 87
Burgosko epaiketa, 88—Mahai Nazionala epaiaren zain, 95
Mahai Nazionala preso, 97—Etxeko-Andre ederra nintzen, 99
Gure haurtxoa, 101—Gure Mirentxu, 103
Nora zoaz zu gaur be, 105—Euskadiko Sei Orduak, 107
Euskadiko Sei Orduak II, 109—Euskadiko Sei Orduak III, 111
Aliron, 112—Reala nagusi, 115—Donostiko Reala, 117
Aizu Madrilgo tribunaleko, 119—Txoriak eta txoriburuak, 121
Gabon zorionak, 125—Gaurko airean bada usain bat, 128
Igaz Ermua, aurten Irlanda, 129—Irabazi arte, 130
Jaunartze honek badu, 132—Txori guztiak kantari, 136
Kalista eta Patxiko, 138—Galizianoen bertsoak, 142
Txepetxa eta kukua, 145—HB belodromoan, 147—Bakea, 149
Gaurtik EGIN Irratia, 150—HEMEN, 151
Lurra eta askatasuna, 153—Hauteskundeak amaitu dira, 155
Noizbait erantzuteko, 157—Presoen aldeko eguna, 159
Azken ziegaraino, 160—Karmelo ikastola, 162
Sartu gaituzte OTANen, 164—Teilatua haizeak eroan, 166
Oi lur, hain hur, 167

2. IZENAK, 171

Argala, 173—Artistaren begia, 175—Agur gure Nekane, 176

Agur Ugalde eguzkitsua, 177—Alejandro Aldekoa, 179
 Anjel eta Bea, 181—Bakartxo Luis Mari eta Satza, 182
 Karmelo eta Asier, 184—Bihotzeko Santi, 186
 Lagun eta gidari, 188—Bilintx, 190—Aita Onaindia, 192
 Bittor eta Santa, 194—Migel eta Margari, 195
 Anton Artiñano, 197—Buruzagi Txomin, 202
 Ez da egia, Joseba, 204—Goio Olabarria, 205
 Gurutze Igantzi, 207—Katxue, 209—Kaxilda laguna, 213
 Krutwigen hileta, 214—Lasa eta Zabala, 216
 Nikola Telleria, 217—Iribar, 220—Jose Luis Isasa, 221
 Jose Ramon Asua, 222—Josu Olabarria, 223
 Jota A. Bis Eme, 224—Joxe Manuel, 225
 Juan Karlos eta Izazkun, 226—Lexoti, 227—Katalina maitea, 228
 Lazkao Txiki hilobiratzean, 229—Lazkao Txiki, 231
 Sarasuan izenean, 234—Mari Paz, 236
 Gure Xabier, lagun Xabier, 238—Jose Patxi Rementeria, 241
 Maria Dolores, 242—Matalas, 243—Mertxe eta Andoni, 244
 Mikel Idirin, 246—Monzonen hilondoa, 247
 Nahi dut Xose Estevez, 249—Ni naiz betiko Periko, 250
 Oihana eta Jabi, 251—Ondarroako kresalak, 253
 Ortuntxok egunsentira, 255—Ourenseko Bergantesen, 256
 Pablo Urigoitia, 257—Pakito Arriaran, 258
 Santi eta Muguruza, 259—Tasio Erkizia, 262
 Torturaz hilak, 263—Sigfridoren begia, 265
 Oroimen eta milesker, 267—Txo, 268—Txiplas, 271
 Xabier Arenaza, 272—Xabier Galparsoro, 273
 Zornotzako presoak, erbesterratuak, 275—Zelan hortik Iñaki, 277

3. KOPLAK ETA KANTAK, 281

Aditzen labirintoa, 284—AEK, 286—Aita San Antonio, 288
 Alaia zu, 291—Amnistiaren dema, 292
 Anbototik Gorbeira, 295—Anbototik Oizera, 297
 Anbototik Oizera I, 299—Hil koplak, 301—Andikoa, 302
 Asunaren azpian, 305—Aurrera IJAPA, 308
 Autodeterminazioa, 311—Banangue, biñangue, 313

Beste hilotz bat, 316—Bide berri, argi berri, 319
Dispertsioa, 321—Drogarik ez, bai, 323—EGINen koplak, 325
Egunez eguneko, 327—Ene izar maitea, 328
Gaur ez zara itzartu, 330—Herri Urrats 1991, 333
Ibilaldia 86, 336—Ibilaldia Elorrion, 338
Koplari gatoz Berriztik, 340—Korrika, 341—Maitasun aroak, 343
Nafarroa Oinez 84, 345—Nafarroa Oinez 85, 347
Neskatxo bat bada, 349—Ni naiz, 352
Nik badaukat sudurra, 354—Oraingo gazteriak, 356
Rugby eresia, 358—Xikitoak, 361—Zenbat eternitate, 363
Zumaiako arraunak, 365

4. DOINUAK, 369

I) Ama Elgoibartarra, 372—II) Vivaldirena, 373
III) Agur sagar beltzeran, 375—IV) Aitarena, 376
V) Sentimentua sartu zitzaidan, 377
VI) Zuhaitzak inoiz harkaitzak beti, 379
VII) Agur hainbeste poz eman duzun, 381
VIII) Zamorako sugintza, 382—IX) Trumoa ortzi, 383
X) Naufragoarena, 384—XI) Neskazaharrak eta apaizak, 386
XII) Izugarri bat, 387—XIII) Historiaren hari zahar horri, 388
XIV) Gai horrek badu mamia, 390—XV) Udaletxean badut, 392
XVI) Katean txakur umila, 394—XVII) Ederra zareala, 395
XVIII) Santa Luzietan, 396—XIX) Urkiola, 397
XX) Nireak ez direnak, 398

Adjetibo bat urundu zait Amurizaren bertso jarriei buruz errota mar-txan jarrita.

Kontuak berritu esaten diogu kontuak gogoratu eta esateari. Ber-tso berriak ere berritu egiten dira, berriagotu, gogoan atxikitakotik kantatzen direnean. Gainerako bertso berrien destino baldarra zera da, inork berritu ezean, *bertso berri* izendapena hizkuntzaren ironia bihurtzen zaiela. Guttenberg-en galaxian geratzen dira hortxe, ez pre eta ez post. Bestelako destinoa du gogoan den bertsoak.

Gai horrek badu mamia, baldin ez banago gogor. Gogoan iza-teaz ari naiz —aditz perifrasiarik ohikoenak intuizio bikaina gorde dezake, distantzia apur batekin begiratzuz gero, halakoxe altxor-meta dugu izan ere hizkuntzaren korpusa—. *Buruan izan*, esan genezakeen. Baina iduri du *gogoan izan* formulatu zuten belaunal-diek bazutela gauzak memorian gordetzearen esanahi eta eragin zabalaren berri. Geu gara gauzak gogoan jasotzearen esanahi zaba-la ahaztuxe dugunak. Zerbait *gogoan* izatea, hitzak dio, buruan iza-tea baino gehiago *animusean* izatea da, errepikatze mekanikoa baino inplikazio sakonagokoa.

Memoriaren tokia hustu egin da apur bat gure kulturaren eta gure eskola-sisteman. Bertsolaritzaren transmisioa ere olatu horretan kokatu dugu: memoria gutxiko bertsogintza da gaurkoa. Ez al da bihurtuko gogo gutxikoa. Ez naiz ezkorra. Beharbada hala behar-ko du, neurri batean. Baina ni niretik ari naiz idazten, eta nire ber-solaritzarako etorrera taldekoa izan zen, eta bertsoak gogoan har-tzetik sartu ginen mundu honetara. Gaur taldeko bertso-berritzea ez da ohikoa bertsolarietan, ez bertso-eskoletan ere. Gure koadri-lan behintzat bertsolaritzak eskeini dizkigun momentu eder asko-tan bere lekua du mahaiko talde-kantuak. Ederra da, norberak

asmatzetik beste sentsazio bat, besteren aleak taldean gogoratu z aletzea.

Artisautza-sorkuntza bat jasotzeko toki berezia da gogoia. Ikusmenean jaso liteke koadro bat, entzumenean kontzertu bat, bietan bertso saio bat, edo zernahi euskarritan, erreal nahiz birtual, aurreko guztiak. Gogoan jasotzen dena, gogoan dago. Eta berritzea, birsortzea da neurri batean. Erdaraz politago: *me recreo cuando recreo*. Bertsoa gogotik berritzean (halako polisemiak saihesten ibili naiz orain arte, baina hau utzi egingo dut), besteren sorkuntza gogotik jaulkitzen baituzu, bertsolariaren larruan sartzen zara nolabait, amerikara joanaz otañotzen zara, andre txarraren bentajak maiseatuz xenpelartzen. Bada hor zer pentsatua bertso-eskoletarako eta irakaskuntzarako.

Tira eta guzti honek ze lotura du Amurizarekin? Galdera itzulzen dizut. Eta orain ni hasiko naiz erantzuten. Gogoan ditudan bertsoen ondaretxo personalean Xabierren bertso jarriek, orriotan dituzun hauexek, toki berezia dute. Baita nire bertso-taldekide izan zirenen gogoetan ere. *Espainian behera* bat taldean kanta-tzea gauza handia dela, alegia. Geurean ezezik, nonahiko bertsozaleen gogo-ondarean, oro har, Amurizaren bertsoak hor izango dira urrin barik. Azkenik, orain artekoari begiratuta, mende hasiberriko bertsozaleen memoria kolektiborako, ez dut uste parekorik duenik Amurizaren produkzioak. Bere bertso jarrien indarrak, giza-interesaz, testigantzaz, kalitateaz, gidaritzaz eta abarrez ez dut esango zerorrek ondorengo orriotan aurkituko ez duzunik.

Gure bardoak sortzeaz aparte izan du beste sen bat: eraginkortasunarena. Badakit artisautza-sorkuntzaren eraginkortasunaz hitzegiteak mahai desberdinetako oreak nahastea dirudiela. Baina artisautzak ere baditu bere eraginkortasun bideak, bai irizpideetan eta bai irispideetan. Amurizak, ze bertso jarri nahi zituen jakiteaz gain, zer egin eta zer eragin intuitzeaz gain (gaurko bertso jarri gehienei falta zaiena, bidenabar esanda) bere bertsoak gizarteratzeko sena izan du, bideak probatu ditu, grabatu egin du, argitaratu egin du,

kantariekin nahastu da, zirkuituak antolatu ditu. Halakoxea dugu bera, hilkutxan ere dantzari.

Zein zen adjetiboa? Gogoangarria. Amurizaren bertso asko zaizkit niri gogoangarri, eta ondorioz gogoandu. Idatzita gero ohartu naiz: ale hobeak izango dira, baina ez dut uste bertso bati gorago-ko adjetiborik jar dakiokenik.

J O N S A R A S U A

1. Hilcutxan ere

HILKUTXAN ERE KANTARI

- 1) Tristerik nintzen tristerik
ia hiltzea usterik
pentsatzen nuen: "Ez ote dago
gogo hau pizterik?".
Ez pizterik ez eusterik
arimaraino husturik
kantuan hasi nintzen gaizoa
zer egin besterik?
- 2) Hasi nintzen hasi eta
hura ez zen berriketa
neu konturatu gabe argitu
zitzaidan kopeta.
Irria ere kolpeka
heldu zen hortzez beteta
nork esan zuen gero kantua
ez dela errenta?
- 3) Pentsatu nuen geroztik:
"Haurrik ez zagok Paristik!
Hemen bakoetak bere burua
beste giltzik ezetik".
Penak uholka datozkit
hoientzat ez da stopik
baina kantuan hasitakoan
denak joaten zaizkit.
- 4) Kendu zidaten ogia
jan zidaten historia
bai eta neuri eragin ere
neure hilobia.
Gizonaren agonia
kantatzeko nengon ia
kantua berak jaso ez balit
gogo eroria.
- 5) Txoria kantari jai
mendiak eskatzen dio
kaiola ere kantatzekoa
iruditzen zaio.
Kantua dela medio
penak arintzen zaizkio
gure kaiolak kantatzeko ere
ez al du balio?
- 6) Txikia izan beharra
herri baten zoritxarra
gainera ia hiltzen gaizoa
hain baita zaharra.
Baina hastean oilarra
egunsentiko adarra
orduan bera iruditzen zait
bizi den bakarra.

7)

Biligarro paregabe
baten kantuak dirade
goizero hortxe ari zait oihan
guztiaren jabe.

Banauk biziaren zale
baina baita ere logale
eguna pixkat argitu arte
kanta zak xuabe.

10)

Hiltzea zein penagarri!
Nork ez du pentsatu sarri?
Baina mesedez lore tristerik
niri ez ekarri.
Eman aurretik Lurrari
hilkutxa zabalik jarri
azken bertsoa kanta dezodan
zuen negarrari.

8)

Baditut mila desplazer
baina sendatzen naiz laster
nahi gabe ere hau duk hau martxa
kantuari esker.

Kantatuko dut edozer
berdin zait nola eta zer
kantuan ari naizen artean
ez dut falta ezer.

9)

Umorez baldin banago
deitu kantu lanerako
eta tristerik aurkitzen banaiz
orduan gehiago.

Inoiz trago eta trago
gelditu naiz makurrago
kantuan hasi eta holako
drogarik ez dago.

Bertso sorta honetan kantua indarra goraiatu nahi nuen. Bertsolariok ez ezik, ez dakit gizakume orok bizitzetik balukeen, kantutik harako kemenik gabe. Kasu honetan errealitate oso bortitzak gaitzetzeko indarra esleitzen zaio kantuari. Horregatik ahapaldien lehen partean egia gogorak, minberak aurkezten dira, gero kontrastez horiek iraultzea dagokion kantua indartsuago ager dadin. Orduan egia bortitzok baliabide indargarri batzuk besterik ez dira, kantua indarra emateko klabe nagusia.

Bestetik, ordea, esan daiteke kantua indarra delakoa aitzaki eder bat besterik ez dela, gizakumearen, Euskal Herriaren eta, orohar, gizateriaren errealitate gordin batzuk halako ikuspegi baikorrez edo gaitzetzeko. Kantua gutxienez lazeria guztiak menpera ditzakegu. Bertsoen gai edo xede nagusia bikoitza da, beraz, eta biek lehentasun trukagarria edukitzea edo zein zeinen kontrapuntu den argi ez egotea da, hain zuzen, sorta osoari indarra emateko klabe nagusia.

Lehen ahapaldia engainagarri gerta daiteke sortaren tonuarekiko. Sarrera tristea, ia deprimentea, beren-beregi ekarria dago, gero, etsipen horren motiboak zehaztu ahala, kantua indarrak goraldi triumfalagoa eragin dezan. Bertso hauen aldartea, nire asmoan behintzat, ez zen inondik ere tristea, ez zen alaitasunaren apologia ere, aipatutako motiboek ez baitute arinkeriarako biderik ematen, baizik errealismo kementsu baten aldarria, desioa areago, hilkutxa ere kantaleku bihurtzeraino. Beraz, doinua ere arabera behar luke, epiko samarra. "Anje Duhalde Amurizaren kantari" diskoan aire ilunegia ezartzen deskuidatu ginen, lehen bertsoaren abiakera deliberatuak engainaturik. Inoiz esan izan didate: "Hi ez haiz hilkutxan ere isilik joango". Ez dakit. Hilkutxak bizienak dira. Barruan doanak ez daki non doan ez zer duen gainean. Ezin dugu hilen ikuspegitik hitz egin, heriotza biziena baita. Hilek kantatzea ezinezkoa bada ere, ez da irreal, bizi naizeno, hilkutxan kantari joan nadin. Heriotza biziaren arima da. Ezin dut bizi intentsoki sentitu aldi berean hiltzea desiatu gabe. Hilkutxan ez dut uste bizi

izanaren penarik eroango dudarik eta bizi naizela ere ez dut uste hiltzeko penarik daukadanik. Uste? Sentitzea ez al da ustea baino lehenago? Orduan argi dago. Ez daukat batere penarik. Gainera nik erabakita daukat hilkutxan ez joatea. Nire errautsak (aurrera-pen hoberik ez badago) Oizko haizeak eroango ditu. Bizien apektak dira hauek, bestela ez baitago alde handirik. Bat ere ez, garbi esanda. Beraz, egizue nahi duzuen. Lore tristeak? Ba, ekarri. Ez duzuela nahi? Ba, ez ekarri. Bakarrik eskatzen dut uzteko bizi naizenoko preferentziak hautatzen. Eta amaitu egingo dut, gurpil zoro hau ez baita moztu ezik amaitzen.

NESKAZAHARRAK ETA APAIZAK

1)

Neskazaharrak eta apaizak hartuko ditudan haintzat eskatu didaten gaitzat ai, ama, nola josi elkarri banaka dituzten gaitzak. Altzak bihotzik ez badu ere eduki lezake haitzak biguntzen badu ekaitzak tximista baten bildurrik ez du maitasunaren zuhaitzak.

2)

Zaldia triste behorra mizke hegoa-iparrak aske neskazahar apaiz gazte larrerik larre omen dabilta gartsuki elkarren eske. Elkarri bildur diote baina ez ikaratzeko beste nigatik konpon zaitetze zorion puskak zuentzat ere zilegi izan litezke.

3)

Adina luze, azala zimur zenbat urte ditun aurten baina ez gogorik joaten tenta ditzagun apaiz gazteok ea norantz jotzen duten. "Jauna zuekin", hi neronekin ez suari txingarrik ken nora nahi dun bihar irten uso zuri bat ari dun bioi habia urdin bat egiten.

4)

Neskazaharrak eta apaizak uhuka meza ondoren Akelarren batzen omen hain ez baitute konturik hartzen ez urteen ez botoen. Aita Santua hara ta hona dabil inoizko eroen deabrua non ote den aurkituko ahal du Euskal Herriak fedea galdu baino lehen.

5)
 Ez nago alde, ez nago kontra
 entzuna kontatzen baizik
 ez omen baitago kasik
 neskazarren bat gorroto edo
 maite ez duen apaizik.
 Egia dela, gezurra dela
 oilarrak goizean goizik
 atzeman gaitu biluzik
 ez dinat ezer jantziko, maite
 berriz erazteko ezik.

6)
 Muskerrak duen ibilpidea
 hormaz horma harriz harri
 gizakiei mozten sarri
 nigatik argi berdea zenbait
 apaiz eta neskazarri.
 Askatasuna bada dohai bat
 hain haundi, hain bizigarri
 eta eza hain hilgarri
 eduki ahal dugun apurrik
 ez uka behintzat elkarri.

Zamoran preso gengozela, gure eskuetara iristea lortzen zuten gutun ondo zentsuratuen artean, behin lagun batek emakume batena hartu zuen, non gutxi gora behera zioen, erdaraz noski: "Zuek, giza-jook, hor zagoze mundua zetan dan ez dakizuela, baina hemen zuen abade-lagunak aidean dabiz. Joan dan astean abade gazte bi neskazar bigaz egunpasan aldendu ziran eta ez dirudi damututa itzuli ziranik. Bertsolariak beste zereginik ez badauka, badauka gai polit bat".

Orduan Zamoran gengozen guztiak abadeak ginen, tartean frailerren batzuk zirela. Gaur segurrenik gehienek ez dute jakingo abade-fraileak bereizten, baina zertarako hasiko naiz dakitenek ere geroz ahaztuago duten kontu bat azaltzen? Ni neu frailetzarako hasi nintzen eta abade amaitu nuen eta igarri nuen, bai, aldea, baina maitasunaren zuhaitza bietan ere ekaitza zen, pasioena beti ere. Altza galdurik, haitzari bihotza jarri genion, baina tximistarik ez zen parean egokitu. Jainkoaren grazian geratu ginen, neskazarharrak agertu arte, banaka genituen gaitzak elkarri josteko. Ai, ama! Hau da lana, sekula berandu heltzen ez dena. Eta zer? Zorion puska batek osoak baino gehiago balio lezake, inpentsuan datorrenean. "Jauna zuekin! Hi neronekin!". Banenkien zer zen Jauna denei

eskaintzea, aurpegi bakar bati begiratzen niola, beronek Jaunaren ordezkorekiko debozioz ala pekatu izur batez begiratzen ote zidan ezin ebatziz. Mezan zehar aurpegiak aldatuz joango nintzen, zeinu adierazkor bat antzeman guran. Inoiz argi xirrinta terrenalen bat somatzen nien begiradak nire atzeko Santo Kristoarentzat zirela ulertu behar nuen, zeren, neugatik izatera, zer egin behar nuen gero? Akelarren botoak entregatu, "Euskal Herriak fedea galdu baino lehen"? Espetxeko patioan sugandila ugari agertzen zen horman behera. Musker txiki bat ere bai inoiz, zeina murruan gora bidaltzen pasatzen nuen patioaldia. Lehenengo eskuekin eta gero palutxo batekin gorantz eragingo nion kurioso-kurioso, "igon hadi goraino eta, ezer ikusten ez badok be, lagunduidak behintzat handik zeozer ikus daitekeela pentsetan", baina, bere grinara geratzen zenean, trabestu egiten zen eta, zeharka-meharka, atzera patioko zoruraino jaisten zen. "Zapaltzea merezi dok!", baina hori ezin nion egin, apaizei eta neskazarrei ere ukatu ezin nien lez eduki ahal zuten askatasun apurra.

Bertso sorta hau maiteenetarikoa dut, hainbeste konnotazio aurkitzen baitut bertan. Satiratik urrun ez dabilen ironi asmoan, askatasunaren espazio txikiak gozatzeko tentazioan jausten direnak karinoz tratatzen ditudala uste dut, hain maiseatuak ziren apaiz eta neskazarren harremanak barne, gehienak intentziotik urrunago iristen zail zeukatenak gainera. Nire patioko muskerrak gustora zirudien han. Biharamon batez inondik agertu ez zenean, lotsatu egin nintzen neure atsekabe sentimentalaz, aurpegi txiki baina munstros hartan gutxienez bi begi ikusten bainituen, beharbada desio nindutela pentsatzekoak.

ANBOTOREKIN TRUKEAN

1)

Tximistak dzist-dzast goiz eta arrats
haizea norantz, lainoak harantz
baditut mila min edo grina
laurehun gozo, seirehun garratz.
Oi Anboto, bizkar zorrotz
erraldoi mendetsu hilotz
Oiztik egiten diat hots
emaidak arren heure zati bat
nik hiri bihotz eta hats
sentimenaren berri dezagun
hik ikas eta nik ahantz.

2)

Gutxi nenkien sentimenduen
zamak noraino zauritzen duen
eskerrak noizbait Anbotorekin
trukea egin bainuen.
Nola jaun horiek maite
higuineztatzen binaute?
Ni bezala bazaudete
proba haitz batek golkoan zenbat
mesede egingo dautzuen
penarik eza zorion bada
ni nauzue dohatsuen.

3)

Barrea azal nekea sakon
noiz hilko zauden aitona senton
bihar dukezun hobeagatik
etsi zenezake bertan.
Zure ilobaz bete da
hiria alderik aldera
goldetik datoz labera
baina nik ezin deusik sentitu
triste bazaude hor konpon!
Zure minentzat ere haitzen bat
geldituko da Anboton.

4)

Larruz jantzirik, ez beste deusik
ninduen amak sortu biluzik
biluzik, ama, zure azala
ere galdua dut kasik.
Zastatu naute noiz-nonahi
pozoina sartu ere bai
baina niri zer? Ni lasai!
Haitza golkoan ninteke joan
urkabera ere pozik
ez baitut minik hartzen ikasi
bihotzetik pasa ezik.

5)

Bi haur jostari neska-mutiko
bat zutik eta bat kokoriko
Perutxok pizpiz, Maritxok zotz biz
errekaxoa polito.
Baina ni ezin makurtu
nahita ere ezin samurtu
zer izaki naiz bihurtu?
Hik, haitz, ez al duk deus senti behar
ezta ere haurrekiko?
Hago Anboton, zeren behar nauk
minekin batera ito.

6)

Bihotz zaurikor, sarritan mehar
nola ibili haiz Anboton zehar?
Hirekin ezin nindukan bizi
hi gabe berriz hil behar.
Penak eta zorigaitzak
ezkutuan gorde itzak
kolpa, nahi baduk, saihetsak
baina begioi, biki xumeoi
ez, otoi, eragin negar
nik maite dudan inork ez dezan
hire minetan minik har.

Anboto gure atartetik aurrez aurre ikusten da. Berak ere ikusten gaitu, uste, baina ez du agertu nahi. Bertso hauek egin nituenean, ez genuen ikusten ez Anbotorik ez bestelakorik. Anbotok (eta bere antzeko haitzek) zer pentsatua eman dit beti. Batzuetan amorrua hartzen dut, bere lekuan zirkinik egiten ez duelako. Itxura aldatu behar bazaio, dena inork egin behar. Behin lainoak galdorra

ostuko dio, behin zarrazoiak beheraino ezabatuko du, behin elur-rak ipuinez jantziko, behin eguzki sarrerak elur itxura txundigarria erantsiko die bere ertz edo aurpegi zati argiztatuei agorrilaren erdi-erdian, behin ostadarrak oratu eta badaroala pentsaraziko dizu, baina bai zera. Zirkinik ere ez. Berak hartzen duen arduragatik balitz, mendi itxura ere galdua zukeen aspaldi. Eta nire begiek ez dakit horixe ez duten nahien. Nondinahi eta zeinahi larritasunetik irekitzen direla, segurtasun handi bat badute: Anboto beti hortxe. Segurtasun handia ez ezik ederra ere bada, noski. Ezkutu-tuan, desagerturik, elementuek bahiturik badago ere, hortxe agertuko da beti, lehen bezain gotor eta lerdin. Uste dut nire konfiantza, daukadanean daukadan apurra, bere irradiazioa dela, edo nire berango errebotea, berari ez baitut uste ardura dionik niretzat ezer irradiatzeak. Haltzak bihotzik ez badu, Anbotok gutxiago. Horrexegatik da hilezkorra, sufritzen ez duelako. Beharbada errukarriegi naiz, hilezkor izan nahirik, baina beharbada Anbotoren ez-sufrimenduak bizia sasoaldu egingo dit. Luzatzeak ez nau horrenbeste kezkatzen, oraindik luzeegi ikusten dudalako beharbada, baina jaun horiek! Zastatzaile horiek! Biziaren pozontzaile horiek! Hiri ez al diate horiek eragiten, Anboto? Ez zaik askorik igartzen. Egin dezagun esperimentu bat, "sentimenduen berri dezagun hik ikas eta nik ahantz".

Gero "Naufragoa" izenez gelditu den doinua bertso sorta honexegaz estrainatu nuen. Nire lehenengotako burueran, aha-paldiaren zortzi puntuak bi errima ezberdinetan banatu ziren, jarraiko hiru laburrenak erdian sarturik. Lehenengo puntu biak ere ez ziren egitura ezagunekoak. Neurri irregular samarra eta indartsua nahi nuen, gaiak eskatzen zuenez. Gero bat-batean zortzi oinak era batera egin nituen, doinu hau jendaurrean lehenengoz kantatu nuen laurogeita biko txapelketan. Ez nintzen ausartu jatorrizko eran egiteak sor zezakeen desorientaziora arriskatzen. Bat-batean ez dut txarto ikusten errima bakarrean moldatzea, halako ikusgarritasun bat ematen baitu, baina bertso jarrietan, kalitatearen eta

espresioaren bila doanarentzat, ez daukat dudarik AAA-BBB-AA eredu askoz hobea dela. Bestela ere, neurri luzeak bat-bateko bertuosismoaren efekturako hobeak dira, jarrietan xede nagusitzat bilatu behar den kalitaterako baino.

AGUR SAGAR BELTZERAN

1)

Gogoan al dun nola
biok parez pare
izan ginen urondo
bereko landare.
Gero egin haiz zuhaitz
arrotzeko lore
badun nik ez dakidan
hainbeste kolore:
zenbat aldatu haizen
sinesteko ere!

2)

Alde huen herritik
igandean goizik
hemen ez omen baitzen
betikoa baizik.
Pantailan omen habil
orain oso pozik
behin erdi estalita
behin erdi biluzik:
Ez ninan sinestuko
neuk ikusi ezik.

3)

Eguzkiz makilatu
dinate azala
jantzi eta erantzi
panpina bezala.
Hi omen haiz harako
irla ideala
zoramen-haitzak eta
zrion-itzala:
Ez dun sinesten baina
ematen dun hala.

4)

Oraindik ezin dinat
buruan bat egin
joan hintzen usoa
"txoriñe" honekin.
Maite haut esateko
zenbat hots ezberdin
Oh ma chérie, Oh mi amor!
I love you my darling:
Sinestu dien eta
hireak egin din.

5)

Amodioa hire
ager-ostenetan
teatroa besterik
ez dun gehienetan.
Hi azukrontzi jarri
haute banaketan
begiak euliak lez
ibiltzeko bertan:
Zail dun sinesten baina
hala dun benetan.

6)

Yo te adoro, Oh my love!
Ene mon amour-a!
Ez al zain higuigarri
delako murmurra?
Betiko tuntun horrek
behar din gezurra
edo beste egien
estalki maltzurra:
Zulatu didan neukan
sineste apurra.

7)

Loriak udan intza...
lizar gerri lerdan...
maitaleak horrela
mintzo gaitun hemen.
Ez dun hain "guaia" baina
euskaraz bederen
hobeto jakiten dun
egia ote den:
hik dena sinestu dun
ulertu baino lehen.

8)

Ez dinat ukatuko
berezko lilura
loreak ere joaten
ditun merkatura.
Sal-erosian habil
eskutik eskura
heuk zer balio dundan
ez zaien ardura:
Sinestea zertan den
gure neska hura!

9)

Halako marka berri
galanten aukera
turbo-motorra eta
bi izter gainera.
Prezioa jartzen din
bularren parera
tristura jaitsi zaidan
gogo barrenera:
Ezin dinat sinestu
hi haizela bera.

11)

Agur, sagar beltzeran
edo beilegia
Agur, betiko hire
izar aurpegia.
Izango haiz ederra
baita ederregia
ez, ordea, maitea
ezin alegia:
Heuk ez sinestu baina
hori dun egia.

10)

Itxaropena azken
galera izanik
hirekin bera ere
galdua dinat nik.
Joanak ez din mugarik
hartara emanik
batez ere ez badu
itzultzeko planik:
Sinesterik horrela
galduko hintzanik!

Batek baino gehiago esan dit bertso sorta hauxe dela nik paratu dudan onena. Ez dakit egia den, baina uste hori ez zait bat ere gaitzi, neuk ere sortarik maiteenetakoa baitut berau. Bolada luzean nerabilen buruan gai topiko eta betiko hau (objektu-emakumea, amodioaren merkatua, maitasunaren erabilera komertziala) bertsoetan nola tratatu. Ideiategi kutsua ekidinez, zerbait aldi berean bortitza eta samurra, satirikoa eta hunkigarria nahi nuen. Baita zerbait unibertsala eta euskalduna ere. Orduan amodioaren ihes biko-

txa irudikatu nuen, bata herritik edo gizartetik pantailara, "izar" mailara, non pertsonari objektu desiragarri baten ezaugarriak betearazten zaizkion, eta bestea kulturatik, non euskaldun askok bere garaipena kultura edo maitasun arrotzean amesten duen. Horretara datoz erdarazko aipuak, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez. Edukiaren markoa argi sentitzen nuenean, ideia konkretuak menturatzen hasi behar zen.

Markoa "sentitu" diot, argi sentitzea eta argi edukitzea ez baitira gauza bera. Sentitzeak definitzea, forma bat ematea eskatzen du. Batzuetan molde jakin batetik abia daiteke, gero bertan sentipenak deskargatzeko. Askotan, nire kasuan behintzat, alderantziz izaten da. Sentierak badu izate zehatz bat, hots, zer nahi dudan sentitzen dut, baina hori ez da forma literarioa. Hau aurkitu egin behar da, sentieraren arabera moldatu, eta hor hasten dira saiakerak, sentitzen denari dagozkion ideien eta adierazpideen bila. Sentimenak ez du soluzionatzen, selekzionatzen baizik, aurkezten zaiona onartuz, dudatuz edo baztertuz. Hasten zara ideiak zirriborratzen eta barruak dinotsu, hots, sentiarazten dizu: "Hau bai. Hau ez. Hau ez dakit, ba. Ona! Buf! Hau ez!". Askotan balorapena aldatu egiten da, gehienean onetik txarrera. Lehen kolpean ona, baita oso ona ere, iruditu zaizuna, handik buelta batzuetara (beharbada egunetara) txarra edo desegokia iruditzen zaizu. Alderantziz ez dut uste inoiz gertatu zaidanik. Lehen kolpean txarra iruditu zaidana nekez aldatuko zait onera.

Hautamena da kalitatearen bermea. Jarein ideiei erruz eta gehienak ezetsitakoan gelditzen den selekzioak erabakiko du nolakotasuna. Ustezko buruera onak (batzuetan benetan onak izan daitezkeenak) baztertzea kostatzen zaionak nekez lortuko du emaitza onik, zeren ez baita on-txarrak bereiztea soilik (hau ez litzateke gako zaila), on-hobeak baizik, edo, gehiago estututa, onenetan hobeak. Beti ere hobeen bilaketan dago gakoa. Bilaketak noizbait amaitu behar du, noski, eta hori ere sentitu egin behar da eta, hala ere, beti geratzen da zalantza ontzat sentitu duzun hori benetan

ona izango ote den. Sorta honen zirriborroan zenbat ideia baztertu nituen ez dago esaterik eta horrek ez zidan inolako penarik ematen, aitzitik aurkikuntzaren gozamina, gelditzen zenak konbentzitzen baninduen.

Sorta honetan beste kontu zailago bati aurre egin behar izan nion, forma aldekoa bera, azken puntu guztiak harridurazko esaldi beraren bariazioak izan zitezten erabaki nuenean. "Zenbat aldatu haizen / sinesteko ere!". Bariazioen orpo edo pibot hitza "sines-tu" aditza izango zen, bere forma ezberdinetan: "sinestu, sinesteko, sineste, sinestuko, sinesten, sinisterik"... Efektua dotoretzat hauteman nuen, kondairari batasun eta trinkotasun ikaragarria emango baitzion, baina ez zuen errepika soila izan behar, bat bezain anizkoitza baizik. Orduan bi zailtasun handi agertu ziren. Bate-tik, ahapaldia beti molde berdintsura eror arazteko limitaziotik, nola aurkitu esan nahi nituen guztiak adierazteko moduak? Eta bestetik eta batez ere, nola hainbeste ahapaldiri amai ezberdinak eta esanguratsuak asmatu, orpo-hitz beraren eta esamolde beraren jiran. Hauxe izan zen bertso sorta honen zailtasunik handiena. Gogon daukat sei-zazpi bariazio ustez itxurazkoren buruan toton egin nuela, aurrerapiderik ezin aurkituz. Dozena bat ahapaldi neuzkan helburutzat eta ertzetik harago beste bospasei asko ziren. Etsita egon nintzen luzaroan, ezinezko estugunean sartu nintzelako ernegaturik. Sorta guztia beste molde batean berhastea pentsatzen hasita nengoen. Baina Dios! Alde batetik ezin nuen porrot hura jasan eta bestetik ezin nituen sasira bota ustez ondo lortuak neuzkan ahapaldiak, beste molde batean ez baitzuten balioko. Bolada batean gaia bertan behera uztea erabaki nuen, ea denborak eta pentsamenaren aurkikuntza kasualek ezina gainditzen zuten eta azkenean halaxe gertatu zen, hamabiko proiektatua hamaikakoan gelditu bazen ere. Amaitu eta gero, sentipen triumfala geratu zitzaidan. Gero, sortaren gordina amaitua neukala, hura zehaztea, xarmatzea, hitz eta esaera dotoreagoz edertzea gozamen neurrigabea izan zen. Gogoz ondu ditudan bertso sorta guztietan gertatu zait

hori. Handi-handika dena osatua dagoenean, gero hari zehaztasunak, ñabardurak, hobegarriak eranstea bertsolaritzak eman didan atseginik sakonenetakoa izan da.

"Agur sagar beltzeran" hau Anje Duhalderekin kantatzen nuenean, batzuek galdetzen zidaten (beraz, askok pentsatuko zuten) ea neuri gertaturiko kasua zen. Izan zitekeela erantzuten nuen, baina ezetz. Ihesi joan zen emakume hura arketipo bat zen, gizarte batena, baita herri batena ere, zeinaren historian denok gagozen inplikatuak, aktiboki, pasiboki, desiraz, bekaitzez, errukiz... zeinahi modutako utilizazioz, aldekoz ala kontrakoz. Entzuleek kondaira erreal bat bezala hartzea sortaren dohaitzat jotzen nuen, abstrakzio tematiko bat hain sinesgarri aurkeztea lortu nuelako.

Bada baita beste pasadizo bat, betiko gogoan geratu zitzaidana. "Anje Duhalde Amurizaren kantari" diskoaren promozioa eginenez, Gasteizko irrati batera deitu zidaten. Elkarizketa erdaraz izango zen eta antenan sartu aurretik, galderak nondik joango ziren eta abar azaltzen ari zitzaizkidanean, esatari batek galdetu zidan ea "Agur sagar beltzeran" izenburuak zer esan nahi zuen. "Adios, manzana morena" erantzun nionean, mutilak hots egin zuen: "¡Ahí va! ¡Qué bonito es eso!". Lehen aldiz erdaraturik entzun zuenari zirrada egin zion bitartean, euskaraz entzuna zuten hainbeste euskaldunek ez zuten ezer berezirik atzeman, aitzitik, ordea, euroi ere, erdaraz esanda, zirrara askoz handiagoa egiten zien, pasadizo hartaz geroztik sobera egiaztatu ahal izan nuenez. Gogoeta luzerako bidea eman dezake, baina laburki esan daiteke euskal eta erdal hitzek, elkarren ordain literalak izan arren, hizkuntza bakotxean konotazio eta asoziazio oso ezberdinak eragiten dituztela. Hitz batez, hizkuntzen prestigioa eta ahalmen adierazlea oso maila ezberdinetan dagozela.

BARRUAREN BARRUTIK

1)

Trumoia ortzi beltzean hoska
pertzean zortzi arbi egoska
gauaren barren bi erbi herren
lauaren hurrengo bosta.
Denok berdinak garela zuhaitz
beretik omen gatoz-ta
bihotzak ezetz diosta
nik ez ditzaket jaun hoiek maite
nahizta ifernua kostu.

2)

Washington eta Tokioraino
Madrilen harri Parisen laino
jaun eguzkiak izotz guztiak
ez ditu urtu oraino.
Suge emea lehenago dut
gauero hartuko maiteino
bihotz apurrik dudaino
nik dakizkidan biguinkumeak
maiteko ditudan baino.

3)

Ez zen haizerik ez ihizirik
basoak mortu, urak isilik
gizatza batek gizona jaten
basurdeak ikusi dik.
Ez ditut hoiek maiteko nahizta
bihotza zula ehun zirrik
akaso hilik, ez bizirik
maitatzekotan badut nor maite
harrietatik hasirik.

4)

Urez, lehorrez lau hegabera
hiru goserik bat egarbera
leizera jaurti zuten gizona
saitzarrek deman atera.
Oi, ene bihotz, ez hoiek maita
ez apurrik ez sobera
nahi ez badun bat batera
zatika oka hazadan bota
zakurrari mahainpera.

- | | |
|---|---|
| 5)
Maite dut sua maite izotza
iparra eta hostoen hotsa
dena maite dut, zer ez dut maite?
Baita sugearen hortza!
Baina gizaki, gizatar hori
pozoina duk hitaz lotsa!
Altzak altzari diotsa:
"Nola maitatu hura maitatuz
zoltzen duena bihotza". | 6)
Hontza zamaltzain ahuntza zamari
aker aitona putzari adi
kukuak soinu muskerrak dantza
ni haritz puntan kantari.
Hoiek nor diren, non bizi diren
hain daude hur, hain ugari!
Ez al diezu nabari?
Nor ez maitatu ez badakizu
Maitatzen ere ez ari. |
|---|---|

Poema honen motiboa ideia edo kontraideia bat da, hots, gizakien berdintasun esentziala (ez eskubidezkoa, jakina) iruzur zapaltzaila dela. Kidetasun biologikoak ez dauka zerikusirik kidetasun sozial eta sentimentalarekin. Natura kuestionatzeak ez dauka zentzurik. Den bezala behar du maitagarri izan. On dezakegu, oker dezakegu, baina ez menperatu. Auzia kontzientziaren mailan dago. Gizakien gorabeheran dagoen antagonismo nagusia gizakien artekoa da. Sozialki ez gara berdinak, ezta antzekoak ere. Gizakiaren benetako gaitza eta gaizkilea gizakia bera da. Ez dago ongi-gaizkien printzipio esternorik, egitura ongile-gaizkileak baizik, eta hauek oso gizaki zehatzez eta jakinez osatuak dira. Gizaki zapaltzaila maitatzen saiatzea, edo okerrago oraindik, maitasun hori gogoaren garapen gorentzat txalotzea, gizatasunaren aberrazioa da. Kontradikzio nagusia gizakien artekoa bada, sentimenduek ere araberakoak izan behar dute.

Pentsamena eta sentimena printzipio ezberdinak eta batzuetan kontrajarriak izan daitezkeelako teoria hori oso liluragarri gertatzen da, baina ni ez naute marro horretan harrapatuko. Ez diot batzuetan hala balitz lez jokatzera txarto dagoenik, artean eta literaturan bereziki, kontradikziotik eta hausturatik baitator interesa, baina zuzen eta objektiboki arrazoitzera jotzean, nahiago dut sen-

timena pentsamenaren forma bat dela suposatu. Edo alderantziz, berdin zait. Auzia da, deitzen zaiena deitzen zaiela, printzipio bakar bat izan daitezela. Gizarteko erlazio sare txit konplexu honetan, gizaki zapaltzaileen multzoa (batez ere jaun handiena) nahikoa bistakoa da. Pentsamenak horiei buruz damaigun posizioaz beste norabide batean sentimendua bideratu nahi izatea gizatasuna haustea da eta gizaki hautsia izaki menperatua da. Menperatua eta menperagarriagoa.

Sorta honen azpian ideia hauek guztiak zebiltzan eta, nahizta bertsotan ere, beste edozein generotan lez, trataera diskurtsiboren gaitzespena arbitrariotasun zilegietako bat besterik ez dela uste dudan, nahiago izan nuen naturako elementuz eta animaliaz osatutako kontrasteen eta efektuen bitartez garatzea neure sentiera pentsatua edo neure pentsaera sentitua.

NI TREBIÑOTAR

(De lamentatione Amuritzae Profetae).

1)

Gipuzkoako aldizkari bat
deitzen dena BERTSOLARI
ale aparta eman diona
oraingoan Bizkaiari.
Nitaz zer zion begiratzean
ez naiz inondik ageri
irakurleek ere faltarik
ez bide dute nabari
Judua ez naiz, Agota ez naiz,
Trebiniotarra al naiz ni?

2)

Noizbait ni ere deskuido-edo
hasi nintzen bertsogintzan
ikasia ta ez-berezkoa
nintzela erabaki zan.
Erudituek hori zioten
berezko sasi-jakintzan
bertsolaria eskolarako
kontra-jaioa bailitzan
mintzen ninduten baina ez mozten
Trebiniotarra bainintzan.

3)

Lehen txapela irabaztean
post-xalbadorismoaren
dekadentzia hasi nuela
zenbait bekaiztik zioen.
Hain minki mintzo ziren gaizoak
ezen ia zirudien
Pandora-kutxa pertsonalen bat
desgiltzatu ote nien.
Eurak barruan harrapaturik
lerde berdea zerien.

4)

Beste batzuek argiagoak
baita zitalago ere
maixatu zuten izan nintzela
zenbaitzu gairen jakile.
Pentsatzen nuen: "erremin hori
zerk eragin ote die?"
Lepoa jarri behar al nuen
txapel huts bat zela bide?
Arroztu nintzen Trebiniotarra ta
hantxe aurkitzen naiz libre.

5)

Hurrengo deman finalerdia
zela Idiazabalen
frontoian zehar kartzela-gaia
kantatzera banentorren.
Txalo izpi bat ez nuen jaso
guztiak hilda baileuden
gero besteei joak entzunez
barneki pentsatu nuen:
"Eutsi, Trebiño! Lagun bakarra
heure burua duk hemen".

6)

Gero bigarren finalerdia
jokatuko zen Durangon
han ere zenbait feministakin
ez nuen izan hainbat on.
Motibo zerbait sortu banien
ez dut ukatuko inon
baina halako giblekorik
ez didate sarri emon
Bokassarekin neu parekatu
nahiz urtetan preso egon.

7)

Anonimoak EGINera ta
anonimoak etxera
azken asteko burrunban ez zen
kalaka gozoa bera.
Ez dakit nola apaldu ziren
izenak ezkutatzera
berehalaxe jakin bainuen
galdetu gabe gainera
halako lagun finen animuz
heldu nintzen finalera.

8)

Halare, jantzi nuen txapela
bazen minen aski sari
"argitu behar ditiat —nion—
lau egi eta bost begi".
Hara non gero ez aldizkari
irradi ez egunkari
inork ez zidan hitz bat eskatu
hau ere nahiko marka, hi!
Trebiñotarren legena edo
biraoa ote da hori?

9)

Ondorengoan Euskaltzaindia
pentsatu zen lagatzea
bertsolariak hautatu zuten
batzorde eratzaillea.

Kartzela-gaitzat erabaki zen
jartzea esposa pare
hurren bileran batek gordinki
dantzatu zuen sablea:
"Hori da, jaunak, Amuritzari
txapela erregalatzea".

10)

Batek hots egin bestek men egin
ez zen beharko ezetzik
"Bandoa" joaz ez nuen egin
tokatzen ez zen ametsik.
Banakaren bat penatuko zen
beste guztiak zer pozik
ez soilik etsai politikoak
hizki berekoak baizik
"Eskerrak baden Trebiño ere!
Ez hago hain nora ezik".

11)

"Gizona ez da bakarrik ongi"
zioen Jainko poetak
Anje Duhalde tentatu nuen
eta ontzat hartu berak.
"Txoriak eta txoriburuak"
uxaturik edozenbat
noizbait "Hitzetik Hortzera"n ere
egin ziguten tarte bat
ez zen aukera muzingarria
Trebiñotar soil batentzat.

12)

Gero Zarauztar anonimo bat
EGUNKARIAn kexu zen
programa hura desjatortzera
nola eraman ginuzen.
Lasai, txikito! Uste al huen
betiko ote gentozen?
Jaso diagu hi flautajole
hautenen mezua, ezen:
"Ez eman horri kantxarik hemen!
Trebiño bego Burgosen".

13)
Bertsolaritza sateliteen
menpeko planetatxo
ez naiz berezko ez perretxiko
ez lehengoa ez gaurkoa.
Ez naiz ardia ta gutxiago
Ardi Batasunakoa
neure orbitan hegaturko naiz
neure galaxian noa
Trebñotarren aireak marka
estelarra baitaroa.

14)
Geroztik gero aldizkari bat,
BERTSOLARI du izena
ale berezi bat Bizkaiari
eskaintzeko egin zena.
Bertan ni falta izanagatik
osoa eta gizona
bertsolaritza moderno hori
asko jantzi duk, gizona!
Kultoeke ere gaur bazakitek
Trebñotarra naizena.

Bertso sorta honen motibo zuzena lehenengo bertsoan agertzen dena izan zen. BERTSOLARI aldizkariak Bizkaiko bertsolaritzaren ale berezi bat atera zuen. (BERTSOLARI. Bizkaia. Ale berezia. 1992. urteko Abendua, 8. zenbakia). Zuzendaritzak lanen egileak bizkaitarren artean bilatu zituen eta hauek niri proposatu zidan Lopategi eta Azpillagari buruzko ez dakit lan osoa ala zati bat buruztea. Nik, orain gogoan ez daukadan arrazoiren bategatik, ezetz erantzun nuen, segurrenik ale bereko erreportaia batean egile eta bestean protagonista agertzeari ez niolako iritziko. Egunak joan ahala, pentsatzen nuen: "Nor ete jakit niri buruzko artikulua egiten?". Pentsatzen nuen zena zelako egileak noizbait nigana jo beharko zuela, itaunen bat, eritziren bat, daturen bat jasotzera, baina inor ez zen agiri eta apur bat kezkatutik nentzen, ea zer erreportaia modu egin behar zuten, pertsonaiekin ezertarako kontatu barik. Azkenean delako alea iritsi zen eskura eta hango argazki, titular handi eta orri sorta luzeen artean, neure izenaren bila errezeloz niharduen, "zelako astakeriak ipini ete jaustezak hemen?" pentsatuz. Lehenengo pasadan, artenga samar edo, ez nuen ezer aurkitu eta horrek aztoratuago jarri ninduen. Bigarrenean orriak banan-banan pasatzen hasi nintzen eta Enbeitarrak, Lopategi eta Azpillaga, gazteak, eskolak, bertsolaritza uztea

erabaki zutenak... orriak amaitzera zihoazen, bihotza lokietan kolpatzen zen eta, eztanda sorpresibo baten bildurrean, azkenean okerrena eta gutxien ustekoa aurkitu nuen: hutsa. Nitaz ez zetorren ezer.

Bizkaiko bertsolaritzaren alean nire izenik ez aurkitzearen zaputza inori aitatzetik arretaz begiratuko banintzen ere, —ulertzen dut deskoidu bat izan zitekeela, gero, agian huts haren ordainez, ale monografiko bategaz zuzendu zutena, (BERTSOLARI. "Amuriza, bakarra". Ale berezia. 1994. urteko Abendua, 16. zenbakia), beraz, ez naiz kexatzen ari, ulertzeaz azpirago dagoen une bateko sentipen bat deklaritzen baino—, hura abiagune zela, bertsolaritzak nire gogoan utzitako zenbait gomuta mingarri bertsoan jartzeari eman nion. BERTSOLARI aldizkariko kasua gertatu ez balitz, honelako bertso sortarik ez nuen beharbada inoiz jarriko.

"Ni Trebiñotar" izenburua lehen bertsoak ondo esplikatzen du. Honi azpi-izenburu bat jarri nion: "De lamentatione Amuritzae profetae". Hau abadegaitan hainbeste aldiz eta zirrarez kantatutako "De lamentatione Jeremiae profetae" izenekoaren aipu literala da. Jeremias profetaren erosta luze eta hunkigarriak aste santuan kantatzen ziren eta bai testua, bai musika eta, oro har, erostak bideratzeko modu hura, atxikita geratu zitzaizkidan. Neure erostak kantatzea pentsatu nuen eta musika ere Jeremiasen erosta doinutik garatua da, gregorianoaren aire osoan.

OGI GOGORRARI HAGIN ZORROTZA

1)
Txikitatik entzun dut
ogi gogorrari
hagin zorrotza behar
zaiola ezarri.
Neurez ez bainenkien
lege horren barri
probatu nuen eta
bertso hauek jarri.

2)
Gabon gauetz ogia
bedeinkatzerako
kuzkurra gordetzen dut
hurren urterako.
Lizundu gabe hantxe
egongo da bapo
amorratu ez dadin
zakurrarendako.

3)
Behin erabaki nuen:
"Aizak hi, zakurra!
Aurten neuk jango diat
iazko kuzkurra.
Amorruari leuntzen
baziok muturra
neuretzat ere ez duk
izango makurra".

4)
Badaezpada aurretik
gutxitxo agian
ahoa lantzen ekin
nion harrobian.
Hortzak nituelarik
elkar jan zorian
harran sartzen ziren
baina ez ogian.

5)
"Gosea duk —zioten—
hortako bikaina"
Hala barautu nintzen
jakiteko aina.
Jango nuke Deabru
beltzaren mingaina
nire aurrera ez da
ausartuko baina.

6)
Ogiari amorruz
heldu diot noski
hortzak bertan gelditu
nonbait sartu gaizki.
Baina aitzaki hori
ez izaki aski
kuzkurra irentsi dut
hagin eta guzti.

7)

Atzamarra sartuta
eztulari tira
abo zabalik nago
hutsera begira.
Nola ekarri orain
lehen zeuden tokira
bide naturaletik
abitzen badira?

8)

Okin bat ikusirik
atez ate saltzen
eskua bota nion
otarrera zuzen.
Eritzi nion ogi
hain biguna ezen
kuzkurraren atzetik
zurrutean joan zen.

9)

Zer ote da gosea?
Grina ala mina?
Sabel-sugea ala
buruko sorgina?
Gogortasunik ez da
harentzako dina
hortzak irentsi arren
horzkari berdina.

10)

Elgoibarren harturik
gosearen tren
tximistan ibili naiz
esteak barrena.
Bakarrik behar diat
Epaile Gurena
ez hortz eta ez sari
amaitzea dena.

Bertso sorta hauxe da nik sariketetara bidalien artean lehen saria irabazi izanaren ohorea daukan bakarra. Besteek ("Agur sagar beltzeran", "Hilkutxan ere kantari", "Txoriak eta txoriburuak", "Gasolina madarikatua" eta ez dakit besterik) ez zuten hainbeste zorte izan. Ogi gogorrarena karanbolaz etorri zen. Elgoibarren, hango bertso eskola eta zenbait lagunekin, oso harreman atseginak izana nintzen eta, "Txoriak eta txoriburuak" sorta egina nuelarik, hango "Etxegina" sarira bidaltzea pentsatua neukan. Hara non, ordea, sariketako arauetan gai ezarria zetorren, izenburuko esaera, hain zuzen: "Ogi gogorrari hagin zorrotza". Asko duk, ba! Behin pentsatuko eta berean aldrebes. Gai ezarrian lanean hasteko asmorik ez neukan eta buruera hari joaten utzi nion, baina ez zen, antza, urrunegi joan

eta, norberak ez dakiela ere, buruak biraka baitihardu, gau batez umetako gabon-ogiaren ohitura etorri zitzaidan gogora. Gabon afarian, mahaia bedeinkatu aurretik, ogiari kuzkurra moztuko zion aitak eta hurrengo urteko Gabon afarira arte armairu zokoan gordeta egongo zen, aurreko urtekoa une hartantxe txakurrari eman-
go zitzaiola. Ogia ez zen lizuntzen —omen— eta hura jaten zuen txakurra "amorrua" izeneko gaitzetik libre geratuko zen. Jaten baldin bazuen, ez baitzen erraza animalia hartaz gutiziatzea. Urtebeteko ogi kuzkurra jango zuen txakurrak benetan "amorraturik" behar zuen gosez eta gabon inguruan txakurrarentzat ere beti dago sukalde inguruan gehigarriren bat harrapatzeko arriskua. Nire umetako arduretariko bat izaten zen txakurrak egun guztian ez zezala ezer jan, afaritan kuzkurrari gogoz hel ziezaion. Hala ere, ez zen lan erraza, nahizta dena jatea ez izan nahitaezko. Zati bat edo beste garbi irensten bazuen, kuzkur magikoaren dohaia osorik barneratzen zen. Ohitura honek pare bat bertsoaren forma berehalaxe ekarri zuen, buruak argumentu posible bat iradoki zidan eta ezin izan nion jarraitzeko tentazioari utzi. Abiatzen den pentsakizunak, burutu arte edo burua galdu arte, nekez emango du amore, aurrerako ez bada alborako. Halaxe sortu zen bertso sorta hau, non ogirik gogorre-naren bildurrik ez daukan goseak hamaika historia ezberdinetako batetik bizirik irtetea lortu zuen.

BADUT GAIA BADUT NAHIA

1)

Badut gaia, badut nahia
Baina ezin dut kanta
Ene musa espetxetik
Ihesi joan baita.
Bi urtetan nago preso
Zortzi oraindik falta
Urtebete da bertsoarik
Bat ez dudala bota
Asmamena agortu zait
Baba ustelak janta
Bertsolari batentzako
Etorkizun aparta.

2)

Hala ere nahi dut kanta
Nahi dut bete papera
Nahiz erraien barrenetik
Bortxaz hitzak atera.
Sentimendu klase denak
Biltzen zaizkit kolpera
Umorea ta tristura
Biak maiz ta sobera
Maitasuna sentitzen dut
Gorrotoaz batera
Guzti hauek kantatzeko
Doinurik ba ote da?

3)

Zenbait aldiz oroitzen naiz
Piarres topet Etxahunez
Destinoak jo zuena
Bere mailu astunez.
Preso lehenik eta gero
Munduz mundu erromes
Nahiz sarritan bere baitan
Egin bengantza promes
Egun hori ikusteko
Hil zen gaizoa azkenez
Gaur arteko euskaldunak
Oro hilak direnez.

4)

Hi, oi Etxahun, jaio hintzen
Eguneko oilarrak
Gaur guretzat jotzen ditik
Goizero zoritxarrak.
Emaizkiok Jainkoari
Hilobitik eskarrak
Ez baitituk ezagutu
Burgosko militarrek
Ai ahora baletozkek
Hitzen ordez txingarrak
Su emanda kiskaltzeko
Kasta horren hondarrak.

5)
Oi Burgosko militarrek
Sable zuriz jantzirik
Nahi bezanbat gizon hilda
Zeuek oindik bizirik.
Euskaldunen destinoa
Horra nondik zintzilik
Gure hilak hilobian
Betirako isilik
Gorrotoak inoiz badu
Arrazoi zilegirik
Zuek maite zaituztenak
Ez du bihotz izpirik.

6)
Oi militar mamutzarrak
Gaur zaudetenak gailen
Gu hiltzeko arma hoiek
Zeuek zaituzte hilen.
Indar pixkat inoiz hartzen
Badugu hil baino lehen
Ez dut zuen mendekua
Jainkoari utziren
Bildur bainaiz Hark guztia
Barkatuko dautzuen
Niregatik baldin bada
Zuenak egin zuen.

7)
Preso gaude gose greba
Bat gendula delitu
Hobe barau egin baino
Eurak jan bagenitu.
Egun hauek ez daitezke
Ordain gabe gelditu
Kartzelatik irtetean
Eta libre aurkitu
Bi promesa nahi nituzke
Hil aurretik kunplitu
Iraultzaile bat sortu ta
Bi militar garbitu.

8)
Bere anaien alde zeinek
Bizia ematen duen
Hura dela zion batek
Maite duena gehien.
Nik ordea maiteago
Duela dut esanen
Bere anaien etsaieri
Bizia dezanak ken
Nik ere hori egin banu
Beste ezer baino lehen
Gaur anaiak libre ziren
Ta ni ez preso hemen.

9)

Libre denak asma ere
 Ez dezake zer dian
 Loak hartu ezineko
 Gauak presondegian.
 Hala ere nahi dut iraun
 Zutik kemen haundian
 Nire izena lur hontatik
 Besterako aldian
 Bi lekutan geratzea
 Nahi nuke agerian
 Bertsoaren taulan eta
 Iraultzaren hobian.

10)

Bildur nauzu ez bertso ta
 Ez iraultza gel nadin
 Bi xedeok hain baitaude
 Nire indar apurren gain.
 Nahi nituzke hala dadin
 Ahal guztiak egin
 Inoiz lurra joko banu
 eta altxatu ezin
 Gaurtik, otoi, eskatzen dut
 Maite nauenak orain
 Egun triste hartan ere
 Maita nazala berdin.

Bertso hauen gogortasuna, beharbada gogorkeria eman dezakeena, beren-beregi bilatua izan zen, nahizta espetxean ahalegin handirik ez den behar, tonu batzuk aurkitzeko. Orduko preso gehienak handik pasatuak ginen Burgosko epaitegi militarra frankismoaren eta, orohar, militargo oren sinbolotzat hartzen da eta militargoa mundua menperatzen duen indar oren adierazle nagusitzat. Kasu honetan ez da sinboloa bakarrik, indarraren formarik gordinena baizik. Armak edo indarra bera ez dira ezer, ordea, giza eskurik tartean ez balitz. Armategiei ez diet gorrotorik, haiek programatzen eta baliarazten dituztenei baizik, eta hauek geure espeziekideak dira. Gorrotoa kontzeptu konbentzionaltzat hartzen dut, emozio mailan zer den ez dakidana eta, baneki, sentimendurik alperrekoena litzatekeena. Maitasun-gorrotoen antitesian, erlijioek eta humanismoek aldarrikatzen dituzten sublimazio zuriei eraso nahi nien. Hauek armak gorroto dituzte eta armadunak maite, sofistikatuenak izanik ere, makina huts besterik ez diren gorrotoak zentzunik baleuka lez. Jabeak eta erabiltzaileak dira maitasunaren edo gorrotoaren xede posible bakarrak. Nahiz-

ta kontzeptualki hala kontrajarri, ez daukat zail gorrotoak jan ez nazan, baina bihotzak libra benaza horiek maitatu beharretik. Badakit gizakiak direna (hainbat okerrago), badakit euren samurtasunak eta sentipenak dituztena (hainbat higuin garriago), baina, euren zapalkuntzatik eskapatzerik ez dagoenez gero, libra nadin behintzat maitasun bortxatuen larritasunetik. Hauek honela, nire maitasun zilegien esparrua asko txikitzen da. Buff! Hau lasaitasuna! Zortzigarren bertsoak, orduan oraindik hurbil neukan erreferentzia ebanjeliko agian aipatuena ointzat harturik, norabidea alderantzten du. “Bizia eman” eta “bizia kendu” maila metaforikoan hartzekoak izanik, literalki ere balio dezakete, munduan hain ugari eta arruntki gertatzen diren egoera extremotan. Egunero gosez edo bortxaz hiltzen den milaka gizakumeri gutxienez eraileak esleitu beharko zaizkio, ezta? Zientzian aspaldi ezeztatua den sortze-hiltze espontaneoaren teoriak sineskeran prebalentzia handiegia ez badauka oraindik. Beste kontu bat litzateke ekintzaren efikazia eta metodoa. Une jakin batean, matraileko bat hartzearen erantzun iraultzaileena beste matraile eskaintzea izan daiteke, zergatik ez. Poemak ez dira burruka-metodoak azaltzeko, sentimendu edo arrazoi batzuk astintzeko baizik. Hemendik ehun urtera (batere ardura ez didan futuri-blea) norbaitek kanta litzakeen bertsoon tonuan Espartakoren bat irudika lezake, azken ahapaldiari erreparatzen ez balio, non aurreko gotortasun zinezkoaren ostean singletasun penagarria ageri den.

1980ko txapelketan plazaratu nuen lehenengoz bertso hauentzat sortutako doinu eta neurri berria, “gizona ez da ogi hutsez bizi” bakar gaian. Berritasuna ez datza hainbeste sei punturen segidan, puntu bakotxaren neurri zortzi-zazpikoan baizik, bertsolaritzan gehien ezagutzen diren hamar-zortzikoaren eta zazpi-seikoaren bitartekoa. Lau puntuan “zortziko zaharra” deitu izan zaion neurri mota honek, bertsolaritzatik tamalez desagerurik, kanta batzuetan zirauen, “Adios, ene maitea”n esaterako.

Neure kautan sarri erabilia izan arren, plazan sekula probatzeke neukan neurri eta doinu hauxe ateratzea izan zen nire lehenengo txapelketako erronka nagusia, zorionez era triumfalean gainditu nuena.

ASTEBURU ALDERA

1)

Asteburu aldera
uso giro beti
uso giro beti
behin hor jarri natzaio
luma-jarein bati.
"Ez al naun ezagutzen?"
nik galde poliki
"Ez haut, ba, ezagutzen"
hark erantzun soilki
hurrengo zer galdetu
hitzak berak daki.

2)

"Aizan, hi, ez al huke
ni ezagutu nahi?
ni ezagutu nahi?"
Hura miru-begia
jarri didana, ai!
Ez dit erantzun baina
masailean jo bai
haseratik ezin, ba
dena gerta zelai
hemen behar dena da
ekin eta jarrai.

3)

Beraz, banoa berriz
zoko begirale
zoko begirale
"Ez haut, ba, ezagutzen"
bigarrenak ere.
"Nahi al naun ezagutu?"
nik segidan galde
ez du hitzik atera
bai muzinka alde
masaileko triste bat
ere eman gabe.

4)

Hirugarrenak baietz
—garaia zunan, hi!
—garaia zunan, hi!—
otarteko bat janez
ongi dela hori.
Nik orduan agudo:
"Aizu, tabernari!
Atera okelarik
ederreneko bi"
haragirik ez dadin
makalez erori.

5)

Gogoz ari da sartzen
hortzak emanala
hortzak emanala
hitzik ezin egina
gauza naturala.
Ni ere mauka-mauka
saiatzen naiz hala
gose hauxe besterik
ez banu bezala
zintzurak ere zerbait
eraman dezala.

6)

Amaitu du jatea
garbitu koipea
garbitu koipea
gero kafea eta
Winston paketea.
Zigarro bat erreta
beste baten kea
putz eginez esan dit:
"Adio, maitea!
Bapo joan zaidak hire
ezagupidea".

7)

"Aizan, hi, nora hora
txonta alaena?
txonta alaena?"
Laster ezkutatu zait
samaldan barrena.
Kontua eskatu ta
ordaindu hurrena
heuk ere jan duk eta
ez duk hutsa dena
oraindik ez duk galdu
gerta litekena.

8)

Hiru eta hiru sei
hiru bederatzi
hiru bederatzi
gauari aurreratzen
ezin galerazi.
Noizbait batek hor dio:
"Lehenean al haiz hi?"
Harritzen naiz ez dela
berriz hegan hasi
"Otarteko bero bat
nahi al dun lehenbizi?".

9)

Ez omen du goserik
eskertzeko denez
eskertzeko denez
zurito bat hartzen du
erdi gizalegez.
Hiztunegia ere
nola ez den berez
haize guztiak alde
al dauzkat azkenez?
Pixka batean jaitsi
musika mesedez!

10)

Haizeak eta urak
batera jotzean
batera jotzean
ertzak azkar gelditu
ohi dira atzean.
Denbora joan zaigu
tximist-orratzean
gauerdian bildu ta
jarein goizaldean
elkar ezagutzeko
tarterik gabeen.

11)

Hainbeste zorte izan
ez duen hamaika
ez duen hamaika
kalez kale badabil
oraindik jajaika.
Guk otarteko bana
eskatu ta aupa!
nik berriro okela
kideak lukainka
jana ezagupide
emankorra baita.

12)

Agur, Ilargi eta
egun on, Eguzki!
Egun on, Eguzki!
Pekatu baldin bazen
ez zen hain garesti.
Konfesatu beharrik
ez ez da, noski
aurretik izan baitut
penitentzi aski
zeruan sartuko naiz
hartzeko ta guzti.

Bertso sorta hauxe izango zen sariketa batera bidaltzen nuen azkena. Ez zuen aipamenik ere lortu. "Xenpelar Saria" bezalako lehia honest baterako laxoegi eritziko zioten, Euskaltzaindiaren "ekin eta jarrai" lema profanaturik ikusi ez bazuten. Geroago, diskoan zabaldu zenean, bertso eskola bateko arduradun emakumezko batek esan zidan sorta hau euren himnotzat hartua zeukatela. Abentura baten bilakaeran, komunikazio, elkar-ezagutze eta horrelako kontzeptu sublimeak ironizatzen dira, gehienez helburu ukigarriagoen sarbide besterik ez direnak. Ekile baikorrak hamar porrot, belarrondoko eta guzti, ontzat hartuko ditu, hamaikagarrena parean jotzeagatik. Batzuegan porrot baten bildurra ebazgarriago da hamar arrakastaren atsegin posiblea baino. Asteburu honetako morroiak azkenean burutze triumfala lortzen du. Hortxe dago, antza, alderdi barkagaitza. Porroten zerrendan amaitu balitz, abentura sanoa, kirolgarria izango zen. Euskal umorea. Hemen arrakasta irain bat da. "Elkar ezagutzeko tarterik gabea". "Segi dezagun probatzen, —pentsa daiteke— ezagutzak merezi duen ikusi arte". Ideia honek beste ahapaldi bat bete zezakeen, baina zertarako? Esan barik ulertzen dena hobeto dago ezkutuan.

Bertso hauetan mutil baten jokaera eta psikologia islatzen dira. Gizonezkoa izanik, nik ere mutilen ariera hobeto ezagutzen dut eta hortixe jo nuen, baina sarritan pentsatu izan dut nolakoa litzatekeen protagonista emakumezko baten kondaira, ibilerako aurrelari bera dela. Ez da, noski, ezinezko hori ere gizonezkoak egitea, baina nahiago nuke kontalari emakumezko baten bertsioa. Gaur zorionez badira maila handiko emakume bertsolariak eta ikustekoa litzateke honelako asteburu femenino bat, neska batek konstatua, konparantzak egiteko baino ez bada ere.

SAN FERMIN BEZPERIE

1)

Gerriko miñek neko
kodayñe bat eiñe
San Fermiñek euko al deu
bere osakiñe!
Zezen baten eurrien
ariñen ariñe
bixijje parkatzen bost
emongo'tset miñe
bijjek baleroastaz
ondo ixen, Iruñe.

2)

San Fermin bezperie
argittu ezpaleu
biherbada neittiken
adarretik salbeu.
Zapalkeran narrue
lerrazoten badeu
hain'dde jole zorrotza
zezen gorrimiñeu
barrutik paseu eta
osorik ixte'neu.

3)

Konortie galtzien
trankilddu zen dana
ha zan illun nasaijje
zabaldu jjatana!
Baia enitzen, antza,
urriñei joana
barriz seneratzie
zer ixen zoan ha?
Bertan geratu eta
eindde egoana!

4)

Itxarkeran barriro
zer zan naibagie!
"Zenbat denpora ixen da?"
lelengo galdie.
Luze-laburrek holan
bardintzen badie
ointxe jakinddot zer dan
eternidadie
poztu, lagun tristiok
hillezkor zarie.

5)

Andrien eziñe ta
amen aienie
katue negarrez da
diharka umie.
Banekusen etxeko
larijjen unie
baia ezin bentzidu
penien penie
goixaldeko orduen
krudel solemnie.

6)

Begijjek alde guran
dabiz alareuke
mingarrijjao ezpalitz
barre eingo neuke.
Luze ta zurrun natza
hagiñek kurtzeute
ointxe nao forman eta
ekarri ateute
biherbada horrexek
mogiduko neu-te.

7)

Zezenak adar punten
eroien gixona
zelan da nundi ziherr
itxartu naz hona?
Troka bat edei jjaten
eza deritxona
larrittasunaz beste
ertzik ezekona
bixijjeri joateko
eskatzen neutsona.

8)

Etxoien da bi'neuen
zozeri heltzie
ohadarrak iñosten:
"Haux'ozu etxie".
Ai gerrijjoni hune
hustu baleutsie!
Ezan halan be ixengo
aukera dultzie
bixijje joan eta
miñe geratzie.

9)

Badatoz DYAkoak
ganien dekotaz
anda doble bategaz
azpire jjatortaz.
Ai gorrijjenak ointxe
ikusi biotaz!
Gaba uxatuko da
neure aienokaz
emon tiro bat eta
trankillao joango naz.

10)

Galdakaora bidien
luzien luzie
leue zuloa zan da
zuloa lezie.
Kosta jjat ekartie
neugaz arnasia
sentsaziño gogorren
faltan bazaozie
ixerren bigijjetan
ha zan geupasia!

11)

Geratu zen bixijje
biztu zen berbie
miñe joan zan baia
ez haren goardie.
Billurre hortxe dago
azpijjen gordie
beti susmo txargiñen:
"Takadok zer die?"
Bertsook kantetie
hau da subertie!

12)

Askok esango'zue:
"Baia, txo, zer diñok?
Hori baiño larrijjao
sarra ibilli nok!".
Sortatxueu hain zuzen
zeuekattik ein'ddot
neuk bakarrik sufridu
ixen baneuz miñok
zetako ezer konteu
ez aittzeko iñok?

1997 zela uste dut. EGIN egunkariak Andoni Egañari eta bioi astean behin bertsozko zutabe bat osatzea proposatu zigun, geuk nahi genuen edo bestela eurek jarriko ziguten gai bati buruz. Bakotxak hiru-launa bertso bidaliko genituen, biok gai berari buruz. Azkenean planak aurrera egin ez bazuen ere, ni abiatua nintzen lanean, neure "Semaforo Gorria"ren ordeztu. San Fermin astea zen eta gaia horixe izango zen. San Fermin bezperan gerriko zartada bortitza batek emanda, Galdakaoko Ospitalean hamar egun egin nituen. Nire lanak bazuen orain adarkada paralelo bat, gaiarekin oso bat eta berri etor zitekeena. Lau bat bertso hamarreko txikian.

Gero, EGINeko plana gauzatu ez zenean, sorta luzeago bat osatzeko bidea ikusi nuen. Ospitalean banuen astia, baita esperientzia berri-berria ere, kondaira egitasun osoz garatzeko, baina nola selekzionatu hainbeste xehetasun eta pasadizo, dozena bat bertso izanda ere, laburpen zorrotzegia gertatuko baitzen? Erronkarik zailenari heldu nion. Utz kanpo-kondaira eta har mina bera gaitzat. Min fisiko estremo eta honek eragiten duen larritasun hilgarria. Barne sentipen ikuskaitz hauxe izango zen eduki nagusia, bizi berri nuen eta oraindik bizitzen ari nintzen esperientziatik hara-harakoa. Orduan batetik kontakizuna sinpletu egiten zen. Kondairaren kanpo-elementu ugarietatik, helburu nagusiari ondo zetozkionak bakarrik apartatu behar ziren, mina eta larritasuna nabarmentzeko balio zuten heinean. Honek arazo handi bat konpontzen zuen, xehetasunen aniztasun handiegitik libratzen baininduen. Baina bestetik, mina eta larritasuna hain bizipen barnekoak eta norbereak izanik, nola "ikusarazi" behar bezalako indarrez eta sinesgarritasunez? Pentsatzen nuen: "Barrutik bizitzen ari naizen esperientzia hauxe nolabait kanporatzea lortzen badut, helburua bete da dagoke". Eta denbora gutxi egin nuen pentsaketan.

EGIN planerako lanean hasi nintzen, neure euskalkia sarri samar erabiltzea pentsatua neukan eta bertso hauek, euskalkiaz azpirago, neure jaiotetxeko berbakera literalean egiten hasi nintzen. Baneukan gogo, noizbait neure etxe-etxeko, neure lehen-

lehenengo euskaran bertso batzuk ontzeko. Bat batean bizkaiera eta beronen azpi-euskalki nagusiak betidanik nerabiltzan, baita inoiz oso euskara lokalak ere, baina bertso jarrietan, bizkaiera batuantz jo nuen beti, bidezko denez. "Noz eingo jjoat zozer neure etxe-euskeran, neure ezkatzeko eta neure eleixaldeko berbetan?". Bertsotan beti ere etxeko hizkuntza baino jasoagoa eta orokorragoa egin behar izaten da, baina edonon bere euskalki barruan eta bere etxe-hizkuntzatik oso hurreko euskaran jarduteko zortea daukanak ez daki zer den norbere ohiko berbakeratik hain urrun, ia arrotz, dagozen erduetan kantatu beharra, ez eta distantzia hauek ematen duten gaintasuna ere. Ezin dut, beraz, zorte txarra denik esan, edozerk baitauzka bere alde emankorrek, topatzen asmatuz gero, baina eguneko ibilerari oso beste tentsio bat eransten dio norbere berbakeratik etenda ibili beharrak, etxetik abiatzetik atzera bertara itzuli arte.

"San Fermin bezperie" sortan geure etxean egiten zen modu-moduan kantatzen dut. Horrela, gaiaren izate hain pertsonalari (minari eta beronen larritasunari) guztiz bat datorkion hizkera aurkitu nuen neure etxe-hizkuntzan. Horrek ez du esan nahi beste hizkera mota batean berdin edo berdintsu adierazgarri izan ez zitekeenik, baina kasu honetan gaiak eta hizkuntzak nire gogoaren gunerik barrukoenean bat egin zuten. Adierazpidean ere, ñabardura soil ez harago doazen diferentziak ateratzen dira, batez ere erriman.

Ez da, noski, sistematikoki bindikatzen hasteko erdua, baina noizean behin atsegin pertsonala lehenestea zilegi bada, bertso hauek xede hori gainez bete zuten. Norbere gustoko sorta bat jarritakoan, nire kasuan behintzat, bertso horiek bolada batean hantxe ibiltzen dira buruan, noiznahi kantatzearen (mentalki behintzat) gozamen isilean. Gero garra berez-berez amatatzen da, gauza berriek hartzen baitute burua, bertsoak ahazteraino. "San Fermin bezperie" honek oso luze iraun zuen nire gogoaren agirian. Ia egunero bertso hauek kantatuz lokartzen nintzen, azkenean lokartzeko metodo bat bilakatzeraino. Gaiaren beraren gomuta ere ez

zen behingoan galtzekoa, baina uste dut gehiago zela hizkeragatik eta gaia tratatzeko moduagatik. Denborarekin bertsook guztiz ahaztuak ditudanean (batzuetan haserarik ere ezin gogoratu), nahikoa izaten dut behin irakurtzea, dena berriro azatzean etor dadin. Egun batzuetan hor ibiliko dira berriro buruko marisorgin, batez ere oherakoan, atzera berez-berez aldendu arte. Zerbaitek bueltan etortzeari uzten dionean, zati bat hil zaizu, baina nola konturatu zein izan den, bueltan ez badator? Bizia kapitulu hiletatik eskapatze bat dela esan genezake, onenean dohatsua, txarrean oharkabea eta bitartean zelebrea, kasualitate orokor baten barruan.

A M A

1)

Maitatua sobera
nintzalarik haurra
ez nenkien nik zer zen
amaren beharra.
Bortu batean orain
naiz bakar-bakarra
amaz oroit orduko
heldu zait negarra.

2)

Ene seme joana
hain umea berez
bortu bakartietan
lurjoa nahigabez.
Ibili haizenean
ongi eta airez
oroitu al haiz amaz
bera hitaz legez?

3)

Handitu nintzen eta
ustez egin nausi
"noan etxetik" nion
"mundua ikusi".
Ninduzularik sortu
eta gero hazi
uste nuen zu gabe
nintekela bizi.

4)

Itsas ertza apartsu
mendi gaina laino
nola ez haiz ohartu
gaitzak jo artino?
Bizia zer duk, bada
heriotzaraino
jaiotzaren hedapen
etengaitza baino?

5)

Bakartateak nauka
jaurtia gainbehera
ustez zerbait nintzena
ausarta gainera.
Lotsa nauzu itzultzen
aitor dut minbera
zure altzora edo
berriz sabelera.

6)

Ez duk, seme, itzuli
berrarik horrela
berdin elkar gintezkek
urruti gaudela.
Maite itzak itsaso
eta lur umela
hori besterik ez duk
amaren sabela.

7)

Itsasoa sabela
bularra mendia
ohartua naiz, ama
hain da ageria.
Baina itzuli nahi dut
diotsut egia
ikusi behar baitut
zure aurpegia.

8)

Hire gau-egunetan
lo-ametsak barne
nahitaez izango haiz
haizenaren ume.
Eguzki bizigarri
zein Ilargi eme
amaren aurpegiak
hoiek dituk, seme.

9)

Itzarrik edo lotan
ez baitakit, ama
neurez ez bada ere
zerbaitek narama.
Oharkabez nintzena
zugandik joana
ohartzuz nahi dut orain
itzuli zugana.

10)

Hator, mutil, etxera
uztera negarra
amak samurtuko dik
itzuli beharra.
Zila diagu eten
ziguten bakarra
beste dena osorik:
Ez al duk edarra?

Bertso hauen jatorria zeberiotar Anton Artiñano mediku lagun baten eskaria izan zen, geroago bere etxearen konpon lanetan zoritxarreko istripu batean hila bera. Medikuntzako proiektu berri bat abiaraztera zihoazen, orain zertan zetzan zehatz gogoratzen ez dudana, baina sendabide naturalaren esparruko zeozer zen, taldeko jardunean oinarrituko zena. Behintzat Arratiako Areatzako komentua hartua zeukaten, non hamabostaldia edo barnealdi luzeagoak antolatuko zituzten, ez gaixoentzat bakarrik, osasungintza ofizialaz haragoko arduratzen zen edonorentzat baizik. Erakundearen himno gisa, kanta bat-edo gura ei zuten eta ideia ere berak iradoki zidan. Naturaren eta elementu naturalen kontzientzia berreskuratu behar zen eta hori naturaren sinbolorik handienaren bitartez egin zitekeen,

"amaren" iruditik alegia. Amagandik urrundutako umearen nahigabeak naturatik saihesten den gizakiaren galbidea irudikatzen du. Horrelako eta antzeko ideiak eskainiz, Iparraldeko kanta baten lehen ahapaldia aipatu zuen, zirrara aparta egin ei ziona. "Horrelakoxe zeozer gura neukek, gure erakundearen izpiritu eta natur-kontzien-tziagaz bat letorkeena". Laster erabaki nuen bertso sortaren abiakera kanta zaharraren ahapaldia bera izan zedin. Hortik aurrera, amasemeen elkarrizketa lez garatuko zen gaia, lagunak adierazi zizkidan ideiak eta sentimenduak sartzen ahaleginduz.

Bertso hauek kantatzean, sentipen nahasi samar bat sortzen zait beti. Ama-seme egiazkoak pertsonaia alegoriko bihurtuz doazela, beharbada lerrakuntza ez dago ondo lortua, beharbada bi mailak ez dira nahastean erodatekoak, edo beharbada sortaren motiboa eta egokitzea zelan izan zen badakidalako ematen dit inpresio hori. Enkarguzko lanetan behin baino gehiagotan gertatu zait zalantza hau, emanda datorren edukia (inoiz forma baten iradokizuna ere bai, kasu honetan lez) norbere konposaketa orijinal bat bailitzan antolatu behar baita. Bertso hauen gaia eta helburu apur bat bindikatzailea neure kautatik atera banu, segurrenik ez nintzen amasemeen figuretan euskarrituko. Enkarguzko bertsoetan, norbera gaiarekin guztiz identifikaturik ere, (baita ez identifikaturik ere, itxura ona egitea artea baita), eduki-formen oreka naturala lortzea zailagoa da. Gaia umorezkoa edo kontakizunezkoa denean, bertsolaritza klasikoko kasurik gehienetan lez, ez da problema handirik sortzen, neuk ere hamaika aldiz probatua dudan lez, "Laurehun herri, mila bertso berri" liburuan jasotzen direnetan, esaterako. Oso beste kontu bat da gaia ideia bat denean edo zelanbaiteko poema tematikoa edo sentimentala osatu behar denean. "Bizkaiko txerriaren" enkargua hartu zuenak historia osoa jaso zuen, segurrenik bertso sortan agertzen diren baino elementu eta xehetasun askoz gehiagorekin. Jasotako historia bat dotore kontatzea besterik ez zeukan.

Demagun, oster, norbaitek diotsula: "Nik bikote-maitasunaren hauskortasuna kantatu nahi dut". Orduan historia osoa zeuk

asmatu behar duzu. Eta eransten dizu: "Maitasun-ereduak ere ezarpen sozialak dira, jantzi-ereduak bezalatsu". Helburu persuasibo honek poemaren garapena asko zailtzen du. "Maitasunaren haus-kortasuna" nahiko erraza litzateke. Bide horretan tradizio ugari dago eta gaiak ez du jarrera ideologikorik eskatzen. "Bikote-maitasunak", eremua asko mugatuaz gainera, argi dago intentzio bat daroala, gizartean indarrean dagoen onikuspenaz beste norabide batean. Horrez gainera, "maitasun-ereduak ezarpen sozialak..." direlako ideiatik jo behar bada, poema asko konplikatzeko da, askoz gehiago sortzera behartzen baitu, konbintzentea edo gozagarria izango bada. (Poema txar bat egiteko ez da ezer behar). Enkarguzko lanetan, honelakoxe kinkak gertatu ohi dira eta auzia ez da hainbeste norberak zenbat sentitzen edo sinesten duen, artea sentitzen ez dena ere sentitua bailitzan adieraztea baita. Auzia da emanda datozen ideia eta helburuekin, historia edo ideien segida natural bat asmatu behar dela. Ama-semeon elkarrizketan, bertsoak banan onak eta indartsuak iruditzen zaizkit, baina konposizioaren osotasunaz ez nago hain ziur. Beharbada entzulerik zorrotzenak ere kezka hauetarako motiborik ez luke somatuko eta horixe litzateke behinena, baina subjektuaren konbikzioak ere badu bere garrantzia, nahizta beti ez izan objektiboki zuzena.

AMA, ZERTARAKO DUT NIK

1)

Ama! Zertarako duk nik
euskara zahar hori
euskara zahar hori.
Ikasten hor ari naiz
urte bat edo bi
Oi, ai! Beste bi urtetan
utziko nau grogi.
utziko nau grogi.

2)

Seme! Euskaldun batentzat
hoiek dituk hitzak!
Hoiek dituk hitzak!
Ate-leiho guztiak
ixten hor zebiltzak
Oi, ai! Etxeko arima
ere orain hil zak.
ere orain hil zak.

3)

Ama! Zertarako dut nik
hainbeste ahalegin?
Hainbeste ahalegin?
Zertarako jarraitu
tortura honekin
Oi, ai! Gero ez badago
nor nori hitzegin.
Nor nori hitzegin.

4)

Seme! Nor nori hitzegin
asto pentsalari!
Asto pentsalari!
Besterik ezin bada
heure itzalari
Oi, ai! Hori dukan arte
harro ibil hadi
harro ibil hadi.

5)

Ama! Ez dakitenentzat
euskara politen
euskara politen.
Badakitenek berriz
ez dute egiten
Oi, ai! Zertan nabil aditz
galduoi ekiten
galduoi ekiten.

6)

Seme! Kaskoa jo al dik
eguzki beroak?
Eguzki beroak?
Euskarak oraindio
bazauzkak hegoak
Oi, ai! Korritzeko mundu
Amai gabekoak
Amai gabekoak

Ibilaldia Getxon zela uste dut, Fadura inguruan. Kepa Junkera trikitiarekin eta Joan Luis Beltran dultzainarekin lagun hartuta, han agertu ginen zirkuitoko zelai eta arboladietan, kantari, koplari eta dantza eragile. Tarteka kantatzeko, bertso hauek egin nituen, egunari zegozkionak. Kanpo libreari eta aipatu musika tresnen indarrari ondo zetorkion doinu bat hautatzen ahalegindu nintzen, errepikak ere entzuleek parte hartzeko modukoak zeuzkana. Aurrez horixe pentsatu nuen eta ez nintzen erratu, korru handietan batzen zen jendeak ahoa betean kantatzen baitzuen. Bat-bateko koplak eta bertsoak eskeintzen genituenean, berriz, isiltasun eta arreta osoan entzuten zuten. Bizitzan gertatu zaidan egunik apotesikoenetakoa izan zen hura.

Kanta ospetsu batetik abiatu, bere moldean egindako bertsook ez dira gehiegi pentsatuak, baina hor dagoz, okasio baterako erizpide funtzionalez eginak, gero beste antzeko okasioetan ere kantatu nituenak, eta balio izan zuten. Banuen piladun bozgorailu bat, nahikoa soinu ona eta indartsua igortzen zuena eta gehienetan arbolapean kokatuko ginen, aparatua besanga batetik dingiliz, hobeto entzun zedin. Junkera eta Beltran distantzia batera jarri, ni hari luzeko mikrofono bategaz radio handian ibiliko nintzen. Gune batzuetan bozgorailua zoruan zela ere ekingo genion, korrua buelta guztian baturik. Jende asko samar inguratzen bazen, atzekoek ez zuten ondoegi entzuten eta boluntario batek erdian trepetxua gora jasoko zuen, entzuleen txaloz harroturik. Zein erraza den eszena aldi berean idilikoak eta epikoak sortzea, bat-batekotasuna, musika-tresna batzuk eta natura elkartuz gero!

Ez daukat ahazteko emakume baten aurpegia, ezustek dirdiratu, zer ote zen korruan aurrera sartu eta nirekin topo egin zuenean. Etxanokoa zen, neure eskolan ibilia, urte batzuk gazteagoa, neure abadegaitasun araututik aspertzeke begiratu, abade eginda herritik alde nuenetik ikusi gabea. Bitartean urte piloa igarora zen.

—Zu be hemen? —hots egin nion tarte batean.

—Ezetu nozu ala? —harritu zen.

—Ezetuko ez zaittut, ba, zeure nobijjo ixetie zer ixen zeittiken pentsetan egoten nitzen-da!

Bere sasoian apurtzaile izan daitekeen deklarazioak denbora joanaren talaiatik eta egitasunik ezaren zabaletik poz eman ohi du beti, norabide bietan nik uste. Deklaratzailearen sentimenduak irribarre egizko baten igurtzia hartzen du eta deklaratu estimu biderkatuen balaku retroaktiboan gozatzen da. Kopla batzuk kantatu nizkion, geure antxinako denborak gogoratuz, jendeak txalotu gintuen eta samurtasun bisionatu bat geratu zitzaidan, nahi dudanean xehetasun osoz bistaritzen dena.

IZARRAIZKO DEMANDA

1)

Izarraizko mendiko
aizearen fiña
aizearen fiña
aitzez eta izarrez
sortzetik egiña.
Sortu zaigun kasuak
eman digu miña
aitzen biotza ere
zulatzeko diña
eroriak geundeke
izarrak bagiña.

2)

Ogeita amazazpi
fameli batera
fameli batera
zer burla egin zaigun
kontuak atera.
Geure lurretan ere
iñor ezpagera
laster sartuko dira
baita sukaldera
umillatu gaituzte
burutikan bera.

3)

Pala aundi bat ara
baso bidegintzan
baso bidegintzan
konkistara datorren
tankearen gisan.
Ez baimenik eskatu
ez itz erdi esan
alto emanda ere
arentzat berdin zan
abuso latzagorik
etziteken izan.

4)

Etxegille bat bada
altuko txoria
altuko txoria
izena ere dauka
Altuna Uria.
Oraingoan Izarraitz
hurrena Urbia
deskuidatzen bazera
zerura zubia
an ere pistaren bat
egingo zun ia.

5)

Gero jakin genduan
Izarraitzen nola
Izarraitzen nola
etxe bat egiteko
asmoa zegola.
Ez uste orren kontra
gaudenik iñola
baiña gure gaiñetik
pasatzea ola
zeiñi ez dio orrek
sutuko odola?

6)

Berreun milla pezeta
bost milla bakoitzak
bost mila bakoitzak
besterik ez genien
eskatu ordaintzat.
Ez ziguten orixe
ere artu aintzat
errespeto geiago
badu zapelaitzak
desonratu dituzte
Izarraizko aitzak.

7)

Nola kasorik iñork
egiten etzigun
egiten etzigun
goardian egon giñan
amazazpi egun.
Furgoneta zar baten
ilargia lagun
gaua ere txandaka
an pasako gendun
ez dakigu zertako
loa galdu degun.

8)

Nola aiek bidea
zuten derrigorra
zuten derrigorra
ortikan arrapatu
genien zilborra.
Pare bat milloi geio
kosta zaie obra
berriz ere norbaitek
izango dik zorra
lotsatik gutxi eta
tunantetik sobra.

9)

Komentzi tokia
ez baita mendia
ez baita mendia
beste bidea etzan
krabelindegia.
Traktorakin aitzetan
ura komeria
izan ez zuanean
kriston aberia
pozik egon liteke
gure azeria.

10)

Gau batez izan gendun
deskuido bakarra
deskuido bakarra
goardia egitera
uts egin beharra.
Norbaitek egin zuan
oso lan azkarra
preso eramane gure
furgoneta zarra
ura egin zuana
ezta lapur txarra.

11)

Billatzen hasi eta
ura panorama
ura panorama
zezenplazan zeguan
grubak eramana.
Disponitu zuanak
izango du ama
baiña egun artantxe
galdu zion fama
ura ezta gizonak
egiteko lana.

12)

Agoazillak izandu
ziran eramale
ziran eramale
ez, ordea, norbaitek
ordena eman gabe.
Alkate-urrengua
izanikan ere
orra gure Bastida
bastoiaren jabe
jauntxo bat zer dan ondo
jabetu gerade.

13)
Aprobetxaturikan
gure deskuidua
gure deskuidua
eztena sartu zigun
maleziz bildua.
Ezingo degu esan:
"I aiz bandidua!"
Baiña ortako eman
digu motibua
ederki luzitu du
bere partidua.

14)
Aurretikan Altuna
atzetik Bastida
atzetik Bastida
gerra ekarri dute
Izarraitz azpira.
Ogeita amazazpi
sozio guztira
orrela zapaltzea
gaur ere gaizki da
Francoren denborako
kontuak eztira.

15)
Norbait bada gezurrak
dirala usterik
dirala usterik
geu ere ia gaude
ezin siñisturik.
Baiña eztegu esan
egia besterik
Azpeitian holako
azio tristerik
ez genduke desio
berriz ikusterik.

Orain arte bertso sorta izengabea zen honi iritsi zaio jabetasun agiriaren ordua. Enkargatu zidatenak beude lasai, abadetzatik ondo ikasita bainago sekretuak gordetzen, konfesiokoak eta gainerakoak. Bertso hauek jenerorik klasikoenaren marka daramate. Dei bat hartzen dut, lan konfidentzial bat iradokitzen zait, hitzordua autopistako kafetegi batean jartzen dugu, biltzen gara, historia bat kon-

tatzen dute, hartaz bertso-paper bat jartzea proposatzen didate, baietz darantzut, lana amaitutakoan deitzekotan geratzen naiz, hamabost egunen buruan berriz biltzen gara, bertsoak kantatzen dizkiet, gustatzen zaizkie eta hurrengo astean Azpeiti alde bertso-paperez josita agertzen da. Ortografia kontserbadorea apropos darabilt, aire antigoalagoa emateko, baita apur bat despistatzeko ere, norbaitek usaina hartuko zion baina. Inoiz puntadaren bat jasotzen banuen, ezezko biribilean moztuko nuen jarraipena. Urteak joanik, lanaren izengabetasunak pena ematen zidan eta deklaraztea pentsatu dut.

Historiaren osagaiak bertsoetan argi dagoz. Egun batez, Izarraitzen gora, makina pistagile horietako bat lanean hasten da, lurjabeei ez baimenik eskatu ez inolako azalpenik eman gabe. Hortik aurrerakoa gero eta liskar gordinagorantz doa. Bertsoen tonua jauntxokeria nabarmen baten araberkoa izan zedin saiatu nintzen, ahokada neurrigabeetan erori gabe. Badago ahapaldi bat, hamai-kagarrena, eztabaidagarri izan daitekeena:

Disponitu zuanak
 izango du ama
 baiña egun artantxe
 galdu zion fama
 ura ezta gizonak
 egiteko lana.

Ohartzen nintzen amaren aipua delikatua izan zitekeela hain kontestu petralean, baina halaxe uztea erabaki nuen, hitzak euren gogorrean ustez ondo neurturik. Izan ere, amaren erreferentzia gizon baten azio txar bat nabarmentzeko baliabide gisan dago, inola ere ez amari delako fama ezartzeko. Adierazten du gizonaren gaiztakeria hain dela handia ezen ez diola erreparatzen bere amaren izenari egin diezaiokeen kalteari ere, jendeak semeagatik esango duela suposatzen den hitzari motiboa emanaz. Hala ere,

hitz ezabatuak zergatik izan behar du suposatzen den horixe? Ez al da egia sarritan semearen fama txarra amaren lotsaririk handiena dela? Gezurra al da seme-alaben izenak gurasoena (eta aldearantziz) afektatzen duela? Gure kulturaren, mundu guztikoan segurarenik, arrazoi tipikoa da norbait okerretik zuzenarazteko erabili ohi den abertentzia: "Zeugatik ez bada, egizu zeure amagatik". Edo aitagatik, edo umeengatik, edo sendiagatik. Bertsoak ez du zehazten zertan "galdu zion fama", baina delako hitz iraingarria ulertuta ere, semearentzat da zipoa, bere azioaz gainera, ama errugabea biktima bihurtzetik begiratzen ez delako. Baliabide literario bat zerbait indartzeko jarri den hartarako ulertu behar da, ez karga kultural handi batek (topikoegia bestalde) daukan kontzeptu baten aitazkian fardeletik libratzeko. Ulertzen dut amaren aipua inpioa iruditzea zenbait iruditan, baina garrantzi faltsurik ez emateko arrazoiak gehiago direlakoan nago.

URTAROAK

1)
Udaberri, udaberri
zoroak ere igerri.
Zuhaitzak hostotu eta
odolak gorantz igorri
gorago ikusten dira
Gorbeia eta Aizkorri.

2)
Uda gori uda gori
eltxoak ere erori.
Zein labetan errea da
eguzki biribil hori
izerditan dariona
Lekanda ta Anbotori?

3)
Udazkena udazkena
kolore aberatsena.
Orbelak ihesi eta
urak bueltan datozena
hego-haizeak darabil
nire maiteen izena.

4)
Negu beltza negu beltza
haserre da leiho ertza.
Elurrez eta txingorrez
hain beltza ere ez pentsa
zuritasun lokartuan
txano gorridun ametsa.

Lau urtaroen poematxo hau kanta baterako abiatu zelakoan nago, ez dakit neure kautatik ala baten batek eskaturik. Ez dut uste helburura iritsi zenik. Hor zegoen karpeta zaharrean ezkutatua eta, bazenik ere ahaztuta egoteko beste urte igaro ondoren, gustatu egin zait. Errepiketik eta natur elementuek ezartzen duten estetika zaharraren gainean, koplartzari ez dagozkion irudiak eta arrazoiak era xarmagarrian nahasten zirela eman dit. Naturaren gainean zerbait naturala iradokitzen den guztiak dauka indarra, nahizta batzuetan adjetibo egoki bat aurkitzen astebete igaro. Gero izena aldatzea otu bazaizu, jo itzazu beste hirulau egun adjetibo berria aurkitzen, "zuritasun lokartuan" gertatu zaidan lez, zeren hori bai. Kostata aurkitu duzun adjetibo ustez doi bati ez zaitez eusten ahalegindu, aldatzea pentsatu duzun izenari egokitu guran, eta gutxiago biak utzi, lehengoa eta berria, gehi beste bat bada-

ezpada, baten batek parean jo dezan asmorik zintzoenez. Batek faltarik ez egitea nahikoa da, beste guztiak sobratzeko.

IZUGARRIA

1)

Izugarri bat, izugarri bi
izugarrien segida
zenbat izugarri dira?
Gure etxean bart gertatua
izugarri ta erdi da.
Mahai ta ate saltatu dute
teilaturik ilargira
ni ohapetik begira
jango nituen izar guztiak
balkoira jaitsi balira.

2)

Erloju zaharrak hormatik jo du
zentsunaren akabera
buztan galduen karrera
arima hilen itzal biziak
biluzik zaizkit atera.
Aker gorriak ugazabaren
izpiritua berbera
eraman du urkabera
Arrano beltzak haren bihotza
jaurti du haitzetan behera.

3)

Sei musker eta zazpi tximista
ohean ditut ediren
maitaketan ari ziren
eta andreak, ene andreak
bularra ematen zien.
Ugazabaren gibel ustela
piztu omen da Madrilen
Ez al du harriak hilen?
Ez dakit batzu nork ekarrita
mundura jaiotzen diren.

4)

Zazpi saguzahar hego-orlegik
nire gelan dihardute
burugain eta burupe
sasirik-baso Akelarreko
zelaian bortxatu naute.
Ugazabaren andre gordina
lukainkatu omen dute
koartilu t'erdiren truke
egia balitz, izugarri hau
errentan hartuko nuke.

5)
Tximini puntan ari da dantzan
zerri belarri gorria
sei arroako zorria
mando nabarrak soinua jotzen
oilar gainean jarria.
Animalien eromenean
askatu da aberria
libre duk Euskal Herria!
Etxea erre didate baina
egiten dago berria.

6)
Haizerik-leize natorkizue
izugarritik igesi
nahi nuke hil arte bizi
gure etxea urak darama
ez al duzue ikusi?
Bart ugazaba andre ta guzti
galdaran dute egosi
egik zerura garraisi
gau batez behintzat geu izan gaituk
Euskal Herriko nagusi.

Sorta honi lehenengotan "deskalabru bat" jarri nion izenburu, lehen bertsoa "deskalabru bat, deskalabru bi, deskalabruen segida" has-ten zela. Gero "gurean izugarria gertatu da" esango nukeela pent-saturik, nik nahi nuena "izugarriak" hobeto adierazten zuela iru-ditu zitzaidan. Izan ere, bertso sorta honetan azaltzen dena ez da hainbeste ikuspen surrealista bat, irudimenaren matxinada bat baino. Elementuek euren ohiko lekua bertan behera uzten dute, gau batez behintzat Euskal Herriko nagusi geu izateraino. Uga-zabaren gibel ustela, Madrilen piztu omen dena, errepresentazio orokorra izan daitekeena, nire irudimenean, bai orduan eta bai beti, Francisco Franco Bahamonde da, hil eta hainbeste urtetara, nire arranguratik uxatu ezin dudana, nahizta aker gorriak urkabera era-man duen ugazabaren izpiritua unibertsalagoa izan. Eskerrak! Bes-tela zer duintasun geratzen zitzaion gure inpotentziari, hain izen arranditsuko jeneral ñarro batek bere menpeko guztion gogoetan "Valle de los Caídos" bana fundatu zuela ohartuko zenari?

Hormatik zentzunaren akabera jo zuen erloju zaharrean Gizaburuagako abadetxeko horma-erlojua dakust, neure ibilera ez

denak legezkoetatik bueltan eta kristau kontzientzietan amesgaitz moralak jaregiten ziren ezordu paganoetan, autoritate osoz itxaroten zidana, agiraka egiteraino iritsi barik. Danda aldi berean lotsabakoak eta txilinkorrek zeuzkan, baina haren krin-kranak latorri-herriko eskekoen ibilkera tarraztua ematen zuen. Zelan eskertzen zuen gizajoak giltza uhartu batekin lantzean behin luzatzen nion bizipidea! Haren karrankek bere bi metroko kutxa egurrezkoa dardaran jartzen zuten, esferak irribarre egin nahi izateraino, barrutik kilikili egin baliote lez. Hain tramankulu altua ez izatera, goizalde bakarti eta antsios batzuetan emakume airea hartuko niokeen, pendulu buruaren parean zabalgunek mokorkara eta guzti, bere gorputza hormaren kontratik eskainiz, baina ez zuen merezi, akoplatzearen, aulki gainera igoten hasterik. Oholezko zorua malkar eta uneka ustelduan hankaz gora jausteko arriskua zegoen, eskasia umelak arratoi eskrupulu gabeak aspaldi aldearazi zituen ilunperaino. Segur asko, bertso hauetako "izugarrien segida" erloju harexen barrutik irudikatua da, nahizta hari zeutson (ez dakit zeinek zeini eutsiz) tabike lokatua baino horma segurragoek atxikitzen gintuzten Zamorako espetxean. Gau batzuk hutsean joan arren, bertso hauen antzeko ametsetan garaitzeko aukerarik ez zen faltako, nahizta, erloju zaharraren karrankak eta goizaldeko errekontuaren burdinotsak nahasteko, oso amets potentea behar zen, lurpeko ihesean genbiltzanaren parekoa. Hala gertatzen bazen, kartzeleroen giltza-sorta kirrinkaria belarri zuloan astinduko zitzaizun.

- Zer? Zenbatua izateko astirik ez daukak ala?
- Dios! Horretarako be itzartu egin behar al gaituzue?
- Biziak zenbatzen doguzala jakin behar joagu.
- Besteen artean gehiago luzituko zeunkie, zantarrok!
- Zer esan dok?
- Ez nagizue obliga errepikaren plazerrera.
- Obligatu egiten haugu!
- Zelan jakin behar dozue egizko errepika izango dela?

–Hau ez dok egitasun kontrol bat. Errepikatzeko esan dauagu!

–Izugarria!

–Zer dok hori?

–Maitasunaren deitura bat.

BESTE URTE BAT ABIAN

1)

Beste urte bat abian
EGINen egutegian.
Supazterreko orman zintzilik
edo logelan agian
egun berria markatuko dut
goizero zure begian.

2)

Egutegia aurpegi
zenbat egun hainbat begi.
Batzuek gorri joango dira
beste batzuek orlegi
kolore faltan zauden goizean
EGINen orriei segi.

3)

Gogoz hasi, gogoz buka
eguneroko burruka.
Estutzen doaz hesia eta
sutan datoz mehatxuka
EGINek hilda pizteko ere
aski osasun badauka.

4)

EGIN eta EGINzale
eraso-begian gaude.
Euskal Herria puska liteke
eta harekin gu ere
baina ez Herri ez Euskal Herri
izan daiteke gu gabe.

5)

EGIN ez da herri dena
bai, noski, zati minena.
Gaitzak salatzen, xedeak lantzen
arriskatzen dakiena
haritz gailen bat birlora dadin
biziena ta hilena.

EGINen egutegi berrirako bertso batzuk eskatu zizkidaten urte baten eta hauexek egin nituen. Bizitzaren zati intentso bat egunkari horretantxe burutua naizela, ahapaldiotan islatzen diren egoerak (hirugarren bertsoan antzeman, esaterako, laster beteko zen) bereziki sentigarri egiten zaizkit, bertsoak eurak ere diren baino hobek iruditzeraino. “Egun berria markatuko dut goizero zure

begian” horrek, iradokizun ugari dela bide, konortedun naizeno zirraratuko banau (handik harakoaren ez naiz erantzule), zergatik ez itxaron beste batzuk ere egin ditzakeela? Azkenean aipatzen den “haritz gailenak” bistan da Gernikakoa iradokitzen duela, ez dakit zergatik etsipen zimelkorrean iruditzen zaidana, birloraldi mardul baten premian. Bertso hauetan aro trinko eta tentsoa berbizi dut eta euren tonu aski sendo, baina ez ahohandiak barneragarriago egiten dituela esango nuke, beharbada neure barnetik harakoak direlako. Honelakoetan ezinbesteko den proklama airea ez dakit poetikoa esan diatekeen markoan bigundua iruditzen zait, ahapaldien egiturak berak ere lagunduta. Elkarren gainean doazen lehen bina puntu ia elkar estaltzaileek sorta bakundu eta hezatu egiten dute. Hauek guztiak neure sentipenak dira, noski, beharbada bertsoetan barik neure bizipenetan irakurtzen ditudanak. Beste batzuen ere, askoren beharbada, barnean dagozen antzeko sentimenduak ez hain mingarriro mugiarazteko gai balitz, sortatxo honek helburu poetikoa ere lortua duela pentsa lezake.

IKUSI NUEN

Ikusi nituen ikusi zintudan
horiek eta zu batera
ez nazazu, maitea
oker hontatik atera.

1)
Ikusi nuen zuhaitza
eta besarkatu nuen, maitea
zure gerria zelakoan.

2)
Ikusi nuen ilargia
eta laztandu nuen, maitea
zure ahoa zelakoan.

3)
Ikusi nuen zaldia
eta igon nintzaion, maitea
zure abiada zelakoan.

4)
Ikusi nuen ilusioa
eta atxiki nintzaion, maitea
zure arima zelakoan.

5)
Ikusi nuen eguzkia
eta biluztu nintzaion, maitea
zure beroa zelakoan.

6)
Ikusi nuen ametsa
eta iratzarri nuen, maitea
zure loa zelakoan.

7)
Ikusi nuen uhina
eta murgildu nintzen, maitea
zure jarioa zelakoan.

8)
Ikusi nuen iraultza
eta irentsi nuen, maitea
zure arnasa zelakoan.

9)
Ikusi nuen ene itzala
eta jarraitu nion, maitea
zure azala zelakoan.

10)
Ikusi nuen ene burua
eta maitatu nuen, maitea
zu zinelakoan.

11)

Ikusi nituen horiek
eta maitatu nituen, maitea
zu zinelakoan.

Ikusi zintudan, maitea
eta maitatu zintudan
horiek zirelakoan.

Kopla hauek poema luzeago batetik laburtuak dira, kanta baten neurrira egokitzeko. Ereduak oso kanta zahar baten egitura errepikaria dakar, zeinak dioen: “Ikusi nuenean nik zure begia / iruditu zitzaidan, maitea, anpolai gorria”. Eta hala aurpegiko eta gorputzeko beste atal batzuk, beti ere ikusten denari irudipen barrengarria erantsiz. Nire irudipenen kasuan, subjektu-objektuen arteko nahasmen dohatsua da, bitartekari bati esker. Maitasunaren oker eder bat. Egian finkatzen saiatu beharrik ez dauka sublimeki erraturik bizi denak. Bitartekaritzat maitasuna ezartzearekin esan al dugu ezer? Zuhaitz baten aurrean, besarkatzeko gogoia barik gainera jausiko ote zaidan bildurra sartzen zaidanean, edo neuri bidea mozteko paraturik dagoela hor iruditzen zaidanean, edo ondotik pasakeran, kaixorik ere esan gabe, txakurra banintz lez joaten uzteagatik, bueltatu eta ostikada ernegatua eman diodanean, maitasunean porrot egin dudala atera behar al dut? Zein da bitartekaria uhin baten aurrean, igeri jakin gabe, bertan murgiltzeko gogoak ematen didanean, jakinik han ez dudala ezer aurkituko, sokorris-

ten ahalegin alarmatua besterik? Iraultza ikusia dut, ilargia bezain argi, sarritan errukarriro hutsik, zulo beltzera oldarturiko izarren baten destinotik libratutako hatzazal hondakina. Baina ezin dut esan abstrakzio gratuitoa denik, batzuetan bete-beterik ikusia baitut, eta ikusia badut, ez daukat sinestu beharrik, ezta sublimeki erratu beharrik ere, baina nahastu egin naizela uste dut. Nik zaldi gaineko abiadura uhinkara behar dut, ez bolidoen horizontalki zuzena. Gora-beherak zaizkit zorabiagarri, ez bihurguneak, arestian ostikada bat emanda utzi dugun zuhaitza jotzeko gero. Dios! Hementxe egon behar honek ere! Neu etorri naiz, bai, baina berau ere hementxe zegoan! Bere burua bakarrik erakusten duen maitasunak ez du irauterik merezi. Ziur naiz azerturik onena ezkutatzea izan zela, horiek eta denak, neure burua barne, maita nitzan, “zu zinelakoan”. Errakuntza osoa eta zoragarria izan dadin, utzidazu zu ere maita zaitzadan, “horiek direlakoan”.

HIRUROGEITA HAMARGARRENA

1)

Hirurogeita hamargarrena
urte haundia Euskadin
kaleak jendez bete zirena
Burgosko auziarekin.
Francok nahi zuen hura ETaren
ehorzketa izan zedin
gorantz zetorren sua ez zuen
eztandatu baizik egin
herri hau hiltzat zeukatenentzat
kolpe latzagorik ezin.

2)

Ez zen txantxazko epaia izan
hainbeste heriotz zigor
jaso zituzten ezpatak baina
bildur ziren hiltzen inor.
Euskal Herria hainbesteraino
altxatu zen han eta hor
munduak ere erantzun zuen
lurrikarak bezain gogor
hura burutu zuen herriak
iraun behar du derrigor.

Bertso hauek Burgosko epaiketaren hogeita bosgarrenaren edo halako urtegarren baten oroigarri izan behar dute. Epaiketa bera izan zenean, 1970ean, Zamoran preso gengozen, Franco oraindik osasun luzeko zegoela. Orduan motibo hartaz bertso sorta luzea jarri nuen Zamoran bertan, isilpean aterea, luzaroan galdutzat eduki dudana eta azkenean nondibait agertu dena. Hona ondoren bera:

BURGOSKO EPAIKETA

1)

Euskal Herriko bertsolariak
Hilobian zaudetenak
Nola piztuta bortxaz oihuka
Ez zarete hasten denak?
Gaiak eskatzen duen indarrik
Ez du nire asmamenak
Era batera behar nituzke
Zuen dohairik onenak
Merezi aina kanta ditzadan
Burgosen gerta direnak.

2)

Urtea mila bederatzirehun
Hirurogeita hamarra
Abenduaren hiruan hasi
Zen juizio militarra.
Mundu guztiak Burgostik entzun
“Gora Euskadi” didarra
nork esan zuen galdua dela
hogeita hamaseiko gerra
ETA bizi den arte badugu
Irabazteko indarra.

3)

Mila urte ta sei heriotza
fiskalak eskatzen zuen
hala ere hamasei gazteak euren
aulkietan firme zeuden.
Denen artean hiru neskatxak
Nola ez aipatu hemen
Lehen ere ez nuen sinesten baina
Hura ikusi ondoren
Emakumea sexu makala
Denik ez dut, ez, esanen.

4)

Euskal Herrian ezagutu den
Juiziorik handiena
Munduan ere gutxik ainako
Hotsa atera duena.
Kanpoan beriz harrigarria
Zen jendearen kemena
Euskaldun jator denak atera
Ziren kaleak barrena
Herria bera baitzen Burgosen
Juzgatu ta hil nahi zutena.

5)

Horra kriminal porrokatuak
Gazterik onenen juez
Zentzurik badut nola hasiko
Zer delitu zuten galdez.
Oraindik anitz aldiz Burgosen
Anitz euskaldun nahitaez
Kondenatuak izango dira
Militarren tribunalez
Euskal Herria makilapean
Dagoeno zakurrak lez.

6)

Kapitalista kuadrila batek
Denak ondo alkartuak
Bere jostailu bezala gauzka
Nola xagua katuak.
Mintza zaitezte fabriketako
Langile esplotatuak
Mintza halaber nekazari ta
Arrantzale nekatuak
Zenbat bandiduk jaten dituzten
Zuen lanaren frutuak.

7)

Besterik ere badugu, jaunak,
Egindako zapalkuntza
Hil nahi dituzte gure arraza
Kultura eta hizkuntza.
Herri txikia lehen garela
Hora bitan zatikuntza
Erdia mugaz hemendik eta
Erdia mugaz haruntza
Bidasoako urek oihuka
Eskatzen dute iraultza.

8)

Hor dute hortako eurei komeni
Zaien estadu fazista
Inor ez dadin deskuido ez ere
Kontra jaikitzen arriska.
Hor dute hortako prentsa guztia
Irrati ta telebista
Hor polizi ta guardia zibilen
Amairik gabeko lista
Mantso ta isilik onar dezagun
Eurek uzten duten pixka.

17)

Sei egunera han ikusia
Berriz ikusterik kostea
Juzgatzekoak Gora Euskadika
Eta juezak Dioska.
Gibelak sutan, sudurrak ketan
Hortzak amorruez karrazka
Ezpatak dizdiz gora jasorik
Uluka esan zuten “basta!”
Bedeinkatua izan dadila
Militar aluon kasta.

18)

Itxi zituzten ateak eta
Auzia egintzat utzi
Gero zer zigor merezi zuten
Kodiguak erakutsi.
Orain arteko kondena markak
Behar ziren arras hautsi
Baina hain gutxi nola zioten
Heriotzari iritzi
Hiru behin eta hiru bi bider
Hiltzea zuten ebatzi.

19)

Horman tiro bat hartzeko gertu
Zeuden mutilak Francok hor
Gaurkoz bizirik utzi dizkigu
Gogoz ez baina derrigor.
Oi Madrileko Pardon habia
Daukaan mirutzar doilor
Lehen miloi baten garbitzailea
Orain horren errukior!
Hilko hituen seirak herria
Altxa ez balitz hain gogor.

20)

Euskal Herria poztu zen hontaz
Ez noski motibo gabe
Hala ere kontuz, bizirik baina
Betiko preso baitaude.
Eraman ahala urtez kargatu
Eta lau horma aterbe
Berriro laster libre daitezen
Esperantzaz ez baleude
Hala bizirik ehortzi baino
Hiltzea zen ia hobe.

21)
 Zuek, oi gazte iraultzaileak
 Burgosen juzga berriak
 Juizio hura bere bezala
 Hartu du Euskal Herriak.
 Zuen kemenak apurtu ditu
 Egundainoko neurriak
 Izenik ez dut esanen baina
 Leku onean jarriak
 Dituzuela aitortu behar
 Gizonen ezaugarriak.

22)
 Bukatzerako, nola nagoen
 Preso herritik aparte
 Bertsoz nahi nuen nolabait hartu
 Kanpoko burrukan parte.
 Batu indarrak, batu euskara
 Garaitza horrek dakarke
 Bat bitez gure zazpi banderak
 Nahiz sasi-muga bitarte
 Euskal Herriak ez du bakerik
 Euskadi askatu arte.

Burgosko epaiketa luze eta ospetsu hark bertso sorta ere ez zuen laburra ekarri. Astia sobera neukan eta motiborik ez zen falta. Gurekin Zamoran preso zegozenen arteko bi epaiketa hartan aulkiko ziren: Jon Etxabe eta Julen Kaltzada. Epaiketa mundiala izan zen, hitzaren esanahi osoan, mundu guztira zabaldu baitzen uhina, epaituekiko elkartasun eta Francoren diktaduraren aurkako gaitzespen gisan. Euskal Herriaren erantzuna ere erabatekoa izan zen. Bertsootan agertzen dena ez zen inolako esajerazioa. Sorta luze hau ontzeko, sobera neukala esan dudan astiarena bi aldetatik da egia. Batetik espetxeko soberakin nagusia denbora izan ohi da beti ere, baina bestetik denbora hark bazuen balio erantsi bat, bertan behera utzi behar izan genuena. Burgosko epaiketa garaian, epaitu guztiak han batu zituztela-eta, beste espetxeetan geldituta egoteko agindu etorri zen, hots, deskubritua izateko moduko plan arriskutsurik inon bazen, uzteko bertan behera, agindu berria etorri arte. Bazarudien Burgosen ihes-planen bat posible ikusi zutela, beste espetxe bateko aurkikunde gaiztoaren batek hondaraz zezakeena, hala-koetan segurantza neurriak espetxe guztietan zorroztera jotzen baitute. Beraz, geldituta denak! Eta gu hain zuzen Zamoran tunel bat eginen hasiak ginen eta lanak nahikoa aurrera zihoazen, plana geroz

probableago bilakatzen ari zela. Ez zen hori okerrena. Garai hartan bagenuen kartzelero bat, kamioizale ohia eta gizon guztiz frankua, zeinaren guardietan zuloa metroka aurrera zitekeen, ez baikintuen urrundik ere zaintzen. Derrigorrean hurreratu behar zuenetan —otordu, abisu, logelaratze eta abar—, tabernan bezalako solas giroan etorriko zen. Kartzelero probidentzial hark denbora laburra egin zuen gurekin, bizpairu hilabete. Tunelgintzan hasiak ginela, hura agertu zenean, lasaitasun eta efikazia ikaragarritz aurreratzen genuen, Burgosko epaiketatik geldi egoteko agindua hartu arte. Hura tamala, esaten genuela: “Honegaz Portugaleraino be zulotu leitekek eta zelan egongo gaituk, ba, geldi?”. Burgosko agindua segurantza motiboengatik zela jakinik, guk, haren guardietan lan eginez, inolako arriskurik ez genuela sortzen-da, egunen batean uste dut jarraitu ere egin genuela, baina espetxean segurantza oso-rik bovarismoan ere bermatzerik ez dagoenez gero, obeditzea erabaki genuen. Gero Burgosen ezin izan zuten planik burutu eta bitartean gure zaintzailea desagertua zen. Kamioira itzuli zela uste dut, hura ez zela gizonak egiteko lana-ta. Bat etorriko eta bera zintzoegia. Harekin pare bat hilabetean egiteko lana (erreleboak hiru egunez behin izaten direla jorik) ia urte bira luzatu zen, azkenean (azken-azkenean, puta!, ihesa besterik falta ez zenean, puta-puta!) harrapatua izateko gainera. Bertso hauek egiten baino zulogintzan gustorago ekingo nion, baina... baina nork jakin! Segurrenik zuloarekin batera sorta euforikoagoa aterako zen, egunean hamalau orduz lan eginda ere, hamar gelditzen baitziren gauerako, eta hauek espetxean horizontea bezala luzatzen direla emanik, berriro ere falta baino gehiago sobratuko zen, denbora noski.

MAHAI NAZIONALA EPAIAREN ZAIN

1)

Uso zuria, errazu

nora joana zira zu.

Espainerrian kaiolatzea
gertatzen baldin bazaizu

zure umeen ostatu

gure etxean daukazu.

3)

Epaile eta ehiztari

ez minik ein usoari.

Tiro egiten badiozue

bake proposamenari

lehen baino hegada altuagora

altxatuko da Euskadi.

2)

Uso mendien alaba

ez zaitez izan ikara.

Luma bat edo gal zenezake

baina ez zeure hegada

joan zinen baino ederragoa

bueltan etorriko zara.

1997-11-8. Mahai Nazionalaren epaiketa amaiturik, epaiaren zain zegozen. Egun batetik bestera atxilotuak izango ziren, beraz. Bilboko La Casillako pabiloian antolatu zen azken mitineko Kartelak uso bat zeroan. Nik ekitaldiaren une jakin batean bizpairu bertso kantatu behar nituen eta hauexek izan ziren. Bertsoetan mezu baikorra zabaltzen ahalegindu banintzen ere, nahikoa lurjota nengoen. Jarraitzaileen artean ere nabaria zen aldarte apala, saminbera, gehienek ez baitzuten itxaroten mahaikideak hainbeste urtetara kondenatuak izango zirenik. Ezta espetxeratuko zituztenik ere. Zer gertatuko zen une hartan neure sentiera etsitua agertu izan banu? Hori ez nezakeen inondik ere egin, burutik baldin sano banengoen. Orduan usoaren alegoriari heldu eta urrunera begiratzeari besterik ez neukan. Urrunean beti dago izarren bat. Izan al daiteke beste era batera? Ni ez naiz burruka bere baitan exaltatzen

dutenetarikoa. Irabazteko, burukatu egin behar da, noski, baina galdu ere burukatu denak galtzen du beti. Orain artean, gizate-riaren historia unibertsalean, gehien burukatu direnek galdu dute gehien, gehien jokatu dutelako hain zuzen. Euskal Herriari orain arte ez al zaio horixe gertatu? Etorkizunean (beti ere herri esku-bideen maila partzialean, inoiz ere ez gizatasun osoaren mailan) izan daiteke historia iraultzea, baina kontrakoa ere oso probablea dela ahazteko bezain kamutsak izan gabe. Mitin kemengarri bate-an ez nintzen pentsakizun biluziok kantatzen hasiko, ezta? “Urzo xuria, errazu”. Kanta horrexek salbatu ninduen.

MAHAI NAZIONALA PRESO

1)

Elkoro buru, gerri Olarra
oinetan Billabona ta Bergara.
Oiartzundik Rufiren kemena
Zestoak "Ertxin"-en gailur sena
Goiherriraino
bagoaz eta Gaintzan Olano
tenteagoa Txindoki baino

2)

Joseba Alvarez Donostiaren
irudi biderkatua genuen
Hernanik egin digu bikote
Antton Morcillo ta Plaza "Juanpe"
Askatu belak!
Itziar aurkezten digu Debak
Haitz puruaren bihotz irme bat.

3)

Bilbon errotu zen Lesakarra
Izarrak asko, Tasio bakarra.
Kastañeda Lizarrako hosto
Iruñearen enbor Alberto
Tafallan berriz
etorkizunaren adar bikoitz
Adolfo Araiz ta Floren Aoiz.

4)

Bilbon urtenda gabarran goaz
Lemaburu Koldo Celestinogaz.
Hurrengo kaia da Barakaldo
Aupa ta igon Amaia Bao!
Portugaleten
zubi bat arku dantza egiten
Gorka Martinez iragan daiten.

5)

Balmasedatik Karlos Rodriguez
Enkarterrien irripa garailez.
Santurtzin Joseba Martinekin
sardinak janda boga Kantaurin
Goazen Eara
Han egongo da Karmelo Landa
Gerry Adamsekin fugatu ez bada.

6)

Oi, zu, Araba, gure lautada
bortxatu gura diguten alaba.
Gasteizen arnasa garden hortxe
Mati Iturralde eta "Txotxe"
Denen auspoa
Jon Idigoras Zornotzakoa
Gure boz eta mezu braboa.

7)

Mahaia atxilo, EGIN itxia

Ez zuten ondo neurtu erauntsia.

Irlanda, Lizarra ta Garazi

EH ta su-etena hasi

Hau galarrena

gainezkatu diren indarrena!

Atentaturik integralena.

“Euskal Herritarrok” erakundea hauteskundeetara lehenengoz aurkeztu zen kanpainako mitin nagusia Donostiako belodromoan egin zen, ohi bezala. Orduan Mahai Nazionaleko kideak preso zegozen, gutxik uste izango zukeen bezain kondena luzea jasota. Mitinean haien omenez ekitaldi bat egiteko ardura harturik, bertso hauexek kantatu nituen. Aipatzen hasiz gero, denak aipatu behar ziren eta, bakoitzaren izenari zeozer eranstekotan, luze joan zitekeen. “Joana Bixenta”-ren neurria egokia iruditu zitzaidan, aha-paldia azpi-unitate txikietan banatzen baita. Izen guztiak eta euron zertzeladak labur eta bereiz azaltzeko egitura efikaza eskaintzen zuen. Badakit entzuleak harritu egin zirela, batek baino gehiagok gero esango zidanez: “Horreik ez heuazan bat-batean kantatuko baina!”. “Ez, ba! —arrazoi ematen nien—. Jarrita be, nahikoa zeregin izan joat hainbeste izen horrela sortatzen”. Egia zen. Mahaikideen informazioa jasotzen hastetik, asko ez bainituen ezagutu ere egiten, bertso sorta honela amaiturik edukitzeraino, lan luzea eta ez hain erraza joan zen. Merezi izan zuen! Ez bakarrik motiboagatik, (hori beste era batera ere kanta zitekeen), guztiz ezohikoa den bertso-paper bat atera zelako baizik. Papera atrilean zela kantatu nuen, entzule gehienak horretaz ez jabetzeko moduan. Erronka alperreko baten grinan, guztiz buruz ere kanta nitzakeen, baina zertarako hartu behar nuen arrisku txotxolorik, onenean ere, ez erratzeko arduraz, txartoago kantatzeko?

ETXEKO-ANDRE EDERRA NINTZEN

- | | |
|--|--|
| 1)
Etxeko-Andre ederra nintzen
ederra eta maitea
etxeak jazten ninduen eta
neu nintzen etxe betea. | 6)
Hurren etxera hurbildu nintzen
aurrekoa ahaztu nahiez
txakurra zaunka irten zen eta
haurrak etxostera ihes. |
| 2)
Etxeko-Jauna lan handietan
kanpoan zebilen beti
behin neskame bat ekarri zuen
ez nendin hain bakar senti. | 7)
Jauregi handi bat ikusi nuen
EUSKO zeozer izenez
Arrotz-Gelara pasa ninduten
"nongoa zara" esanez. |
| 3)
Neskameari ez zion uzten
lan gabea asper zedin
nirekin amets egiten zuen
beste guztia harekin. | 8)
EUSKAL zeozer zion batean
hartu ninduten zatozka
derrigorrezko poza ote zen
gelditu zitzaidan koska. |
| 4)
Behin esan nuen: "Eder naizeno
aldatzea komeni zait
ederra baino zerbait gehiago
izango naizen norabait". | 9)
Eliza-edo zirudien bat
han gogoz hartu ninduten
"noan kanpora —pentsatu nuen—
hil usaina zagok hemen". |
| 5)
Etxe batean atea jorik
nekez ireki zidaten
txakurrak eta haurrak bakarrik
ezagutu baininduten. | 10)
Herriko-Andre eder izana
kalean eskale nago
maita nazazu gutxiago ta
goza nazazu gehiago. |

Bertsolariak zerbaiten alde edo minez kantatu badu, euskara izan da bera, sarritan beste zeri kantatu ez zekiela beharbada. Neu ere bat-batean hamaika aldiz kantatua nintzen gai horri, dela neuz, dela aginduz, dela euskararen aldeko hamalau ekintzatariko edozeinetan, baina ehundaka neramatzan bertso jarrien gaitzat oraindik sartzeko neukan gure hizkuntza. Ez nintzen hartaratzen, nahiz askotan bururatu. Ez nuen erostarik, tremendismorik, apologiarik, pesimismorik gura, baina ezta sentiera hauetan hain objektiboki sartzzen zen egia albu egiterik ere. Nola zirraratu kontzientzia, topiko negartien desprestigioan jausi barik? Zeren, gezurra dirudien arren, errepika ez da heriotzaren uxagarri, baina agoniaren estetika ezaba dezake. Areago oraindik, estetika errepikariak (baikortasun obligatuak bezalaxe) heriotza estimulatu egiten du.

Uste hauek ez dakit zuzenak diren, baina nire buruan zebiltzan. Noizbait euskararen eskeko irudiari Etxeko-Andre ederraren (bere edertasun erreal eta ideal guztien) sinboloa jarki zitzaion eta bitarteko bilakaera berez-berez etorri zen. Kale-kantoiko eskeko baten erromantze lez irudikatu nuen kondairarentzat koplek molda egokien begitandu zitzaidan, zeinak, kolpe solte eta jarraituetan, bazterkuntzarantzko bilakaera biluztasun unitario batean aurkeztuko zuen, apaindura distraitzaile gabe. Eta azkenean berarekin etengabe topo egiten dugun paradoxari formulazio gordinki iraulia emateà lortu nuen, euskarari buruz nik esan dudana eta segurrenik esango dudana arrazoirik adierazgarrienez: “Maita nazazu gutxiago ta / goza nazazu gehiago”.

GURE HAURTXOA

1)

Obabatxoa sendalo
gure haurtxoa lo ta lo.
Zoriona ere bada munduan
dioten baino gehiago
etxe ilun ta isil batean
haurtxo bat lotan badago.

2)

Otsokok hiru belarri
bildotsak jolas egarri.
Agian mundu triste hau ez zen
haurtxo baten jaiogarri
baina guk, pitxi, ezin zintugun
beste inora ekarri.

3)

Sehaskan gora bi begi
haien gainera beste bi.
Begirada bat bidean behera
malko bilaka baledi
laga poemak eta eskutxo
hioen desnoran eseri.

4)

Ametsa umè egin zan
zu besterik ezin izan.
Oraintxe dakit zergatik sartu
zinen negarrez bizitzan
ezjakinean zenkarren pozak
bertan abaildu ez gintzan.

5)

Ez dakit zure liluran
zer lehia nabari dudan.
Pozezko aire bat zabaldu zait
hertuz zoan biziguran
bai eta bildur bat gaizto bat ere
galduko ote zaitudan.

6)

Zergatik hainbeste malko
gordetzen zait zukanako?
Haurtxoa zaren zirrarez ala
neurea zaitudalako?
Obabatxoa sendalo
orain egizu lo ta lo.

Haurra haziz zihoan eta oraindik ez nion bertsorik egin. Andreak inoiz esaten zidan: "Zuk etxekooi ez dauskuzu inoiz bertsorik eskeintzen". Beharbada bertsoa ez da etxekoak kantatzeko egina. Beharbada ez naiz poeta. Beharbada poesia ez da sentimendu batzuei dagokiena. Ez naiz, ez, samurtasun hurbilegien ager zale eta inoren intimitateak ezin ditut entzun (irakurtzea besterik da),

poetikoenak badira ere, bortxatua sentitu gabe. Inoiz umeak ere, handitxoago zela, Mixel Ducauren "Alaia zu" kantaren bertsoak nik eginak zirela entzutean, esan zidan:

–Alaiari bai eta niri ez daustazu kantarik egiten!

–Inoiz hasi naz, baina zuretzat gurako neuken bestekorik ez daust urtetan.

–Zetan hasi zinan? Zer egin zendun?

–Ezebez ganorazkorik. Nun diran be ez dakit eurak.

Banenkien non ziren, karpeta zahar batean, zirrimarra hutsean. Lantzean ideia baten arrastadak idazten nituen, karpeta arakatzean, "gure haurtxoa" jartzen zuen orri marraztatua aurkitzen nuen. Azkenean pentsatu nuen sorta bat egiteko lain izan zitekeela eta apur bat gehiago saiaturik, ideia batzuk ezetsi, beste batzuk erantsi, orria bete samartu egin zen eta noizbait, kanta bat atera zitekeela-ta, forma ematen hasi nintzen. Ez nituen lanak berehala amaituko. Liburu hau moldatzen hasi eta oso gerora osotu ditud ahapaldi batzuk, aspaldiko marrak bertan behera uzteak pena emanda. Emaitza bistan da edozein haurri aplikatzekoa dela, baina ni geure umearen bitartez heldu naiz orokortasun agian ezagunon indar irrepitiblea sentitzera. Lehen ere banuen haurtasunaren bizi-pen hunkitua, beharbada neure haurtzaroaren gomuta oropresentetik besteengana jauzkatua, eta orain ikaratu egiten nau pentsatzeak haurtasunak baino "neuretasunak" ez ote nauen gehiago sentiberatzen, zazpigarren ahapaldiak dioenez. Lehen, begiak bortxaturik bazen ere, haurren sufrimenduak ikus nitzakeen, orain oster, pantailan zenbait eszena urragarri agertzean, alde egin behar izaten dut, geure umea lazeria hartan irudikatzeari eutsi ezinda. Zegaz edo hagaz pentsamena distraitu egin behar izaten dut, bildur izaten bainaiz, balbula mentalen batek huts eginda, suposizio lazgarrien ameskaitzak nire buruaz jabetu daitezen. Zoratzekotan, sentimenaren deskonposizioz izan dadila.

GURE MIRENTXU

1)

Gure Mirentxuk sei urte dauzka
beste bostekin hamaika
harentzat berdin dira oraindik
Erroma eta Jamaika.
Burla puntuan ari zait beti
tximelet sorgina baita
gaur ere atean galdetzen zidan
nitaz bazilatu nahita:
"Etxean bezain barregarria
al zara kanpoan, aita?"

2)

"Atzo non zinen" galdetuko dit
pare bat musuren truke.
Nola azaldu, marrazkigintzan
jakin beharko bainuke?
Esango diot: "Bart Iturenen
denek txalo jo dizute".
Erantzungo dit: "Hitz hoiek, aita
ipuin bat ematen dute.
Nola txalotu behar ninduten
ezagutzen ez banaute?"

3)

Esango diot: "Zeu ere zara
ni bezain ezagun kasi
zeren zintuen nire kantuak
bertan ezagutarazi.
Aita daukazu txit famatua
bere bizar eta guzi"
Mutur zimurrez erantzungo dit:
"Oi, aita, zenbat fantasi!
Zu famatua izango zara
baina Mirentxu lehenbizi".

4)

Gure haurtxoa kantuz loratzen
pasa nezake gau dena
sentitzen baitut Mirentxu dela
izan leiken politena.
Nahi baduzue pentsa zazue
zoratu egin naizena
zoratu banaiz, zer egingo dut?
Hauxe da nire azkena
zueri ere opa dizuet
nik daukadan zoramena.

Ez dakit zein herritatik bueltan izango zen, nahizta gero bertsoetan Ituren jarri nuen, herri horretan aurkitu izan dudan estimuaren esker onez. Izan zitekeen Ibarrik, Anoetatik... behintzat Errezilen behera nentorren Urraki aldetik, goizalde beranduan, ilargia baino ernaiago. Hau erdi lo iruditzen zait beti eta bere gainera saltatzeko gogoak ematen dit, bitartean ezer ez dagoela egia balitz.

Saioko gaien artean umearekin zerikusidun zerbait izango zen edo behintzat horixe bururatu zitzaidan eta, entzuleen epeltasun freskoa oraindik bertan nuela, “Mirentxuk nola ikusten ditu aitaren ibilerak” edo horrelako gai bat jarri zidatela irudikatu nuen, eta potorik ez beste okerrik egiteko bildurrik gabe, bestela ere geldi ez zegoen burua martxan hasi zen eta ustez bertso xarmantak zetozen. Etxerakoan bizpairu zigarro zein baino zein alegreago ke bihurturik, hantxe ibiliko nintzen oherako bidea onartu ezinik, baina ez nuen bertsook idazteko arazorik hartuko, bai bainenkien honelakoek hirulau egunetan oso garbi irauten dutela. Hori bai, gero beharbada txak joaten zaizkizu eta txakada hori kapaz da pare bat hila-bete izateko. Ordurako ez zaizu lorratzik ere geratu, ez baitzara gogoratu ere egiten. Halakorik gerta ez zedin, biharamonean han utziko nuen zirriborroa, handik denboragarrenera, beharbada urtebetera, “Lan solteak” izeneko karpeta geroz potoloagoan, noizbehinkako dibertsio intimoan, osatuko zen segurantz. Zirriborroak lan amaituak baino deigarriago dira. Hauei, lehenengotako inkamendu gaixotiaz harago, gehiago ez diet beharbada jaramonik ere egingo. Esku baten erreguan gelditzen diren erdikin ahulok, oster, kitzikiatu egiten dute, inspirabide apurrik agintzen badute, eta suposatzen da horrexegatik gorde zirela. “Gure Mirentxu” izeneko bertsook horrelaxe osatu nituen, guztiz plazako eta batbateko estiloan, bertso jarriak beste era batera egingo baintuen. Baneroan minsor koko bat ere, etxeko umeari inoiz ez niola ezer eskaini, kanpo-enkarguei hain eskuzabal nerantzuen bitartean, inoiz umeak berak salatu zidan lez, “Alaia zu” kanta egin nuenean, Mixel Ducauren neskatxoa berau. Bertso hauek ez zuten, noski, minsor hura ematuko, hark ospetsuagoak nahi baitzituzkeen, baina zirriborroa amaitzeak azalpen aiuturik sekula lortuko ez duen samurtasun bati itxura bat eman zion behintzat. Mirentxuk oraindik ez daki bertsook badirenik ere.

NORA ZOAZ ZU GAUR BE

1)

Nora zoaz zu gaur be
ene aita maite?
Jantzi etxeko prakak
eta jesar zaite
negar eingo ez badot
zu itzuli arte.

2)

Ez nozu engainetan
mosu bi emonaz.
Egunez lo eginda
gabean bazoaz
noiz egin behar dogu
pasiluan jolas?

3)

Gabaz alde egitea
ez al da krudela?
Dinozu ez dakit non
bertso-jaia dela
zer ospatu nahi dabe
gu lo gagozela?

4)

Itxi atea eta
erdu sutondora.
Ni, ama ta amama
eta hiru lora
zeren bila zoaz zu
etxetik kanpora?

5)

Nik zeu behar zaitut, zeu
Ez martxan lau mosu.
Tratu bat eingo dogu
Joan behar badozu
bueltan ipuin bategaz
itzartuko nozu.

Aurrekoen bilakaera berdintsua izango zuten bertso hauek ere, inon kantatuak ez ezertarako bereziki sortuak izan ez zirenak. Abiapunturen bat, ideia-aren bat, beharbada puntu solte batzuk karpentan geratuko ziren eta gero, egun nostalgikoren batean, sortatxo bat osatu arte jarraituko nuen. Hauek ere bat-bateko estiloan eginda dagoz, plazan zuzenean kantatuko nituzkeen lez, zuzen atera zire-

la emanik, jakina. Pasiluko jolasa ohitura zehatz baten aipua da. Oherakoan, umea txikia zenean, hango alfonbra gainean garagarak egin behar izaten genituen gauero eta huraxe izaten zen haren jolasik gogokoena. Zalantzan egon ondoren, xehetasun agian partikularregia halaxe utzi nuen, pentsaturik modalitate hau ez zela gurean bakarrik gertatuko, kale etxeetan batez ere. Hauetan aukera obligazio bihurtzen da, amak edo aitak (bigarren kasu hau ere ugaritzen ei doa zorionez) umeari eta bere gurasoari hots egiten dienean: “Aldegingo dozue trabatik? Segi pasilura!”.

EUSKADIKO SEI ORDUAK

- 1) Gau on bat zabal-zabala
Anoetak har dezala
Euskadi denak bezala.
Etxe ta kanpo hainbeste kirol
eta figura dirala
baita ikusle leiala
begi biek hartuala
hau da festa mundiala.
- 2) Urtero hemen beharta
zer berotasun aparta
su bihurturik txinparta.
Euskadikoak eta sei ordu
bai izenburu xarmanta
baina kontu aterata
ez al da beste bat falta
Euskadin zazpi gara-ta?
- 3) Europako zenbait izen
izar haundiak hain zuzen
gaur ere hemen ginuzen.
Biraka ibili diren moduan
luzean jokatzen ahal zen
oraingo bazihoazen
gutxienez Canarias-en
orduari eskapatzen.
- 4) Guk ere geure graduan
daukagu ezin kenduan
norbait garela munduan.
Orain European sartzeko ere
jarri dira akorduan
sartu behar bagenduan
sartuko gara orduan
baina Euskal Herri moduan.
- 5) Bizikleta zein futbola
jokoa edo kirola
dibertitzen gara hola.
Gaurko hau ere ikusgarri da
baina ez ahaztu inola
hemen herri bat dagola
izerdia dariola
ihartzen ez den arbola.
- 6) Bertso honekin batean
buka ta isil gaitean
Donostiako partean.
Ea hementxe elkar ikusten
dugun hurrengo urtean
eta bien bitartean
eutsi adore betean
geurea lortu artean.

Txapeldun nintzela, Euskadiko Sei Orduetan, urte mordo batean neuk bakarrik kantatu nuen. Banenkien entzule gehienek, asko erdaldun hutsak izanez gainera, otartekoa jateko, txiza egiteko edo berriketarako soilki baliatuko zutela bertsoaldia, nahizta azkenean txalo jo, eguneko berotasun magnanimoak agindu bezala. Hala ere banenkien, edo pentsatu nahi nuen behintzat, hainbeste milaren artean, gehi irratitik-eta jarraitzen zutenen artean, izango zirela arre-ta jarriko zutenak ere eta hori egia zen, ondorengo egunetan hantxan aipatzen zidatenez. Okerrenean, soldata ederra ematen zidaten, dozenerdi bertso kantatzeagatik, eta hori okerre-bazen, betoz okerragoak. Bakarrik izanik, edukia gutxi gora behera pentsatua errotan nuen, urteko kirol eta politika nobedadeen inguruan. Kiro-la egunak berak ematen zuen. Hortik at, bertso hauetan adibi-dez, European sartzea aparrean zebilen orduan. Batzuetan bertsoak ia erabat eginak errotan nituen, agerpen sinboliko bat egitekotan, neurrian-eta zerbait deigarria egiten saiatzen bainintzen. Hala gero neuk ere sei orduak ikusten lasai gozatuko nuen, hango burrun-dadan bertsoen ardura taxutu ezinik ibili beharrean. Bertso hauek, ordea, kantatzeke geratu ziren. 1986an, aurreko urteetan lez, baka-rrik izango nintzelakoan, Lazkao Txiki ere deitu zuten eta bion artean kantatu behar izan genuen, nire aldetik oso neurri zail batean dozenerdi bertso moldatzen alperrik nekatu ondoren. Orduan benetan alperrekotzat geratu zen lanak handik urteetara hemen aurkitu du utilitate bat, egindako ahaleginaren lekuko baino ez bada ere. Ez dira, noski, bertso jarrien burueraz eginak, bat-bate-kotasunaren ezaugarrietan baizik, segurantzaz minimoki elegante baten barruan.

EUSKADIKO SEI ORDUAK II

1)

Arratsaldeon, Anoetako
hainbeste milaka lagun
berdin irrati ta telebistan
zaudeten hainbat euskaldun.
Bertsoa ere nola
Euskadiko kirola
dela jakina daukagun
joko hau maite dutenentzako
saio bat egin dezagun.

2)

Etxe ta kanpo zenbat figura
eta zenbat kirol modu
etorriaren damutasunik
inork nekez izango du.
Bi gauza dira hemen
zein bezain zein aurrenen
"Euskadi" eta "sei ordu"
ikusminari urtebeko
asea eman diogu.

3)

Anoetako Belodromoa
jendez beterik zeharo
holako festa ikusgarriak
nola eratu maizago?
Kanpotik etorriak
ez ziren elbarriak
guztiei bihotzez txalo
eta bihotza bera nola ez
geure etxekoentzako.

4)

Zuei kanpotar kirolarioi
noa gauza baten galdez
publiko honek jo dizkizuen
txalo egizkoen ordez.
Euskal Herritik bueltan
zeuen Europa hortan
konta ozenki mesedez
herri txiki bat badela hemen
bizinahirik haundienez.

- | | |
|--|--|
| 5)
Gaur izan diren karrera klase
hoiek ikusi ondoren
neure barruan beste karrera
bati begira nengoen.
Euskadiko zelaian
aspaldiko garaian
lasterka gabiltza hemen
helmugaraino heltzeko grinaz
eliminatu baino lehen. | 6)
Kirolak ere badu mamia
ez da bakarrik azala
herri bakotxak bere giharra
gorde ta zabal dezala.
Sei ordu hauetako
festa ederrerako
elkartzen garen bezala
aberriaren jokoan ere
berdin bildu gaitezala. |
|--|--|

Aurrekoen tankera berekoak dira hauek ere, oraingoan beharbada mezu politiko nabariagoz, nahizta beti ere kontua izaten nuen aberztalatasunaren eduki orokorrak kantatzeko, ertz alderdikoiak saihestuz. “Izan be —pentsatzen nuen— niri hemen arreta jartzen daustenek honelakoxe gauzak entzun gura dabez”. Gainera beharbada bazitekeen atzerritar kirolari, laguntzaile edo kazetariren batek galdetzea: “Hori zertan dabil? Zer kantatzen dau?”. Orduan norbaitek itzulpen fidel samar bat egin zezakeen. *Zezakeen*, zeren hango kazetari gehienek, ni begiko ez izanaz gainera, mezuak aldrebesten profesionalak zirela banenkien (medio askotan nire ekitaldia iragarkiak sartzeko baliatzen zuten), baina kirolarietan partehartzaile euskaldunak ere bazirenez, hauek banenkien, euren kolega atzerritarrek galde zezakeenetan, egitasunez eta harrotasun puntu batez erantzuten saiatuko zirela, norbere herriaren ezaugarriak edertzeko grina unibertsalaren arabera. “Euskadiko sei orduak” zirenez gero, neuk ere sei bertso kantatu ohi nituen, luze-laburrean ondo sartzan zen kopurua bera. Eta halaxe irabazten nuen soldata polita.

EUSKADIKO SEI ORDUAK III

1)

Gau on, Anoetako
aterpe zabala
etxe eta kanpoko
kirolen magala.
Besteak bizikletan
zebiltzan bezala
mundu urrunak ere
aditu dezala
bertsoa dela gure
kirol nazionala.

2)

Kirol klase denetan
aukera bikaina
orain kantuz itzuli
beharko ordaina.
Bizikletan molderik
ez daukagu baina
bertsoetan bagara
holandarrak aina
ea zeinek hobeto
korritu mingaina.

3)

Sei orduok txantxetan
zirenik ez uste
Euskadik merezia
zuen horrenbeste.
Gaur munduko onenak
ekarri dituzte
hurrengoan ei doaz
martzianoen eske
astronauta jantzita
etorri zintezke.

4)

Beste kirol bat ere
badago Euskadin
askatasun karrera
indar guztiakin.
Nola belodromoan
hoiek duten egin
korri dezagun beste
hortan ere berdin
azkenengo esprina
laster izan dedin.

5)

Esprinerako bada
motibo hurbila
hauteskundeak berriz
martxan da gurpila.
Izango da diskurtso
eta gezur pila
abertzaleok goazen
indar berri bila
Euskadik eman dezan
kolpe biribila.

Bertso hauetan aipatzen diren holandarrak eguneko txirindulari estelarrak izango ziren. Orduko pista-txirindularien izenak gogoratzen saiatzean, Freuler bakarrik etorri zait, berau ez dakit holandarra zen baina. Gero baziren, noski, geureez gainera, errepideko txirindulari ezagunak, eguna handitzera ekartzen zituztenak. Gogoa daukat, esaterako, urte batean Fignon, lasterketa bat amaitu ondoren, zein adi gelditu zen Perurenaren harri jasotzeari begira. Laurogeiko txapela irabazi nuenetik, hainbat urtetan jarraian kantatu nuen Euskadiko sei orduetan, baina nire paper marratsuetan hiru urtetakoak bakarrik gelditu ziren, honelako interbentzioak eta enkargu-lanak gordetzen hasi nintzenetik. Beraz, pentsa dezaket 1984-5-6. urteetakoak direla hemengo hiru sortak. Arteko denak haizearen esku utziko nituen eta badakit altxorrik ez zela galdu, baina jasota ere ez zaio haizeari ezer kentzen. Liburua loditzeko, berriz, besteek beste balio dute.

ALIRON

- | | |
|---|--|
| 1)
Ligako txapela Bilbon
Ea Madrilek zer dion.
Goirik baldin bazen inon
Gorago ezin zen igon
Ohore eta zorion
Aupa mutilak, aliron! | 4)
Etxetikan irten gabe
Gaude handienen pare.
Beste kontuetan ere
Hain lehoi baldin bagaude
Laster izango gerade
Oihan guztiaren jabe. |
| 2)
Bilbon txanpaina zebilen
Eta ozpina Madrilen.
Bi urtez Realak gailen
Orain Athletic handien
Holaxe dute jakinen
Euskaldunok zer nor ginen. | 5)
Nola ez jaso kopetik
Eman diegun kolpetik.
Guk irabazi batetik
Madrilek galdu bestetik
Bi grazi hoiengandik
Bi aldiz gora Athletic. |
| 3)
Bilbon ekipo gaztea
Eta Donostin bestea.
Madrilgo jende tristea
Hobe duzue estea
Eta txapeldun ospea
Betiko hemen uztea. | 6)
Athletic eta Realak
Ez duk bikote petrala.
Futbol kontuan bezala
Madrilek jakin dezala
Beste hortan ere hala
Nagusituko gerala. |

Banuen bertso sorta bat, Realak bi liga jarraian irabazirik, musikari eta guzti herriz herri kantatzen nuena, 1980-82. urteetan, eta “Realak nagusi” izenburuz, “Laurehun herri, mila bertso berri” liburuan agertu zena. Disko bat grabatzeko asmoz genbiltzala, ostera, denbora aurreragi joan zen, bitartean Bilboko Athleticak hurrengo liga irabaztea gertatu zen eta Realarentzat desfasaturik gelditu ziren

bertso haiek. Bilborentzat sorta berria egin nuen, “Herriko plazan” izeneko diskoan atera zena. Espainiako beste edozein talde izan balitz ondorengo, Realari kantatzen jarraituko nukeen, baina Bilbo txapeldun zela, ez zen itxurazko lehengo asmoari eustea. Sorta batean zein bestean, neurria zaila eta doinua bizkorra da. Hona jarraian, Real txapeldun zela, herriz herri kantatzen genituen bertsoak:

REALA NAGUSI

- | | |
|---|--|
| 1)
Kantatzerik baldin bada
Ezkutuan ezin laga.
Sartu baginen ligara
Nagusi itzuli gara
Realari begirada
Onenak ez al dira, ba? | 4)
Indarrez gaude gordinak
Bihotzez ere berdinak.
Madrildarren giltzurriak
Erre ditu piperminak
Azaina handien zurginak
Gu gaituk Txuri-Urdinak! |
| 2)
Realak jo du kolpea
Tejerok baino hobea.
Iaz galdu zen lorea
Aurten frutu dotorea
Madrilek galdu, ordea
Hau duk zorion doblea! | 5)
Iazko penen ordaina
Aurten harrapatu gaina.
Txikiak garela baina
Horra lezio bikaina
Badaukagula tamaina
Libre izateko aina. |
| 3)
Merenge txuriak kare
Bihurtu omen dira.
Gijondarrak prima gabe
Madrilen zer atsekabe!
Hemen ez ginen logale
Txapel handiaren jabe. | 6)
Zelaian hamaika zuzi
Ez gaude argiz biluzi.
Bestela gauzak itsusi
Baina hortan da ikusi
Kontrako haize ta guzi
Euskadi dela nagusi. |

Hirugarren bertsoko “Gijondarrak prima gabe” puntuak Realaren hango partidua esan nahi du, Gijonen, azken partiduan eta azken unean sartutako golari esker irabazi baitzuen liga. Bosgarren bertsoko “iazko penen ordaina”-k, berriz, aurreko urteko zaputza esan nahi du, azken partiduko azken unean, Sevillan uste dut, eskuan zeukan titulua galdu egin baitzuen Realak.

Realari buruzko beste bertso batzuk ere aurkitu ditut paper artean, norentzat edo norako egin nituen ez dakidanak. Hona eurak:

DONOSTIKO REALA

- 1)
Donostiko Reala
ekipo bikaina
txikitik atera du
handien tamaina.
Berak harrokeririk
ez du joko baina
Euskal Herriak badu
harrotzeko aina.
- 2)
Zer kanpoko figura
eta zer arraio?
mutil jatorrik aski
berton zaigu jaio.
Nonahi errespetoa
norinahi damaio
galtzea zer den ere
ia ahaztu zaio.
- 3)
Atzea zaindu eta
aurrean jo ta ke
erdikoeak baloia
dantzan daramate.
Partidua hastetik
amaitzen den arte
kontrarioek nahiko
tormentu daukate.
- 4)
Hiririk ederrena
Munduan Donosti
futbolean onena
Reala da noski.
Inoiz libre bagina
muga eta guzti
bakarrik moldatzeko
ez geundeke gaizki.
- 5)
Pixka batean ez da
sortuko indarririk
Atotxako mutilei
jotzeko adarrik.
Gora Reala eta
ez hori bakarrik
goian dagonak ez du
goratu beharrik.

Bertso hauek ez daukate aparteko ezer, ohiko oihuak ohiko erara besterik. Bistan dago aurreko sorta bietako sentimenduen berotasunik ez lantze saiaturik ez dagoela hauetan. Bat-batean kanta daitezkeen bertso korrekto batzuk.

AIZU MADRILGO TRIBUNALEKO

1)

Aizu, Madrilgo tribunaleko
Goren Nagusi bikaina
hizketan ezin bada bertsoan
dantzatuko dut mingaina.
Espainola izanik
euskararen usainik
ezin duzu hartu baina
zuri bai ongi hartzen dizugu
ez dakit zeren usaina.

2)

Komedi hauek ez dira, Jauna
Madrilen baizik ikusten
zuen Quevedok berak ez dakit
kalkulatuko zituzken.
Bost juezen nagusi
kapote eta guzi
erdian jarri zintuzten
ez al dizute etxean ere
bakarrik ibiltzen uzten?

3)

Uste genuen geure Gernikan
ginela zerbaiten jabe
kantatzearren gaizkile gisa
hartuak izan garade.
Sententzi edo pena
nahi duzun zigor dena
jasotzeko gertu gaude
baina ez zure belarrietan
mezutxo bat utzi gabe.

4)

Ez gatoz, Jauna, zure zirkua
ikusteko atseginez
Madrilen gagoz katebegia
oraindik eten ezinez.
Hemen ez gaituzula
ikusiko sekula
agintzen dizugu zinez
berriz ekartzen ez bagaituzu
edo joaten utzi ez.

Bertso hauek “Semaforo gorria” rako egin nituela uste dut. Gernikako Juntetxean, Errege-Erreginen aurrean izandako istiluengatikoko epaiketan nire hitz-txanda bertsoan egitea erabaki genuelakoa daukat. Ez nago ziur. Badirudi nire memoriak interesatzen ez zaizkion pasarteak ezaxol samar gordetzen dituela. Baiezkoa bada, hemen agertzen diren bertsoak ez nituen kantatuko, jakina. Hauek neure zutabeko askatasunetik kantatu nituen eta, inork konturik eskatu ez zidanez gero, zegokiona ez zela ezertaz jabetu pentsatu

behar da. Epaiketa hura ez daukat, noski, ahaztua. Gogoan daukat Santi Brouarden ondoan eserita nengoela eta behin nolako interbentzioa izan zuen beronek. Fiskal berez oker samar batek, bere aulki handiosean lurperantz ezkutatu behar zuela ematen zuenak, mihian ere bazuen gaitz edo bizioren bat, matrailerantz enbolatzekoa. Soldata mardula eta erraza irabaziko zuen, baina itxura ez zeukan oso hornitua gizarajoak. Bat-batean, epaiketaren solemnitete toledanoaren erdi-erdian, Santi Brouardek, zutitu eta presidentearen mintza-baimena lorturik, bere patxada amoltsuan dio: “Presidente agurgarri! Fiskal jaunari esango al diozu mesedez txiklea maskatzeari uzteko?”. Pentsa dezakezue nolako purrustada areto guztian eta batik-bat aulkiko lerro bietan. Epaietatik laster izango ziren bertsook eta, hainbeste urte igarota, beharbada Santirenaz gogoratzeari utzi ezin diodalako, halako grazia lapurtu bat egiten didate, barrearen erromaran alborantz hartu banu lez.

TXORIAK ETA TXORIBURUAK

1)

Bertso berriak lege zaharrear
jartzea dut erabaki
jolaserako suiet bikaina
eskuratu didan bati.
Bertsolariak zer ziren eta
zer garen ustez bada
gure burua ezagutzen du
bera baino hobeki.

2)

Bertsolaritza Txirritaz gero
zapuztu omen zen hemen
ari ginenok ere hau marka
ezjakinean baikeunden.
Euskal Herria kamutsa eta
masoka samarra omen
horra zergatik bertsoa berriz
modan jartzera igon den.

3)

Ez omen dakik nola liteken
oraingo bertsoa maite
talentu zerbait dutenek aisa
esplikatuko diate.
Zorrotzegiak kamuts-herrian
nekez luzitzen dik bate
Liliputera joan beharko duk
han konprenituko haute.

4)

Batek kolpera atzematean
hainbeste jenialkeri
ez da mirari ez aurkitzea
konprenitzaile gehiegi.
Triste sentitzen omen da gero
bakartadean igeri
odola mintzen hortik hasten da
eta kontuz ibil bedi.

5)

Gure barruko berria ere
ustez badauki guk hainbat
memoriz galtzen naizenerako
nori galdetu badaukat.
Izan behar du aztia edo
barne-jakile erabat
ez baldin bada Freud gaizoari
galdutako ametsen bat.

6)

Lehengo garaiaz hitz egiten duk
heuk ikusia bailitzan
gaur aina itzal izango huen
Txirritaren bastoi gisan.
Baina jaiotzak galdetu gabe
jartzen baikaitu bizitzan
hik ere hemen molda beharko
nahizta garaiz kanpo izan.

7)

Ez da noiznahi ta nonahi entzuten
hainbeste aitormen eder
gaurko bertsoa bizi omen da
entzule zozoei esker.

Ez omen dago ez gatzik eta
ez asmamenik ez ezer
dohai hoiekin Nobel Saria
ganbaran diagu laster.

8)

Urdaia eta abiadura
erdaldunen esakera
honek urdea eta oreka
sartu dizkigu batera.
Jakinduria tamainan eta
bihotz-errea sobera
etzak hainbeste sufritu, motel
zozo batzu gora behera.

9)

Gure Txirrita haundian haundi
txikian berriz gaiztoa
arkakukoask hiltzeko zeukan
makila aproposkoa.
Haietako bat ote den nago
gure horzkari prestua
orduan salbo apartatua
edo oraintxe piztua.

10)

Diru kontuaz ere kezkatu
dabil ekin eta ekin
fortuna bila ote gabiltzan
bertsoa dela etekin.
Suskrizio bat beharko zaio
hurren Gabonetan egin
etxerik erre ez zaio baina
gure parean jar dedin.

11)

Bostehuneko bat neuk botako dut
irekitzeko libreta
pena haundirik ez dit emango
kaduka berri zait eta.
Ia pixka bat hornitzen dugun
mutiko horren errenta
bestela hortxe kizkurtuko da
errezelotan erreta.

12)

Hemen uztera nola jolasa
agur, arreba ta anai
isilduko naiz baina ez nuke
inor isilarazi nahi.
Egunsentiak aukera bera
zabaltzen baitie denai
kanta bezate txoriek eta
txoriburuek ere bai.

Beti izan dira "gaurko bertsolaritza" maiseatuz, bertsolaritza joana mitifikatzea maite dutenak, batez ere joandako hura daturik edo

konstantzia handirik ezean ezkututzen denean. Txirritaren garaia, Xenpelarren garaia, berezkotasuna, eskolagabetasuna, freskotasun kutsagabea eta abar. Konparazioak ezartzean, akats nabarmenki arlotea egin ohi da, maisatzaileek oharkabean (ignoranteki alegia) egiten dutena, edo ohartuki (esan nahi baita erreminki), zaleen ignorantzian fidaturik. Txirritaren bertsogintza, adibidez, gaurko bertsolaritzarekin konparatzen dizute, bertso-paperen eta bat-batekoaren nahasmen freskoa aportatuz. Argitasun handirik ez da behar bi jeneroak bereizteko, baina kritikari askori talentuak ez die, non-bait, hainbesterik ematen. Nola egin behar dira orduan konparazioak? Ba, ia ezinezkoa da. Txirritaren bat-bateko bertsogintza zerbait ezagutzen dugu, nahizta oso gutxi berau ere, eta hau baino lehenagokoen lekukotza oso urria da. Esaterako, iritsi zaizkigun ale oso bakan eta dudagarriez harago, nork entzun du Xenpelarren bat-bateko saio bat? Nork daki hark ordubeteko saioari zer nolako tankera ematen zion? Nork daki haizeak eroan ei dituen milaka ale haietan zenbat harribitxi galdu zen, oso apologia eroso baita, gratuito ez balitz, konprobatzerik ez dagoen ilunpeetan mirariak suposatzea.

Gaurko bertsolaritza esatean, "gaurkotasuna" sarritan oso atzokoa izan ohi da, niri sarritan gertatu zaidanez. Bertsolaritza hori nirekin edo ni harekin identifikatu naute eta, izen-deiturak agertzeko ausardiarik ez zeukatelako, "gaurko bertsolaritza" esamolde generikoan babesten ziren, gaurkotasunetik antzina pasatu nintzela ohartzeke. Izango dira, ni hilda gero ere, gaurko bertsolaritza nire izenarekin asoziatzen jarraituko duten temosoak. Ez dut, noski, neure burua egingo maiseo guztien itu. Badakit uhinak askoz zabalagoak izaten direla eta batzuetan boladak gertatzen dira, non artikulak, iritziak, satirak, tremendismoak hedatzen diren. "Bertsolaritza Txirritarekin amaitu zen". "Gaurko bertsolaritzan ez dago gatzik". "Gaurko bertsolaritzan freskotasuna galdu da" —entzuten eta irakurtzen da oraindik ere, nahizta "gaur" horretan era askotako bertsolariak izan.

Sorta hau egin nuenean, Lazkao Txiki, esaterako, onenean zebilen. Buruz buruko batean Txirritak edo Xenpelarrek eutsiko ote zion ordu betean hari, grazian eta berezkoan? Edo ni baino gazteagoak diren izen batzuei, izendatzen ez hastearren? Hainbeste argitasun maiseatzaileei ere esleitu behar zaie. Ez dut uste hauen gogoan dagoenik Txirritaz honanzko edo gaur egungo hainbat bertsolari hain errotik deskalifikatzea. Haien buruan bertsolari, bertsokera eta sakonean mezu jakin batzuk (baita bekaitz batzuk ere) egon ohi dira eta orduan diseinuzko mamu bat sortzen dute, euren desatsegin guztiak haren kontra asaskatzeko. Premia sanitario hori zeukan askok mamua eginda aurkitu zuen nigan. Lan bat gutxiago. Esan nahi baita ignorantziaren edo erreminaren laguntzaile ona dela alperkeria. Neuk ere beste mamu bat diseinatzen ekin beharrean, diskurtsoak eta azalpenak antzu geratzen baitira, pentsatu nuen: "Gaurko bertsolaritzeak ez daukala gatzik? Oraintxe ikusiko dozue". Eta probatzea pentsatu nuen. Ironizatzen diren arrazoiak eta jarrerak bertsoetan nahiko argi azaltzen direla uste dut. Suieta pertsonaldu egin nuen, gizabanako jakin bati ari banintzaio lez, eta badakit bati baino gehiagori sortu zitzaiola kezka: "Hi! Amurizak txoriburuen bertso horiek nigatik jarri al ditik?". Ez dute, ba, jakingo. Izan daiteke bakarra, baina hori pentsatu dutenak denak dabil-tza zuzen, multzoak ez baitu bakartasunik txikitzen. Kotsolagarritzat hartu nahi bada, txori-jendea nahiko ugaria dela emanik, buruek ere hainbeste beharko dute. Bertso hauek jartzea eta gero han-hemen kantatzea zer atsegin izan zaidan esaterik ez dago. Entzuleek ere, papera eskuan-da, a zer gozatua hartzen zuten, Anje Duhaldek eta biok amaitzen genuenean: "kanta bezate txoriek eta / txoriburuek ere bai".

GABON ZORIONAK

Beste borroka urte bat zer den
burujabetzaren alde
deserrituei, presoiei eta
batez ere hilei galde.
Batzuk lepoan harturik eta
besteen senaren jabe
garaipenaren pozetik ere
urte bat hurrago gaude
mila zorion eta aurrera
urte ta erdi bada ere.

(Independentzia. 1992ko Abendua)

HERRI ta GIZA eskubideak
soin beraren bi aurpegi
bat odoltzean bestea ere
zauri bizian ageri.
Herio minak aurten berriro
gorritu du hainbat begi
Urte Berria izango bada
uzta berrien bildegi
denon gogoia, denon borroka
denon festa izan bedi.

(Herri eta giza eskubideak. 1993ko Abendua)

Askatasuna inoiz osoki
biltzen ez den ibilera
bidean gailur nahitaezko bat
independentzia bera.
Hura igonda jakingo dugu
zer egin handik aurrera
dena da hemen lanaren eta
gogoaren arabera
urte berria zabalik dator
ez utzi joaten aukera.

(1991ko Urte zaharra)

Berriz Gabonak, berriz elurra
berriz turroi eta kopa
falta direnak gogoratuaz
berriz gaztainak tiroka.
Haiek gabeko azkenak aurren
izatea nork ez opa?
Hala ez balitz, ez dezatela
etsaiek toparik bota
azkenak izan artean hemen
inork ez du etsiko-ta.

(Falta direnak. Ez daukat urterik apuntatua)

HBtik Gabonak zoriontzeko bidali ohi zuten postalerako eginak dira bertso hauek. Urte bakotxean helarazi nahi zuten mezua emango zidaten (gehienean Itziar Aizpurua izan nuen bitarteko) eta nik bertso bat egingo nuen, postalean testu joango zena. Neurritzat hamarreko handia hartzen nuen ia beti, emandako ideiak zuzen

eta natural adierazteko espazioa edukitzeagatik. Honelakoetan hartutako mezua bera izaten da lehen helburua, edertasuna ideien lagungarri besterik ez dela. Hasierako baldintzapei saihesgaitz hori albora utzirik, eta ideia batzuek beste batzuek baino ederbide errazagoa eskaintzen dutela emanik, lau bertsoetatik bakarria apartatu behar banu, bigarrena (“Herri ta Giza eskubideak”) hautatuko nuke segurrenik, erabiltzen diren metaforengatik eta ahapaldiak osoan eta batez ere azkenean hartzen duen indarragatik.

GAURKO AIREAN BADA USAIN BAT

Gaurko airean bada usain bat badago zerbait barria
ilusino bat ete dan nago zuri, berde ta gorria.
Marea gora dator indartsu seismo batek jaurtia
aurtengo urtea izango ete da sakada ebazgarria
podiumean goi ikusteko E-H Euskal Herria?

Karga handia dakargu baina gaur ez da egun tristea
mogida honetan entzungo dogu orain bata ta bestea.
Handiena da ETAk asteon emon daukun albistea
orain askori kostako jake milagroan sinistea
zelan izan lei sua etenda Euskal Herria biztea?

Igaz Ermua, aurten Irlanda Lizarrako agiria
gainditu dogu abertzaleon banakuntzen miseria.
Nahizta oraindik ez dan komeni baikortasun gehiegia
leiho fresko bat agertu jaku eguzkirantz edegia
oraingo honetan itxaropena izan leiteke egia.

Bertso hauek Lekeition kantatu nituen, 1998-9-20an, "Euskal Herri-
tarrok" en mitin baten hasieran. Esan beharrik ez dago bertso haue-
tan garbi nabarmentzen dela batetik Lizarrako agiriak eta bestetik
ETAren suetenaren iragarpenak sortu zuen giro baikorra. Hurren-
go hau agurrean kantatu nuen.

Lizarran urten barri dan trenak laster jo behar dau kosta
bide ondoan igon gurarik ondino asko dagoz-ta.
Bloke osoak gora egitea hori da lehenengo koska
eta onena, badakizue, "Euskal Herritarrok" bozka
egun triumfala gertatu daiten Urriak hogetabosta.

IGAZ ERMUA, AURTEN IRLANDA

Igaz Ermua, aurten Irlanda orain Lizarrako trenea
hau da sortu dan haizea eta hau mogida dabilena.
Bloke bitara banandu gara zein izango da gailena?
Lizarrakoak irabaztea horra gure garaipena
EH honi paparra emonda garbien lortu leikena.

Tren bat martxan da aspaldi lantzen eta amesten genduna
tunel luzea igaro eta argi bila joakuna.
Hamaika bider kantatu dogu "Eutsi oraintxe, laguna!
Eutsi goiari gogor, ze laster argituko dau eguna".
Etorri da, ba, egun hori be galtzen itxi ezin doguna.

Ermua ia defuntu dago hori ez da sekretua
horra Lizarra izar komun bat gaberdian agertua.
Biribiltzeko suetenaren tximistazko efektua
sortu dauana hemen poza ta Madrilen deskontzertua
hauxe izan da orain arteko atentatu perfektua.

Durango, 1998-9-21. "Euskal Herritarrok"en agerpenean kanta-
tuak, institutoko aretoan. Lehenengo bertsoko "EH honi paparra
emonda" literalki ulertzekoa da, paparrean generaman EHren pega-
tina seinlatu bainuen. Aurreko sortan bezala, Lizarrako agiriaren
eta ETaren suetenaren hasierako giroa islatzen da. Bertso haue-
tan agertzen dudana euforia areago zen egia izan zedin desioa bene-
tan sinesten nuena baino. Ez zen, noski, geroko porrota aurrikus-
teko argitasunagatik, sinespide osoa emateko gertaera handie-
gien aurreko prebentzioagatik edo historiak tematiegi lanarazi digun
senagatik baizik.

IRABAZI ARTE

Goazen mendirik mendi
dei egiten dute
arranoek herri bat
airean dakarte.
Euskadi askatzeko
beste zenbat urte?
Zutik eta aurrera
irabazi arte.

1)

Herri honen gogo
mendeen alaba
eguneko zulotik
altxa begirada.
Noiz iritsiko garen
azken helmugara
noiz ez dakigu baina
iritsiko gara.

2)

Bidean erorien
odol sakratua
aurrera doa gure
zainetan sartua.
Bizirik hartu dugun
herri zanpatua
utz dezagun bizirik
eta askatua.

3)

Euskadi alaitsu ta
borrokan kementsu
jo dezagun aurrera
bietan berdintsu
Umore ona sortzen
baldin badakizu
borrokak hori ere
eskertuko dizu.

Bertso hauek HBren kanpaina baterako eskearen ondorioz eginak dira. Kanpainaren lema, azken ahapalditik ateratzen dudanez, “Euskadi alaitsua eta kementsua” izan zela uste dut. Doinuua “goazen mendirik mendi” izan zedin eskatu zidaten eta horrexegatik pentsatu nuen leloak ere abiaburu berea edukitzea. Hone-lakoetan mezuaren ideia batzuk ere ematen dizkizute, azkenean gutxi gora behera betikora itzuli behar izaten bada ere. Metaforak alda ditzakezu, baina sentipenen edo sentiarazi nahi direnen enbor-ideiak ezin dira asko aldatu eta gakoa da honelako kantak ez direla poetentzat egiten, militanteentzat baizik. Ahalegin literarioak oso neurritzkoa izan behar du, hostailak enbor-ada-rrak ezkuta ez ditzan. Poema ireki batean hain iradokior izan daitezkeen zalantzak eta anbiguetateak kanpaina eta egoera oso zehatz bateko kantan ebasio bat izan daitezke. Horrexegatik egiten zait kanta hauen eginkizuna nahikoa gogor. Alde batetik burrukaren monokulua eder-gozotu nahi eta bestetik begirada ezin gehiegi loreztatu. Leloko “mendiak, arranoak, aireak” euskaldun burrukarien gogoan oihartzun zehatzak dauzkate. “Irabazi arte”. Eta non ez? Eta noiz ez, irabaztea lortu arte edo gutxienez irabazten aritzea garbi ikusi arte? “Beti lelo beragaz gogaituta naia-gok” —esango dute. Eta gogaitzeak ba al du zerikusirik edo eraginik, irabaztea gerta dadin? Hil kanpaia entzuten gogaituta ego-teak ez du kentzen zuretzat joko ez duenik. Zorionez, jaiotzen direnentzat, “irabazi arte” oihu berria eta kemengarria da. Nahizta neu ez izan kementsua, badakit horrexek balio duela, irabazteko. Nahizta neu ez izan alaitsua, badakit horixe behar duela burrukak. Mundu honetan gezur pozgarri bat egia deprimente guztiak baino baliosago da. Nik neuk ez dut sinesten irabaziko dugunik gizateria mailan, ezta Euskal Herri txikian ere, baina sinesmen hori zabaltzen ahalegintzeak salbatzen nau. Kanta hau berrirakurtzeak batzuetan zirrarratu, beste batzuetan tximurtu egiten nau eta, neure burua taldean irudikatzen badut, beti berotzen nau. “Borrokak hori ere eskertuko dizu”. Eskertu ez ezik, borro-

kak nahitaezko du umore ona. Aberatsek eta jeneralek ez dute behar, edo ez zaie iristen, edo ez dute gogoko, edo inkompatibleak dira. Horrexegatik dira hain jenio gaiztokoak. Gorde bitza hilkanpaiak.

JAUNARTZE HONEK BADU

1)

Udaberriarekin
badoa maiatza
Jaunartze honek badu
zeruaren antza.
Haur loratuen biran
erlearen dantza
zer polita dagoen
Jesusen baratza!

2)

Zeruko baratzean
Pasaiko arrosak
haiekin jolasteko
Jesusen bildotsak.
Guk ere gaur zuekin
dauzkagu bihotzak
betiko iraun dezan
egun honen pozak.

3)

Jesus, zuk badakizu
zure zain geundela
badakizu egun hau
iraunkorra dela.
Gu zugana hain pozik
gatozen bezela
zu gurekin halaxe
egon zaitezela.

4)

Ongi etorri, Jesus
gure lagun berri
arren zure Aitaren
gogoia ekarri.
Zu zaitugula gure
indar eta argi
zerbitu nahi diogu
Euskal Herriari.

Abade nintzela, umeen jaunartzeari suposatzen zaion misteriora ahalik eta zuzenen eta garbien eroaten ahalegindu nintzen, dekoraziorik sinpleenean eta ospakizun esternoetatik (jantziak, opariak, jatorduak) ahalik desatxikien. Umeak erraz engainatzen dira, ez baitira harroak. Gurasoen eta helduen presioan dago gakoa. Hauen multzoak sortzen du banan ia denek zintzoki aitortuko dizutenaz kontrako ohituraren despotismoa, zeinatik libratzea oso gogor egi-ten zaien, ohituraren zaintzaile dela jotzen den goragoko aginte batek laguntzen ez badie. Sasoi hartako abade “errebeldeok” lan askatzaile handia egin genuela uste dut eta nik neuk ofiziatutako

jaunartzeak behintzat oso naturalak eta eskuragarriak izan zirela-koa daukat. Familiaren batek distira handiagoa nahi bazuen, beste eliza batera joateko askatasun osoa emango nion eta kito, baina oso gutxik hautatuko zuen bide hori, sozialki gezurra badirudi ere, erri-to xumeak eta merkeak (merkeak batez ere!) gustagarrienak baitira. Urte askoren buruan, jaunartze eta gainerako fedekizunen sinestetik libre nengoela, edo garbi esateko, batere sinesten ez nituela, Pasaiaiko emakume batek bere umea partaide izango zen lehen jaunartzerako bertso batzuk eskatu zizkidan. Arlo politikoa, Euskal Herriaren askapenari buruzko sentimenduan batik-bat, genuen kidetasuna eta berak nireganako erakutsi zuen ongura zirela bide, ezin izan nion ezetzik esan, nahizta neuk bertso hauetan esanik sinestu ez. Ez daukat hipokrisian huts eginaren sentipenik. Badakit beste batzuen sentipenak eta sineskerak maitatzen, sinestunek maite izatea merezi dutenean. Ostera, zapaltzaile edo explotatzaile batek erakus liezadan federik sublimeena ezingo nuke haintzat hartu eta gutxiago maitatu, hari bertsoak eskainiz, salatzeke ez bada. Esaera da abadeen lan zaila, “eurek sinesten ez dutena sinestaraztea”, eta badakit egia ere badela, beste maila askotan bezala. Bada, ordea, alde handi bat. Batzuetan gizakia benetan eta aktiboki ahalegintzen da “sinestarazten”, portaera sozialean eragin guran. Beste batzuetan portaera sozialak berak egiten du zuk pasiboki jasaten duzunak une batean sinesmen aktiboa eman dezan. Ohitura sozialari edo erlijiosoari sistematikoki jarraitzen badiozu, ezin duzu eskatu itxura eta sinestea (edo ez sinestea) bereiztuak izan daitezen. Aldizkako amore emateak, ordea, ez dauka beste guztietan sobera agertua duzun posizioa gezurtu beharrik. Abadegai oraindik gaztea nintzela hain zentzunbako aurkitu nuen arrosarioa (Ama Birjinari berrogeita hamar aldiz gauza bera esaten tematzea) gaur ere lasai errezatuko nuke, norbait haintzat hargarriari nik hartan laguntzeak poz emango liokeela jakinik. Edo, suposamen probableagoan esanda, ez laguntzeaz atsekabea hartuko lukeela jakinik. Jaunartzeko bertso hauetan ezin nuen, noski, fede sutsu

baten berotasunik agertu (gainera hau azken batez ez al da subjektiboa?), baina kristau baten niganako eta neure harenganako karinoari erantzuteko balio izan zuten eta, langintzan bertan neure barrua apur bat bortxatu behar izan banuen ere, amaitutakoan, ondo eginaren poza geratu zitzaidan.

TXORI GUZTIAK KANTARI

1)

Txori guztiak kantari
 zuhaitzak hostotzen ari
 odolak ere nabari.
 "Altxa gaitezen" dei egin dio
 martxoak apirilari
 mundua berriz mirari
 zer den ez galde berari
 Udaberria dun hori.

2)

Udaberri paregabe
 berbiziaren aldare
 nor ez jarri zure alde?
 Bazoazela ere zurekin
 beti esperantzan gaude
 hurrengo itzulian ere
 agertuko baitzarade
 eroanaren ekarle.

Bertso biok hementxe agertu zaizkit, apokrifoak bailiran. Ez daukat gomuta izpirik zergatik ez zertarako egin nituen. Segurrenik egiten ari nintzen lan bortxaturen batetik eskapada bat izango zen, edonondik agertzen diren ideia deslai horietako baten atzetik. Beharbada lau urtaroen atzetik abiatu nintzen, bertso banaren asmoz, eta udaberrian gelditu, bigarrena erantsita. Ez da izan ere txarre-na, bertan gelditzeko zein lasterrari emateko. Hamaika urtetik gora udaberri pilo luzea bekaitz adurtiz pasatzen ikusi nuen, barrua-
 ren urruntasunetik. Beragatik baino gehiago saltarazten ninduen ondoren zekarren udako oporregantik, ez hainbeste eurongatik edo uda maiteago nuelako, etxera joango nintzelako baizik. Seminarioan zapaltzen nuen natura ilusio bat zen, ilusio bortitza baina irreal, oinpetik minki ihes egiten zuena. Niretzat udaberria grina imposible bat besterik ez da izan, bere gainean bizi naizen oraintxe ere barnatzea kostatzen zaidana. Ematen dit udaberri natural bakarra hainbeste urtetan hainbeste desio izan nuen etxe harexen ingurukoa bakarrik dela eta orain, nahi dudanean iristeko aukera daukadanean, desio huraxe agertzen zait beti udaberri forman. Joanak ez dauka erremediorik eta orainak ere ez, haren ondorio den heinean. Bertso biok ez dagoz, noski, tesitura honetan eginak eta, api-

rilaren seia denez gero, udaberri inguratzailaren gainetik buelta bat ematea komeni zait, ea desio haren azpian aurtengo kukua agertzen den, ez minberatzeko aginduz, ordukoa eta oraingoa eta betikoa berbera delako. Zorionez!

KALISTA ETA PATXIKO

1)

Errosario deiari askok
erantzun dautse gaur ezetz
ohitura hain samurrak hausiaz
berbaz ez bada egitez.
Horrelako fameli gehienak
tribunal bihurtu direz
bertan senarra ta emaztea
dira lapur ta bai juez
alkarren kontu hartzea dauke
errosarioen orde.

2)

Seinale txarrak erretolikan
hasten diranean biak
eskaratzean zer pasatzen dan
konturatu dira behiak.
Zaparradia sumau orduan
miauka doaz katuak
kontziertua zabaltzen dabe
kortako animaliak
etxe haretan zer pasatzen dan
badaki auzo guztiak.

3)

PATXIKO

Komeni diran berbatxo batzuk
ein behar doguz, emazte
lezino on bat behar dozula
ezin ukatu leiteke.
Aspalditxoan ikusten zaitut
neurritik gora paseute
azken aldian zeu egin zara
etxe honetan alkate
baina hemengo prakadun neu naz
behintzat bizi nazen arte.

4)

KALISTA

Nire aurretik zeu zagoz, senar
lezino baten beharrez
errenditzea gura badozu
txakurra uzabari lez.
Zure azpian bizitzekotan
ez nintzan ni ezkondu, ez
kriadatzat hartuta naukazu
baina hor oker zabiltzez
alkate ez bada zu beste banaz
behintzat neu bizi nazenez.

5)

PATXIKO

Biok horretan bardin bagara
hara nik dodan dudia
zelan arraio ete gagozan
ni argal ta zu lodia.
Ezkondu gintzazanetik hona
loditu zara arroia
zeure neurrian gizen bozu
kortan dagoan txarria
ardura barik izango dogu
urte guztiko urdaia.

6)

KALISTA

Loditasuna ta argaltasuna
ez dagoz geure aldetik
danok daukagu diferentzia
bardinak izanagaitik.
Lodi banago nundik ibili
ondo dakidalako nik
ze zuk oin arte emonikoaz
oingo hil nintzan goserik.

7)

PATXIKO

Ai sorgin lapur, harrapau zaitut
tranpan zeuk ez dakizula
zeure agotik autortu dozu
pekataria zarela.
Jan-edanean zabiz orduan
senarra kanpotik dala
besteak barriz ondino dino
nigaitik gosez hil zala
berez urtutzen ete da orduan
nik dakartzudan jornala.

8)

KALISTA

Ezkondu ginanean eleizan
egin gendun kontratia
bion gauzetan biok dogula
lege bardinez partia.
Hagaitik neuri tokatzen jata
zure jornalaren erdia
etxera orduko gastatzen bozu
tabernan zeure partia
neurea dala dino legeak
osorik beste zatia.

9)

PATXIKO

Baserri baterako zara zu
lar listatxua, Kalista
senarrarena erdibitzea
zeurea osoan gordeta.
Ardaozalea neuri nazela
zeu barriz amorratuta
mozkorraldiko kolpeakin dau
eperdia mailatuta
satorren bila zeuk be ez dozu
surra piper gorrituta.

11)

Hauxe matrimonio bikaina
Kalista eta Patxiko
zeuek igarri bion artean
zein ete dan mozkorrago.
Parrokoari agindu dautse
hau bai dala harritzeko
euren enterru egunerako
mesedez ez aztutzeko
uretan barik ardaotan ondo
isopoa bustitzeko.

10)

KALISTA

Zeu be ezara aingerua ta
ez ein hainbeste zarata
nik surra gorri baina zuk prakak
atzeko aldetik bustita.
Bart gabeen zer eballi dozun
enteratu da Kalista
kalean zehar ibil zinala
prakak aldrebes jantzita
eta jakina, larri aldian
behar bat aurreratuta.

Hauexek dira nire euskarazko lehenengo bertsoen ohore errukarria daramatenak, hamazazpi edo hamazortzi urte nituela, Seminarioan euskarazko klaseak baimendu zituzten lehen urtean gela batean kantatuak. Bertso bat lau puntukoa da. Segurrenik bosgarrena laster kontatuko dudan bide bitxian galduko zen. Zortzigarren bertsoan "partia" bi bider agertzen da. Gogoan daukat, oso

gogoan, zelan ibili nintzen burua apurtzen, konponbiderik aurkitu ezinik. Azkenean beharbada etsi egingo nuen, horixe ez daukat gogoan, edo beharbada hori ere bideko okerra izango da. Teknika aldetik, batzuetan etenik ez da errespetatzen. Ez nenkien hori zer zen. Errima aldetik ere ez dago zorroztasun handirik, nahizta batzuk gaur ere ez liratekeen hain txarrak. Gogoan daukat bigarren bertsoa "katuak" ez nuela egoki ikusten, baina, hamaika buelta eragin arren, ez nuen konpontzeko maleziarik izan eta gorago aipatu bideak ere ez zuen zuzendu. Gaiari buruz, berriz, harrigarri eman dezake Filosofian gora doan estudiante batek hain erretolika ruralari heltzea, baina nik euskara mundu harexekin bategina neukan, hangoxea nintzen, mundu huraxe maite eta sentitzen nuen eta gainera seminarioko egia zapalgarritik ihes egiteko era bat zen. Ez zitzaidan burutik pasatu ere egin seminarioko bizimoduari-edo bertsoak jartzerik, zeren, bururatuta ere, non eta nori kantatu behar nion sentitzen nuena, zigortua izateko arrisku barik? Urte batzuk geroago arte ez zen malezia hori garatuko.

Bertso hauek, lehenengoak izanaz gainera, badute historia hunkigarri bat. Urteak joan ziren eta zeharo ahaztu zitzaizkidan. Espetxean saiatu nintzen bergogoratzan, baina puntu solte batzuez besterik ez nuen berritu. Handik irtenda, beste urte pilo bat igaro zen eta gure etxetik, Torreburutik, Zornotzara bideko Kanposene baserriko mutil batek diost: "Gurean zuen aitaren bozagaz zinta bat jagok". Emozioak belaunak dardartu zizkidan. Gure aitaren bozik ez genuen inon gordetzen. Etxerik etxe igeltsero ibiltzen zen eta nonahi egiten zituen kanta saioak, halakoxe umorea baitzeukan. Kanposenen esku probidentzialen bati grabatzea otu zitzaion eta, beste zenbait kanta eta kontakizunen artean, hara non entzuten diren Kalista eta Patxikoren bertsook ere. Aurkikunde zirraragarria izan zen, bertsoon sortzetik hogeitazak urtetara, aita aspaldi hilaren abotsean.

GALIZIANOEN BERTSOAK

Beste sortatxo bat hau ere, neure bizitzan jarri nuen bigarrena, guztiz ahaztuta neukana. Aitak, lehen sorta hura kantatuz, egundoko arrakasta lortzen zuen, bere ustez behintzat, eta seminariotik etxera ekarri nituen uda hartako San Antolinetan Etxanoko Epaltze auzoan kantatu zituen behin eta barrero. Auzo hartan popularra zen gure aita eta berari ere han luzitzea gustatzen zitzaion. Hurrengo udan (ez dakit dena uda berean gertatu ez zen) dinost:

–Hi, Jabi! Bertso batzuk egin behar daustazak, San Antolinetan "galizianoai" kantetako.

"Galizianoak" eta "Galizia" epaltzetarren eta Epaltzeren ezizenak ziren, eurek ere harrotasunez hartzen zituztenak. Alperrik izan zen ezetzean tematzea, azkenean aitaren apeta bete egin behar izan nuen eta. Halaxe sortu ziren "galizianoen bertsoak", nire bizitzako bigarrenak, aitaren ahoan ipini nituenak. Bertso hauetan zortziko handi bi eta hamarreko bi dagoz. Denak hamarrekoak baldin baziren, bidean puntu bi galdu dira, baina baliteke neuk halaxe egin izana. Erabiltzen genuen doinuak bietarako balio zuen eta, hamarrekora iristen ez banintzen, lasai utziko nuen zortzikoan. Edo alderantziz, zerbait gehiago esan gura banuen, bertsoa eta kantakera luzatzearekin eginda zegoen. Segurrenik honelaxe jarduten genuen, gure buruan zortziko handia baitzen egitura kontziente bakarra. Andres Autzaganekoak gurdian eroaten zuen taberna Autzaganetik Epaltzera. Andres tabernari famatu honen eroan-ekarri gorabeheratsuez beste bertso bat egin nuelakoa daukat, baina bidean galdu da, antza. Hamazortzi urtegaz jarritako bertsootan, ez dakit ohartuki ala oharkabean, etena errespetatzen da eta errimaz ere lehenengoak baino egokiagoak dira. Aurreratzen ari nintzen.

1)

Goizean goizik itxartu naz ni
hemengo bolanderakin
eta gehiago ezin izan dot
aurrerantza lorik egin.
Merezidu dau hona etortzea
gitxienez urtean behin
gure santua bisitatzera
behintzat sitsak jan ez dagin
Epaltze bizi dan arte behintzat
gora gure San Antolin.

2)

Sasi baztarrak ikusten dodaz
oilasko lumaz beterik
horreik gehiago ez dabe egingo
goizean kukurrukurik.
Epaltzen gosez geratutzeko
ez ei daukie konturik
sardin hazurraz behintzat gaur honeik
ez dago konformatzerik.

3)

Inun badira hementxe dira
sekulako morroskoak
Fidel Castrok be behar balitu
soldadu aproposkoak.
Erritu onak ditu bai hemen
Andres Autzaganekoak
Galiziara joan barik dagoz
berton Galizianoak.

4)

Egun bat gitxi izaten dabe
lau egun jai hartzen dabez
urte guztiko jornalak hemen
laster urtuko leukiez.

Lenengo bete-bete eginda
babajana da azkenez
taberneruak hor dabiz larri
abasto emon ezinez
honein ajeak hilabetean
kentzen ez da izango errez.

TXEPETXA ETA KUKUA

- 1) Nor ez da itzartzen pozez txoritxoan kantu hotsez. Euren artean gure kukua nork ez du maite bihotzez? Nik ere maite nuen baina gaur dudan nago bai edo ez.
- 2) Umetatik ezaguna dugu gure kuku jauna. Txepetx habian han utziko du bere arrautza txukuna ta gero berak adarrik adar kantari pasa eguna.
- 3) Txepetx gaizoa hor dabil kukuari jana non bil. Ekarriala irentsi eta berriz bila behar ibil kuku arrotza ezin aseta bure umeak gosez hil.
- 4) Inork nahi badu ikasi txepetx txikia ikusi. Berak hain nekez egina duen habitxoan inor nausi kukua hazi, habia hausi umeak sasira jausi.
- 5) Elur, izotz nahiz uholde hura neguaren alde. Dudan bazagoz zer den hobea txepetxari egin galde neguan aske ibili ala udan kukuaren mende.
- 6) Kukuarekin heldu da aurrerapena mundura. Udaberriaz ongi gozatu txepetx lantsuen kontura gero isildu eta adio orain bila ezak hura.
- 7) Umea txepetxak hazi ta heu lanaren ihesi. Kantatzen ere beti lelo bat besterik ez duk ikasi munduan fama badaukak baina ez duk askorik merezi.

Beste bertso sorta bat ontzeko kasketaldia izan nuen seminarioan. Hamazortzitik hogeta lau urtera izateko, ez da ezer, baina hortxe dagoz. Bertso hauek bai kontserbatu nituen, abade egindakoan, zenbait okasiotan kantatu ere bai eta, ez dakit zelan eta nondik, hemen daukat paper bat, ez galtzeko zortea izan duena. Bizkaierazko orijinalaren egokitzapen ba da, handik urteetara, espetxean segurrenik, euskara batura egin nuena. Orijinala bera galdua da.

Bertso hauek jartzean, gogoan daukat nolako korapilo sentimentala egin zitzaidan, askatzerik lortu ez nuena. Berez, animalia guztiak dira bardin xaloak eta liluragarriak, baina otsoa, esaterako, bildurgarri izan daiteke. Picassoren zezenak hondamen bat irudika dezake. Kukuari ezin diogu, gurata ere, karga hori erantsi, ezin dugu harenganako amorrurik edo gisako nahikunde gaiztorik sentiarazi. Jartzean eta batez ere kantatzean, ondoez bat sentitzen nuen, baina ez nintzen izan zergatik zehazki konturatzeko gauza. Orain irakurtzen ditut eta alde batetik identifikatu egiten naiz, metafora politikoa ez baita ezertarako esplizitatzen. Kukua-ren eta txepetxaren arteko gatazka deskribatzen da soilik. Baina badago azpi intentzio bat, neuk behintzat ekidin ezin dudana. Gaur ere bertso hauekin ondoez berean jarraitzen dut, “Enaz banaz” liburuan luzeago azaltzen dudan moduan.

HB BELODROMOAN

1)

Berriro ere belodromoa
betea eta batua
nola dakargun asko ta onak
izan gintezen patua.
Etorkizun bat eskaintzen dugu
sustraitik bakeratua
baina ez noski damutua ta
inork ezer barkatua
baizikan Euskal Herri Berria
kate zaharrak askatua.

2)

Zaharrak ez du noski esan nahi
zahar guztia sutara
hor dira gure lurra bera ta
kultura eta euskara.
Hoiiek berrituz eta indartuz
gu ere piztuko gara
pizkunde horrek jasoko gaitu
garai berrien festara
non izango da Euskadi aske
Euskal Herrian ez bada?

3)

Beti bezala gaur ere HBek
ematen die denei min
guztiak kontra dauzkagu baina
kostako zaie gurekin.
Hau izango da gure ordaina:
denen kontra gorantz egin
ez da ezina, daitekena da
beraz, aupa eta ekin
hilak hogeita zortziko gaua
geure jaia izan dedin.

1990-10-20. Herri Batasunak Donostiako belodromoa hamaika aldiz bete izan du leporaino, hauteskunde kanpainaren barruan. Halako berotasun eta betetasunaren lekuko dira bertso hauek ere. Inoiz beste bertsolari lagun batzuekin, inoiz bakarrik, urte hartan honela izango zela atera behar da bertso hauetatik. Beste batzuekin zenean, lekuan bertan erdi inprobisatuko genuen eta halako bertsoei

ez nien gordegarri erizten. Bakarrik kantatzen nuenetan, bertsoak pentsatuagoak izango ziren, beti ere kanpainan eta ekitaldian nabarmendu nahi ziren lema eta ideien inguruan. Urte honetan “zaharretik berrira” edo honelako zerbait izango zen. Edukiaz harago, hainbeste mila lagun, sutsu eta oihulari, batzen den barrupe batean, bertsoen tonuak bistan dago brabo samarra izan behar duela, nahizta beharbada norbere barrua hain kementsu sentitu ez. Unean bertan ez da zaila, jendetza beroak eta beste osagai zirraragari batzuek (presoen karteleria amaigabea, esaterako) norbera ere berotu egiten baitute. Beste kontu bat da giro batean eta giro batentzat kantatutako bertsoek, ingurune hartatik at, norbere benetako kemen maila zenbateraino adierazten duten. Nire kasuan, honelako hamai-ka ekitaldi ezberdin eta beti ere intentsoetan kantatutako bertsoek historiako une baten lekuko lez gehiago balio dute, neure izatearen adierazletzat baino, eta segurrenik bereizkuntza honetan gehiengoaren psikologia ordezkatzeko dut. Izatea esango nuke beroarena kendutakoan geratzen den tenperatura dela, nahizta beroaldiak ere izatearen barruan sartzen diren. Hala ere, hauek, kolektiboek batez ere, manifestazio jendetsu batekoek esaterako, gehiengan oso beheraturik iristen dira biharamon indibidualera, merkurioaren fuga bat izan bailitzan. Ez dut ukatzen jendetza baten eragin kemengarria, ni neu oso erraz kutsatzen nauena, baina engainagarri ere izan daiteke, alienantea ez esatearren, jarduera banan-ngo eta sozial arruntaren urritasuna enkapotatzen duen neurrian. Garbiago esanda, Ezker Abertzaleak mobilizazioetan erakutsi duen handitasuna gero ez dator hain bat eguneroko organizazio xehatuarekin. Bertso batzuen balio ustez testimonialetik urrunegi joan banaiz, urrunago ere joan nintekeen, baina bide alboan iturri bat agertu zait eta ezin dut jarraitu berarekin idilio atabiko bat intentatu gabe.

BAKEA

Mezu argian etorri zaigu / Lizarrako Agiria
"Euskal Herriak izan behar du / hitza ta erabakia".
Armen gelditze soila ez dugu / bakearen edukia
baina ETAre sueten honek / badakar zer eraikia
Oraindik ez da bakea baina / bai atari irekia.

1998-9-18ko ETAre suetenaz, "Deia" egunkarirako bertso bat eskatu zidaten eta hauxe bidali nuen. Egun eraginak, irrikatsuak ziren haiek. "Betor Lizarrako trena / ekarri duena / suetena / alde-rantziz bazen / berdin dena". Azkenean, urte eta zerbaiten buruan, atari irekia berriro itxi zen. Ohituta gagoz barruan egoten eta pozik gengozke bertan, etxea geurea balitz. Hurrengoan izango da. "Zuk uste hurrengorik izango dala?". Orain arte ez da izan aurrekorik, hurrengorik izan ez duenik. "Kontsolapen ederra!". Ederra ez, baina bakarra. "Noiz?". Profeta onari ez zaio datarik eskatu behar. "Eta txarrari?". Horrek eskatu barik ematen ditu. Horrexegatik da profeta txarra. "Honek zer zerikusi dauka Euskal Herriak hitza eta erabakia eukitzeaz?". Handia! Profetak ez dira geroa igartzeko, oraina animatzeko baizik. Besterik? "Ez, jauna. Argiago esplika zeitekean, baina ez konbintzenteago". Ataria hasi da berriro irekitzen.

GAURTIK EGIN IRRATIA

1)
Gaurtik EGIN Irratia
gauetz eta egunez
daukazu ordu denez
egun argiz lo bazaude
hemen gaituzu gauetz.
Gero loak hartzeko ere
ez itzali mesedez
pixkat jaitsi gehienez
amets txarrik ez dukezu
gurekin lo eginez.

Bertso honek EGIN Irratia hogeita lau orduko programaziora luzatu zenekoa izan behar du. Ez dut uste sortzetik beretik egun osoan hasi zenik. “Ez doala uste? Eta zergaitik ez dok deitzen?”. “Zertako deitu?”. “Jakiteko!”. “Interesatzen al jan?”. “Ba bai, irakurtea bardin kostatzen dan ezker”. “Orduan deitin heuk”.

HEMEN

1)

Esku arteko ale hau hire
azken ostirala omen

Jainkoak ere larunbatean
hartu baitzuen atsedena.

Ia hutsetik hentorren horrek
baduk segida ondoren

EGUNKARIA bistan diagu
eta ongi joan HEMEN
izango dituk gure berriak
gu hitaz ahaztu baino lehen.

2)

Hilak piztea baldin bada ere
dudazko ameslorea

hire agurrak badik halako
egunsenti kolorea.

Aurrerapenak nahi likek hire
zorte eta ohorea:

bergizatzea atean daukak

eta gainera hobe

hi garaile ta gu irabazle

hau duk zorion doblea.

EGINek ateratzen zuen HEMEN gehigarriaren agurtzat pare bat bertso eskatu zidaten eta hauexek egin nituen. Guztiz ziur ez bana-
go ere, gehigarriarentzat neuk proposatu nuela uste dut HEMEN
izena. Nolakoa zen ia erabat ahaztua daukadan EGIN-atal hura
euskara hutsekoa zela ateratzen dut, bertsootan aipatzen den
“EGUNKARIA”ri lekua uzte-
tik. Lehen bertsoaren amaia, beraz,

“gu hitaz ahaztu baino lehen”, badirudi ez nuela neuk betetzeko jarri, nahizta ziur nagoen ez dela izango sasoian interesatu ez zitzaidalako. Memoriak apenas diharduen beti norbere interes-eskalaren arabera eta honezkero kostako zait berari benetan zer interesatzen zaion deskubritzea. Nahi duena nahi duen moduan gorde dezan utziko nioke, bestela ere horixe egingo bailuke, gero oroitzen naizena izatea koadratzen arazorik ez baletor.

HEMEN

1)

Esku arteko ale hau hire
azken ostirala omen
Jainkoak ere larunbatean
hartu baitzuen atsedan.
Ia hutsetik hentorren horrek
baduk segida ondoren
EGUNKARIA bistan diagu
eta ongi joan HEMEN
izango dituk gure berriak
gu hitaz ahaztu baino lehen.

2)

Hilak piztea baldin bada ere
dudazko ameslorea
hire agurrak badik halako
egunsenti kolorea.
Aurrerapenak nahi likek hire
zorte eta ohorea:
bergizatzea atean daukak
eta gainera hobea
hi garaile ta gu irabazle
hau duk zorion doblea.

EGINek ateratzen zuen HEMEN gehigarriaren agurtzat pare bat bertso eskatu zidaten eta hauexek egin nituen. Guztiz ziur ez bana-
go ere, gehigarriarentzat neuk proposatu nuela uste dut HEMEN
izena. Nolakoa zen ia erabat ahaztua daukadan EGIN-atal hura
euskara hutsekoa zela ateratzen dut, bertsootan aipatzen den
“EGUNKARIA”ri lekua uztetik. Lehen bertsoaren amaia, beraz,

“gu hitaz ahaztu baino lehen”, badirudi ez nuela neuk betetzeko jarri, nahizta ziur nagoen ez dela izango sasoian interesatu ez zitzaidalako. Memoriak apenas diharduen beti norbere interes-eskalaren arabera eta honezkero kostako zait berari benetan zer interesatzen zaion deskubritzea. Nahi duena nahi duen moduan gorde dezan utziko nioke, bestela ere horixe egingo bailuke, gero oroitzen naizena izatea koadratzen arazorik ez baletor.

LURRA ETA ASKATASUNA

1)

Geure lurra ta askatasuna
kantatzen ditugunean
bizi garela sentitzen dugu
nahiz preso egon unean.
Kantatzen dugu pentsatuz hori
ez hain epe urrunean
izango dela geure lurrean
eta askatasunean.

2)

Kantatzen duen herri bat inoiz
ez dela hiltzen diote
bizia eta askatasuna
aire berbera ez ote?
Txoriak ez du hiltzeko ere
kaiola isilik maite
kantatuko du hego askeak
bizian pausatu arte.

Presoen aldeko disko baterako, musikari askoren arteko elkarlanean burutuko zena bera, pare bat bertso eskatu zizkidaten eta hauexek egin nituen, dezente kostata, egia esan. Ohi bezala, pre-sazko lana izanez gainera, hain gai handi eta teink bati bi bertso-tan erantzuteko dohai barik aurkitzen nintzen. Derrigorrean zeo-zer atera nuen, konbikzio handi barik grabatu nituen eta orain, urte batzuk geroago, ez zaizkit hain ahulak begitantzen. Oso gogoan daukat nola abiatu nintzen “geure lurra ta askatasuna / kantatzen ditugunean”, nondik jarraitu behar nuen jakin barik, zerbait ateratzeko metodo gisan. Ea hasiera solemne eta gramatikalki men-

pekoak, ahapaldia gorago eroateko bultzadarik ekartzen zuen. Azken punturako paralelismo on bat aurkitu nuenean, “izango dela geure lurrean / eta askatasunean”, birikek arnasaldi sakon batez eskertu zuten. Diskoa zenez, kantatzea ideia inguratzailea izan zitekeen eta hor kaiolako txoriak, topikoa izan arren, beti eman zezakeen zerbait. Orijinaltasunean falta zuena indarrez konpentsatzen ahalagindu nintzen. Badira inspiraziorik eza itxuratzen duten baliabide gailengarriak, baina bai neketsuak ere. Gertatzen dena inspirazioaren zain egoteak ez duela haren etorrera segurtatzen. Zenbat eta zainago zagozen, hainbat urrunago aldeko dizu. Schuber inspirazio permanentean bizi omen zen, baina gazte-gazterik hil zen. Hori ere ez dugu nahi. Beraz, lanean segi beharko. Etorriko haiz nahi duan batean!

HAUTESKUNDEAK AMAITU DIRA

1)

Hauteskundeak amaitu dira
zer berri zuen txokotik?
Denek ez dute pozteko hainbat
motibo izango hortik.
Guk badaukagu sobera eta
ospa dezagun gogotik
irabaztea ez dago urrun
ireki dugun ildotik.

2)

Marka berri bat ere badugu
oraingo hontan utzia
askok nahiago izango zuen
bizkarrean burduntzia.
Espainiaren Hatxebekuntza
hasia da goruntz ia
laster diagu bueltan Colonek
eraman zuen untzia.

3)

Gogoan daukat joan zen igande
arratsaldeko haizea
gisa hortako lana izan da
HBren guraizea.
Hauxe bakarrik falta zen orain
Espainian zabaltzea
sidari baino bildur gehiago
dioten virus klasea.

Bertso hauek noizkoak diren ez dakit, baina argi dago HBk emaitza onak lortu zituen baten ondorengoak direla. Zertarako edo non kantatuak izan ziren ere ez daukat lorratzik eta bertsoetatik ez dago ateratzerik, nahizta ardura handirik ere ez daukan xehetasuna izan. Lehen bertsoko “zer berri zuen txokotik” norbaitzuri zuzenduak direla ematen du, baina segurrenik garaiko “Semaforo gorria”-ren bat izango dira, eguneroko prosa bertsoz endredatzera bultzatu nindutenekoak. Hain gutxitan egin dudanera saltatzeko, une animosoa beharko nuen. Susmoa daukat hari puntaren batek ekarriko zuela korda, esaterako, “sidari baino bildur gehiago dioten virus klasea”. Bertsoa osatuko nuen, “orain zer egin behar diat honekin?”, argixoren batek lasterlana iradokiko zuen eta: –“Joño! Beste bi bertsorekin zutabea egina zaukaat”. Halaxe segurrenik, baina beti ere animu puntu baten gainean. Askotan esan izan didate: “Zergatik ez duk lantzean behin zutabea bertsotan egiten?”. Gehiago kostatzen zaidalako izango da, alderantziz izatera, ez bainuke dudarik edukiko. “Hik hirulau bertso behingoan egingo dituk”. Bai beharbada, baina ez segurrenik konbentzigarriak, norberetzat behintzat. Normaltasuna haustera jotzeak intentzioaren berezitasuna iragartzen du eta horretarako motiboak eta aldarteak ere halakoxeak izan behar dute, biak eguneroko lanean nekez aurkitze-koak, bigarrena batez ere, nire parean behintzat.

NOIZBAIT ERANTZUTEKO

1)

Noizbait erantzuteko
harian bainago
oraintxe nator nahizta
zor nuen lehenago.
Esker eta goraintzi
milaka lehenengo
gutxitxo izatera
badauzkat gehiago.

3)

Protokolozko arau
hau bete ondoren
ateak zabal-zabal
dituzue hemen.
Bueltako ordu gabe
etor lasai zeren
bialduko zaituztet
lokartu baino lehen.

2)

Nahi baduzue Oizko
mendian jostatu
gure etxean bada
zuentzat ostatu.
Badaezpada inor
ez dadin kezkatu
andreari aurretik
baimena eskatu.

Emakume lagun eta bertsozale batzuek behin gutun bat bidali zidaten bertsoz, non bisita bat egitera etorriko zirela agintzen zuten, umea ikusiz eta abar. Neuri ere maila berean erantzutea zegokidan, noizbait izan bazen ere, eta halaxe bidali nizkien hiru bertsook. Han-hemen askotan elkar ikustea gertatzen zaigun arren, ez dut uste agindutako bisita hura oraindik burutu denik. Beharbada “andreari aurretik baimena eskatzeak” atzeratu egingo zituen. Orain umea barik neskatoa ikusiko dute, baina jaioko dira berriak. Sekula ez da berandu, erlojuari igartzen dakiguno. Honek ez omen du denbora egiten, baina badoan ala ez doan igartzen ez zaionik ere

ez zait interesatzen, zeren, interesatuko balitzait, zer egin beharko nuke? Beste motibo bat gehiago, izorraturik sentitzeko. Bialduko zaituztet lokartu baino lehen eta badakizue zergatik? Ez dago pena handiagoa ematen didanik, lo dagoena itzartzeak baino. Behar bada handiena hilda dagoena piztea izango da, baina inorekin intentatzen ez naiz ausartu, sekula ez baita berandu.

PRESOEN ALDEKO EGUNA

1)

“Aberriak ala hil”
ez zela kimera
haize berrian heldu
zaigu orainera.
Oi, zu, gure arnasan
Sartua barnera
aitaren etxeari
eutsiaz gainera
itzuliko zaitugu
askatasunera.

2)

Maizegi izan zara
Hilen hasperena
Maizago iragarri
Duzu askapena.
Oi, Haize, gure arnas
Bihurtu zarena
Laster izango zara
Haizete gailena
Ostertzetik ageri
Zaigun garaipena.

1999-11-20. Donostiako belodromoan preso en aldeko egun handi bat antolatu zen. Jaialdi zehazki programatu baten barruan, gure ekitaldia Txikiren “aberria ala hil” azken hitzekin hasi zen, Oihane Enbeitak haizearen ahotsa ordezkatu zuen eta nik herriaren erantzuna eman behar nion haizeari, bi bertso hauexekin egin nuena.

AZKEN ZIEGARAINO

Hau da artista andana eta
Hau da gaupasaren extra
Bildu gaituen motiborako
Prezio handia ezta.
Zuzenean haraino
Azken ziegaraino
Eraman nahi dugu festa
Ez gero festa epela baizik
Martxa ta gogoz gainezka.

Aministiako Gestorek proposaturik eta antolaturik, bertsolari eta musikari batzuen artean sei jaialdiko kanpaina prestatu genuen, “azken ziegaraino” izenburuz. Gehienek orduantxe jakin zuten “ziega” hitzak zer esan nahi zuten. Jaialdia kanta, bertso, koplak eta halako mugida nahasi eta martxosoa izaten zen. Durangoko Ezkurdi pilotalekuan hasi eta Oiartzun, Bermeo, Leitza, Gatika, Urretxu eta Beasain, azkenean zazpi jaialdi izan ziren. Musikiariak Anje Duhalde eta Tapia eta Leturia ziren, euren musikariek. Bertsolariak Jon Maia, Unai Iturriaga, Igor Elortza, Jon Sarasua eta neu ginen, baten bat ahaztu ez bazait. Urte mordoa da eta gomutak lanbrotuz doaz. Ahaztuko ez zaidana da nolako arrakasta izan zuen kanpainak. Durangoko Ezkurdi, Oiartzungo Madalensoro, Leitzako pilotalekua... lepo betetzen ziren, geu ere harrizteraino.

Bertso hau jaialdiaren sarrera gisan kantatzeko egin nuen, gero musikaz eta abots bitara errepikatzen zena. Iparragirrerren doinua ederra da, izan ere, horrelakoetarako. Aipatzen den “prezioa” bostehun pezeta zela uste dut. Helburua ez zen dirua ateratzea, gestoretakoek garbi adierazi zigutenez, kanpaina eder eta ezberdin bat egitea baizik. Helburu hori gainez bete zen, baina

dirua ere behar zen apur bat, muntaia hura guztia aurrera ateratzeko. Prestatzea eta burutzea dezente kostatu bazitzaigun ere, “Azken ziegarraino” hartaz oroitzapen triunfala geratu zait.

KARMELO IKASTOLA

1)

Zer pozik hartu nuen
zuen eskutitza
hainbeste lagun berri
egiteko giltza.
Zuentzat bat gehiago
ni naiz Amuritza
mendi bat jango nuke
egia balitza.

2)

Hori egia dela
esaizue baietz
nire aldetik behintzat
hala dela sinets.
Gaurtik aurrera jartzen
bazait mundua beltz
lokartu ta zuekin
egingo dut amets.

3)

Urteetan aurrera
doan gizakiak
ditu odol geldiak
eta aitzakiak.
Zuek zarete haize
gordinen zapiak
etorkizun berriko
hortzez ebakiak.

4)

Karmelo ikastolan
hazia ereina
laster da Santutxuko
arbola egina.
Arbola horrek dakar
zuen ernemina
sendatzekoa Bilbo
ustelaren mina.

5)

Zuek aholkatzeko
ez banaiz ere nor
agurrik politena
behintzat dizuet zor.
Deitzen badidazue
zuentzat ez naiz gor
jolaserako bada
laster nauzue hor.

Behin Santutxuko Karmelo Ikastolatik gutun bat jaso nuen, amaieran zioena: "Azkenez idatziko al zenituzke bertso batzuk Karmeloko Ikastolarako edo 8.neko neska-mutilentzat?". Pozik bete nuen haien apeta, adin horrek beti xarmatu nauelako, beharbada neure burua adin berean nahikoa penagarri gogoratzen dudalako. Hala ere, bertso hauek egitea asko kostatu zitzaidan, ez baineukan gutun urrun batez beste heldulekurik. Bidaltzaileak, zortzigarren mailako neska-mutilak, ez nituen ezagutzen, ez neukan haien aurpegien irudirik, ez inolako xehetasun bizirik, ez euren bizitzako ñabardura hurbilik, Karmelo, Santutxu, Bilbo eta halako aipu generikoez harago. Kunplitze hutsa baino zerbait gehiago nahi izango nukeen, baina, bertso hauek ikusita, bistan dago ez nuela borondatea erakustez besterik lortu.

SARTU GAITUZTE OTANEN

1)

Sartu gaituzte OTANen
geuk ezer esan baino lehen.
Orain kanpora urten da kito
besterik ez dago hemen.

2)

Europakoak izatez
gara geure borondatez
herri librean elkartea bai
baina ez armen bitartez.

3)

OTAN zer den guretako
horra zer eta zertako
ogia eta lana kentzea
arrei jaten emateko.

4)

Defendatzea bakea
dakarten mezu maitea.
OTANen bidez besterik ez da
amaibako gerratea.

Azkenean ere, sartu gintuzten OTANen. Espainian, jarrera aldatze doilor askoren ondoren, sartzearen alde eman zuen erreferendumak Euskal Herrian izugarritzko porrota atera zuen. Alderdi estatal nagusiez gainera, EAJ-PNVk ere baiezkoa eskatu arren, hemen, 1986an, ezezkoak alde nabarmenez irabazi zuen, ezertarako ez zuen balio izango baina. Hainbeste herri-garaipenen arteko beste

bat gehiago, azkenean iragarritako zulora joan zena. Baikortasuna garaipen moraletan eraikitzeko sinpletasuna baneuka, beharbada kopla gihartsuagoak egingo nituen, baina argi dago hauek ez zirela pretentsio handikoak izan, zertarako egin nituen ere ez bainaiz gogoratzen.

TEILATUA HAIZEAK EROAN

1)

Txabola bati teilatuginan
Afantsu genbizarik
Haizeak dana eroan euskun
Baimenik eskatu barik
Bigarrenez be gertatu zan da
Bota ginduezan handik
Kostako jake barriz topatzen
Hain talde profesionalik.

2)

EGOIN enpresak ez dau gaur hemen
Txarto doanik emoten
Ahaleginduko gara ondino
Hobeto ibili daiten.
On egin janak nahizta batzutan
Korroskadak oker urten
Haizeari be kostako jako
Bazkari hau eroaten.

Berriztar bertsozale batek, enpresaren urte-bazkarian berak kantatzeko, bertso bat edo bi nahi zituen eta hauexek egin nizkion. Gaia berak eman zidan, lehen bertsoan agertzen denez. Konpon-tzen ari ziren Axpeko txabola bati haizeak teilatua behin erotea barkatzekoa zen, halako haizeteak baitzebiltzan, baina bigarrenez ere gauza bera gertatzea marka handitxoa izan zen. Ez da harritzekoa txabola jabeak denak etxera bidaltzea.

OI LUR, HAIN HUR

Oi Lur, hain hur!
Biziaren oin, hazkuntzaren soin
Oi Lur, hain samur!
Gizakien hein, jainkokien duin.
Itsasoan laino, lainoa elur
elurra ur.
Oi Ur, hain hur!
Bustiak idorra bihurtzen samur
Urean izpia, Eguzkia
goizean argitua, erditua.
Ur gehi argi, urdin
Lur gehi euri, gordin.
Harri eta haitz, haitz eta zuhaitz
zuhaitzetik zura, zuretik egurra
egurrean aizkora, aizkoran eskua
eskutik bekokira, bekokitik lurrera
Ur gazia, Izerdia.
Egunaren izerdia, argia, bipila.
Gauaren ihintza, garbia, isila.
Izerdi eta ihintz
odol eta hitz.
Gauetz hilak argi
Oi, gure Hilargi!
Lurrik ez balitz
norentzat argi hori?
Argi hila, gauerako aski
harri-haitzetan berezki
eta noski, gauerdian
Maitearen begian.
Oskarbian izarrak argi.
Itsasorik ez balitz

non islatu ortzi begitsu hori?
Egunkeran, itsasotik lehorrerantz
badator gure Jauna
Eguzki ahalguztiduna
hilak bizi arazten, biziak argiarazten.
Lurrik ez balitz
norentzat hintzateke, Eguzki?
Nork lekikek hi haizela nagusi,
Lurrik ez balitz hiregandik bizi?
Eguzkiaren miraria hemen dago, ez han
Lurretik sor, Lurrera itzul.
Sorburua ez bada,
zain dezagun behintzat itzulmuga.
Jatorria ez bada,
zain hilobia,
ez baita hiltzen
baizik lurtzen.
Lurra balitz hilobi
nondik bizi hori?
Ez ezazue hil usainik zabal
ibaiak nazkatuz
izarrak lotsatuz.

Oi Lur, hain hur!
Zure gainean eta barnean
nahi dut ari eta izan
ez bainezake jasan
Euskarak paira dezan
bizien hil usainik
ez izarren lotsarik.

Oi Lur, hain hur!
Zure hitz eta izan-lagun
izan denak mendeetan
behar du zurekin iraun
beste hainbestetan.
Eta gero berriz hasi
eta izan eta bizi
sekulorun sekulotan
Amen! Hemen!

Poema hau norentzat edo zertarako egin nuen ez daukat gogoan. Aspaldiko urteetan hortxe agertzen zen beti karpeta zaharrea eta bihoa besteekin batera mundura. Ez dakit konpositore batentzat ez nuen egin, azkenean ustel geratu zen kantata edo sinfoniaren baterako. Pretentsiosegia izango zen zerbait hartarako sortua zen xedera hel zedin desiatzea. Orain xederik gabe biziraun beharko du eta ez da bera bizilegerik txarrena, inori zorrik gabeko askatasuna janez joan baitaiteke.

2. Izenak

ARGALA

1)

Abenduaren hogeita bata
hura berri kriminala
goizean entzun genuenean
bota zutela Argala.
Oraindik gure historia da
luzea eta zabala
uste duenak Euskadi bere
mutilarekin hil zala
bizirik utzi zuen herriko
oihua entzun dezala.

2)

Gelditu ginen lehenbizi gora
gero lurrera begira
danbarrada hark irentsi zuen
izar guztien dirdira.
Mila zatitan leher eginik
pasatu zen historira
zati bakoitza landare bana
lurpetik sortzen ari da
gudari bat hil eta berriak
milaka jaioko dira.

3)

Agur, Argala, diotzu zure
etxeko Harri Gorriak
Agur diotzu mugaz hemendik
eta handik etorriak.
Enborra galdu eta indartzen
adarrak eta orriak
mirari hori egin du zure
zuhaitzaren jatorriak
hil zaituenak ahaztuko zaitu
baina ez Euskal Herriak.

Bertso hauek EGINen agertu ziren, Argalaren heriotza zarrastagariaren biharamonean. Poz handia hartzen dut, esaten didatenean: “Zure Argalaren bertsoak buruz kantatzen genituen”. Hori segurrenik bertsoen euren baino gehiago Argalaren figuraren meritua izango bada ere, bertso indartsuak direla uste dut. “Gelditu ginen lehenbizi gora / gero lurrera begira”. Hirugarren bertsoa “Harri

Gorriak” bere jaioterri Arrigorriaga iradokitzen du. “Hil zaituenak ahaztuko zaitu / baina ez Euskal Herriak”. Puntu honek ez dakit zergatik gogorazten didan beti Barkoxeko Etxahunen madarikapen hura: “Bena Jinkuk lagün bitza / hoiek, nik maitha artino”.

ARTISTAREN BEGIA

1)

Artistaren begia
begi anizkoitza
artearen egia
sentimen bortitza.
Artistaren paisaia
Naturaren mintza
artearen golkoa
kutxa agorkaitza
Joan Luis Mendizabalek
Dauka bere giltza.

2)

Kantauriko hondotik
Peruko sapaira
haizeak altituz
koloratzen dira.
Euskaldun bat tartean
pintzelka ari da
lurraren itzala ta
zeruen dirdira
gozatzen ditu bere
lanari begira.

Joan Luis Mendizabal “Mendi” pintorearentzat kolaborazio txiki bat eskatu zidaten, beste bertsolari batzuekin batera, haren liburu baterako. Gizon honek Gipuzkoa Donostia Kutxan lan egiten zuen eta erretiratu zenean, (aurretik ere bai, noski) pinturari osoki atxiki ahal izatearen pozez, zorionez esango nuke, ezagutu nuen. Bera-ekin maizegi egoterik izan ez dudan gizon atsegin eta artista baikor hauxe da gehiago tratatzea desiatuko nukeen izenetariko bat. 1993-6-24an oparitu eta dedikatu zidan “Nire Santiagoko bidea” liburu bitxia sarritan orriztatzen dut, Oteizak bere sarreran dioen “tu pintura caminante” gozatuz, baita “Mendi”ren kaligrafia adolezentea ere. Paper sendoko artisau liburutxo baten formatoan, “erromes baten apunteak” idatziz, eguneroko ilustratu bat osatzen du, Santiagorako bidean aurkitzen dituen aipagarriak kontatuz eta pintatuz. Xarmagarria, laztan handiz gordetzen dudana, koloreen erromeria alaira naroana.

AGUR GURE NEKANE

Agur, gure Nekane
bizien laguna
irriparra airean
utzi zeniguna.
Zu orain gu ondoren
laster da eguna
berriz elkarrekin jai
egingo duguna.

Tolosatik eskatu zidaten bertso xume hauxe da egin izanak poza ematen didan horietako bat. Motiboa tristea zen, tristerik izatekotan, hogeita hamairu urteko neska baten heriotza. Bertso bakarra behar zen, oroigarri baterako uste dut. Bere izaera irrifarbera, alaia nabarmendu zidaten eta bertsoan ere heriotzari barik biziari kantatzeko eskatzen zuten. Bizia, heriotza, irribarrea, sinesmena, alaitasuna... mezu handiegi eta kontrakoegiak ziruditen oroigarri baterako, ironizatzen hasi ezik, eta horixe da honelakoetan inondik ere egin ezin daitekeena. Horrexegatik maite dut bertso hau, eskatu zidaten izpiritua, neuk sentitzea hain zail egin zitzaidana, hain xumeki eta gardenki adieraztea lortu zuelako. Nekane ez nuen ezagutu eta bertsoaren eskatzailea ez dakit ezagutzen dudan, dena telefonoz izan baitzen.

AGUR UGALDE EGUZKITSUA

1)

Agur Ugalde eguzkitsua
Agur goizeko garoa!
Gaur eskolako autobus honek
Ostertz usaina daroa.
Ez iluntzean nire zain egon
Bidaia luzean noa
tximeletarik ager baledi
edegiozu leihoa.

2)

Neure errekan hauts joan nintzen
Itsasoa neban ames
Handik lainoak barriz bertara
Isurtzen nau euria lez.
Etenik bako joan-etorrian
Mendiak hartzen nau gauez
Eta goizean hor pasatzen naz
“bizi zaiteze!” esanez.

Balentin Audikana Balentziaga, Elorrioko Aldape auzoko Ugalde baserriko semea hamazortzi urtegaz hil zen, eskolara zeroan autobusean, bihotzekoak emanda. Haren hautsak Aldape errekan bota zituzten, etxea jotzen pasatzen den berean hain zuzen. “Eta goizean hor pasatzen naz”. Mutila oso errekazalea ei zen, amuarrairetan eta bestela. Aitak tximeleta irudia aitatzten zuen, bizi labur eta ederraren irudi. Oroigarrirako bertso batzuk eskatu zizkidatzen eta pare haxe egin nien. Neu mendikoa naiz, goi zabalekoa. Ugalde, ostera, errekondu sakonean dago, nahizta eguzkia aurrez igaro. Neure jatorri ruralagatik, etxea eta ingurua guztiz barneki

sentitzea ez zitzaidan bat ere kostatu. Horregatik eta neure burua halako errekan hamazortzi urterekin ikusarazten didan heriotza gazteagatik-edo, bertso hauek bereziki hunkitzen naute. Arrazoi bat izan daiteke seme “bidaia luzean joana” etxeari mintzo zaio-la, euskaldunontzat hain sentimendu asko eta sakonen forma den horri. Eta goizeko garoari, eskolarantz abiatu orduan, etxe inguruan beti geratu ohi denari. Balentinen etxeokok galera neurrigabe hura era baikorrean adierazteko eskatu zidaten eta, bertso hauek ikusita, nago ez ote nuen heriotza ia maitagarri izateraino bigundu. Beharbada mutila bera ezagutu ez nuelako izango da, heriotzak inoren gainean ez doan zaldun miragarria ematen duela

ALEJANDRO ALDEKOA

1)

Anbotok zorrotz lepoa
Oizen ota lorekoa
txistuak izen bat dauka
Alejandro Aldekoa.

2)

Anboton atso sorgina
gabaz Oizerako grina
bidean entzutearren
Alejandron tanbolina.

3)

Tan tarrapatan goizean
despedida iluntzean.
Zenbat ames ibili dan
Alejandoren atzean!

4)

Txistua ta tanbolina
narrua eta burdina.
Bizkaiak zuretzat eukan
urregorrizko domina.

Alejandro Aldekoa berriztar txistularia tresna honen izen handie-
tariko bat izan da, oso antzinako txistulari kate baten gaur egune-
ra arteko jarraipenean ezagutu duguna. Bere omenaldirako koplak
batzuk egiteko eskatu zidaten eta hauexek egin nituen. Berriz
Oizen barrenean dago, Anboto aurrez daukala. Anboto haitza denez,
Oiz lurra eta harri soltea da, beraz, ote lore ugari sasoian. Leienda

batek dio Anbotoko dama edo sorgin famatua ilunabarrean Oizera pasatzen dela lo egitera, egunsentian berriro Anbotora itzultzeko. Bidean Berriztik igaro behar du, Alejandroren etxe gainetik, beraz, eta beharbada beronen txistuak liluraturik hasi zen Anbototik Oizera joanetorrian, bigarren koplak dioenez. Hirugarren koplan adierazten da txistulari tradizionalaren eguna eta lana goizean hasi (herri barruan kalejirak eta baserriz baserri bidekoak) eta iluntzeko despedidarekin amaitzen zela, Aldekoak sarritan egina zuen lez. Bitartean erromeriak ere bai, jakina, batez ere iluntzekoa, despedida aurrekoa. Txistulari tradizionalak oso ibilbide ritualizatua egiten zuen, hemen hasi, han jarraitu, hamarretakoa hain lekutan, meza aurea, mezakoa eta meza ostea, plazan edo ermita ondoan eguerdiko dantza saioa, bazkaria leku jakinean edo ohitura rotatibo baten arabera izendatuan, bazkal ostean etxez etxeko pasaera, bakotxean ohikoa joez, gonbita onartuz edo eskertuz, eta giroa sortzen zen etxe edo auzoetan dantza saio laburrak eraginez, sarritan umeek eta gazteek batetik bestera segizioa egiten ziotela, plazan amaitu arte, non erromeria abiatuko zen. Horregatik dio hirugarren koplak “zenbat ames ibili dan Alejandroren atzean”. Haren txistu hotsak amodiozko pentsakizun ugari bildu zuen, batzuk bururaino helduko zirenak, beste batzuk bidean galtzekoak, baina denak une batean grinatsuak. Ibilerok errito bihurtzeak pozari eta gozamenari eite iraunkor bat zemaian, bestela nahikoa itxirik eta menperaturik bizi zen gizartean. Gezurra badirudi ere, errittoa sarritan espazio askeagoak sortzeko era segurrago bat besterik ez da. Begirada ere pekatuaren susmagarri zenean, dantzaren errittoa ikutzea ere garantizatzen zuen, bikotean arrimatzeraino, bataren edo bestearen, gehienez neskaren, jareintasunak ematen zuen neurrian.

ANJEL ETA BEA

Mila zorion mila urtean
bioi, Anjel eta Bea
bikote ezin finagoa ta
ganera bertsozalea.
Guk badakigu estua dala
zorionaren atea
baina seguru gagoz topatu
dozuela bitartea
zuekaz pozten garenontzat be
gaurkoa egun maitea
bihar edo etzi urteen egiz
gura geunke entzutea:
"Etxe horretan jaiotzen danak
bai daukala subertea!".

Orain bizi naizen Berrizko Andikoa auzoko "Estebaneko" alaba Bea eta bere senar Anjel ezkondu zirenean, bertso hauxe eskaini nien. Elizan denen izenean kantatzekoa zenez, bertsoa "gu"-ka egina dago. Neuk ez nuen elizkizunetan parterik hartzen eta abadeak irakurri zuela uste dut. Idazten dihardudan egun hauexetan izan du, hain zuzen, haien lehen umeak "etxe horretan jaiotzeko subertea".

BAKARTXO LUIS MARI ETA SATZA

Bakartxo, Luis Mari eta Satza
batera eroriak izan zineten
batera gogoratuak izango zarete.
Batak arnasa
Besteak odola
hirugarrenak gogoa
zuen oroitzapen hirukoitzak
hurbiltzen digu geroa
hartan gurpildurik iraultza
aurrera doa Herria
askatasunaren gurdia.

Poema xume honen jaiotza oso gogoan daukat, urteak iraganik ere. Donostiako auzo batetik hiru gudarion omenaldira deitua izan nintzen. Izenaz ez naiz gogoratzen, baina tokiaz bai oso, Amara Zaharretik aldasgora erripe batean. Oroitarri bat, zuhaitz bat edo zerbait jarri zutelakoa daukat euren omenez. Oso gogoan daukadana da bero egiten zuela eta batez ere zer nolako barrua neroan, iluna, agorra. Aldatsean gora gindoazela, batak hau, besteak hori albotik, minutu batzuk barru bizpairu bertso kantatu behar eta ezin nuen ezer ekarri. Ezta topikorik ere, kantatzeko modukorik behintzat. Hutsune beltz bat besterik ez nintzen, zulo beltz bilakatzeko gurarian. Azkenean nola edo hala kantatuko nuen, bortxaturik, ezinean, baktxean baresarea tiraka zarrastatuz, ohiko txaloak jo ziren eta ohi ez bezain burumakur jaitsi nintzen. Egun mingots horietako bat, non amaren errespetoagatik jaiotza ez madarikatzearren, heriotza tiriatzen duzun. Bizitzaren sentipenik sakonena ez dakit ez den heriotz gogo horixe, bertara iristetik libratzea zeure aukera denean. Gero han kantatutako bertsoak edo bertsoren bat eskatuko zidaten, oroigarri baterako, nik uste. Hori handik egun batzue-

tara izango zen, hutsune beltza dagoeneko iraganik, baina beltzua bigarrenez bertsoan berritzen ez arriskatzegatik, poematxo honexekin bete nuen konpromisoa.

KARMELO ETA ASIER

1)

Zer moduz bizi zarie hortik
Karmelo eta Asier?
Irabaziko zenduen oingo
galoiren bat edo zeuzer.
Un paso al frente, hiru atzera
Afrikan barrura laster
desertuetan ez urrin joan
handik ez ei dago ezer.

2)

Zuekin sarri gogoratzen naz
neu egon ez arren soldau
batez be martxan nabilenean
erdi gose edo barau.
Otarteko bat eskatu eta
pentsamentuak joten nau:
"Melillaldean zenbat denporan
jango ete leukiek hau?".

3)

Zurumurrua heldu barri jat
hauxe gitxi gora-behera
erregantxera ei zoazie
lizentziagaz batera.
Txarto pentsauta ez dago baina
suberte lar ez ete da?
Nozipein behintzat etorri honuntz
bisita bat egitera.

Bertan bizitzera joatear nengoen Berrizko Andikoa auzoko Karmelo eta bere lagun berriztar Asier soldadu zegozen Melillan, nahikoa desterru sentipenez biak ere. Ez dakit behin ere etxeratu ziren soldadutza guztian. Lizentziatu zirenean, haien erregantxea katean geratuko zen eta segi beza hantxe epel-epel. Onak zegozen eurak, bertan geratzeko! Zeozer idatzi gura eta bertso batzuk bidaltzea pentsatu nuen, eurok kantatuz elkar alaituko zutelakoan. Bertsook ez daukate funtzionaltasun puntual baten balioa besterik, nahizta xumetasun honek batzuetan edertasunak baino gehiago balio izan. Horixe da bertsolaritzaren izatearen alde onuratsu bat,

alegia, ez daukala arte handia izan beharrik, baliotsua izateko. Edozein motibo dela bide, honelako bertso batzuk, pretentsio handi gabeak, baina kurioso eginak, bidaltzeko, jende asko gai izateak piramidearen erpina ez du jaisten eta bai basea maitagarriro zabaltzen. Horrexegatik erabaki dut hemen ere agerpen bat merezi zutela.

BIHOTZEKO SANTI

Agur eta esker on
bihotzeko Santi!
Samin haundiagorik
ez liteke senti.
Argiaren gudari
bizitzan zu beti
hiltzean egin zara
gure egunsenti.
Bihotzeko Santi
ez liteke senti
zu beti
egunsenti.

Poema txiki hau Santi Broward-en oroigarri baterako egin nuela uste dut eta aitor dut, beharbada denbora lokabeak min ematua bikaindu egiten duelako, orduan baino politago iruditzen zaidala gaur. Egun berean edo bertsuan, hurrengo ataltxoak dioenez, “zuretzat hitz batzuk eskatu dizkirate, Santi”. Ez dirudi orduan idazten nuen “Semaforo gorria”n izango zenik. Segurrenik Santiri buruz egin zen gehigarri bereziren baterako kolaborazioa izango zen.

“Zuretzat hitz batzuk eskatu dizkirate, Santi. Idazten hasi naiz eta ezin dut paperik ikusi. Zure aurpegia bakarrik ikusten dut. Aurpegi biribila, eguzki jaio berria, egunsentia. Betiko egunsentia irudikatzean, zure aurpegia ikusten dut beti, huraxe baita ikusi dudana egunsentiaren antzekoena. Udaletxean zagozela esan didate. Milaka lagun eta milioika malko pasatuko zaizu aurretik. Nik ez daukat zu hilda ikusteko adorerik. Ez dut nahi betiko ameskaitz bat begietan gera dakidan. Ez dut zure aurpegia galdu nahi. Badakit hilda ere, ez dukezula heriotzaren antzik, baina orduan ameskaitz larriagoa geratuko zait, bizirik ikusiz eta hiltzat eman beha-

rrez. Hain on eta hain zorrotz! Hain bigun eta hain sendo! Hain baketsu eta hain burrukari! Hain lekeitiar eta hain Euskal Herriko! Hain maitatu eta hain gorrotatu! Hain gizon eta hain iraultzaile! Hain abertzale eta hain munduko! Bihotzeko Santi!”

LAGUN ETA GIDARI

1)

Hila da Santi, hil dute Santi
abertzaleon izarra
esku artean haur bat zuela
balak etorri beharra!
Amorruaren oihua eta
maitasunaren negarra
hauxe da zure hilketak utzi
digun mendeku bakarra
zure burruka azkeneraino
eramateko indarra.

2)

Egia al da hilik zaudela
ala ez da hortaz deusik
zure hilkutxak egunsentia
ematen baitzuen kasik?
Zer jende bildu zaizun neurtzerik
ez dago ikusi ezik
orain bizia emateko ere
bada lehenaz gain pozik
ez baita hiltze soila izango
zuri jarraitzea baizik.

3)

Zure hiltzaile haiek zer egin
zuten ba ote dakite
bortxaz itzali nahi zuten sua
sumendi egin baitute?
Adio, lagun eta gidari
agur, gure Santi maite
zure bideak gu ere zure
ondoan bildu bitarte
edo garaipen osoa zuri
eskaintzera joan arte.

Bertso hauek Santiren Lekeitioko ehorzketarako egingo nituen. Ez naiz gogoratzen neuk kantatuak ala beste batentzat bialduak izan ziren. Nik Santiren azken egun haietaz ez daukat bere irudirik, haren omenez Bilbon batu zen jendetza harrigarriarena besterik. Ez dakit Euskal Herrian hainbeste lagun batera sekula ikusi dudarik. Gero Bilboko udaletxean haren kaperatik pasatzen mila-

ka eta milaka lagunen irudiak telebistan agertzen zirenean, burua bueltatuko nuen, haren aurpegia hilkutxan ikustetik libratzearren. Zorionez, geratu zaidan gomuta bakarra bere irudi bizia da, hilotz ikusi izatera, nekez gorde ahal izango nukeena. Orain nahita ere ezin dut Santi hila imajinatu.

BILINTX

1)

Bilintx haundia ezbeharretan
ere haundi alajaina
hainbeste penak eta saminek
hartua baitzion gaina.

Amodioan ere ez zuen
izan hain zorte bikaina
hargatik-edo gaur maite dugu
beste inor gutxi aina
maitasun hori berak bizitzan
eskertuko zuen baina.

2)

Sentitu eta kantatu zuen
hainbat samin eta pena
bere damarik aurkitu gabe
heldu zitzaion azkena.
Sufrimentua eraman eta
utzi zigun sentimena
hargatik dugu hain hunkigarri
Bilintxen oroitzapena
biharko haurrek ere kantatu
eta maiteko dutena.

3)

Ez zen, halare, beti ibili
penak kontatu zalea
hor da Domingo Kanpaina eta
harako mando pareta.

Hor dago haren zaldi zaharra ta
apaiz babarrun jalea
hori da Bilintx, umore eta
ironiaren jabea
inoiz modatik pasako ez den
artista paregabea.

1992ko urtarrilaren 19ko Bertsolari Egunean kantatu nituen bertso hauek. Bestela segurrenik Bilintxi bertso jartzen inoiz hasiko ez nintzena antolakuntzaren eskari bati jarrai abiatu nintzen, halako lan banaketa baten barruan. Bilintxi buruz bertso batzuk jartzea proposatu zidaten eta pozik eman nuen baietza, segurrenik euskarara eta bertsolaritza gozatzen hasi nintzen seminarioko urte gazte

eta irrikatsu haietara itzularazten ninduelako. Haren liburu erabileraren erabileraz lorrindutik ehundik gora bertso kantatzeko gai izango nintzen orduan, seminarioko isilordu luzeak hezatzeko balio zutenak. Hatz artean arrosario aleak korriarazi eta mentalki Bilintxen bertsoak kantatu, ale bakotxeko bertso bat. Eta halaxe beste bertsolari askorenak. Zeregin jakineko orduetz gainera, isiltasun behartukoak egunean mordoa baitziren, astebetean bostehun bertso aisa pasa nitzakeen. Asteak ere mordoa zirenez, pentsa zenbat aldiz errepatatuko nituen. Beirateko Ama Birjina irribarkorrari behin baino sarriago kantatuko nion “loriak udan” Bilintxena, “hainbeste errosarioz honezkero gogaituta egongo zara-ta” esanez, eta azkenean: “Gustatu jatzu, ezta?”. Ama Birjina beti ados egoten zen nirekin, baina ez dakit, ba, beti bat bera izaten zen ere.

AITA ONAINDIA

1)

Amorotoko Atxuriartek
Sortua eta jagona
Mutiko zala komenturako
Deia etorri jakona.
Aita Santi lez gero bizitza
Lanean zintzo emona
Bere larogei eta bost urtez
Ondio gordin dagona
Horixe da gaur gure herriak
Omentzen dauan gizona.

3)

Amorotoko kanpai jagia
Umetan sarri entzuna
Zure sustraiak nungoan diran
Gogoratuko dautsuna.
Euskal Herriak igaz autortu
Eutsun merezi zenduna
Eta gu hasi ginan pentsatzen
Aurten egingo geuntsuna
Hauxe da zure jaioterriak
Eskeintzen dautsun eguna.

2)

Nahizta sufritu gerra latza ta
Gerrosteko itomena
Historirako hor gelditzen da
Aita Santiren kemena.
Txarrean baikor, onean pozkor
Nekatzen ez dakiena
Idazle eta batzaile handi
Euskaltzale nabarmena
Hartu egizu Amorotoren
Eskerra eta omena.

Urtero egin ohi den Euskal Herriko bertsolari eta bertsozale egunak behin Aita Santi Onaindia eta Alfontso Irigoien omendu zituen. Motibo hori zela eta, aurretik edo ostean, bi omenduei hainbat ekitaldi eta omenaldi txiki egin zitzaien han-hemen. Aita Santiren jaioterri Amorotok ere egun osoko ekitaldi zerrenda bat antolatu zuen bere seme aintzagarriaren omenez, arratsaldean bertso saio handi

batekin amaitu zena. Amorotoarrek eurek Aita Santiri kantatzeko, bertso batzuk eskatu zizkidaten eta hiruko hauxe egin nien, herriko bertako musikari batek doinua ezarri ziona. Aita Santirekiko xera zordunaz gainera, pozik egin nuen lana, nire bizitzako atal intentso bat Amorotori lotua baitago. Bertako abadea izan nintzen eta Amorotoko elizako ate nagusian bertan, hanka bata kanpoan eta bestea barruan neukala atxiloturik joan nintzen lehenengo preso, ezkontza batetik irteeran, herri guztiaren aurrean.

BITTOR ETA SANTA

1)

Zorionak ehun mila
Bitor eta Santa
zuentzat gaurko gure
otoitz eta kanta.
Egun eder handi bat
behar dogu bota
hain motibo handirik
gitxitan dago-ta.

2)

Alkarregaz bizitzen
hirurogei urte
ondino ez dozue
erdi baino bete.
Jaunak emon balegi
beste horrenbeste
zuek ez errenditu
Berak esan arte.

Berrizko andra-gizon adineko batzuen omenez, bertso bat edo bi eskatu zizkidaten, elizan kantatzeko nik uste. Bertso xingleak, errimaz ere nahiko laxoak, baina honelakoak ere egin behar izaten dira, euren xumean helburua betetzen dutenak. Alde batetik andre-gizonak ez nituen ezagutzen eta bestetik eta batez ere elizkizun baten barruan ezin dut neure gogorik berotu, ez nola egin jakingo ez nukeelako, hunetik bizia izan baitut sentiera hori, orain barruak fingimendu erlijiosorik onartzen ez didalako baizik. Enkarguak txukuntasun kontzional baten barruan egingo ditut, baina hartan bat egiten dudalako inpresioa ekiditen saiatuz. Oreka faltsu samarra ote da?

MIGEL ETA MARGARI

1)

Berrogetamar urte ez dira
Aste bat edo hile bi
Beste hainbana mila zorion
Margari eta Migeli.
Kalabazeak aihena berde
Puntan lorea beilegi
Gaurko urrea zuen eskuan
Diamante egin bedi.

2)

Len zidarra lez orain urrea
Heldu da abegi eske
Biak batera ez dira zuen
Ondrak edertzeko beste.
Jangoikoari lar eskatzea
Ez bada beste hainbeste
Gure esker ta maitasunean
Luzaro bizi zaiteze.

Arratiako lagun batzuek bertso bat eskatu zidaten, gurasoen urre eztaietarako, eta bi hauexek egin nizkien. Horrelakoetan ez da erraza izaten topikoetatik alde egitea, nahizta, era batera edo bestera, ongura berdintsuak adierazterik ezin den saihestu, batez ere pertsona adintsuak tarteko direnean. Bertso hauetan betiko sentimenduak apur bat era diferentean kantatzen ahalegindu nintzen eta lortuta dagoela uste dut. Ez da hain zaila ere, kontzientziari hartara deituz gero. Sentimenduak, bat eta berbera izan arren, berez ez dauka forma adierazgaririk eta, zorionez, formek ez daukate mugarik. “Zorionak” edo “izan ondo” bezalako desio

arruntak esateko moduak infinituak dira, txarrak kontatu gabe,
hauek ere infinituak baitira.

ANTON ARTIÑANO

1)

Atzo goizean hodei gorri bat ikusi neban Anboton
Gorbeiarantza luzatu ahala gizon formea etorkon.
Gaur Zeberion sartzean, barriz, barruak emon daust berton
Erreka baztar danetan gora zutunduten zala Anton
Orain ez dakit mendiak ala urak arrazoia daukon.

2)

Ezin esan lei urteurren bat ospatuten gagozanik
Neuk behintzat ez dot inondik hartzen heriotzaren usainik.
Derrigor egon behar dau hemen hain biziduna izanik
Ikusi ez dogu ikusten baina bihotz barrutik esanik
Ez dakit inork sinesten dauan Anton benetan joan zanik.

3)

Haren buruan ia bat ziran egina ta eginena
Dana ez eban egingo baina bai pentsautako gehiena.
Paramen bako ekina eta toperik bako kemena
Horra Antonek itxi eikigun ondarerik ederrena
Zeberioiko kanpai hotsetan doana ta datorrena.

Bertso hauek 2001-01-14an Zeberion kantatu nituen, Anton Artiñanoren urteurrena ospatzeko ekitaldi batean. Euskal kulturaren eta medikuntzaren hainbeste bazter astindu eta hainbeste zahar gaurkotu zuen gizon geldigaitza azkenean berriztatzen ziharduen etxe batek azpian harrapatuta joan zen. Huraxe zen azken pentsa genezakeena, heriotzak Anton Artiñano ere harrapa zezakeela. Urteurrenerako, haren izatea jasotzen zuen liburu bat atera zuten, "*Anton Artiñano, amets ederren errones*", idazle askoren artean osatua. Neuri ere eskatu zidaten kolaborazioa eta ondorengo hauxe idatzi nuen,

“*Zeberioko morroskoa*” izenburuz:

Bertso eskolearen amaiera lez, erdialdean beharbada, txarrikune jan bat antolatu euskun. Negu antza zan eta Bilbotik Arterara (ala Arantzazun izan ete zan?) heldu ginanerako, gau zarratua zan. Soziedade batean izan zan, une honetan lar gogoan ez daukadana, baina txarrikunez handitu ginan. “Txarrikune jana?”. “*Bai, mutil! Eingo etxuk, ba?*”. “Eta nondik ekarri behar dozak txarrikunok?”. “*Hi, trankil! Haik etortzez neu arduretuko nok. Hi arduretu hai bizirik yoan ez daitezan*”. “Bai, bai! Hik ekarri. Jango joagu”. Ulibarri euskaltegiak (Antonek alegia) antolatutako bertso-eskola batean genbizan orduan. Beste hainbat eta hainbat ekintzaren artean, azkenean txarrikune jana be bururatu jakon. Txarridunen bategaz traturen bat egin izango eban, beharbada non edo non txarrikunek erosita eukazan eta, arazo lartxo emoten eutsoela-ta, azken on bat emotea pentsatuko eban. Nork jakin Antonen buruan zenbat bideturtze ebizan batera! Behintzat txarrikunea berak maletegian ekarri, berak hil, garbitu eta atondu, eta guk jan-jan eginda alde genduan goizaldean. Kontrabandokoa izan bazan, gordeleku ederra topatu eban. Artiñanoren abiaduran, lerroak oinaztuak ziran, oso bizkorak, ez beti artezak. Hori bai, haren helburuak beti zuzen agiri ziran. Euskerea, euskal izakerea, mitologia, zahartasunaren barrikuntzea, antxinakoaren modernokuntzea eta, zelan ez, *Zeberio*. Antonek baekuan bera ezbardin samarra ete zan susmoa. Baita segurantzeta be. Harek baekian bera ez zala bilbotarrak langoa, ez beste inongoak langoa. Bera zeberiotarra zan eta hori Antonentzat, zeberiotasuna alegia, izate bat eta izakera bat zan. Nik batzutan haren berotasunari ez neutson jarraitzen, baina azkenean konbentzitu edo behintzat errezelotu egin ninduan *Zeberion* zibilizazino konbentzionalean oraindio sartu bako enda bat bizi dala. Egunen batean *Zeberio*ko euskaldunei buruzko ikerketa antropologiko, soziologiko eta psikologiko sakon bat egiteko asmoa sarritan entzun neutson. Berak buruan erdi etarata edo hipotesian eukazan ondorioak zientifikoki egiaztatzeke moduko ikerketa bat gura eban. Ez

dakit ezer egitera heldu zan, baina obsesino horrexen inguruan eza-gutu neban. Zeintzuk ondorio? Ez naz ondo gogoratzen, baina Zeberio-ko izakereari kristinau erlejinoa euritan zaku bat burutik behera lez ei jatorko. Zibilizazino arloan be, Zeberio-ko pentsakerea hurrago ei dago Gorbeiatik, Bilbotik baino. Hori bai, zeberiotarrak Bilbon edonoz eta etxeko soloan lez ibiliko dira, edo trankilago, han ez dauke zapaldu barik ibilteko ardurarik eta. Eta konplexurik arean be ez edo oso gitxi. Baliorik antxinakoenak pentsamenturik futuribleenakaz batuta ei dagoz, eta bitartean astiro baina aurrera danean. Batzutan esango neutson: “Hi ez habil heure buruaren perfila egiten?”. “*Ez, ez!* —erantzungo eban seguru—. *Ni holangoa nok, ez neu nazelako, zeberiotarra nazelako baino*”. Harentzat uste dot Zeberio mundu handi bat zala eta mundua Zeberio txiki bat.

Hori, bai. Teoriak eta hipotesiak asko eta askotarikoak euki arren, teorizazinoetan ez eban luze jarraituko. Harek egin egin behar eban, ekin egin behar eutson, eta horregaitik, bere ustez zeozertan teoriarari on bat izan eitekeanik somatzen baeban, laster ahaleginduko zan beraganatzen eta ez edozelan. “*Hik eztaukok ezer ein beharrik. Hik pentsau gure doana eta neuk ingo yoat*”. Halantxe hartu ninduan Ulibarri euskaltegian, bertso-eskola bat eratu euskun, ikas-taroak ez dakit zenbat eta zelakoak, eta nire kasuan behintzat, ondo ordainduta. “*Hik ekarri ideak. Neuk burutuko yoazat*”. Eta dirua sekula ez zan problemea. “*Dirurik ez bayaok, zorrak eiten dozak*”. Behin esan neutson: “*Ño! Niretzat zorrak ez dozak, ba, lagun onak. Lehengo bildurra goardia zibilari dautsozana kenduta, bigarrena zorrak dirala uste joat*”. Ez jat ahaztuko non eta zelan esan eustan: “*Nik zenbat eta zor gehiago eta handiagoak euki, trankilao eiten yoat lo*”. Eta sinestu egin neutson. Behin neu be preminan aurkitzen nintzan eta miloi bat nondik edo handik hartuko neukela aitzen emon neutson. “*Hori einde yaok*”. Artiñanori arazo bat planteatzea bueltan hirulau soluzino etortea zan bata bestearen atzean. “*Nik bategaz nahikoa joat, Anton*”. “*Orduan etorri hai biger eta esangoat zer ein*”. Lagunetik lagunerako kreditu bat zuzendu eustan, andra bene-

ragarri batena, ehuneko honenbesteko bategaz eta ordaintzeko epe barik. Antonek kalkulagailua buruan zeroan. Paper bat hartu eta zenbakiak ilaran idazten hasten zanean, ez ebilen kontuak etaraten, buruan eukana papereratzen baino, aurrekoak ikus egian. Haren buruan miloiak norabide askotan ebizan, hartzedun, zordun, parrean, gura dozun moduan, baina inoz be ez galtzeko moduan. Zorrena esan dot eta egia da, baina Antoneri ez jakon txakur txikirik alperrik galduko.

Batzuren buruek hain arin korritzen ei dabe, ezen esan ohi da: “Urliaren buruan plan batek beste bat jaten dau”. Edo: “Urliaren buruan planek alkar jaten dabe”. Antonen buruan plan batek beste plan pilo bat sortzen ebala esango neuke, beharrak beharra dakarrela esan ohi dan lez, eta hauxe be harengan egi-egia zala uste dot. Hain gizon zati handia, hain zolia, gerakatxa, neuk ez dot ezagutu halako giza-makina paramen bakorik. Gaisoak tratetan be trebea izango zan, behin baino sarriagotan antzemon neutsonez. Nik susmoa neukan gaisoek sarritan emon gura izaten dabezan esplikazioak entzuteko pazientziarik ez ebala izango eta berak: “*Bai zera! Berba kanpoan ein beok, tabernan edo harri ganean. Hor yaok faltea. Konsultea eztok barriketa lekue*”. Nik ekingo neutson: “Orain ez dinozue, ba, gaisoa osoan hartu behar dala, leku bateko mina kentzeko?”. Antonek ez eukan dudarik: “*Oingo gaxoak osatzea baino errezaorik etxaok, gehienak guzurrezko gaxoagaz etorten dozak eta. Berba gitxi eta zorrotzak eta pare bat aspirina eta ha etxatok beste urtebetean. Jentea burutik yabik txarto, ez gorputzetik*”. “Baina burukoa be gaisoa izango dok, eztok?”. “*Ixingok, baie buruetan ipuin asko yaok. Palutik emoten botsek eta medikua konfessore paretan badok, azkenean biek akabetan yeuriek gaxorik. Medikuntzea kasurik gehienetan ipuin karu bet besterik eztok*”.

Anton Artiñanok sentimendu asko eta bortitzak eukazan. Beharbada talde lanerako ez zan egokia, bere buruagaz egiten baiteban talde osoa. Uriola bat lakoa zan, ez konplexurik, ez ezkortasunik, ez kikiltasunik bakoa, egiten eban hainbeste gauzatan eta

martxan ipinten eban beste askoz gehiagotan grina guztia ezarten ebana. Mukur bateri, hage bateri, harri bateri liluraturik begituko eutson, baina ez kontenplazino luzean. Laster topatuko eban ha ondo egokitzeko leku bat, eta lekuri ez baegoan, asmatu egingo eban hatarakoxe beren-beregi. Sentimentu bortitz horreik guztiak eta ekite etenbako eta bidertzaile hori guztia zetako? Hor ez dago dudarik. Euskerea, euskalduna, Euskal Herria eta... Zeberio! Azkenengo urteetan, Ulibarri euskaltegitik alde egin nebanetik, Antonegazko hartuemonan apur bat galdu egin neban, baina nik ezagutu neban sasoian holakoxea zan gitxi gora behera “Zeberio morroskoa” esaten geuntson Anton Artiñano.

BURUZAGI TXOMIN

1)

Arrasaten sortu ta
Algerian hila
ardatzean biraka
lehertu zen gurpila.
Joan zen bere aurretik
erorien bila
heriotzak kenduko
ez digun mutila.

2)

Oihanean tantaia
goraki ageri
lurreratuta ere
tenterik dirudi.
Haren itzal trinkoa
ez baitzen erori!
Txominek utzi digu
mirari handi hori.

3)

Heriotzaren lotan
eizu amets lasai
inor ez baita zure
lana hiltzeko gai.
Euskadik lortuko du
noizbait edo noiznahi
Askatasuna eta
Bakea ere bai.

4)

Abertzale oso ta
iraultzaile gordin
bizi zinela eta
hil ondoren berdin.
Nahizta horrek askori
emango dion min
zu zara Euskadiko
Buruzagi, Txomin!

Txorin Iturberen jaioterri Arrasaten omenaldi handi bat antolatu zuten, bere heriotzarik hamargarren urtea zela-ta uste dut. Parte hartzaile eta kantari ugari izan zen jaialdi hartarako, bertso hauek egin nituen, Anje Duhaldek eta biok kantatu genituenak. Gero disko batean ere grabatuta geratu zirelako daukat. Txomin Iturbe bezalako pertsonaiak bertso indartsuak behar zituen, noski, baina nik beste zirrara batzuk nahi nituen, baliabide zeharrekoen inpaktuak indartsuago egin zitzaizkion. Horrexegatik dio lehen bertsoak, esan beharreko beste mezu batzuen ondoan, “ardatzean biraka / lehertu zen gurpila”. Denetan maiteen dudana, noski, eta sorta osoari

bilduki magikoa eransten diona, bigarren bertsoak deskribatzen duen fenomeno aparta da. Tantai lurreratuak tente jarraitzen du, haren itzala ez baitzen erori. Itzalaren berezko lekua lurra da, baina kasu honetan bera ere tente dago, edo tantaia lurreratzean, zutitzea erabaki du, Txominen iraupenaren ikur. Beste kontestu batean itzala zutitzea bildurgarria litzateke. Hirugarren bertsoa tematikotzat jo behar da, unean aldarrikatzea komeni den mezurantz. Laugarrenean, berriz, pertsonaiaren izatea eta buruzagitza gailentzen dira berriro, bigarrenean gertatutako mirariaren ondoren sinisgarriago gertatzen direnak. Zelanbaiteko ukaldi poetikoak bertso sortari arras beste hezurdura bat ematen dio, beti ere jauzi figuratiboak proportzionalak badira. Bilatzera goazen efektua, darabilgun gaiarekiko, egokitasun sentsitibo eta sentimenduzko baten barruan ez badabil, kontra-efektu bihurtzen da. Ez dago bertsoarentzat hondagarriagorik irrealtasuna edo gratuitatea baino. Tantaiaren irudia eta itzalaren miraria ezin zaio edonori aplikatu, era horretan behintzat, itzalaren esanahi dibertsoak azpi-ulertu behar direnean. Txominengan ia zuzenki onets daitekeena, beste bategan justifikatu egin beharko litzateke eta justifikuaren beharra irudiaren desegokitasunaren seinale da gehienetan.

EZ DA EGIA, JOSEBA

Ez da egia, Joseba
espetxean hil zinela
hil zintuztela baizik.
Baina egia da egia
zeuk hautatu zenuela bidea
azken arriskurainokoa.
Horregatik zu zaitugu, Joseba
bidean goazenon kemen
eta albokoen erakarmen.

Neurri eta errima zehatzik gabeko poematxo hau zizurkildar Joseba Arregiren oroigarriren baterako egingo nuen. Beste Josebarik ez daukat gogoan, halako zirkuntantziatan hilik behintzat. Honelako testu beti laburrak bertsoaren forma estuegian baino libreago bideratzen hasi nintzen, esan gurakoak ez dakit hobeto, baina askoz errazago adierazten baitira. Baita naturalago ere segurrenik, esan nahi diren guztiak sartzekotan. Bertsoan formak asko kentzen du eta, forma egokia lortuz gero, segur da esanahiari edertasun bat gehitzen diola, baina gehienez ideia batzuk alboratu egin behar izaten dira beti.

GOIO OLABARRIA

Goio Olabarria
hogeita bi urteko mutila
burrukaren zelaian hila
zure odol gorria
etorkizunaren neurria
zure hilarria
gure adorearen
arma berria.
Har ezazu atsedean
zelaian hila
badatoz beste mila
zuk utziaren bila
Goio Olabarria
zutaz biziko da
Euskal Herria.

GOIO OLABARRIA
séptimo hijo de padre forjador
y de madre trabajadora
crecido en la brecha
y muerto en la lucha
es dolor pero no duelo
tu sangre joven en el suelo
tratando de arrebatarse
con fuego
las armas con que defender
al Pueblo.
Descansa, hermano, descansa
entrega al viento tu alma
porque donde un luchador yace
un pueblo libre renace.

Urte asko dira Goio Olabarriarena gertatu zela, Isparterko tiroketa batean. Bertso batzuk eskatu zizkidaten, oroigarriako uste dut, eta poema erdi libre hauxe egin nuen, segurrenik bertsoгийн gogaituta nengoelako, edo ganorazko ezer atera ezin nuelako, edo beharbada gogoak eman zidalako. Ez dakit, behin baino gehiagotan gertatu zait agor samar aurkitzea, zeren, jarioan egoitera, gogoak nekez emango dit eskatuaz bestelakorik egitea. Inoiz pentsatu izan dut: “Zergaitik eskatzen jaustezak beti bertsoak eta ez poema soil bat, errima-neurrien beharkizun bakoa?”. Beharbada Goioren kasuan ohituraren aurkako errebeldia bat izango zen, erdal testu eta guzti egin bainuen, enkargu emaleak halaxe eskatu ez bazidan. Bistan da oso itzulpen librea egin nuela, oraingoan beren-beregi. Testu beraren bikoizte mekanikoa barik hizkuntza bakotxean gauza ezberdinak adieraztea hobetsi nuen, pen-

tsatuz: “Oroigarri hau hartzen dauanak itzul-ariketea baino gehiago eskertuko jok mezuaren abantzua”. Hori oso gogoan daukat.

GURUTZE IGANTZI

Jo naute, hil naute
irtenbiderik ez zen
jo naute hil arte
itzulbiderik ez zen.
Oena hiltzea
zela ohartu nintzen
neronen gorputza ere
ez nuen ezagutzen.

1)
Amaitu da guztia
urgain barean nago
itsasoan harago
eta atsedenago.
Gezurra diodanik
ez didazu esango
iruditzen banauzu
ordu batzuk lehenago.

2)
Milesker, oi Herio
salbatu nauzulako
ukan nazazu, otoi
beti zure meneko.
Zuek ez egin negar
isilak diraueno
orain hobeki nago
haien eskuan baino.

3)
Utz nazazue neure
amets gabeko lotan
oroitu nazazue
sehaskako bertsotan.
Bizitzaren batera
berriz itzartzekotan
ez nazazue piztu
gorputz apurту hontan.

Gurutze Igantzi, torturak hil zuen urnietar neska. Bertso hauek Anje Duhalderentzat egin nituen eta ezin dut esan gabe utzi nire kanta letrarik maiteenetakoa dudala berau, dramatismoa, mina eta sentimendua bategin beharreko generoan behintzat. Dena ez da geure meritua. Ikasteko motibo ugari ematen digutenei ere aitortu behar zaie partea. Honelako poemak ez dago konparatzerik umorezko edo amodio soilezko bertsoekin. Gogoan dut nolako betekada sentiarazi zidan leloak, “onena hiltzea” izatearen arrazoitzat, “tortura” hitza aipatu gabe, “neronen gorputza ere ez nuen ezagutzen” aurkitu nuenean. Ideia honi hirugarren bertsoak zehaztasun urratua damaio “ez nazazue piztu gorputz apurtu hontan” aginduan, Herio salbatzailearen ondoren, pizkunde posiblea ere errefusatzerraino. Eta hala ere, beharbada gehien hunkitzen naue-na lehen ahapaldiaren hasiera da, guztia amaitu ondokoa: “Urgain barean nago / itsasoan harago / eta atsedengo”. Zenbat eta heriotzan barrurago, hainbat dohatsuago, hainbat urrunago torturaren ertzetik. Errima aldetik, bertsolari pentsakerentzat, leloak makala irudi lezake, poto eta guzti. Kasu honetan bistan dago “irtenbiderik ez zen” eta “itzulbiderik ez zen” errepika indargarriak direla, “jo naute, hil naute - jo naute hil arte” lerroen paralelismoan. Kanta baten leloa da, ez sorta baten lehen bertsoa. Insistentzia poetikoak ez dauka zerikusirik potoarekin, zeina, nahi izatera, aisa saihestu ahal izango nukeen. Bigarren ahapaldiko errima ere ez da oraingo bertsogintzaren kodekoa, baina ez nuen inolako kezkarik eduki, horrela uzteko. Beharbada, ideiarik aldatu gabe, errima hobetzeko modu erraz bat agertu balitzait, onartuko nukeen, baina ez nintzen ahalegindu. Kanta hitzetan bertsolaritzaren estetikatik urruntzen saiatzen naiz. Are gehiago, kanta hitzei bertsolaritzaren (batez ere bat-batekoaren) estiloa somatzen badiet, txarrak iruditzen zaizkit. Beste kontu bat da bertso gisan sortutako poema bat beste artista batek musikatzeko duenean, edertasun bat aurkitu diolako. Orduan testu baten gainean ari da lanean eta bigarren artistaren ardura da hitzen eta musikaren arteko edertasun erantsia lortzea.

KATXUE

Joan zen igandean Txori eskainitako bertsoak irakurtzean, norbaitek pentsatuko zuen: "Eta Katxue?". Ba, bai. Hain segidan joan ziren biak! Kostatzen zait Katxuerena burutik kentzen, azken batez norberak noizbait eginiko pentsamentu bat besterik ez baita, egi bihurtua. Ziegan dagoenak pentsamentu klase guztiak egiteko astia dauka eta nire burura ere iristen ziren holakoak, denbora pasatzeko besterik ez bazen ere. Nola egingo nitek hau, hori, bestea? Pentsamena dibertsio bat da, baita tortura bat ere inoiz, itzarririk zaudela derrigor pentsatu behar baituzu zerbit. Pentsakizun tragikoak euron gertatzearen kontrako antidotoak dira. Katxuek ere egingo zituen, baina ziur naiz azken egintza hura ez zuela berak burutu.

Hain irribarre maitagarri ta
entregatuan bizirik
ez zuen izan askatasuna
besarkatzeko grazirik.
Hurbildu gaiten ate beltzera
saminez eta isilik
izutu gaiten behatxulotik
presoner bat ikusirik
itxaropenak abandonatu
zuen leihotik zintzilik.

Gure presoak isolamenik
zitalenean zeudela
heriotz honek saltarazi du
egoeraren krudela.
Burutik ezin kendurik haren
azken arnasa ubela
poz bat sortu zait, ez bada bera
kontsolamendu ergela
behintzat badakit orain gehiago
sufrituko ez duela.

Orain, Katxue, erantzuterik
bahu galdera haueri
nongo txoriak izutzekotan
bendatu dituk bi begi?
Nola hanka ta esku atzean
loturik hintzen eskegi
Urkagai batek lan hoiek denak
hartzea ez al duk gehiegi?
Hil egin haute, Katxue maite!
Eurek eskegi haute hi.

1997-2-11ko “Semaforo gorria”n idatzi nuen:

Katxue ezagutu nuen apurretik, haren irribarre biboteduna geratu zitzaidan betiko. Bere beltzaranean, aurpegi xaloa, ia gardena, dena irribarre orokor batek animatua. Tratuan adeikorra eta karinosoa, sentimen bihozbera eta delikatua zeriona. Ez da hil ondoren dena on bihurtzen delako. Esan dut ez nuela sakon ezagutzeko beste tratatu. Iparraldean errefuxiatu zegoela noiz behinka eta gero Elorrion eta inguruko herrietan zenbait ekitalditan, baita han-hemengo jaietan ere. Eta irudi horixe geratu zitzaidan. Haren izaera zintzoak eta minberak zenbat

sufrituko zuen esaterik ez dago, azken egun fatalaren aurretik. Orain behintzat sufrimendutik libre dago, lurraren atsedean betikoan.

Haren azkenari ematen zaizkion interpretazio guztiek gauza batean behintzat bat etorri behar dute: Katxue errepresioak hil du. Horixe da egia gordin bakarra. Batzuk enfrentamenduan, beste batzuk komisaldegian, beste batzuk gaisotasun irrebetsiblean, beste batzuk itxaropen gabeko leihoan. Itxaropena ez baita kanpoko objektu bat, norberak une batean sentitzen eta ikusten duena baizik. Itxaropen kolektiboak, hots, askoren artean sentitzen eta ikusten denak indartsua eta hauskaitza izateko dohai handiagoa dauka. Horregatik itxaropen kolektibo sendoak azkenean irabazteko patua eramán ohi du soinean. Hala ere itxaropen horren sentipena pertsonala eta banangoa ere badenez, oraingo espetxe politikak, bere dispertsio gupidagabez, hortik apurtu nahi du kemen kolektiboa. Presoak banaturik eta isolaturik, bakoitzaren euspenari krask eragiteko baldintzak ahalik gehien estutzen dihardu.

Damutze kanpainak, zorioneko reinsertzio miragarriak, ez zien etekin handirik utzi. Eskuetako hatzen buelta bakarrean konta litezke hortik galdu diren aleak. Katxueren heriotzarainoko zintzotasunak garbi utzi du bide hori ibilera terminalean dagoela. Badakit Katxueren hutsuneak min handia utzi duela hura ezagutu zutenen inguruan, hain mutil xaloa, zintzoa, karinosa eta maitagarria baitzen. Ziur naiz min hori amorrurantz transformatuz joango dela eta amorrua kemen bihurtuko dela. Hortik dator doan bakoitzak dozena bat berriren hazia ereinda uztea eta Katxueren heriotzaren konnotazio minberen eta mingarrien bildumak ere eragin emankorragoa izango du norabide horretan. Ziur naiz iruzkin hauek ez direla topiko soilak, Elorrioko plazan batu ginen milaka lagunek saminki sentituak baizik. Saminki, bai. Zergatik ukatu?

Ezin dut imajinatu Katxueren irribarre kutsakorra ziegako
leihotzarraren barroteetatik eskegita. Katxue! Zer egin dautsue?

KAXILDA LAGUNA

Agur eta esker on
Kaxilda laguna
hain irakasle jator
eta euskalduna.
Zenbat ote da zure
lanaren bilduma,
Laskorain Ikastolan
ongi dakiguna?
Zenbat guk jakin gabe
egingo zenduna!

Tolosako Laskorain ikastolatik bertso bat eskatu zidaten, “Kaxilda laguna” lan hartatik erretiratzera zihoanean eskaintzeko. “Lan hartatik” beren-beregi jarri dut, hain langile nekagaitzak “lantokia” delakoaren bigarren zatia utz baitezake, baina nekez lehengo. Geldi egoteko zorrotz aginduko ez banio, nago ez ote litzatekeen ordenagailuan ere zeozertan hasiko. Ez zeri ekinik aurkituko ez zenukeelako, baina ni aski loriatzen nau artxiboen zerrendan “Kaxilda laguna” aurkitzeak.

KRUTWIGEN HILETA

Bi era ezberdin dagoz sartzeko historiaren plazara
geroko ikaskai bezala edo eztanda baten gisara.
Zu, Federiko, ahots ez ezik burrunba bat izan zara
garai bateko "Vasconia" edo garai oroko euskara
zure irudi joana beti itzuliko da bistara.

Zure ahotik labe usaina ateratzen zuen hitzak
Ohore zuri, Federiko, ta ez agurrik Krutwig-entzat.
Zu bezalako trumoiiei esker hartzen du indar ekaitzak
izan gintezke herri txiki bat egon gintezke apaltzat
izan gintezke menpeko baina izengabeak ez behintzat.

Trumoiak ere eduki arren tximistortzian sorburu
errenditzen da Heriorekin aurkitzean buruz buru.
Zutaz ez dago esan beharrik "gogoratuko zaitugu!"
Ezkutatzerazoaen lurak nola batuko gaitun gu
Hala betiko Krutwig bizia ikusten segiko dugu.

1998-11-01. Krutwigen azken urte narrastu samarrak zaindu zituen Anton Artiñanok (berau ere istripuan hila urte eta zerbait geroago, bere jaioterri Zeberion) bertso batzuk kantatzera gonbidatu ninduen Derioko hilerrian egingo zen haren hileta eta omenaldi ekitaldira. Orain zalantzan nago deia ez ote nuen Euskaltzaindiako norbaitengandik hartu. Berdin da. Krutwigen azken urteak Bilbon joan ziren, Anton Artiñanok Zarauztik hara ekarri zuenetik, bere babespean. Krutwig urte luzeetan izen enigmatikoa izan zen niretzat (beste askorentzat ere baietz uste dut), haren "Vasconia" liburu konbultsiboa irakurri nuenetik. Deitura niretzat kriptografikoa zirudienak ere zerbait eragingo zuen, nire gaztetasun txundiberak inpresio hura handiostu zezan. Pertsonalki bere azken urteetan bakarrik tratatu nuen zerbait berarekin, oso bakan eta buruz-buru

behin ere ez, nahizta behin baino sarriago ikusi nuen Bilbon zehar, bere itxura baldartua eta zombie samarra kostata arrastatzen. Behar-bada mitoen irudi egiazko bakarra berau. “Kaixo, Federiko!”. Biz-pairu hitz eta aurrera, nahizta berak hiru milarako ere beti zeukan astia. Hori bai, entzun egin behar zitzaion eta badaukat damua, aukera kaletar hain eskuragarrian, greziar aurrien homonimo hura gehiago baliatu ez izana, ez hainbeste bere ideia pasionalki inplakableengatik, literatur-gai laberintiko bat inspiratzen zuelako baik. Etxean edukitzeko baino eleberri jenial batean atxikitzeko hobe den pertsonaia horietarikoa. Bertso hauetan nortasun innatoki antagoniko haren indarra adierazten saiatu nintzen.

LASA ETA ZABALA

Lasa eta Zabala
bi hilotz gehiago
etsaiek eramanak
urtea igaro.
Zuen odola gure
bihotzean dago
handikan ez zaituzte
inork eramango.

Berak dioenez, Lasa eta Zabala “desagertu” ziren urtebetegarrenean egindako bertsoa da, ez dakit zehazki non ipintzeko. Gero, 1995-4-24an argitu zen desagerpenaren benetako aurpegia, Lasa eta Zabalaren gorpuak Alikanten ehortzirik aurkitu zituztenean. Ikaratu egin ginen, haien azken izengabea, lehendik ere minki susmatzen genuena, zein lazgarria izan zen frogak agertu zirenean. Ordukoak dira ahapaldi araugabe biok, diptiko edo halako salapen txartelen baterako eginak nik uste. Edo beharbada “Semaforo gorria” zutaberako.

Bi soin eta mila zati
eho zintuzten basaki
hiltzea ez zuten aski
zenbat sufritu zenuten
izuak bakarrik daki.

Batzuk dira hilik bizi
zuek hilda ere bizi
bizi zaituztegu bizi
hil eta ber-hil
nahi zaituztenei
bizi eta ber-bizi guk.

NIKOLA TELLERIA

Sopelantik mundu larrera
laino astunen suzko karrera
Nikola hil da! Hil da Nikola!
Nabarnizen datza bera.
Askatasunaren harotz
jende zapalduen abots
izana bihotz eta hortz
aitzurak negar dagio baina
ez malko beltzik atera
haren arnasa geratu zaigu
haizearekin batera.

1)
Gizon bat hil da edo hil dute
lur beltza azpikoz gora
haren lagunak ere lurpean
han geratu da Zamora.
Guk ezin dugu Nikola piztu
joan zen Lurraren golkora
baina zergatik ez aterako
preso guztiak kanpora?
Hori ez bada, denok lurpera
joanda hobe izango da.

2)
Haizkorakadak mila harturik
azkenak hausten arbola
badakizue haren sustraia
Nabarnizen han dagola.
Lurpean bezain gartzelan nausi
izerdi eta odola
gizon bat hil da edo hil dute
ez betirako inola
aska ezazu Euskadi eta
piztuko zaizu Nikola.

Nikola Telleria 1975. urtean hil zen, 59 urte gaz, Zamoran sei urte preso eginda. Hil zen edo hil zuten, erdi hilda askatu baitzuten, zigorraren azken tangadaraino betearazita. Gure Zamorako espetxecko esperientziarik mingarriena beharbada (badagoz beste batzuk

bildurgarriak, apalgarriak, baina mingarriena) Nikolaren kasua izan zen. Besteok gazteak ginen orduan, hura adintsuagoa. Ez naiz ausartu “zaharra” ipintzen, neuk oraintxe daukadan adinarekin hil baitzen. “Komandantea” deitzen genion eta gauero-gauero azken entxapamenduaren ondoren, (lotegi komunean hogei bat ohe, ilara bitan), haren aginduetara desfilea egingo genuen, “Eusko gudariak” kantatuz. Bere bosgarren gartzela urtean, 58 urte zituela, beraz, gizona jaisten eta moteltzen hasi zen. Urgulu handikoa eta makurgaitza zenez, gutxiago erakusten zuen, baina haren aurpegiak eta gorpuzkerak ez zuen dudarako biderik ematen. Gizona beherantz zihoan erremedio gabe eta espetxean ez zen ikusten erremediatzeko borondaterik. Eskariak, protestak, baita helburua nola-hala lortzeko zurikeriak ere, erabili genituen arren, mediku ziztrin funtzionari baten ikuste labur eta ezaxol batzuetan eta honek agintzen zizkion aspirinetan geratzen zen dena. Hogeita lau orduan geure ondoan geneukan gizona akabatzen ikusten genuen eta ezer ezin egin. Inpotentzia esaten da, baina hau ere larriagoa da heriotza somatzen denean. Noizbait, beranduegi, Madrilgo ospitalera aldatu zuten, protestak ekiditearren segurrenik, eta han ere eduki besterik ez zuten egin, kondenaren azken eguna bete arte. Berak etorkizun oparoa itxaroten bazuen ere (eskerrak bere bizigogoak azken ebidentzia hilozkara arte horixe ustearazi izan ziola gizajoari), heriotz-zigor hurbilaren puntzeta garondoan zekarrela etxeratu zen. Hain zala eta etsigaitza izanik, bost hilabete kostatu zitzaion guztiz akabatzen. Heriotzak zigor-erakundeek baino aurpegi gizatarragoa erakutsi zuen. Lehen bertsoa Nikolaren oroigarriako egin nuen. Beste biak haren hileta egunean Sopolako elizan kantatu nituela uste dut. Bazen han txakurra eta txakurkeria ugari! Bera baino hiru hilabete beranduago kaleratu bainintzen, pare bat hilabetez haren azkenaurrearen gogaide izateko zortea batetik eta tristura bestetik izan nituen. Beti ezin izaten nion negarrari eutsi, haren plan afantsuak hain aurpegi akabatutik entzutean. “Bai, Nikola! —esaten nion zelanbait disimulatu guran—. Pozaren malkoak dira honeik, zure

gogoak eragiten daustan zirrarenak”. Gizona hain sineskor hiltzen ikusteak poztu beharrean goibeldu egiten ninduen, ume bat hiltzean ikustea lakoa baitzen. Heriotzak ere errealismo minimo batekin tratatua izan nahi duela dirudi.

IRIBAR

Goizak gauari irripar
egunsentian Iribar
kirolzaleek txalokatua
izar hainbat bidar.
Bi esku luze ta gihar
atxikiz Hego ta Ipar
gaur banatua Euskal Herriak
bildu dezan bihar.

Iribarren “Ikuska” baterako izan zela uste dut. Irudia bi esku zabal gorantz ziren, ortzia harrapatu guran lez. Jose Anjel Iribar atezain mitikoa izan bazen, ez dut gutxiago miresten bere konpromiso euskaltzale eta abertzaleagatik. Kirolari zela, ez nuen pertsonalki eza-gutu, baina gero hamaika aldiz topo egin dugu zerbaiten aldeko kausetan, euskararen eta Euskal Herriaren aldekoetan batik-bat. Kirol aktiboari agur egin zionean, omenaldi partiduko dirua kirolaren euskal hiztegi bat burutzeko eskaini zuen. Gero ohorez eta poz handiz hartu genuen bere omen-afarira bertsolari gisan gonbidatuak izatea, orain izenik gogoratzen ez dudan Bilboko jatetxe handi batean. Argi dago Iribarrek bertsolarien ekitaldiarekin (Lopategi eta biok, hain zuzen) afari “bilbaino” hari esanahi publiko bat eman nahi izan ziola. Horregatik bi esku irekien interpretazioan ez da batere bortxatua, guztiz berezkoa baizik, Iribarren jausian kirola eta Euskal Herria bat egitea.

JOSE LUIS ISASA

1)

Agur eta esker on
Jose Luis Isasa
hirekin joateko
nornahi ez duk gauza.
Eztandaren erdian
eten zaik arnasa
Euskadi guztia duk
orain hire plaza.

2)

Jose Luis Isasari
agur, esker mila
iraultzaren eskutan
joan den mutila.
Eztanda hura dela
oihartzun hurbila
gudari sail berriak
datoz txanda bila.

Jose Luis Isasa, bertsoek diotenez, istripuzko eztanda batek eraman zuen. Beharbada hauexek izango dira nik egindako lehen bertsoak, gudari hilei buruzkoak. Gaia ez zen samurra. Zer on, zer berotasun atera honelako istripu dohakabe bati? Gaurtik begiraturik, betiko esan beharrak eztandaren zirkunstantzia tamalgarri hartan argi eta labur biltzeko meritua aurkitu diot bertso pare honi.

JOSE RAMON ASUA

Alperrik joango da
aurrera denpora
urtero ekarriko
zaitugu gogora.
Hortik ez zaitu ezerk
jaurtiko kanpora
zure gomuta beti
loran egongo da.

Berriz. 1992-9-22. Jose Ramon Asua berriztar zenduaren gomutakirako bertso bat eskatu zidaten eta hauxe egin nuen. “Urtero” gogora ekartzeak gomuta murriztu egiten duela dirudi, egun jakin baterako gorderik eta ez urte guztian zehar. Beti gogoan izango dugula esateko era ezberdin eta arinduago bat besterik ez da. Kristau ohituren barruan, heriotzaren urtegarrenak dira erritualenak. Bestela ere, urtean egun bat nahikoa litzateke bueltarik ez daukan heriotza gogoratzeko, gainerako egunak ganoraz bizitzen utziko balute.

JOSU OLABARRIA

Naturzale gazte lerden
Euskaltzale sendoa
Zure hotsa ez da eten
Eretzan gora doa.

Barakaldotar Josu Olabariari bere lagunak oroitarri bat eskaintzera zihoazen Eretza mendian eta bertso lerro batzuk eskatu zizkidaten. Jaso nituen datuetatik, guztia telefonoz, haren izaera hiru ezaugarriotan ulertu nuen: naturzale, euskaltzale, ekintzaile. Nire bizitzak ukatu behar ez lituzkeen atseginetarik bat Eretzara igoteak izan behar luke, oraindik egiteko nagoena, agian bildurragatik, nire hitzek Josuren harritik ez ote didaten tristura bat sartuko, mendiak merezi ez duena.

JOTA A. BIS EME

1)

Ai, gure Azkue liburu-borda
ehun mila aleko lana!
Galdezka dago: "Nora zoaz zu
gure uzaba izana?".
Esan dautsogu: "Liberatu da
Jota A. Bis Eme jauna".
Berak dinosku: "Zelan joan da
emon barik mosu bana?"
Ez egin negar, etorriko da
zu zara bere laztana.

2)

Ai, gure Jota. A. Bis Emetxo
hartu egizu atsedean
ia aitita-lanetan orain
zelan atontzen zarien.
Gaur ez dira, ez, triste egongo
Maiteder eta Madalen
marrazki eta ipuin bildumak
katalogatu ondoren
Azkue txiki bat etxean martxan
ipini zeinke lenbailen.

Kabala bat dirudien "Jota A. Bis Eme" J. A. A. M. edo Jose Antonio Arana Martija besterik ez da. Euskaltzaindiako bibliotekari lanetik erretiratzea ospatzeko, lankideek eskainiko zioten bazkarirako, bertso batzuk eskatu zizkidaten, hantxe bazkalostean ezustean kantatzeko. Lehen bertsoan "Liburu-borda" edo biblioteka nortasun bakar lez mintzo da, baina mosua hartzeko orduan, alekatu egiten da. Neure gorputzak ere estimatuko luke hori, disimuluan egiterik balu. Bigarren bertsoa izenak bere orduko bilobak dira, oraingo beharbada ugarituak izango direnak. Hemendik zorionak errepikatzea beharbada ezgaraikoa izango da, baina, zoriona opatzeko, inoiz ez da berandu.

JOXE MANUEL

Zure hilobian, Joxe Manuel
ikusten dira adar bi
bata ustela, etsaiarena,
lagunena garbi-garbi.
Lagunak asko badituzula
haizeak badaki argi
nahi dugunontzat herri hau dadin
plaza askatura jalgi
zure odolak eginda utzi
digu bidearen erdi.

Beste erdia egiteko ere, odola beharko ote da?

JUAN KARLOS ETA IZAZKUN

Juan Karlos eta Izazkuntzat
mila zorion eta poz
urte barruan mila eta bat
izateko gogo osoz.
Hurrengo urtean mila eta bi
hiru, hamaika, hamabost
urtero holan izan daitela
bakotxean bat gehiagoz.

Izen hauetako bikote batentzat zorion bertso bat eskatu zidaten eta hauxe egin nuen. Ahaztua daukat nork eskatu zidan, Juan Karlos eta Izazkun ez dut uste pertsonalki ezagutzen ditudanik, baina bertsoa berrikustean, dardaratxoa eragin dit, oso gogoan baitaukat zorion soil batzuk era diferentean eman nahi izateak buruari hainbat buelta emanarazi zidala. Azkenean pozik gelditu nintzen, nahikoa era orijinala aurkitu nuelakoan. Pertsonaiak eta gainerako zirkunstantzia esternoak difuminatu arren, barne-mugida hortxe geratu zen, kanpo-seinale baten zain. Oroitzen ez naizena ere banaiz, baina seinaleok ezaba dakizkidanean, jada ez naiz esistitzen. Barnean geratu dena bere jatorri eternora itzuli da. Ezer ez da betikoa, ezereza baizik.

LEXOTI

Igandez ezin egonik hire
Donostiko omenean
kaixo, Lexoti, aurren esanez
jaiki nauk astelehenean.
Maiz ez diagu elkar tratatu
baina dugun bakanean
hireganako karino haundia
itsatsi didak barnean
zoriontzen haut are gehituko
zaidan itxaropenean.

Lexoti oiartzuar bertsolari eta orain Ereñozun bizi denari, bertsoan diodan bezala, karinoa hartu nion. Bertsolari eta gizon gisan oso ale berezizat entzuna nuena, gero pertsonalki ezagutzera iritsi nintzenez, maitagarri egin zitzaidan, bere irribarre kalkulatu gabea aurpegi guztian zehar. Garai batean xeblebre samar ibiltzeak bate-re ardura ez omen ziona mutiko baten xalotasunean aurkitu nuen. Haren omenaldira, ez dakit zergatik, ezin izan nuen joan eta astelehenean bertso hau bidali nion. Neurez nekez hartzen dudana lantegi modu hau Lexotiren kasuan ez zitzaidan askorik kostatu.

KATALINA MAITEA

Katalina maitea
ordua heldu zaizu
eta amona gabe
hor utzi gaituzu.
Gureztat betirako
sinistu ezazu
Amona Katalina
izango zera zu.

Oroigarria dirudien bertso hau ez daukat gogoan nondik eskatua izan zen. Jubilatzeraz zihoan emakume langile bati “amona” deitzen zioten, nonbait, era karinosoan eta bertso batekin agurtu nahi zuten. Geroztik neuk ere badaukat “amona Katalina” bat. Nahizta bera ezagutu ez, ordenagailuko artxiboen aurkibidean beti agertuko zait “Katalina maitea” bat. Izenaz besterik ez daukaten maitasunek sekula ez dute defraudatzen.

LAZKAO TXIKI HILOBIRATZEAN

Agur, hainbeste poz eman duzun
Lazkao Txiki maitea
kostako zaigu gure plazetan
ez zaudela sinistea.
Ekarleontzat mingarri bada
zu hilobian uztea
beste mundua zurekin ez da
izango haren tristea
zerbait balego desio nuke
zure ondoan piztea.

Lazkaoko elizatik hilerrira joanaldia dago, zati bat aldasgoran. Lazkao-Txikiren pisuari eusten baino lan zailagoa izan genuen andariok altuera berdintsuak txandatzen, hilkutxa orekan joan zedin. Hilerrian, zuloaren gainean, bertso hauxe kantatu nuen, hark mundu honetan entzungo zuen azkena. Entzun zuela uste dut, apur bat mugitu egin zela iruditu baitzitzaidan. Bertso honek nire (eta noren ez?) Lazkao Txikirenganako kutuntasun mireslea gardenki adierazten du. Benetan sentitua delarik, eta beharbada horrexegatik, nire bertso jarri guztietan onena hautatu behar banu, hau ez litzateke urrun ibiliko. Fededunek badakit “zerbait balego” hori muzintzi hartuko dutela, baina nik ezin dut beste era batera esan, are gutxiago Lazkao-Txikiren hilobi gainean, haren zalantzen entzule (ez dut esango aitor-entzule) sarria izan bainintzen. “Ez al zaik suertea iruditzen —arranguratzen zen gizarajoa— jarraian bertan betiko zorionera doazela sinestuta hiltzen direnena? Norberak halaxe sinestuz gero, berdin zio, gustora hiltzeko”. Badirudi berak ezin zuela gusto hori sentitu. Bertso hau hurrengo eguneko egunkarrietan guztiz itxurgaturik agertu zen eta kostatu zitzaidan (ez dakit oraindik lortu dudan) bere izate jatorrera ekartzea. Ez dakizue nola-

ko ernegua ematen duen honelako bertso hain espezial eta ustez on bat hain zabar zabaltzen ikusteak! Eta gauzak nola diren. Bertso honetan bazen arantze bat, iruzkinok idazten ari naizen une honetantxe ateratzea lortu dudana, hain zuzen, urteetan hortxe zistaka ibili ondoren, “beste mundua zurekin ez da / izango horren tristea” puntuan. “Horren” barik “hain” gura nuen nik, hots, ez “horren” edo hor hurbil dagoena, Lazkao-Txiki oraindik bertan zegoen lekua, han baizik, harantz zihoala suposatzen zen urrunean. Joango zen hartan dagoeneko sartua bazen, kontraesana zen tristea izaten jarraitzea, hain zuzen alderantzizkoa nahi baninuen, hots, Lazkao-Txiki heldutakoan, beste mundua ez zela izango “hain” tristea. Baina silaba alu bat falta zen, “izango hain tristea” zazpi baitziren. Jar nezakeen “izango, ez, hain tristea”, baina indargarri honi ez nion egoki erizten, alde sekundario bat indartzen baitzuen. Jar nezakeen “izanduko hain tristea”, baina, zuzena izanik, ez nuen “izandu” erabili nahi. Jar nezakeen “gertatuko hain tristea”, baina nik “izan” edo izatea nahi nuen, ez gertatze kasuala. Eta zenbat honelako buelta! Gauza bat da anbiguotasun, zeharbide edo beste edozein efektu beren-beregi erabiltzea baliabide gisan eta oso bestelakoa baliabiderik eza disimulatu beharra. Azkenean “horren” utzi nuen, doidoi berbera ez zela jakin arren, testuaren esanahia nahiko argia zela usterik. Eta hona, iruzkinok idazten niharduela, arantzeak berriro ere hortxe zast. “Artista ederra hago hi, silabatxo baten gorabeherea urteetan konpontzeko gauza ez bahaz!”. Eta bat-batean “haren” bururatu. “Honen”, “horren”, “haren”, zeinaren laburpena den “hain”. “Haren” hau oraindik bizkaieraz gordetzen da, esamolde urri batzuetan fosildua, nahizta bestela arkaikoa izan. Azkueren hiztegiak ere arkaikotzat dakar. Hainbat hobe! Arkaikotasunak beste munduaren urruntasuna aregotu egiten du eta nik horixe nahi nuen, hain zuzen. Beharbada batzuei ez zaie aldakuntza egokia irudituko, baina arantzearekikoa egintzat uzten dut betiko.

LAZKAO TXIKI

1)

Zerura joan eta
galde egin nuen
Lazkao Txiki nola
eta non zegoen.
San Pedroren esanak
harritu ninduen:
"Etorri balitz, pozik
hartuko genuen
baina bertsolaririk
ez da sartu hemen".

2)

Orduan ifernura
jo nuen galdezka
Luzifer ikusteko
baneraman kezka.
Erantzun zidan bere
sardea trabeska:
"Labe hontan harentzat
sarbiderik ezta,
hau negar zuloa da
ez suaren festa".

3)

Gero galdetu nuen
purgatorioan
han ere ezetz eta
aurrera nihoan.
Ez nuen aterik jo
alperrik linboan
hura ez baitziteken
hara inoiz joan
lurrera itzuli naiz
goizeko lainoan.

4)

Non zaude, Joxemiel
norantz egin zendun
alde hartan aurkitzen
ez baitzaitut inun.
Kaixo, esango dizut
hurbil eta lagun
sentipena baitaukat
ez zaudela urrun
ala nahasteraino
behar al zintugun?

5)

Beste munduan ez dut
aurkitu papelik
ez Lazkao Txiki ta
ez Joxemielik.
Dena izan ote da
itxura bat soilik
edo haurren ipuin bat
ohean zintzilik
berdin amesten dena
bizirik nahiz hilik?

7)

Heriotza omen da
denen berdin zale
salbuespenik bada
hura zu zarade.
Ezin dut iruditu
herri hau zu gabe
iaz bezala aurten
ere hemen zaude
eta egongo zara
berriz hilda ere.

6)

Bi egutegi dauzkat
eta bi aurpegi
bat patrikan bestea
orman begiz begi.
Batzutan pentsatzen dut
"Hau ez zagok geldi!".
Nabari dut mugitzen
ez ote den ari
egitan hila balitz
nola izan hori?

Bertso hauek Lazkao Txiki hil zen hurrengo bertsolari egunean kantatu nituen. Urte hartarako bere irudidun egutegiak atera ziren, ormakoak eta karterako txikiak. Lazkao Txikiren hil osteko presentziari hunkiberatasuna, ipuintasuna, ironia maitekorra eman nahi nion, bere mito zelebreaz harago, bizitzan beti iradoki izan zidan lez. Motiboa benetan sentitua denean, igarri egiten ei da, baina ez da hain erraza sentieraren araberrako azalpena lortzea. Lazkao Txikiren kasuan, hartaz nituen eta ditudan sentipen ugari

eta ezberdin guztiak nahi bezain garden eta indartsu berritzen zaizkit bertso gutxi hauetan. Bosteko sortan utzita ere, ez dakit galdu ala irabazi egingo luketen. Kengarri bi horietan ados bagengoz, bestetan ere ez genbiltzake elkarrengandik urrun, baina baliteke gozamen pertsonal hau transferigaitz izatea, besteren sentierak ez baitauka nirearen antzekoa izan beharrik. Ez dut uste Lazkao Txiki honela gogoratzen eta sentitzen duen bakarra naizenik. Eta banintz ere zer? Horrela Lazkao-Txiki bat baino gehiago genituzke.

SARASUAN IZENEAN

1)
Mutil koxkor bat epaiaren zain
dugula aldamenean
gu ere kide gara ezarri
nahi dioten hobenean.
Justiziaren zaindari behar
luken etxe gailenean
kontzientziko eskubide bat
haustera doazenean
elkartasuna eskatzen dugu
Sarasuan izenean.

2)
Armada beti krudela bada
borondatez joanean
zer ez ote da ideia denen
aurka zaramaztenean.
Ez dugu eskatzen limosnatxo bat
itsuaren ezinean
erantzun duin bat jaso dezaten
bortxatze hauen gainean
errebeldia eskatzen dugu
Sarasuan izenean.

3)
Epaile jauna ez zaitezela
erori itsumenean
ba al dakizu nor behartzera
zoazen uniformean?
Baldin armadak iraungo badu
bere ordena firmean
edo etsaia eraso egun
eta ordu zuzenean
ez deitu, otoi, Sarasuari
Jainkoaren izenean.

4)
Mutil koxkor hau jartzen baduzu
zigorturik azkenean
pentsa nolako tobera joko
dizuten ondorenean.
Bertsolaritza goratuko da
izarren podiumean
intsumituen txinparta berriz
sutu Euskadi denean
horrela balitz eskerrik asko
Sarasuan izenean.

Bertso hauek Jon Sarasuaren epaiketa egunean kantatu nituen. Donostian intsumisioagatik epaitu zuten goizean hainbat lagun eta bertsolari batu ginen inguruan, eta ondoren, auzitegiaren azpiko kalean bertan, ekitaldi xume baina esanguratsu bat burutu zen, umorea eta edukia biltzen zituena. Eskuartze mintzatu labur batzuk izan ziren, Sarasua bera tartean zela. Egañak egunari zegozkion ber-

tso bitxi batzuk paratu zituen eta nik ere hauexek kantatu nituen.
"Mutil koxkor bat" doinua eta egitura osoa hartzeak pertsonaiarekin zer erlazio iradokitzen duen esan beharrik ez dago.

MARI PAZ

1)
Heriotza da danon ganera
datorren mailu astuna
bat iztekotan hauxe izan zan
kendu behar ez euskuna.
Agur, Mari Paz, ta agur zeugaz
daroazun maitasuna
zegaitik eta zenbat izan zan
zeuk bakarrik dakizuna.

2)
Gure agurra ta eskerrona
zure irribarre hari
zuen atea joten gendunok
badakigu zer zan hori.
Hain sentiduta ez geuntson egin
agurrik beste inori
ez geuntson beste inori egin
ezpada zeure amari.

3)
Inon badago, zuk izan zendun
guzur bako sinesmena
inor badago, guk badakigu
zu zeruan zagozena.
Lan bat bakarrik geratzen jaku
ez da bera errezena
zein izarreri geinkion orain
ipini zure izena.

Mari Paz Ozerinjauregi, hurrengo bertsoetan agertzen den Xabier abadearen arreba. Beti alkarregaz ezagutu nituen eta ama ere azken urteetan eurekin eduki zuten Fruizen. Xabierrek bere arrebaren hiletan Zeanuriko elizan, hangoak baitziren jatorriz, bertso batzuk kantatzeko eskatu zidanean, barruak plof egin zidan, elizkizunetan ez kantatzeko erabakia baineukan. Ezin izan nion ezetzik esan. Salbuespenik izatekotan, Xabierrek eskatuta gainera, Mari Pazek izan behar zuen. Xabierri buruzko ondorengo bertso eta iruzkinean, haien Fruizko etxearen gomuta zirraratua aipatzen dudanean, erdia gutxienez Mari Pazi dagokio. Mehe eta luze, azal zurizka, ber-

bakera ezin leun eta laztankorragoan, Mari Paz irribarrearen lirioa lakoa gogoratzen dut. Badakit asko sufritu zuela, baina ez zitzaion igartzen. Ate bat zabaltzen eta Mari Paz “erdu barrura” esaten, horra nire gogoan geratu den irudi idealizatua, kasu honetan erreala eta idealizatua gauza berbera direla.

GURE XABIER, LAGUN XABIER

1)

Gure Xabier, lagun Xabier
ordua heldutakoan
bazoaz zeure betiko herrira
heriotzaren lepoan.
Agur, Xabier, betiko lagun
agur eta ondo joan
ez zoaz txarto, gelditzen zara
zeure lagunengogooan
eta aurretik joan jatzuzan
zeure etxekoen ondoan.

2)

Urteetako lagunak batu
gara gaur zure omenez
gordeko dogu zure izena
egiten dautsugu promes.
Zure etxea zabalik beti
irribarrerik onenez
eta atean zure arrebea
"erdu barrura" esanez
halan ikusten zaitugu gaur be
nahizta zeu bertan egon ez.

3)

Sasoi bateko Herri Gaztedi
ez dago oraindik hain urrun
eta batez be GOGOR taldean
zein zintzo jokatu zendun.
Herriko abade, herriko gizon
traizino bako euskaldun
aurrera bazan zu beti gertu
beti bultzatzaile lagun
geuk beste inork ezin kontatu
zuri zenbat zor dautsugun.

4)

Preso egonak bagara hemen
asko eta hainbat bider
zure aldetik hartu gendunak
hainbat laguntasun eder.
Orduko eta gaurko guztien
izenean mila esker
harein gogotik ez zara joango
zenbaitek nahi baizen laster
batzuk ahaztu bazagize be
ez dozu galduko ezer.

5)

Goranahia ta ustelkeria
ibili arren nabarmen
herri jatorrak gaur be badaki
nortzuk zer merezi daben.
Batzuk izatez apalak baina
egitez hain dira gailen
horreitako bat zu izan zara
horregaitik gagoz hemen
zure izena Euskal Herrian
izartzat gorde dagien.

Bertso hauek Fruizko abade Xabier Ozerinjauregiren hileta egu-
nean kantatu nituen elizatik urtekeran. Hasierako deia elizan kan-
tatzekoa izan zen, baina ezetz esan nien, elizkizunetan neuk sines-
tu barik kantatzeko bortxakeriarik ez nuela burutu nahi, are gutxia-
go okasio hartan aldarean egongo zen herrenkada, Xabierren baz-
tertzaile izandako gotzaina barru, irudikatzen nuela. Nahi bazuten
elizatik urtekeran kantatuko nuela, onartu zuten eta halaxe egin
nuen, eliza ondoko horma baten gainetik, hilkutxa eta segizio guz-
tia aurrean geldituz zegozela. Xabier Ozerinjauregi, lagun artean “Oze-
rin” esaten geniona, argala eta luzea zen. Aurpegi izpiritualik izate-
tekotan, berea zen irudia. Baina izatez, itxura haren azpian, gizo-
nik sustraituena eta inkarnatuena zegoen, bere lur eta herriaren
aldeko konpromiso tenporalean. Berbakera leuna, suabea, beti irri-
barrez, beti arretatsu, ezin maitagarriago. Zintzoegia mundu hone-
tarako, ironiaren laguntza sutil bat izan ez balu. Lagun leiala, hutsik
gabea. Arreba Mari Pazek atea zabaldua, etxe hartan sartzea, ama
ere eurekin bizi zutela, nire bizitzako dohatasunik ez tzentetako
izan da. Nik neuk Fruizen ezagutu nuen beti. Ozerinen etxea gure

laketleku zen, baita hornileku ere, etsibera genbiltzanean. Gaur ere nire oroimena pozargitu egiten da, Xabier Ozerinen sukalderra sartzean. Egun batetik bestera arineketan samar, baina egitasunik handienez pentsatutako bost bertsook nahikoa ondo adierazten dutela uste dut Xabierren lagun amaigabeei zer sentiera geratu zaien berarekiko.

JOSE PATXI REMENTERIA

Ez zan izango lurrikararik
Ez itsasoko enbatik
Isilune bat minez gordeko
Ez ebanik zuengatik.
Zuen gogo biderkaturik
Zabaldu zan eztrandatik
Eta guk promes egiten dogu
Gaur Markinako landatik
Ez zaituela inok kenduko
Gudarien zerrendatik.

Markinako Jose Patxi Rementeria eta beste hiru lagun gazte eztanda batean txikiturik hil ziren Bilboko Boluetan, eurek zeramatan karga bat leherturik. 2000-08-20an Markinako landan Jose Patxiri (eta beste hiru kideei) egin zitzaion omenaldian Iratxe Ibarrak, Jon Lopategik eta nik neuk bertso bana kantatu genuen eta nirea hauxe izan zen.

MARIA DOLORES

Agur eta milesker
Maria Dolores
zure lankide denen
udaberri lorez.
Har atsedan langintza
betearen ordezt
baina jarraitu zeure
izatea gordez
beti zabaldu duzun
sasoi ta umorezt.

Jubilatzera zihoan Maria Doloresen omenez bertso bat eskatu zidaten Tolosako ikastolatik. Deitzaileak datu batzuk eman zizkidan, nolako emakumea zen eta abar, eta bertso hauze bidali nien. Maria Dolores bera ez dut uste ezagutzen dudarik, baina bertso hau zela bide, karino bat hartu nion eta hementxe jarraitzen du. Bitxia da bertsolaritza, ezagunak maitatzeko astirik eman ez eta ezezagunak maitarazten dizkiguna. Nire bizitzari oraindik falta zaion une hunkigarrietako bat, Tolosako kaleren batean, auskalo zer burutapenetan noala, emakume batek alto eman eta “neu naiz Maria Dolores” esango didana da.

MATALAS

1)

Mila seirehun hirutan hogei
eta batgarren urtea
udatik urrun, negutik hurbil
larrazkeneko partea.
Azaroaren zortzia eta
zenbatgarren zigortea?
Hilketa batek nigartu zuen
Xiberotarren zortea.

2)

Gizon apez bat, apez gizon bat
bi aldetarik gudari
Matalas armaz jarki zitzaion
Luis Hamalau garrenari.
Euskal Herriko piztaile eta
Xiberoko buruzagi
hilik erori hintzen lurraren
esperantzan bizi hadi.

Bertso hauek enkarguz eginak izango ziren, ez daukat gogoan norentzat eta zertarako, baina segurrenik antzerki talderen batentzat, “Matalas” obraren sarreratzat, beharbada iragarkitzat, ez dakit. Emandako gai eta datuen gainean moldatuak izango ziren eta bazi-renik ere ahaztua nintzen bi bertsook, hainbeste urteren buruan, zirraratu egin naute, non pertsonaiaren indarraren eta Xiberoaren zangartasunaren gainean, edertasun epiko bat aurkitu dudan. Pena daukat bi ahapaldi bakarrik direla, baina segurrenik enkargua hala-xe mugaturik etorriko zen.

MERTXE ETA ANDONI

1)

Mezu urdin bat goizean goizik
hegan abiatu dena
leiho ilun bat hegada hura
hartzeko zain zegoena.
Askatasuna baldin forma bat
bada maitasunarena
hura katean dagoenean
berau da lehen almena
indarra eta kemena.

2)

Eguzki Jauna egunez eta
gauez Andere Ilargi
horizontean Mertxe ta Andoni
elkartu dira izar bi.
Egun argi hau izan dadila
argiagoen deigarri
adur berria dakarkiona
bikote sor berriari
eta Euskal Herriari.

3)

Gaur bereziki nabarmendu da
egunsentiko freskura
Sinaduratik harago doan
elkartze bat promestu da.
Iragarpen bat argiztatu da
oinaztutik oinaztura
maitasunaren garaipenetik
etorkizun askatura
Euskal Herri amestura.

1998-7-17an Mertxe Aipurua, GARAKo zuzendaria eta Andoni Murga presoa epaile aurrean ezkontzekoak ziren. Zeremonia hartan bertso batzuk kantatzeko gonbita pozik eta harro hartu nuen. Bezperan edo bezpera-bezperan, ordea, Euskal Herriaren inkisitore nagusi Garzonen aginduz, atxiloketa erreskada bat izan zen, Andoni Murgaren osaba bat ere tartean zela. Pentsatutako ezkontza burutu zen, baina konpainia minimoan, bidezko zenez. Okasio hartarako, hiru bertso hauexek neuzkan pentsatuak, azkenaren

puntu bat oraindik airean zegoela. Madrilera bidean amaitzeko asmoa neukanak uste izango zuen halaxe egon beharko zuela betiko, mutilazio alperrekoan, baina iritsi zaio ososatunaren ordua, oraintxe gertatu dena. Urte batzuen atzerapenez bada ere, “maitasunaren garaipenetik etorkizun askatura” saltatzeko oraindik ez da berandu. “Euskal Herri amestua” gaur gauzez egin dezakegu. Edo oraintxe bertan. Zergatik ez?

MIKEL IDIRIN

Eskutitz polit bat etorri jat
tximeleten hegoekin
zer poza zelan bila joan barik
lagun on bat dodan egin.
Bertsolaritzak emon izan daust
hainbat ezuste atsegin
euretako bat zu izan zara
milesker, Mikel Idirin.

Zeberioko Zubialde eskolatik Mikel Idirin izeneko ikasle arrankudiatarrak eskutitz bat idatzi zidan eta bertso honexekin erantzun nion. Beharbada irakasleren batek bultzaturik egingo zuen, beharbada Zeberiotik pasatzen diren haize indigena horietako batek emango zion. Dagoeneko mutil handi eginda egon behar du. Baten batek “neu naz Mikel Idirin” esan diezadan eguna gerta baledi, lerro hauek freskatu egingo dira. Presa barik, eh? Horrelaxe, bide batez, edozein unetan, edozein kale ertzetan, ezer gogoratzen ez duen ezuste totalaren forman, xehetasun ezkutatuak astiro-astiro ateratzen joatearen atseginak inbaditzeko moduan.

MONZONEN HILONDOA

1)

Monzon hil dela adituz gero
haizea ero dabila
ez da, ez, hila, baizik joana
betiko hegada bila.
Testamentutzat hor utzi digu
bere gudari makila
loratuko da eta adarrak
sortuko mila ta mila
haren hilkutxa profanatuan
bizia piztu dadila.

2)

Non da ikusi genuen hura
sinesteko beste fede?
Nola litezke hain etsai izan
edo jaitsi hain abere?
Armen indarrak hilotza ostu
eta egin zuen bere
piztuko ote zen bildur al ziren
bonbaren bat zela lege?
Zaudete lasai, ez da piztuko
hura ez baita hil ere.

3)

Nola liteke azken laido beltz
horren hainbeste pisu ken?
Zure makila banintz ez dakit
zer hitz egingo nizuken.
Zure arima ere tanketen
barruan ito nahi zuten
hil ohetikan hilobiraino
eskolta jarri zizuten
gure aldetik ea lurpera
ere jarraitzen dizuten.

Telesforo Monzon. Deitura ozen, irudi garden baten izen. Ideal baten sinbolo, gailentasun baten ikur, elegantziaren inkarnazio. Bertso hauetan, hala ere, Monzonen nortasuna zeharki kantatzen da, bere hileta inguruan izan ziren doilorkeriei kontrajarria. Izan ere, Monzonen hilotzaren kondukzioa eta hiletak eskandaluzkoak izan ziren. Herritarren omen sutsu eta masiboa ezin jasanik, hil-

kutxa esperpentikoki bahitu zuten, polizia eta tanketa artean. Sines-
tea ere zail egiten da estatu bat nola hel daitekeen halako depra-
baziora. Monzonek gerra bat galdu zuen, baina beste bat irabaz-
teko buruzagi bilakatu zen eta hori Espainiako estatu mendeka-
tiak ezin zuen irentsi. Bertso hauetan hilkutzaren inguruko zir-
kuntantzia izugarriak azaltzen dira, gertatu bezala adierazten saia-
tu arren, errealitatea intsinuatu besterik egiten ez dutenak.

NAHI DUT XOSE ESTEVEZ

1)

Nahi dut Xose Estevez
bertsotan goratu
eta gure xerarik
onena opatu.
Galego jator honek
erakusten baitu
nola leizken bi herri
batera maitatu.

2)

Galitzian sustraiak
adarrak Euskadin
zuhaitz bikainagorik
ez ziteken egin.
Desiatzen dizugu
indar guztiekin
zuhaitz hori bietan
handituz joan dedin.

Xose Estevez historilariak EGINen maiz idazten zuen. Ez dakit nondik etorri zitzaidan bertso bion eskea, baina idazleari eskaintzaren bat edo omenen bat nonbait egiteko izango zen, neuk ez baitut bera pertsonalki ezagutzen. Hori bai, haren sinadura ikusten nion artikulurik ez nuen irakurtzeke utziko.

NI NAIZ BETIKO PERIKO

1)

Zuen herria, gure herria
zuen-gure Barakaldo
udaletxea herriratzeko
noiz aukera ederrago?
Ni naiz betiko Periko eta
betiko lekuan nago
betiko txapel lantsuaz eta
beti baino tenteago.

2)

Badakizue nor naizen eta
nongo langilea naizen
ez dut osperik, dirurik edo
negoziorik bilatzen.
Esaiozue Barakaldori:
"Herritarrok bil gaitezen!
Perikok ez du goitarrik maite
ez behekorik engainatzen".

Behin Periko Solabarriak pare bat bertso egingo nizkion eskatu zidan, berak Barakaldoko mitinean kantatzeko, udal hauteskunde batzuetan. Zamorako espetxean, euskal gramatika eskuan zuela, patioan gora eta behera ikusten genuen, breviariora erreztatzen ari bailitzan. Bozgoran irakurriko zuen, begi hutsetik sartzen ez zena belarrietatik sar zekion edo. Gogor saiatuko zen, baina kanpoko bizimodura itzulita, hark ez zeukan astirik, hizkuntzei ekiteko. Adinean aurreratzeak ikasmena bestela ere zaildu egiten duela gaineratuz gero, ez da harritzekoa Perikok inoiz esatea: "Hau latina baino zailagoa da!". Bertso hauek auskalo zenbat aldiz entseiatuko zituen, ilusio nerabez oraindik. Gero nola kantatu zituen ez dakit, baina ziur ikusgarria izan zela. Periko Solabarriak ez zuen aukerarik galduko, bere burua euskalduntzat edo euskaldungaitzat aurkezteko. Ale hauek bertso gisan ez daukaten balioa irabazten dute ahalegin zintzo eta publiko baten lekukotzan, Periko Solabarria bezalako burrukalari bakan eta karismatiko baten soinean.

OIHANA ETA JABI

1)	2)
Soraluze-Elgoibar	Betor zuen bidera
biak bat eta bi	leiken zorte dana
gaur Esozi bihurtu	bihurgune bakoitza
zaigu lorategi.	kemen berri bana.
Elorriak esaten	Hau da bidai zabal bat
dio larrosari:	bizitzak emana
"Bizitza izan arren	maitasunak sortu ta
inoiz arantzadi	berak daramana:
gure loreak dira	Ondo ta luze joan
OIHANA ta JABI".	JABI ta OIHANA!

Soraluzetar neska batek bere lagun Oihana izenekoaren ezkontza egunean kantatzeko bizpairu bertso eskatu zizkidan eta hauexek egin nizkion. Soraluzeko Esozi auzoan ezkondu ziren. Auzo horretan banuen aspalditik gomuta pozgarri bat, musikari batzuen laguntzaz bertsoak eta koplak kantatzen ibili nintzenekoa. Esozikoa, 1981eko abuztuaren 23an, intentsoa eta gogoangarria izan zen niretzat. Solairutzat kamioitxo bat ipini ziguten, toldo eta guzti. Hargatik zioen koplak batek: "Kamioitxo bat hemen / gure mende da // ea martxan hasten den / Esozin bera // mende da / Esozin bera / atajutik etxera / joango gera". Soraluzeko auzorik gehienak bezala, Esozi oso maldan dago. Handik behera amiltzen den autoak hiru kilometroko bihurguneak hirurehun metrora laburtuko ditu. Bigarren bertso honetako "bihurgune" irudia, beraz, Esozin ez da zaila, "bidai zabal bat" han imajinatzea gehiago kosta liteke baina. Lehen bertsoko elorri-larrosak biak dira arantzetsuak, baina baita loretsuak ere sasoian. Sasoian zein ez da, ba, lore? "Arantzak dira nahigabeak / loreak amodioa", Xalbadorrek kantatu zuenez. Lorea iheskorra da, oster, eta arantzea iraunkorra, landareetan behintzat. "Behin-

tzat” honek gizakiengan alderantzirako ahalbidea zabaltzen du, baina poesiak beti salbuespenari begiratzen dio. Neure aldikada arminetan behin baino gehiagotan mehatxatu dut lore inkontzientea, arantzearen zistada maltzurra ezkutatzegatik. Badakit arantzeak lorea defendatu behar duela eta ez ni, baina gozoa izaten da, ba!

ONDARROAKO KRESALAK

1)

Ondarroako kresalak zaildu
zuen Muruetagoiena
torturapetik heriotzara
kalean jaurti zutena.
Sendagilea izanik bera
horra nolako azkena
kontzientzia anemikoak
zuzperraraz lezazkena.

2)

Gure Joseba Asensio edo
Kiruli "Olinpikoa"
Indautxun sortu eta espetxe
gizagaitzak hildakoa.
Haren irudi elurrezkoa
oraindik lasterka doa
geldiezina baita iraultzan
abiatzen den gogo.

3)

Harrigarria Juan Jose Crespo
zure harrizko bihotza
gose grebaren azken luzean
jo zenuen heriotza.
Eta han ere zure hezurak
ez-etsipenean dautza
jakin dezaten itzulezina
dela halaber iraultza.

4)

Loiutar mutil leiala eta
Euskadiren bihotz sakon
presondegiko itomen latzak
hil zintuen, Jose Ramon.
Ez zinen jausi zulora baizik
haizeen gainera igon
gure demari zio haundi bat
gehiago eman zenion.

5)

Desagertuen sailkapenean
hi haiz, Naparra, lehenengo
hatzan tokian lorerik bada
erlea gainean bego.
Ez haute eraman nahi bezain urrun
gure gogoan baitago
hortik ez ziguk inork sekula
desagertuko gehiago.

Bertso boskote hau ez dut uste inon kantatu nuenik, norabait idatzita bidali baizik, beharbada “Semaforo gorria” zutabera. Aipatzen diren bost izenak torturak, espetxe hilgarriak eta desagerpenak batzen ditu. Hauen artean Juan Jose Cresporen heriotzarainoko gose greba harrigarria izan zen. GRAPOkoa zela uste dudan militante honen kasua Euskal Herrian aditzea dudan kasu bakarra izan da. Beste laterri batzuetan, Ipar Irlandako IRAkoak, esaterako, izan dira kasu ospetsuak, baina hemen, geure ondoan, Juan Jose Cresporena daukat bakarra gogoan. Euskarri sozial handirik gabeko erakundeko militantea izanik, harritzen gintuen nola hain bakar oldar zitekeen heriotzara. Eta ez zen bide motza izan, ehun bat eguneko joana, egunean baino egunean hondorago, hutserago, itzulgaitzago. Beharbada honelako erabaki batean euskarri sozial handiagoa ala txikiagoa gutxiena izango da. Heriotzaren ahora jakinki doanari ingurua, unibertsoa barru, zirkunstantzia ezteusa iruditu behar zaio. Motibazioan eragina edukiko zuen, noski, are gehiago gogo iraultzaile baten baitan, baina gero, erabakia aurreratu ahala, hor hirurogei bat egunetik harantz, bere hezur-azalen arteko bakartasun bueltagabea gelditu da eta oraindik bide luzea falta. Ez dut uste heriotza ekintzarik bakartiena izatetik libra gaitzkeenik, oharkabea atzeman gaitzan zortez ez bada, hau ere tamalgarri bestetik, zenbat min eta zoritxarretik betiko askatzera goazen segurtasunak merezi bailuke argiune dohatsu bat. Ehun egun heriotzara hurbilduz, hots, norbere burua ezereztan ikusiz, azkenean ezereza, norbere narruan, heriotzarekin akoplatu arte. Heriotza ezereza bada, harantz jakinki doanarekin batera, unibertsoak ere, biziengan irautea barru, hutserantz joan behar du. Sekula ez da jakingo zein amaitu zen lehenago, unibertsoa ala bera.

ORTUNTXOK EGUNSENTIRA

- | | |
|------------------------------------|------------------------------|
| 1) | 2) |
| Leiho eder bi zabaldu ditu | Ortuntxok diño: "Agur etxeke |
| Ortuntxok egunsentira | Miren Amaia ta Pablo! |
| leiho banatan ezkongai biak | Nebarreba lez hazita gero |
| eguzkirantza begira. | mamina eginda dago. |
| Maitasunaren eskilaratik | Dana etxetik daroazue |
| balkoian laztandu dira | dana doa etxerako |
| gailurrak goitik: "Segi! -dinotse- | ume-negar bat entzun orduan |
| Urten bizitza barrira!". | han ez da ezer faltako". |

Bertso hauek azalpen txiki bat merezi dute, kantatzen den kasua bakana baita, bakarra ez bada. Ortuntxo neu bizi naizen Andikoa-ko Goiherri auzuneko baserri bat da, Berrizko herrian. Etxeko alaba Miren Amaia "etxeke" batekin ezkontzera zihoan, kasu honetan egi-egia. Hemen kontatzen hasteko baino historia luzeago baten ondorioz, (baita tristea ere hasieran, ume biren ama gaztea hiltzetik hasi baitzen dena), Pablo umea Ortuntxon hartu zuten eta bertako seme lez hazi zen. Urteen buruan, familia berean elkar nebarrebatzat tratatu zuten Miren Amaia eta Pabloren beste sentimendu batzuk sortu ziren eta luzaroan neska-mutil-lagun ibili ondoren, ezkondu egin ziren, gelatik gelara, esate baterako. Horrelaxe esplikatzan da bertsoen hasierako "leiho eder bi zabaldu ditu / Ortuntxok egunsentira" eta segida guztia.

OURENSEKO BERGANTESEN

1)
Ourenseko Bergantesen
ibai bat bitan eten zen
Euskadi ta Galizia
Kantaurin elkar gintezen.

2)
Pepe Reiren luma fina
murgilerako egin
apar harroen azpian
atzeman du ur zikina.

3)
Ur zikina gora gora
ustelkeria kanpora
garbitu beharrik bera
bidali dute zulora.

4)
Oker haiz, Mendeku Jauna
bahituz gure laguna.
Nabarmetzen duk zikina
eta sutzen haren luma.

EGINen iker kazetaritza hain sakon eta zorrotz zeraman Pepe Rei atxilo eramán zuteneko koplak dira hauek. Azpibide zikinen esploratzaile eta ustelkeriaren zartailu nekagaitz honi ezin zioten bar-katu bere jatorri galegotik Euskal Herriko askapenera hainbeste-an entrega zedin. Ezin zuten jasan Pepe Reiren langintza salatzaile eta batez ere hain ondo oinarritua. Zorionez, Mendeku Jaunak ez zuen bere helburu izutzailea lortu, zikina nabarmenduz gainera, Pepe Reiren luma sutu besterik ez baitzuen egin.

PABLO URIGOITIA

Pablo Urigoitia
gure lagun handi
hainbeste batzen gaitun
“Lanbru”ko zaindari.
Heldu esku biekin
erretiroari
orain eukiko dozu
astia ugari
ganoraz izateko
gure lehendakari.

Bertso ximple honek berriztar baten eskaria bete zuen. Laguntalde batek Otxandioko Olaetan “Lanbru” izeneko soziedade bat zeukan, non Pablok hainbeste lan egiten zuen zaintzaile eta lehendakari lanetan. Hau lanetik erretiratu zenean, lagunek omen egin nahi izan zioten, beharbada haren onagatik baino ez poz gutxiagoz aurrerantzean euren “Lanbru”rako ia langile finko bat jaritxi zutelako.

PAKITO ARRIARAN

Euskaditik mundura
mundutik Euskadi
Pakito Arriaran
gure aintzindari.
Hango eta hemengo
itzaultzaile handi
oroituko duguna
itsasoaz gaindi.

Pakito Arriaran “itsasoaz gaindi” hil zen, internazionalismo iraultzailearen aintzindari. Non eta nola erori zen ezkutupe zainduan gorde zuten. Ertamerika edo Hegoamerikako gerrilaren batean izan zela pentsatzekoa da. Arrasateko hiletak oso gogoan dauzkat. Ohiko omenaldiez beste usain bat zebilen han, “gudari” baino areago “gerrilari” bat agurtzen baikenuen. Eguncan bertan kantatu nituen bertsoak ez nituen gorde. Ez nago segur kantatu nuen ere. Egon nintzela bai, bere etxeckoekin hitz batzuk egin nituela (gutun asko eta oso baikorrak eta alaiak idazten omen zituen, beti ere “non-baitetik”), eta jendetza handia. Gero Pakitoren oroigarriko bertso bat eskatu zidaten eta hau bai gorde nuen. “Euskaditik mundura”. Haren gudu-zelaia horrela oso ezabaturik geratzen dela dirudi, baina ez zegoen zehaztasun handiagorik ematerik, jakin ere ez bainenkien. Zena zelako laterrian hil zela, Euskal Herriaren burrukarekiko konexioak susmatzeko bideak ezkutatzea komeniko zen. Misterio horretan joana, bera izan zen Che de Guevararen irudira gehien hurbilarazi gintuena.

SANTI ETA MUGURUZA

1)
Urteurrena hil zintuztena
Santi eta Muguruza
zuen itzala denborarekin
ari da luza ta luza.
Egunen batez zutituko da
ez da izango itzal hutsa
baizik inongo haizek botako
ez duen zuhaitz-gorputza
itxaropenak zuhaitz hartatik
oihan piztua dakusa.

2)
Demokrazia zuen hilotzen
gainetik lasai pasa da
Herriak zuen gomuta beti
aterako du plazara.
Oi, gure Santi! Josurena ta
beste zenbat besarkada
harturik berriz hor ere sendi
haundi baten aita zara
gure bidea zuen izarrak
daramake helmugara.

3)
Zenbat hilobi bete diguten
joan deneko aspaldian
eskerrak zuen oroitzapenez
herri bat doan abian.
Ez zaituztegu ahaztuko baina
bai mina leundu agian
iraganaren egunsentian
geroaren atarian
zuen odola loratu dela
ikustean oskarbian.

Beharbada bertso hauexek izango dira, euron antzekoen artean, poesiak eskaintzen dituen zehar-baliabideak gehien ustiatzen aha-
legindu nintzena. Alde batetik, Santiri lehen ere bertsoak jarria nin-
tzen. Haren irudiak niregan eta milaka euskaldunengan, baita pen-
tsakeraz arerio zituenengan ere, nolako sentiera eragiten zuen esan
beharrik ez dago. Gero Josu Muguruzaren hilketa etorri zen Madri-

len, Herri Batasunako goren hautetsien aurkako atentatuan. Josu Muguruzaren irudiak ere bazuen Santirenaren aire bat, pertsonalki ezagutu ez genuenon gogoan. Edo nire gogoan halaxe asoziatu ziren behintzat. 1990eko Azaroan, biak batera omentzeko elitaldi baterako bertsoak eskatu zizkidatenean, banenkien erronka zaillean sartzera nindoala. Baita banenkien hiru bertso simple eta erdi topikoz eskaria ondo bete nezakeena eta, hala egitera, ez nintzela lotsatuko, bertsoaren bizia horixe baita, transzendentzia handiegi gabeko erantzun bat okasio baten aurrean. Santi eta Muguruzaren aurrean, ostera, barruak agintzen zidan zerbait baino gehiagorako okasioa zela. Eta halaxe abiatu nintzen, hasiera-hasieratik erronka bat planteatuz. “Urteurrena hil zintuztena / Santi eta Muguruza”. Abiakera argia eta indartsua. Errima honi zorrotz samar eustekotan, ostera, banenkien bide zaila zetorrela. Itzalaren sinbolismoak bigarren puntua laster ekarri zuen, beste bide batzuk zabalitzen saiatu ondoren, hortik oso aurrerapide estua aurrikusten bainuen. Beste biderik ez zen zabaldu eta itzalari jarraitu beharrean aurkitu nintzen eta uste dut funtsean horixe nahi nuelako ez zela beste biderik zabaldu. Pentsatu nuen, edo setatu nintzen: “Itzalak hain ateka estuan jarri banau, garapen itxurazko bat lortzen badut, edertasun handia ekar dezake”. Kostatu zitzaidan aurrera egitea. Noizbait, hirugarren puntuan itzala zutik ipini nuen, baina ez itzal hutsa izateko, baizik zuhaitz baten gorputza. Transformazio miragarri horren gainera igonik, itxaropenak “oihan piztua dakusa”, umetan zuhaitz baten puntatik sarritan sentitu nuen zirrara aluzinanteari pizkundea gehiturik. “Dakusa” formak, batez ere azken puntuan, bertsolaritzaren ohituretan pedanteegia eman badezake ere, ez nuen duda izpirik izan, nik bertsotan inoiz sortu dudana bisorik handiosenetakoa errematzen baitzuen. Baikorregia beharbada, zuhaitz bihurtutako itzalaren erpinetik begiratzen duena itxaropena ez balitz. Honek eternalki iraun dezake, bere objektuaz jabetu gabe. Itzalaren mirari hau Txomin Iturberen bertsoetan ere erabili nuen, ez nago ziur zeinetan lehenago, baina ez batean ez bes-

tean ez nuen kointzidentziaren oharrenik izan, orduan segurrenik ez errepikatzea erabakiko bainuen. Santi eta Muguruzaren kasuan Txominenean baino askoz urrunago doa itzalaren transformazioa. Eta hau guztiau lehen puntuaren ildo estu eta kontzientki eutsiak ekarri zuen. Honelako erronketan inoiz gertatu izan zait biderdian atzera egin beharra, aurrerapide egokirik ezin aurkituz. Santi eta Muguruzaren kasuan, beharbada eurek lagunduta, seta garaile atera zen. Bigarren ahapaldia ere puntu kontundente batekin hasten da. “Demokrazia zuen hilotzen / gainetik lasai pasa da”. Ez neukan beste ezer, hariari tiraka zerbait egokia ateratzeko gogoia eta segurantza besterik. Ahapaldia puntuz puntu aurreratuz joango zen, bakoitzean maila bat igonez, iragarpen bare batean pausatu arte. Hirugarren ahapaldia ere era berberean egin da dago, hasiera indartsu batetik abiatuz. Hirugarren puntuaren ondoren (“ez zaituztegu ahaztuko baina / bai mina leundu agian”) luzaro egon nintzen jarraipen egokirik ezin aurkituz. Zein izan liteke hain min handia leuntzeko ordain aiutua? Azken puntuko “odola loratu” metaforan zalantza batzuk edukita, azkenean halaxe uztea erabaki nuen. Odola loratzeak, ohiko asoziazioa ez izanaz gainera, terminoak bortxatu egiten zituela ematen zidan, baina bestetik egunsentiari, jaiotza orori bezala, beti hartu izan diot odol zantzua. Baita ilunabarrari ere, baina hau gauera erortzean da, odol baltzitia presagiatzen duen heriotzara. Egunsentia berriz oskarbira altxatzen da, bizi-berrikuntzara, eta hau zergatik ez kanpai-lore urdin inmentso bat bezala hartu? Edo oskarbiak gauzez ateratzen duen izar-loradia, “sortuko dira berriak”-en aurrekari? Oraintxe ere zalantzan nago metafora honi buruz. Pentsakizun hauek eta hamaika gehiago pasatu zen nire burutik, Santi eta Muguruzaren bertsoon osakuntzan.

TASIO ERKIZIA

Lanean tinko
tinkoan zintzo
zintzoan argi
argian zorrotz
zorrotzean samur
samurrean gogor
haizena izan hadi
gure buruzagi
nekagaitz hori.

Poematxo hau honela gordea daukat: “Tasio Erkiziari dedikatua. 1992-4-30”. Ez daukat gogoan zer motiboz, nork eskaturik edo norako izan zen, baina Tasiari buruz nik bezala beste askok eta askok sentitzen duena zuzen laburtzen duela uste dut poematxo honek.

TORTURAZ HILAK

Torturaz hilak, gartzelak hilak
amai gabeko lerroan
deportatuak, extradituak
bat bestearen ondoan.
Zenbatek uzten duen bizia
zapalkuntzaren ildoan!
Denak gogoan ditugularik
biltzartu gara Leioan
Amnistiaren oihua zabal
dadin Euskadi osoan.

Agur lagun, agur anai
atzerri eta gartzela
eutsi tinko burrukari
zin egin dugun bezela.
Hilak pizterik ez dago, baina
haiek gogoan direla
boga dezagun garaipenera
amnistiaren batela.

1988ko ekainean Amnistiaren Urte Biltzarra Leioan burutu zen eta bi bertso hauexek kantatu nituen bertan. Biak neurri ezberdinekoak direlarik, bata hasiera agurtzat eta bestea azken agurtzat joan zirela pentsatu behar da. Okasiorako bertso tipikoak dira, ondo eginak, baina aparteko pretentsiorik gabeak, behar den mezua eta adorea argi emateaz besterik. “Tipikoak” esatean, neure estiloaren barruan esan nahi dut, noski. Beste batek beste era bateko tipikotasuna erakutsiko luke, entzuleengan ere eragin ezberdina eta

beharbada sarkorragoa eraginez, baliabide poetiko, metaforiko, hitz joko eta gisakoen bidez. Nik gehienez okasioari dagozkion mezuak ahalik zehatzen eta kemengarrien kantatzera jotzen dut. Baliabide literario eder bat bururatzen bazait, ez diot, noski, muzin egingo, baina ez naiz hainbeste saiatzen bila, errepikaren nekeak, hainbeste bider gauza beratsua egin beharrak, horretara bultzatzen ez banau. Beste kontu bat da honelako motiboren batekin kanta baten hitzak-edo eskatzen dituztenean. Orduan bertsolaritzaren ezaugarriak zabaldu egin behar dira.

SIGFRIDOREN BEGIA

1)

Sigfridoren begia
argikari haundia
urrutietara jalgia
lurrera itzulia
lurra zulatu eta
bere sorteria!

2)

Sigfridoren begia
argisare haundia
eguzkiarekin jalgia
tristerik itzulia
laino baitago bere
aitonaren baseria.

3)

Sigfridoren begia
argizagi haundia
bizi bila jalgia
pizkundera itzulia
biziko al da hiltzear
aurkitu duen herria?

4)

Sigfridoren begi haundia
jalgia eta itzulia
sorteria eta baseria
tristerik aurkitu duen herria
askaturik ikusi nahi lukeen
Euskal Herria.

Sigfrido Koch Gipuzkoako Zubietako herri afari batean ezagutu nuen. Euskal guneak izugarri maite zituen, baina haren artea eta kontzientzia folkloretik askoz harago eta sakonago luzatzen zen. Haren sentierarekin berchalaxe bat egin nuen, laster igarri bainion Euskal Herriaren bilakaeraz eta etorkizunaz asko sufritzen zuela. Egia esan, ez zegoen igarri beharrik, berak azaltzen baitzituen zehatz bere kezkek. Elkar maizegi ikusi ez arren, gertatzen zen bakantetan gure solasa Euskal Herria zen, beti ere hura nola artean adieraz zitekeen, Sigfridoren kasuan argazkian. Adiskide egin ginen eta, plan batzuen ilusioa ere mamitzen hasi gineneko, hil egin zen gaizoa, artista handia. Nik harentzat egindako lan bakarra bertso hauexek dira, erakusketa baterako eskatu zizkidanak. Lan bakarra, baina atsegingarria, ohiko bertsokeratik ezberdina. Ideiak edo zer adieraztea gustatuko litzaiokeen, hots, bere arteak zer islatu

nahi zuen, berari eskatu nion eta poematxo honetan zehatz izendatzen direnak aipatu zizkidan: soterrria, herria, baserria, kanpoaldi luzeetatik itzuleran aurkitu zuena, bizi zuen tristura, hitz batez, Euskal Herria bere zaurietan. Bertso hauek ez daukate neurri zehatzik. “Sigfridoren begia” ahapaldi guztien abiaburu harturik, zalan-tzan egon nintzen dena errail berean entseiatu ala ez. Gehiegi luzatu ezik, efektu baikorra aurrikusi nuen. Probatu nuen eta gustatu egin zitzaidan. Amaierak (“sorterrria, baserria, herria, Euskal Herria”) bigarren erraila osatzen dute eta bitartean ere badira trebes errepikariak. Gustatu ez balitzait, egindako ahalegin guztia alperrik galdu behar al nuen? Lan bat aurrera daroazula, motibagarriena bada ere, hots, ondo egiteagatik edozein neketarako gertu zagozena bada ere, atzera egitea zaila da. Azkenean ez da jakiten benetan lan baliosa den ala ahalegin lantsu bat baztertzeko erresistentziak balietsi duen. Ahalegin intentsoak nekez izaten du bueltarik, artista izateko, gutxienez temosoa izan behar baita. Horrek oker hartutako bidea bururaino eramana azaldu du, baina, artista baldin bada, hasieratik zuzen hartuak ere etorriko dira.

OROIMEN ETA MILESKER

1)

Sigfrido Kochen begi xumea
kameran barneratzean
izakiaren sentimenari
tiratzen dio flashean.
Zeru trinkoa gainean eta
txalapartaren hotsean
edertasuna gazte da zure
artearen gorputzean.

2)

Zuk utzitako ikusmen eta
ikusietan halaber
euskal gogo argi-itzaletz
bistaratzen zaigu laster.
Euskal kulturaren itsatsi duzun
hainbat begirada eder!
Astigarkide denon aldetik
oroimen eta milesker.

Bertso hauek argi dago Sigfrido zenduari eskainiak direla, “Astigarkideek” eskaturik. Urteak joanak dira eta ez daukat gogoan “astigarkideok” zein eta nongo taldea ziren. Astigarraga izan daiteke? “Astigar” edo “Astigarra” izeneko talderen bat? Behintzat Sigfrido Kochen maitaleak ziren eta, neuk ere oso maitea nuen, askorik ez zitzaidan kostatuko haren begiari, kamerari, “oroimen eta milesker” kantatzea.

T X O

Joan den astezakeneko EGINen Txoren emazte Anak eta anai Pakok "Aupa Txo" izenez idatzitako poema hunkigarriak harritu gaitu eta eskertu dugu, ez gutxi. Haren etxekorik hurrenek euren minari nolako irauli baikorra eta kementsua eman dioten ikusteak bestean adore zauritua sendatu ez ezik indartu egin digu. Edo egingo digu, oraindik zauskada berriegia baita. Idazki hartako pasarte batek dio: "Egun hauetako saminaren erdian, Mallabiako omenaldian, bertsolarien esanetan bilatu diagu aurkitzerik ez zegoen zentzua". Aitormen eta ohore handiegia iruditu zaidan arren, egun hartako bertsolari bietako bat neu izan nintzenez gero, orduan kantatutako bi bertsoak bergogoratzen animatu naiz, hirukotea osatzeko beste bat jarritz.

1)

Soka batetik dilindan hantxe
 zuten gizona ediren
 arnas apur bat utzita haren
 begiak joanak ziren.
 Harrizko etxeko zuren artean
 karraska min bat zebilen
 zergatik eta nola galdetzen
 alperrik saiatu ginen
 erantzunaren jabe bakarrak
 ez baitu hitzik egingen.

2)

Gure bideak une larri ta
minberak asko baditu
euren artean gaurkoak gaitu
hezurreraino hunkitu.
Gure begia ez bedi gorpu
soil batera errenditu
behar duguna samin hontatik
egunsentirantz begitu
Txoren gogoa lepoan hartu
eta aurrera segitu.

3)

Agur, Txo maite, gure lagun ta
eragilerik finena
agur, zure lan eskerga eta
burrukaren sentimena.
Saiako gara loratzen zure
idealen oroimena
nahiz oparitzat utzi diguzun
heriotzarik minena
guretzat beti izango zara
bizirik izan zinena.

Bertso hauek eta euren sarrerak EGINeko “Semaforo Gorria” bat bete zuten. Bertan esaten denez, HBko mahaikide zen Eugenio Aranburu “Txo”-ren ehorzte egunean Mallabian kantatu nituen bertso biei beste bat gehitu nien. Berez hiru bertsoak ehorzketa-ko omenaldian kantatzekoak ziren, neu bakarrik izango nintzela-koan, baina gero bertsolari bi izan ginen eta, larregi ez luzatzearren, eguraldia ere oso zakarra gertatu baitzen, bina kantatzea pentsatu genuen. Mahai Nazionaleko kide guztiak sei urtetik gorako kon-

dena jaso zuten. Egin beharreko errekurtsio eta tramite guztiak agorturik, egun batzuen barruan denek preso egon behar zuten. Txo maletak egiten ari zen, liburu, arropa eta abar. Goizean Ermuara jaitsi zen azken erosketak burutzera, gero lagunena batzuekin azken bazkaria egiteko plana eginda. Bueltan bere jaiotetxetik pasatu zen eta arratsaldeko lehen orduan, baserriko ganbaran, “soka batetik dilindan hantxe / zuten gizona ediren”. Ez zegoen guztiz hila, baina “haren begiak joanak ziren / arnas apur bat utzita”. Azkenean arnas apur hura ere begien atzetik joan zen. Harriturik, durditurik, “alperrik saiatu ginen”, “Txo” zen ekintzaile asperkaltz, alai eta kementsua zergatik eta nola eskegi zen hala “bere aitaren etxetik”, eta ezin izan genuen besterik suposatu kemenak ere badauzkala arrakalak baino. Hauetako bat soka bihurtu zen, beste bat leize, eta bitartean gorpu bat, erloju denboraz gabetuaren penduluarena egiten. Iraultz poliedroaren aurpegietako bat hau ere. Dagoeneko, sentsazio pentsakor guztiok alperrekoak dira. Aska dezagun soka eta gorde dezagun beste batentzat. “Guretzat beti izango zara / bizirik izan zinena”. Heriotzari mendeku bakarra bizitzara itzultzea da, bertatik izan ezik.

TXIPLAS

Kontraste eder handiagorik
nork, Txiplas, pentsa zezaken
nola barrutik hi ari haizen
gu kanpoan animatzen.
Indar bat eta sinbolo bat haiz
burdinek ikus dezaten
eusten ez ezik badakigula
baita jotzaile izaten
biloi bat esker gure B-ez eta
bakartxo bat ere ez ken.

Errigoitiako txokoan Xabier Arriaga “Txiplas” presoaren omenezko afari-jaialdi bat egin zen. Inguruko bertsolari mordoa izan ginen bertan. Afari alaia baina sentibera izan zen. Hantxe sortu zela uste dut bertso hau, “Txiplas”i espetxera zeozer bidaltzeko proposamenetik, berak handik bidalitako bertso animosoen ordainez. Baina ez. Errigoitiatik izatera, bizkaieraz egingo nukeen. Honek beste leku batekoa izan behar du, beharbada afari hura gogoratuz idatziko nuen “Semaforo Gorria”ren batekoa.

XABIER ARENAZA

Xabier Arenaza
zer egin diate?
Gudari hintzelako
etsaiek hil haute.
Hire helburu bera
duelako maite
bizirik eta zutik
zagok Arrasate
hik utzitako dema
irabazi arte.

Bertso hau oroigarri baterako eskatuko zidaten. Esan beharrekoak ohiko eran eta garbi ulertzeko moduan jarri izan ditudan hainbat bertso tipikoetariko bat. Bertsoak tankera berdintsukoak izan arren, beti fidatu naiz heriotzak denak bakar egiten dituela, bera ez baita inoiz errepikatzen. Bat ala milioika izan, heriotza kasu absolutuki bakarra da beti.

XABIER GALPARSORO

1)

Hire bizia azkenerarte
iraultzaren gorputz bazan
hire errautsa orain airetik
sartuko zaiguk arnasan.
Hortik berriro gorputzuko duk
Zumaiko gazteen plazan
hire gogoak hilezinaren
oihartzuna goza dezan.

2)

Hor gelditzen haiz noranahi zabal
errautsaren arinean
gazteriaren miresmen eta
etxekoen saminean.
Inoiz aurkitzen bagaituk dudan
makal edo ezinean
hi izango haiz gure altxagarri
egunsentiko bidean.

3)

Ia gehienak alperrik hiltzen
diren mundu gordin hontan
hire errautsak badik zentzua
zentzurik izatekotan.
Habil, Xabier, dena husturik
itsasoaren hegotan
biziko haugu jaiean eta
maiteko haugu borrokan.

Gurutze Ingantzirenetik berehala, Zumaiar Xabier Galparsoro “Anuk”-ena izango zen. Astebeteren barruan bi hiletatan izan ginen, Urnietan eta Zumaian. Gero, “Anuk”-en errautsak Zumaiko labar gain batetik itsasorantz haizeari zabalduko zizkioten ekitaldirako, bertso batzuk kantatzera joateko eskatu zidaten. Ez dakit zergatik, ez nuen joaterik izan eta hiru bertsook bidali nituen, norbaitek nire ordezkantatuko zituenak. “Anuk”en oroitzapena irabazten atera zen, neu joanda ez bainuen segurrenik maila honetako bertsoak kantatuko. Idatzirik eta inoren esku utzi behar denean, beti ere gehiago saiatzen da. Bota egin zutela edo desesperazioz jauzi egin

zuela, (oraindik epai ofiziala ezagutzeko gagoz), azken tristea izan zen mutilarena, aurretik beste hainbat episodio erogarri jasan ondoren. Lehen bertsoan iraultza eta erraustak itsasotik bueltan plaza-ratu ondoren, “hilezinaren oiartzun” horretan ez bai luzean ibili nintzen, hilezinaren “kresala”, “usaina”, “oihartzuna” ... zer izan behar zuen erabaki ezinik. Azkenean “oihartzuna” utzi nuen, Zumaiako plazak olatuetatik jasoko duena irudikatuz. Hilezkor, itsasoak urruma diraueno. Harago zertarako biziraun? Behin abade gazte nintzela, eta zoro, gazte oro bezala, gaua ernai iraganik, egunaren bila irten ginen lagun bi. Aulestin abiatuta, Zumaiako itsaso gainean geratu gintuen egunsentiak, hondartza gaineko errepede tunela baino goratxoago. Orain Egunsenti hartan “Anuk”-en soslaia ikusten dut, makal edo ezinetik altxatzeko gogoia emanaz. Okerrena da aspaldion ez dudala egunsentirik harrapatzen, bueltan izan ezik, eta hori ez da altxagarria behar izaten dudan kasua. Hirugarren bertsoaren azkenean, bizitzaren zentzua fede handiegi barik goretzi ondoren, honen gai gogor eta mingarri bati sarritan saiatu eta gutxitan kendu izan diodan lako adierazpena aurkitu nuen. “Biziko haugu jaiean eta / maiteko haugu borrokan”. Beharbada izan zitekeen: “Maiteko haugu jaiean eta / biziko haugu borrokan”. Izan zitekeen, baina nik “maite” eta “borroka” elkartu nahi nituen, ez dakit maitasunari gogortasun bat eman guran ala borrokari biguntasun bat.

ZORNOTZAKO PRESOAK, ERBESTERATUAK

- 1) Bizi erdian moztu zinduezan, Gogor
Eta jarraitzen dozu biziaren enbor.
- 2) Deitura dozun legez “etxe” eta “barri”
Ames baten oinarri zara, Etxebarri.
- 3) Gazte eta sasoiko joan zinan, Ernesto
Hemen behar zaitugu gordin eta fresko.
- 4) Menditik jatsitako zaldi baltza Legor
Menperatuko zaitun kortarik ez da hor.
- 5) Aretxa ta Maumeko odolak irauliz
Ortzi gorrian zatoz Fernan Irakulis.
- 6) Biziaren izena dirudi Jaionek
goizero bizi zaitu zure herri honek.
- 7) Hatx arteko iturri agorgatxa Akai
Bueltan behar zaitugu garden eta alai.
- 8) Mendiaren anaia, ibaiaren neba
Burrukak maiteazo gaitu gu, Joseba.
- 9) Etxeko odolaren jarraipen zu, Gatza
Bular suharra eta buru makurgatxa.
- 10) Lur azpiko erreka bortitza Anjelin
Ostendu zinan baina ez zendun aldegin.

11) Herritik burrukara joan zinan, Alberto
Garaitzaren ikurra bueltan ekarteko.

12) Sagarraren loratik Fernan Sagarduiri
Datorko gudarien usain eder hori.

13) Famili handiaren guraso zu, Sabin
Lanik handienetan ez dozu huts egin.

14) Hutsunea itxita joan zinan zu, Santi!
Erbestea adorez bete dozu beti.

15) Pasatuko zenduzan zeureak eta bi
Zornotzaren ohore bat zu zara, Jabi.

16) Eroan zenduzan dohai guztiak, Marimer
Gordeizuz bueltan danok gozatzeko laster.

2000. urteko gabon alderantz, neure jaioterri Zornotzako presoen eta erbesteratuen omenezko ekitaldi-bazkari baterako, bakotxarentzat bertso bana eskatu zidaten, orain ez daukat gogoan non eta nola idazteko asmoz. Bakotxarentzat koplak bana egin nuen eta ez zen, hala ere, lana behingoan amaitzen, halakoxe zerrenda baitauekagu herrian.

ZELAN HORTIK IÑAKI

1)

Zelan hortik, Iñaki
Semetxo kutuna
Honantza bako trenak
Eroan zaituna?
Jainkoak zabaldua
Izan zan eguna
Bidaia eder baten
Aldegin zenduna.

3)

Zure argazki kutzak
Itxi ta ireki
Zenbat kontu esaten
Dautsudan bazenki!
Nahizta zure faltarik
Handiena euki
Zure irribarrea
Neugaz dabil beti.

2)

Jainkoak emon eutson
Trenari ardura:
“Mutil alai horixe
ekardak zerura”.
Berak aldatu zaitu
Bakezko mundura
Arantza bako lorak
Dagozen lekura.


Emakume batek telefonoz deitu zidan esanez: “Zu! Harako Urlia naz ni, zure bertsoak entzuten sarritan egon nazena. Niri bertsoak asko gustetan jataz eta gura neuke zuk bertso batzuk egin dais-tazuzan, neure seme hil barriari kantetako. Bertsoak neuretzat baka-rrik izango dira, neuk neutara semeari kantetako. Behar dan guz-tia ordainduko dautsut”. Gutxi gora behera erantzungo nion: “Jesus, andrea! Ordaindu barik be pozik egingo dautsudz. Baina lehe-nengo informazino zehatzagoa behar dot, zelan hil zan, zelakoa zan eta zeuk gura dozun guztia”. “Joango naz zuenera, etxean zagozen batean eta ondo jatortzunean”. Erantzun nion: “Ez, andrea! Egon

trankil. Neu joango naz zuenera. Emoidazu telefono zenbakia eta deituko dautsut”. Joan nintzenean, andre-gizonak aurkitu nituen etxean. Biak bietara bizi dira, seme-alabak hara-hona ezkon-duta. Gizona burumakur, lurjota aurkitu nuen. Ez zuen semeari jarritako bertso konturik entzun ere egin gura. Andreak esaten zion: “Zuk ez dozuz entzungo. Neuretzat dira”. Eta gero niri: “Hau holakoxea izan da beti. Burua jausten bajako, ezin ezelan be altzatu. Gertatuak gertatu, biziok aurrera goaz eta ganera gure semea niretzat ez dago hilda”. “Inuzentekeriak!” –marmatzen zuen aita etsituak, biziak hilen gainetik aurrera joateaz baino areago andrearen baikortasun ia iraingarriaz eta batez ere, nik uste, bertsoak jartzeko gizon bat etxera ekarri izanaz. “Nik ez dot ezer entzun gura”. “Goazen sukaldera –esan zidan andreak eta ondoren gizonari: -Zuk ipini telebistea ahal danik altuen, ezer entzuteko arriskurik izan ez daizun”.

Emakumeak semearen izate guztia luze kontatu zidan. Berrogetazak urte zituen, seme-alaba haziak zeuzkan, oso alai zen, oraindik ere amazuloa eta amarekin lausengaria, lagunarte zalea eta sukaldari ona. Ez da berau dohairik txarrena, lagun asko edukitzeko, gizonezkoen artean behintzat. Andre-gizonei, urriaren azken astelehena Gernikan igarorik, bueltan etxeratu zirenean, kaleko auzoek ezer ez zekitelako itxura hartu zieten. Bat-batean ez ziren ezer esaten ausartu. Etxera sartu zirenaz batera, tirrin eta tirrin ziharduen telefonoak hamaikagarren aldiz jo zuen.”Nor da?”. Alabak: “Ama! Non zabize?”. “Gernikan izan gara eta oraintxe gatoz aita eta biok”. “Ama! Ezer ez dakizu, ezta?”. “Zer jakin?” –ikaratu zen ama. “Zatoze arin ospitalera. Iñakik istripu larria izan dau”. “Esaidazu egia oraintxe! Istripua baino gehiago izan da?”. “Bai, ama. Hil egin da”. Alaba ez zen ausartu istripua baino gehiago zer izan zen azaltzen. Gizona trenak harrapatu, arrastatu eta birrindu egin zuen. “Baina niretzat semea bizirik dago!” –ziostan behin eta berriro emakumeak eta kutxa bat bete argazki atera zuen mahai gainera. “Nik, senarra bistan ez dagoenean, honeixei begira emo-

ten dot denporea eta berba eta berba egiten dautsot. Horrexegaitik gura dodaz bertsoak, neuri gehien gustetan jaten moduan berrari gauzak esateko, ze hau bizi da, ez da egia? Nik bene-benetan sinesten dot gure semea Jaungoikoak bizirik dekola. Zeuk be sinestuko dozu apur bat, ezta? Abadea izan zinan-da”. “Zuk beste sinestea ez da erreza izango” –erantzunez ezkutatu nuen egia zuzena haren fedearen goraiptuan. Oraindik gorputz eta presentzia izugarri ederreko emakumearen naturaltasun batere behartu gabean eta jai bat ospatzen ari bailitzango bere irribarre osokoan ikusten nuen, hunkiturik, bene-benetan sinesten zuela zioen guztia. Eta bertso sorta luzea nahi zuen, zena zelako guztia ordainduta! “Ezetz, ba, andrea! Ordain konturik ez dot entzun be egin gura”. Pozik egingo nuela agindu nion, nahizta harek nahi zuen sorta luzerik nondik atera jakin ez. Jaulki zidan, noski, datu eta xehetasun ugari, baina barruak ez zidan ematen, fedeak ez esatearren, trenak zatikaturiko baten gainean historia gozagarri bat garatzea, amaren gurari zintzoak eskatzen zuen tonuan. Heriotza birrintu hari “Jainkoak zabaldua / izan zan eguna” deitzea egin zitzaidan gogorren. Hiru bertso hauexek osatu nituen, neure sentimenduak dezente bihurturik, eta pozik geratu nintzen, amaren gogoia zuzen interpretu nuelakoan, gauza batean izan ezik: hark honelako bertsoak zientu bat nahi zituen.

3. Koplak eta kantak



Sail honetan zenbait koplak eta kanta batu ditut. Koplak karpeta baten isiltasunean zeudenak dira, noizbait zerbaiteko erabiliak edo beste gabe bertan geratuak. Kantak ere ez dira, noski, egin ditudan guztien bilduma bat, zeina burutzeko arazorik ez nuen hartu nahi, karpeta eskura neuzkanak baizik. Hala ere, nahikoa mostra zabala eta bariatua izan zitekeela pentsatu nuen, kanta-hitzak zer erizpidez eta estetikaz egiten saiatzen naizen adierazteko, bertsoaren estilotik oso ezberdin, intentzioan behintzat. Lorpean ere baietz uste dut, norbere asmo argi batera ez hurbiltzea gauzeztankeria nabarmenegia bailitzateke.

ADITZEN LABIRINTOA

Hiru kolore, zuri ta more
Sei petalo urdin lilian
Zazpigarrena sartu naizena
Aditzen familian.

1)

Egunaren nekeari eginik men
Arratsaren atsedena zein laket den!
Gu orduan gau-eskolan biltzen ginen
Euskararen xarmak deitzen baigintuen
Hain hizkuntza eder bezain zaila omen
Jabetzea zer gozamen!

2)

Nork nori nor, iragana ta baldintza
Geroaren forma hartuz doa hitza
Elkarrekin lur bat senti eta mintza
Orain kantuz baikorrago da bizitza
Eskurago haiz hi ere, oi aditza,
gure pottoka mengaitza!

3)

Euskara dela hizkuntz adanikoa
Sagar baten zaurian sorturikoa
Ken, otoi, zigor hura, ene Jainkoa
Aditzen labirintoa!

Hitz hauek Mixel Ducaurentzat eginak dira. Izenburua berak eman zidan: "Aditzen labirintoa". Kanta honetan euskaraz ikasten aritua zen gau-eskolaren xarma eta bizipen maitagarriak oroitu nahi omen

zituen. Berak galdua zuen etxe-hizkuntza berreskuratzea, euskaraz kanta zitekeen herritasun bat, gau-eskolan biltzen zen ilusioa, lagunak, lagun berriak eta, nola ez, aditza ere bai, bere labirinto guztian. Alperrik da erraza eta oso logikoa dela aldarrikatzea, ikasleari labirinto iruditzen bazaio. Munduan euskara besterik geratu ez dadinean, orduan aditzik errazena irudituko zaie denei.

A E K

1)

Bata besteen irudi dira
Euskara eta AEKa
beti larri ta beti aurrera
elementu denen aurka.
Azpi ta gainka ibai trinkoa
hortxe doa bazter joka
gelditzen ez den urak nahitaez
itsasoa hurbil dauka.

2)

Beti burrukan beti tiraka
beti hil-biziko deman
hortzetan beti garratz puntua
eta oldar bat ariman.
Minimopeko bizitza nola
sortuz geroztik daraman
aditzak ere egingo du men
gelan ez bada tabernan.

3)

AEKa ez da ahoz dabilen
Euskaldun Herri bat baizik
hizkuntzak ezin ibili baitu
herri bat ibili ezik.
Minimopean diharduenak
ez du itxaropen beltzik
geroa beti urdina dauka
ez dago holako pozik.

4)

Minimopean diharduenak
geroa beti hobea
Euzko-Jauntxoan muzinak muzin
herri bat hortxe, ordea.
AEKak altxor horixe dakar
sortze beretik gordea
ederren eta iraunkorrena
arantzarteko lorea.

5)

Herrian eta herritarrengan
baitauka bere sorrera
horrexegatik doa AEKa
kostata baina aurrera.
Hortik betiko gogoia eta
betiko euspen berbera
aspertuko da argi gorria,
aldatuko da berdera.

AEKri buruzko bertso hauek Korrikaren kanpainaren baterako eginak izango ziren. Laugarren bertsoa “euzko-jauntxoek muzineak” pentsarazten dutenez, AEKren eta Euzko Jaurlaritzaren arteko harremanek garrantz unean behar zuten. Hortik sortaren garapenean behin eta berriro ekiten zaion egoera “minimopekoa”. Literalki ez bazen ere, ideia horixe izango zen nabarmentzeko eskatu zidatena. Edo beharbada eman izango zidaten “hil-biziko dema” salatzeko bururatu zitzaizkidan ritorneloa. “Arantzarteko lorea” ederrena den ez nago ziur, deigarriena baliteke, iraunkorra gabe, arantzeek depredaziotik jagoten baitute. Ez, ordea, bere sasoiak zimeltzetik. Arantze-lorearen dialektikak dohatsu egiten nau, lore gabe gelditzerik aurrikusten ez dudana bitartean.

AITA SAN ANTONIO

1)

Gogoratzen al zara
zer egin genduan
Urkiolako pago
zaharraren onduan?
Halako hezamenik
ez dago munduan.

2)

Zuk begiak itxita
nik zabal zabalik
zenion: "Pago honek
sustrairik ez al dik?".
Zeruan ba ote da
halako itzalik?

3)

"Zer ordu edo zer duk?"
galdetu zenuen
gure bi erlojuak
motxiletan zeuden
eskerrak egarriak
altxatu gintuen.

4)

Abarrak hostoz eta
enborrak adarrez
belaunikatu ginen
santuaren aurrez
albora begiratu
zuen irribarrez.

5)

Agur, San Antonio
itzuliko gara
limosna botatzera
pagopetik hara
fedearen grazian
gordetzen bazara.

Sorta hau ez dut uste ezein enkargu jakinetarako egina izan zenik. Kopla zahar ezagunaren jarraipen bat da, eliza eta pagopea ez dakit kristau erara batzen diren baina. Ideiaren bat bururatu edo apuntatuko nuen eta gero segi, trikiti pieza bat izateko moduko sorta osatu arte, bide batez norbaitentzat baliagarri izan baledi. Urkiolaren inguruan koplatzeko edo idazteko, ez dut kinada handirik behar

izaten, hain baitut txikitatik mendi legendarioa eta desiatua. Umetan Mañariko Ikobaltzetara joaten nintzen urtean behin, osabazeko eta lehengusu-lehengusinen etxera. Handik Urkiolako aldatsa aurrez ikusten zen, gora, gora, eta han goian, inoiz lainopean, erreinu magiko bat, sekula neu bertaratu gabea, noiz iritsiko ote nintzen pentsatzeak kilikatzen ninduena. Gero abadegaitan, bekaitzez begiratzen nuela, niretzat Urkiola debekatua izango zela pentsatzearen penak lilura gehitu egiten zuen. Han bazen santutegi bat, nire ustezko bokazioari bete-betean zegokiona, baina nik beste Urkiola amesten nuen, koplak zaharretatik jaso, fedez haragoko eremu lanbroa. “Urkiolara yoanda zapatak urrutu / Aita San Antoniok barriek eingo’itu”. Zapatak zertan urrutu? “Urkiolara jua, Domilun Santirus / lehenengo preguntia nun da Maria Jesus”. Abarketa zuriz eta gona gorritz irudikatzen nuena. Edo pagoaren ondoko hura. Zer izan ote zen bera? Ez dut esango hamar-hamairka urterekin malezian sartzeke nengoenik. Baserriko umeok ezkutatzen alperrik ahalegintzen ziren gizakien arteko harremanak laster asoziatzen genituen animalien portaerarekin. Gizakiek ez zutela animaliek lez jarduten deskubritzea dezepzio ikaragarria izango zen nire orduko sentiera unitarioarentzat. Banekien guztia, baina ametsa bizi nuen. Errealitateak kontenplazioa eragin lezake. Desioa da poesia sortarazten duena. Oraintxe ere, Urkiolatik pasatzen naizenean, ziur naiz ez naizela bertatik pasatzen, umezaroko desiotik baizik. Bigarren koplako “pago honek sustrairik ez al dik?” pasarteak, sorta egin nuenetik denbora luzera begiraturik, neu ere noraezean jarri nau bat-batean. “Zertarako jarri nian hau?”. Laster konturatu naiz pagoak sustrai gogorrak eta ageriak zabalitzen dituela bere orpotik inguru urrunera. Haien gainean etzatea saihetsentzat ez da leguna izango, baina pasioak dena ezabatzen, sustrairik edo errealiterik baden ere dudatzeraino. Pagopeak badi-tu, noski, belargune gozoak ere, edo orbel-zulo apatzak. Horieta-ko bat bilatu zutela jotzea bidezko bada, orduan pentsatu behar da pasioak zerbait gogorragoa, bortitzagoa eskatzen ziela. Desioa eta

errealitatea etengabeko tira-egotzian bizi dira. Eginak eginda, santuaren aurrez belauniko, honek irribarrez albora begiratzea nire nerabegaroko poesiaren sekuentziarik xarmagarriena izango zen. Oraintxe ere ez ala?

ALAIA ZU

Neska txiki-txiki, neska txaka-txaka txikitxo
Neska ttipi-ttipi, neska ttpa-ttpa ttipitto
Neska ttiki-ttiki, neska ttaka-ttaka ttikitto
Neska ñimi-ñimi, neska ñama-ñama ñimiño.

1)

Ez dakizu, badakizu, Alaia zu Alaia zu
Haserre zu, negarrez zu, baina beti Alaia zu
Amari so, aitari so, gure lilura zara zu
Zarelako Alaia, Alaia, Alaia
Zarelako Alaia, bai, alaiena zara zu.

2)

Ez dakizu, badakizu, polita zu polita zu
Bustia zu, goitika zu, baina beti polita zu
Amari so, aitari so, gure begia zara zu
Zarelako polita, polita, polita
Zarelako polita, bai, politena zara zu.

3)

Ez dakizu, badakizu, gurea zu gurea zu
Berdin lo zu, berdin lo gu, baina beti gurea zu
Amak musu, aitak musu, gure bizia zara zu
Zarelako gurea, polita, Alaia
Zarelako garena, bai, zara zera zira zu.

Hitz hauek Mixel Ducau eta Carolinaren alabatxo Alaiarentzat egin nituen, oraindik haurtxoa zela. Izena Alaia zuelarik, kantak ere alaia, gozoa, jostaria eta erraza izan zedin nahi zuten. Aurrez eman zidaten doinu baten gainean jarritako hitzok helburua ondo bete zutela uste dut.

AMNISTIAREN DEMA

Amnistiaren dema
garaipen eguna
lortzen ari garena
lortuko duguna.

1)

Amnistiaren alde
zigortuen alde
gu ere haiekin bat
zigorpean gaude.
Ez dugu izaterik
aske haiek gabe
haiekin askatuko
baikara gu ere.

3)

Zaudete ziur haiek
ez dute etsiko
ziur ez ditugula
guk ere utziko.
Denak noizbait etxean
zutik eta tinko
egon ziur lortuko
dugula betiko.

2)

Amnistiaren demak
bakea du izar
eta askatasuna
oinarrizko indar.
Herri dena abian
Hego eta Ipar
gaur borroka dugu ta
garaipena bihar.

“Amnistiaren dema” kantarik entzunenetakoa izan da eta izaten jarraitzen du, Ezker Abertzaleko giroetan behintzat. Meritua ez da hainbeste hitzena edo doinuarena, motiboarena baizik, eta hain zuzen horrexegatik egiten zaizkit zailen honelako kanten hitzak, karga handiko edukia daramatelako. Alde batetik ideiek ardatz izan

behar dute eta bestetik panfleto estiloa saihestu behar da. Kanta bat ez da ideiak formulatzeko, sentiarazteko baizik, baina esan beharrekoa zuzen eta argi ulertarazi behar da. Sentimena ikutzeko, lanbrotasun malenkoniko samarrak eraginkorrago izaten omen dira, “omen” diot, ez bainago batere segur, baina malenkonia (eta honetan segur naiz) ez da batere zehatza izaten. Ideiek, ordea, amnistia bezalako gaietan, oso zehatzak izan behar dute. Beste era batera esanda, ez dute jasaten badaezpadako glosarik edo metafora dudazkorik.

Eduki ideologikoaz gainera, honelako kantak tonu konbatiboan osatu behar dira. Sarritan horixe da zailena, beharbada une hartan norberak sentitzen ez duen kemena transmititu behar baita. Kemena ez da ideia bat, sentipena baizik, badagoena edo ez dagoena, edo oso neurri jakinean dagoena, eta nire kanta askok neuk ez daukadan kemena eta konbikzioa islatzen dute. Gezurtia al naiz? Ez dut uste, ondo baitakit une horretan nire zeregina ez dela neure barrua adieraztea, mezu kolektibo bat aldarrikatzea baizik. Mezu kolektiboa, beste kolektibo batzuekin enfrentatua. Gatazkatia, beraz.

Azkenik, amnistia bezalako gaietan sufrimendu handia dago. Hori bai sentitzen dela, batzuetan inpotentzian amiltzeraino, baina sufrimendu borrokalaria ezin duzu errukirantz norabidetu, gutxiago etsipenerantz eta gutxien damurantz. Hala izatea ulergarri bada ere, ezin du ahulgarri izan, garaile izatekotan. Bistan denez, ez dago eginkizun minberagorik, minaren izaera erabakitzea baino. Ideologia, gatazka, kemena, konbikzioa, sufrimendua... Banaka oso alderdi intentsoak izanik, denek batera zama ikaragarria hartzen dute eta horrelaxe gogoratzen dut kanta honen sorraldia, aldi laburra bestalde, gure ohiko gaitzean, oso presazko eskaera izan baitzen. Batzuetan ez dakit metodorik efektiboena berau ez ote den, zeurez ezingo zenukeena derrigorrak ateratzen baitizu. “Ez dagoen lekutik ez dago atzeratzerik” esaten da, baina hutsetik ateratzeko ere gauza izan behar da, nahizta norbere baitatik izan, eta

horretan derrigorrak asko lagundu dit. Anje Duhaldek doinua eta nik hitzak, kanta hau egun batetik bestera sortu, grabatu eta dena egin behar izan zen. Derrigorren eraginez, azken ahapaldia apur bat desgogara utzi nuen. Zer daukan? Azken puntuko “betiko” ez dut gogoko. Beraz, azken puntu osoa ere ez dudala gogoko esan daiteke, puntu baten euskarri nagusia errima baita, batez ere azkena denean. Zergatik ez dudan gogoko? Antzematen zaiolako areago errimagatik sartua dela. Kontzeptu gisan, “betiko” hori gehigarri alperrekoa da, “lortuko dugu”, “irabaziko dugu” eta gisako aldarri berez totalen ondoan. Amnistia tenporalari kontrajartzen zaiola ematen du. Egia da tenporala ez denik ez dagoela eta, amnistia-aren eta Euskal Herriaren kasuan, duela hogeita batzuk urte izan zela beste bat, askorik iraun ez zuena, baina normalean zehazpen horiek ez dira aldarri bati dagozkionak. Pasatzen utzi nion, “betiko” hori “lortuko dugula” aditzaren indargarritzat uler zedin desiatuz. Denbora luzeagoa izan banu, desgokitasuna konponduko nukeen, baina horrelaxe geratu behar izan zuen. Orohar, ez daukat ukatzerik kantarekin kontent geratu nintzela.

ANBOTOTIK GORBEIARA

- | | |
|---|--|
| 1)
Anbototik Gorbeiara
ortzian arku bat bada
eztaietan edertzeko
Bizkaia eta Araba. | 4)
Ordeka eder Lapurdi
Zuberoan bortu haundi
gorago ta lerdnago
Orhi eta Auñamendi. |
| 2)
Jaizkibel eta Aizkorri
Ernion gora oskorri
haitzean isladatzen den
Gipuzkoa eder hori. | 5)
Aturritikan Ebrora
itsasoa eta lehorra
herri batek kantatzen du
etorkizun hilezkorra. |
| 3)
Aralartik Iratira
izarrak oihandu dira
ilargia pasatzen da
Nafarroari begira. | |

Kopla hauen lehen hartzaileak Tapia eta Leturia izan zirela uste dut. Oso gogoan ez badaukat ere, Euskal Herri osoa hartzeko moduko hari bat nahi zuten eta mendien gidaritza hautatu nuen. Kopla zaharrek hain maite dituzten, hobeto esanda, hain berezko, bestela ez baitzitekeen izan, dituzten natur elementuetan oinarritzeko bidea ematen zidaten mendiek. Argumenturik izatekotan, natural-bisuala da, ez garapen diskurtsibokoa, kopla zaharren estetikari sekula interesatu ez zaiona. Gure buruentzat zaila da batasun jarraitu gabeko sortak garatu ez ezik pentsatzea ere, baina naturan (gure pentsamena ere natura dela jorik) batasun mota hori beste askoren arteko bat besterik ez da. Kopla hauek egin nituenean baino maiteago ditut gaur, ez jaiotzez menditarra izanik, mendiek bereziki

hunkitzen nautelako, mendien gainean doazen beste elementuengatik baizik. Anboto eta Gorbeia beti izan ditut aurrez bistan, baina batetik bestera ortziari eusten dion arku imajinarioaren azpian Bizkaia-Araben eztaiak hementxe bisualdu nituen. Aizkorri ere etxetik bistan dut, urrunean. Jaizkibelek paraleloan pasatzen naizen guztian begirada suabetu egiten dit, egunen batean bazterra joarazten ez badit. Erdiko Ernion oskorri bat imajinatzen dut, ez dakit zein, hain baitira denak ezberdinak, baina edozeinek balio du beste guztiek beste. Gipuzkoa ez dago gaizki kokatua. Behar-bada laugarren koplak dut maiteen. Aralar eta Irati niretzat ezagun baino areago mitikoetan izarrak oihan bihurturik ikusten ditut, ez dakit nola, baina halaxe. Ilargia Nafarroari begira pasatzea ez dakit liluraz ala ezaxolaz gertatzen den eta horrek artegatu egiten nau. Koplak honetako elementuak aitortu behar dut niretzat areago direla maitasun exotikoak barnetasun afektiboak baino. Sentimenduak nekatzen hasi eta gero ezagutu nituen, neure herri-mapa urratuaren osagaiei buruzko gogoeten ondoren. Horrek beti ere minbera puntu bat eransten du, sentimenean berrosatutako mapak berdintsu puskaturik jarraitzen duela ikustean. Errealitateak sentimendurik eduki nahiz ez, honek bai behar du harekiko konkordantzia bat, sentimendua errealitatearen diskordantziatik ez badator. Bosgarren koplak biak bateratzen dira, gogo exultantean, hau ere errealitatearen zati bat baita. Mendien egote objektiboa bezain naturaltzat kantatzen da etorkizun hilezkorra, mezua konstatazio soil baten inozentzia bailitzan. Egia da, bai, koplak sorta hau egin nuenean baino maiteago dudala gaur. Zahartzen ari naizela esango dute, baina sentimenduak ez dauka bizarrik.

ANBOTOTIK OIZERA

1)	2)
Anbototik Oizera	Kondenatuak gero
erratzak airean	barkamenik gabe
sorginak bazebiltzan	ifernuko auspoa
bideko librean.	salbatu halare.
Bota zieten ura	Bidekotxo bat haien
Durango parean	arimaren alde
erratzak itzalita	eta erromeria
erori zirean.	bizirik badaude.

Bi ahapaldi hauek badute nire gogotik nekez joateko moduko historiatxo bat. Hurrengo igandean Euskal Herriko trikitalari txapelketako finala zen. Astean bertan hor datorkit Kepa Junkera bideko batentzat hitz eske. “Lehenago eskatzeko astirik ez dozue izan?”. Kepa orduan oso gazteak erantzungo zuen: “Ez genduan asmorik, baina bururatu jaku polita izango litzatekeela letra eta guzti kantatzea. Zuk atoan egingo dozuz pare bat bertso”. “Egin, egin bai, baina kakoa ez da hainbeste nirea, zeuena baino. Azken orduko arineketan ikasitako bertsoak Motrikok zelan kantatu behar dituan esango daustazu”. “Egin egin behar da. Arriskua kinada bat gehiago da”. Urte hartan, ohiko piezez gainera (trikitia, porrusalda, fandangoa eta arin-arina) bidekoa ere jo behar zen, puntuagarri izatekoa, trikitalarien aukeran uzten zelarik kantatua ala ez izatea. Arauetan, beraz, ez zen eskatzen letraduna izaterik eta nik hortik ekin nion Kepari, ea zertan arriskatu behar zuten alperrik. Pare bana arraultza baserriko txorizo ederrez eta botila on bat ardo aurrean genituela, biok ere baikor eta animoso, ez nuen lortu haren buruera aldatzerik, neuk ere segurrenik neuretzat lan bat kentzeagatik areago. Errespetoa, aholkua, esperientzia, irabazi egin behar zela, temeritatea patuak zigortu egiten duela, letra ahoz kagaitzak

egino nizkiela, zer ez nuen probatu? Kepari matraitxoak gorritzen zaizkionean (“¡qué bueno está este chorizo!”), ez diozu atzera eragingo. Horrexegatik iritsiko zen dabilen lekuraino. Egin nituen bertsook eta ostegun edo ostiralean, beste txorizo jan bat eginik, pozik eroan zituen, batez ere esanahia azaldu nionean. “Badakizu, hemen Oizen hegian gagoz eta Anboto aurrez daukagu. Anbotoko atsoa (damea, sorgina, señora, Mari Urrika...) handik Oizera eta bueltan auzo honexen ganetik pasatzen da, pasatzen zan, baina Durangon badakizu Inkisizino bedeinkatuak (ur bedeinkatua bota eta erratzak itzungi!) zelako garbiketea egin eban. Bakarrak lortu eban libratzea, Anbotoren kolkoan ezkutatuturik, eta badirudi harekek salbatu ebala inpernuko auspoa be. “Bidekotxo bat haien arimaren alde”. Mari Urrika oraintxe ari dala pasatzen uste dot, ilunabarrero lez, bibrazino ez-magnetikoak nabari baitira”. “Istorio kardiakoa horixe!; Qué bueno está este chorizo!. Oraingoan giputz guztiak geuganduko doguz”. Igandea (ala larunbata?) iritsi zen eta neu ere han nintzen, Anoeta pilotalekuan, uste dut. Ohiko arautegiko lau piezak jotakoan, Junkera eta Motriku irabazle somatzen ziren. Jendea alde egiten hasita zegoen, hura ikusitzat emanik. Segurrenik asko eta asko “bilbokume” haien proklamazioaren trago txarretik ihesi zihoazen. Azken pieza jotzea falta zuten, zorioneko bidekoa. Abiatu ziren, bazihoazen ederki, Motriko kantuan hasi zen eta bat-batean premonizio txar guztiak batu ziren. “Aibadios! Zetan jabik hori?”. (“Qué bueno está el chorizo este!”). Ate baten kontran norantz desagertu ez nenkiela, joatunak gelditzen hasi ziren, ezbehar miragarriaren bihozkanan, Motriko hitzetan galdurik zebilen, inprobisazio salbatzailerik ez zitekeen itxaron, ritmoa ere halamoduz, kakazaharra, hau izorratu duk. Aitzaki hura bide, Junkera eta Motrikoren txapela eskutik bertatik haizatu zen, sorginekin olgetan hastearren. Gehiago ez dut uste aurkeztu zirenik.

ANBOTOTIK OIZERA I

- | | |
|--|--|
| 1)
Anbototik Oizera
gabean gabean
sorgina pasatzen da
erratza aidean. | 3)
Aita San Antonio
sorginaren auzo
biak Popolen gora
galdu ziren atzo. |
| 2)
Erratza sutan eta
oinaztu urtika
nora zoaz hain bero
Andere Urrika? | 4)
Nire maite barriak
zer sorgin ete dau?
sorgina ez da baina
sorgindu egin nau. |

Kopla hauek Berrizko neska trikitilari batentzat egin nituela uste dut. Berriro ere Anbotoko sorgin, atso, dama, señora, Mari, Andere Urrikaren aipua dator. Zergatik ez dakit, baina erreferentzia hauek inoiz ez naute nekatzen, beharbada neure baitan bakarrik existitzen direlako. Zer ardura du Anboton Damarik badagoenez, nik bera gabe ezin badiot mendiarri begiratu? “Baina hori guzurra da!”—erasotzen didate umeek, adimen kritikora hurbiltzen hasten direnean. “Egizko guzurra baina!”. “Hori zelan izango da, ba?”. Orduan ahalegintzen naiz esplikatzeko: “Mendia beti bardina da, baina beti ez dozu bardin ikusten”. “Lainoa dagoanean ez! Hara bestea!”. Umearentzat ez dago gozamen handiagorik, heldu bat gezurrean harrapatzea baino. Hemen ere berdin da harrapatzea zein uste izatea. “Garbi dagoanean be bai. Begitu gaur ondo Anbotori. Ikusten dozue, ezta? Jaso ondo gogoan, eh! Ikusiko dozue bihar zelan diferente ikusiko dozuen”. Egun batzuetan tematuko dizute berdin-berdin ikusi dutela, baina azkenean dudan jarriko dira, aurreko ikuspenaren xehetasunak denei era berdinean ahaztu ez zaizkielako edo soil-soilik oroimenak bakotxaren baitan transfor-

mazio diferenteak egin dituelako. Azkenean, mendia bista-bistan dutela ere, ezingo dute adostasunik lortu eta nahasmen hartatik aurrera ebidentzia bat taxutzen hasten da, hots, dena dela errealtate sentigarria eta sentitzen dena sekula ez dela gezurra. San Antonio eta Atsoa ez dira elkarrengandik urrun bizi. Polpol Urkiolatik Anbotora bideko zelai bat da, haitzaren oinean. Batzuetan Atsoa bera jaisten da santutegi atzeko pagopera, beste batzuetan Santuak laguntzen dio Polpolen gora, abadeei gustatzen ez zaien euria denean gehienbat. Elurra ez da ona, bulto beltzak argiegi markatzen baitira bertan. Zer dauka txarrik ondo konpontzeak, abadeek ez dakiten bitartean?

HIL KOPLAK

1)

Esaera da hartu beharra
dagoela datorrena
hauxe da nire azken bertsoa
bizi guztiko onena
nahiz meritua ez den neurea
baizik heriotzarena”

2)

Negarrerako motiboren bat
izango nuen jaiotzan
gero barrea ere bizitzan
maiz gezurra izango zan
utzidazue isil-isilik
sar nadila heriotzan.

3)

Agur, gelditzen zareten denok
hilerri isilaz kanpo
derrigor bada, nik aski ditut
planta bat eta bi malko
eta txaloak gorde itzazue
zeuek zatoztenerako.

2000. urteko Domu Santu egunean, hil-kopla hauexekin jantzi nuen GARAKo zutabea, hilerrizaleek gai hauxe jartzen zidatela imajinatuz: “Hilerriko atez kanpotik, kanta ezazu zeure bizitzako azken bertsoa”.

ANDIKOA

1)

Andikoa, Andikoa
gure Oizko mendikoa
hau ein eban egunean
portatu zan Jaungoikoa.

2)

Hau eztona artajorra
hau dona geure monjorra
gaur eztona pekatue
alkantzetie mozkorra.

3)

Hasi giñien nozbaitten
etxe barri hori eitten
zelebratu daigun ondo
ganoraz amaittu daitten.

4)

Badekogu aterpie
ezton, ez, geuze merkie
bakarrik eskatzen jjonau
amaitzeko subertie.

5)

Hastie majo kosteu zen
aurrera ete guezen
ezta gitxiau kosteuko
hasittekue amaitzen.

6)

Galdu neuen posturie
hemen bakotxai berie
Ismael eta Karmelo
Igerle onak zarie.

7)

Txuleta erriek parrillen
eperdi zabalak sillen
holako komenentzirik
eztok ixengo Melillen.

8)

Soldau duela mutille
Afrikera moro bille
Atxurren lekuen orain
manejeu biher fusille.

9)

Zar da gazte adixkide
sasoie eztago hildde
Olatz albuen itxitte
gaztetxuena Matilde.

10)

Trikitolari politte
pozik ein notsan konbitte
hori eztok holan joten
pasiuen ibillitte.

1983. urteko agorrilean hasi ginen etxea egiten, Berrizko Andikoa auzoan. Eguna ez nuke hain argi gogoan jaso, hondeamakinaren lanean hastea uriola katastrofiko batzuegatik atzeratu behar izan ez balitz, eta hauek ere dagoeneko ez nituzke gogoan, Bilbon Aste Nagusiko ostiraleko bertso saioaren ondoren, Donostiarantz ezin jarraiturik, autopistaz Altuberantz hartu eta Laudioko itolekuan sartu ez bagina. Pozik, geure auto oraindik berria galtze truke salbatu ginenean. Egun bildurgarri haiek ere igaro ziren eta noizbait hasi ginen etxegintzako lurak mugitzen. Teilatua botatzean, erramua jarri ohi da gailurraren aurre-erpinean eta Andikoako goiherritarrekin “monjjora” egin genuen. Hitz honek lan handi samar baten amaierako jatordua esan nahi du, bazkaria edo afaria izan daitekeena. Guk afaria egin genuen, elizaldeko auzo soziedadean. Ospakizunari martxa handiagoa emateko, orduan berarekin zerbait lanetan harremantsu nenbilen Kepa Junkera trikitilaria, artean gazte-gaztea, gomiatu nuen eta afalostean berak musikaz lagundurik kantatzeko egin nituen koplak erdi bat-batekook. Ideia batzuk afari bitartean harildurik, ezuste bat eman nahi nien afaldarrei, denek itxaroten zituzten bertso batzuen ondoren, koplak sorta bat kantatuz. Andikoa Berrizko auzo bat da Oiz mendiaren barrenean, eguzkirik inon bistan bada, sortzetik sartzeraino pasatzen ikusten duena. Seigarren koplak dioenez, postura eginda neukan Karmelo izeneko mutila soldadu joan aurretik etxea baietz amaitu. Ismael ere Karmelorekin bat zetorren. Hau, hurrengo koplak agiri denez, laster Melillara joateko zen eta gure etxea oraindik erramuan zihonan. Orduan ez nenkien, ez, artekoa baino askoz gehiago kostako zela amaitzea. Afaldar zaharrena, baina oraindik erremangu handikoa, Matilde zen, “gaztetxuena” bera, “Olatz albuen itxitte”, hau konparazio horietan sartzeko oraindik gazteegia baitzen. Zehazte hori egin ez banu ere, ez zukeen zertan mingarri izan, baina adierazteko era deigarriagoa zen, aldi berean, umeak nagusien pikardietan ez nahastea elegantzia bat zela. Auzo berrian, zelanbait esateko, gure sarrera publikoa izan baitzen, zorionez biharamonean-

edo koplok idatzi egin nituen eta hortxe geratu dira, niretzat egun esanguratsu baten lekuko. Ez dira kopla jarriak, bat-batekoaren sinpletasun maitagarria darienak baizik. Segurrenik ez nituen honela hitzez hitz kantatuko, baina bai oso antzera. Honelakoak egun batzuetan zehaztasun handiz gogoratu ohi ditut, beste egun batzuetan, gertakariak buruan ibiltzeari uzten dionetik, zeharo ahazteraino. Kasu honetan zailagoa zen, oso erreferentzia jakinak eta hurbilak baitziren.

ASUNAREN AZPIAN

- 1) Asunaren azpian
perrezila jaio
jaio bada jaio da
fresko eta sendo.
- 2) Martinatxo andreak
burua leihoan
sartu hadi barrura
hotza duk kanpoan.
- 3) Luis gaztetxo jaun hori
bibolina jotzen
Martinatxo hil arte
hantxe egongo zen.
- 4) Andre-gizon beroek
gauero matraka
aitita-amamak ere
ttirriki-ttarraka.
- 5) Senarra saldu eta
akerra erosi
larrua kendu arte
galdaran egosi.
- 6) Maisu batek burua
zidan ai handitzen
bistatik galtzearren
fraile joan nintzen.
- 7) Maistra bat maite nuen
ume barrabana
usterik zela gure
akerraren ama.
- 8) Aita San Antonio
dago Urkiolan
hamaika frutu eder
galtzen da arbolan.
- 9) Hanka bata Uzturren
bestea Ernion
mundu arraio honi
txiza egin nion.

Kopla sorta hau norbaitentzat moldatu nuen, Oskorrirentzat nik uste. Lehenengo hirurak ez dira nireak. Hauek poematxo bat osatzen dute, erromantze luzeago baten zatiak segurrenik. Ekarri zidaten bertsoa ez zen, antza, txukunegia, apur bat konpontzeko agindua eman baitzidaten. Lehenengoa lehendik ere ezagun nuen eta ez nion ikutu. Bigarren-hirugarrenak zertxobait berrikutu nituela uste dut. Horrez gainera, sorta apur bat luzatzeko eskatuko zidaten eta halaxe erantsi nituen beste seiak, batzuk enkargu hartarako eginak eta beste batzuk lehen eginetik hartaratuak. Lehen kopla oso polita eta adierazkorra da, bi landareen berri dakienarentzat. Asuna zarratua eta lotsagabea da, perrezila berriz xumea eta ernekera delikatukoa. Hau haren azpian “fresko eta sendo” jaiotzeak mirari amoroso kezkarria izan behar zuen. Martinatxok bigarrenean borondatea erakusten du, baina bitartean bazen eragozpenen bat, Luis jaun gaztetxoa Martinatxo hil arte leihopean bibolin jotzen aritzeko. Hortik aurrerakoak erromeri kopla tipikoak dira, lotura argumentalik gabeak, baina azpi-geruza komundunak. Hauena, aitita-amamen ahalegin irrifargarriaz harago eta, beharbada zigorretik libratzeko, umearen erabaki tolesgabeaz beste, lotsagabe-keriaren eta satiraren arteko nahastea litzateke. Ume maistra-minduak baduela uste dut txikitatik entzuten nuen ipuin baten eragin inkontzientea. Herriko abadeak, garizumako misioetan, (badakit gehienek ez dakitela zer den ez “misio” ez “garizuma”, baina ez da nire zeregina esplikatzera) fraile bizarraundi bat (badakit gehienek ez dakitela abadetik frailerara zer alde dagoen, baina hori ere ez da nire zeregina) ekarri zuen sermoilari. Orduan kulpitutik predikatzen zen eta frailea berotuz zihoan infernuko su-garren gainean. Kulpituaren azpian emakume bati negarrez erreparatu zion eta frailea areago sutu zen, bere sermoia efektiboa zela ikustean. Elizkizuna amaitutakoan, fraileak abadeari esan zion halako eta halako emakume batek sermoia negarrez igaro zuela eta ea huraxe bista-ra ekarri ahalko zion mesedez. Abadeak, herritarrak ondo ezaguturik, laster aurkitu zuen negargilea, zeinak sakristian sartzean, erre-

berentzia egin zuen: “Egun on, aita agurgarri. Zer nahi du berorek?”. Fraileak azaldu zuen: “Kristau alabatxo, sermoi guztian zapiarekin begi igurtzika ikusi zaitut. Zeri egiten zenion negar?”. Emakumeak erantzun zuen: “Ene aita agurgarri! Ez benagi barriro samindu. Aker eder bat katean itota hil jakun igaz eta, berorek bizarrak ikustean, ezin neban gizajoa burutik kendu”.

Aita San Antoniok hamaika frutu eder galtzen ikusia izango du arbolan, agian gozamenez, pagopeak kontrolatu ahal balitu. “Goguen al daukazu zer egin genduen / Urkiola ganeko paguen onduen?”. Azken koplako txizegite destainosoak ere badu bere aurrekaria. Umetan “Eulizki” izeneko erraldoi batena ezin ulertuz ibili nintzen. Gure etxetik bistan zegoen Bizkargi eta Oiz mendietan hanka bata eta bestea ipinita, Zugaztietako arroara txiza egiten zuen, Oka errekarra. Gure etxetik azpikaldean, oinez ordubete eskasera zegoen Zugaztietatik harantz, Muxika eta Gernikarantz, erreka hartatik ura edaten deskuidatzen zirenei haginak ustelduko zitzaizkiela pentsatzen nuen, aurretik itoak ez baziren. Izatez, “Eulizkiari” ez zitzaion beste jardunik esleitzen. “Txizetik txizerra zer egiten dau?”. Inork ez zuen argitasunik ematen. Berez “eulizki” euliak uxatzeko adar orritsu bat edo ira sorta bat zen eta izen arrunt lez deklinatzen genuen, artikulatu eta guzti. “Eulizkijjek, Eulizkijjeri” eta ez “Eulizkik, Eulizkiri”, formalizazino luzeagoak eskatuko zukeen lez. Beharbada geure aitaren asmazioetako bat izan zen dena, leienda ezagutzen zen inguruetan ere berak zabaldua segurrenik. Zer ardura zidan jatorriak, txizagintzaz beste elementu guztiak hantxe banekutsen?

AURRERA IJAPA

(“Internacional Jai-Alai Players Association”)

Batera zerbait gara
ezer ez banaka
zaindu atzea eta
aurrera IJAPA!
Bueltarik ez dauka
Aurrera IJAPA!

1)
Negu zulotik Udaberria
laurogeita zortzikoa
aurrera ala atzera egin
erabaki hartzekoa.
Aurrera tira genuen eta
altxa zitzaigun gogoia
argitu baitzen pilota eta
pilotarien geroa.

2)
Ezin gintezken beti babestu
bakoitza bere gerizan
nahi dugu jardun pilotan baina
pertsona batzuen gisan.
Hargatik gara edo nahi dugu
elkarte handi bat izan
etxetik pozik irten ginenak
pozago itzul gaitezana.

3)
Gure jokoak izena dauka
"Xistera" edo "Jai-Alai"
hala agertzen saiatzen gara
munduko ikusle denai.
Itsasoz harantz geure sasoiak
zabaltzen dugu noranahi
zabaldutako pilota eta
Euskal Herria ere bai.

Bertso batek aipatzen duenez, laurogeita zortzi inguruan Ameriketako saski-pilotariak greba luze eta gogorrean sarturik zebiltzan. Oso hurbiletik bizi izan nuen pilotarien egoera larri hura, nire koinatu batek Miami Jai-Alai pilotalekuan jokatzeko baitzuen. Bestela ere, hain maiz nabilen Bizkaiko Lea-Artibai aldea, dena dago saskilariz bete. Euskal Herrian elkartasunezko ekintza asko sortu zen, ez segurrenik behar beste eta behar bestekoak, Ameriketako pilotalekuetako ugazabek oso gogor, ia krudelki abusatzen baitzuten gure pilotariek. Urte batzuk aurreragoko “ameriketak”, Bizkairik erdi saskiz eta saskilari harroz bete zutenak, urte batzuetan gainbehera etorri ziren, biziraupen soilaren mailaraino, kasu askotan hondameneraino. Saskiak ez dirudi hirurogei-hirurogeita hamar garren inguruko urte kolorerik berriro hartuko duenik. Bide batez, ez dut ulertzen hiztegiek (eta ondoren telebistak, irratiek eta komunikabide guztiek) zergatik sartu diguten “zesta”, “zesta punta”, “zestolari”, “puntista” eta terminologia hori, “saski”, “saski-pilota”, “saskilari” bezalako hitz politak euskaraz edukita. Edo “xistera”, bertso hauetan agertzen denez. Edo “cesto-cesta” esateko dauzkagun beste hainbat hitz politetariko edozein. “Baloncesto”-ren ordaintzat ere “zestobaloia” erabaki zitekeen. Dauzkagun ahalbide ebidenteei aplikaziorik ezin emanez eta ez daukagunari neologismo premiagabeak asmatuz, hizkuntza aldrebesa geratu behar zaigu. Batetik “zestapunta” eta bestetik, adibidez, “gelditasun, geldotasun, moteltasun”, inguruko hizkuntza guztietan dabilen “inakzioa” deduzitu ezinik ibiltzeko.

Gaira itzulita, Markinan xisteralarien aldeko manifestazio batean pilotari ohi ospetsu bat hurbildu zitzaidan eta IJAParen himnoa izango zitzatekeen zerbaitu aipatu zidan. Gaia eta burruka bero-beroan zegoela, ona izango zitzatekeela kanta indartsu bat, arazoa Euskal Herrian eta mundu guztian zabaltzen lagunduko zuena. Oso ondo neritzola esan nionean, hurrengo proposamena direktoa izan zen: “Kanta horrerik berbak ipinteko aproposena zeu izan zeintekozala begitantzen jaku”. Erantzun nion: “Hara, ba!

Kausa honetan zeozer aporta neikela pentsatu ezkerro, modurik gustagarriena eskeini daustazue”. Gaineko egun batean batzekotan geratu ginen, informazioa eta gatazkaren sentiguneak ondo jasotzeko. Pilotaria bera, beste pilotari adineko bat, garai batean gailurrean ibilia, eta halako beste zenbait lagun Markinako kafetegi batean batu ginen eta jasotako berrietatik errepika eta ahapaldi hauek osatu nituen, gero norbaitek musikatuko zituenak. Kasu honetan, hitzak doinua baino lehenago burutu ziren, askoz lehenago noski, oraindik doinua sortzailearen zain baitago. Greba hura noizbait amaitu zen, ez oso garaile, zoritxarrez, hainbeste sufrimendu eragin ondoren, eta IJAPAren himnoak bere asmotasun freskoan geratu behar izan zuen. Beste saialdi bat gehiago kausa zailen lerroan, batere penarik gabe eta inork uste baino osasuntsuago.

AUTODETERMINAZIOA

Aut-aut-aut: Autodet

Det-det-det: Determin

Min-min-min: Minatzen

Autodeterminatzen.

1)

Herri txikia izan arren

haundiei gaizki iruditu arren

kostako dena kosta arren... Aut-aut-aut...

2)

Muga zahar hilotzen aurka

Estatu ustel hilobien aurka

Politika hilkorren aurka... Aut-aut-aut...

3)

Nortasun irekien alde

Bake-oinarri berdinkorren alde

askatasun batuen alde... Aut-aut-aut...

Autodeterminazioaren aldeko aldarrikapen bat egin behar zen, bere himnoa edo izan zitekeena, nik hitzak eta musika Anje Duhaldek jarriko ziona. “Ederto! Gaia emonkorra izan leitekek, baina berba horregaz egitea gura dozue?”. Au-to-de-ter-mi-na-zi-o. Zortzi silaba hitzak berak bakarrik. Deklinatzen hasiz gero, bederatzi, hamar, hamaika, hamabi silabaraino doana. Au-to-de-ter-mi-na-zi-o-a-ren-tzat, au-to-de-ter-mi-na-zi-o-a-re-ki-ko... Puff! Euskal metriakako neurririk luzeenean ere sartzen ez den hitza. Baina hitza nahitaezkoa zen, esangura guztia berari lotua baitoa, mezuak zehaztasunik hartuko bazuen behintzat. Hitza bera erabili gabe jaurti dai-

tezkeen aldarriak askatasun orokorraren, zuzentasunaren, ia edozein kontzeptu positiboren alde uler daitezke. Autodeterminazioa oso kontzeptu politiko zehatza eta araugarria da. Ezin nion hitzari alde egin, bera baitzen ikur nagusia. Ahapaldietan sar zitekeen, baina mezu nagusiak errepikan joan behar du. Horretarakoxe dagoz leloak, kantaren leitmotiva markatzeko. Hitz osoarekin konponbiderik ez zegoela ikusirik, zatitzea pentsatu nuen, bide batez progresio bat eraginez, aurreraldi bakoitzean gehitzen zen silaba bide zela, “autodeterminazioa” delako kontzeptu geldirantz barik “autodeterminatzen” aditz dinamikorantz, laburragoa eta bestea baino askoz forma musikalagoa berau.

Ahapaldietako ideiak gutxi gora-behera emanak etorri zitzaizkidan. Ideia luzeak eta diskurtsiboak, noski, hiru sostenguhitzen gaineko (“arren, aurka, alde”) simetria errepikarian banatu nituenak. Ahalik eta erarik ezagungarrienean izendatzea komeni zen kontzeptu doktrinalei nahikoa itxura biziduna eman niela uste dut. Badakit azkeneko “Askatasun Batuen” aldarria, “Estatu Batuen” antitesia ebokatzen duena, desio ezinezkoa dela, gizateariaren maila primario honetan behintzat, baina, adimenak ez bada, eboluzioak eroango ahal gaitu harantz, noizbait, nonbait, infernuan baino ez bada ere.

BANANGUE, BIÑANGUE

Gora ta gora puntapijue
eta gorago zerue.
Hankarik jaso ezin badozu
makurtu eixu burue.

Jantzari-jantza Anbotopeko
erromerijjen sanue.
Krabelintxu bat belarrijjen-da
larrosa bille banue.

Altza altza, Pelipe
zetan zaoz hor jesarritte.
Zu ikusteko etorri die
amama eta aittitte.

Gure mutil txikijjek
zolijek dekoz begijjek.
Biñangue dala-ta batera
altzetotzuz hanka bijjek.

Garaiko herri jagijje
jantzari-jantzien glorijje.
Hankie gora jaurti neban da
bertan geratu zan ijje.

Bizkaiko Garai herrian, dantza eta musika loturik joango ziren ekitaldi baterako, koplak zahar batzuk kantatzera gonbidatu ninduten. Orduan “Bizkaiko Bertsogintza I Izengabeak” burutua edo burutzear neukan eta, hainbeste koplak jasoak nituela, “banan-

go-biñangoen” doinu eta koplak kantatzea pentsatu nuen. Ale asko neuzkan doinu biotan kantatzekoak, inguru hartan noizbait entzunak edo ezagunak izan zitezkeenak eta, neure interbenzioari ezuste puntu bat ezartzeagatik, banangoan bi koplak berri eta binangoan hiru sartu nituen, aurkezpenean esanez: “Zuentzat hain ezagunak diran doinu eta koplak mota honetan, bakoitzean bi edo hiru koplak barri sartu ditut. Eurok zeintzuk diran igarten dauanari Gabonetan kerixak bialduko dautsoz”. Batzuek batzuei igarri zieten. “Bizkaiko koplak zaharrak” izeneko diskora eroatean, banangoko biak eta binangoko lehen-hirugarrenak sartzea pentsatu nuen, oso efektiboak zirela ikusten bainuen. Hauek beharbada maiteen dudana krabelintxo bat belarran eta larrosa bila irtetea da, gehienek koplak zahartzat jotzen zutena, nahizta bere lehen puntua, “dantzarik dantza Anbotopeko / erromeriaren sanoa” ez izan estilo zaharrekoa, aldarrikapen kutsua darion heinean, zerbait goratu edo bultzatu guran lez. Koplak zaharretan janari-edari, leku edo pertsona konkretuen edertasunak kantatuko dira, baina nekez egingo da ohituren aldepenik, erlijio gairen bat ez bada. Koplak zaharretan ohiturak bizi egiten dira, ez formulatu. Dantza erritmok halaxe koplatzen entzunak ziren sasoiko entzuleak zein zirraraturik gelditu ziren ikusteak ezustean harrapatu ninduen. Orduantxe hasi nintzen pentsatzen koplak zaharren emanaldiak abots hutsez ere deigarriak izan zitezkeela eta susmo hura esperientziak sobera baieztu zidan gero. Euskalkiaren barrukoei tradizioz eta ia odolez datozkien sentipenak berritzen zaizkie, euskalkiz kanpokoei, berriz, bizkaieraren hots hain ezberdinak exotismoaren lilura sartzen bide die. Zerbait ulertzea lortuz gero, eta hori a capella izaten da errazen, estetika berri eta oso adierazgarri baten aurrez aurkitzen da entzulea. Gero doinuen indarra eta bizitasuna jorik, inpaktua segurra da. Koplak zaharrei esker bizi izan ditudan esperientziak ez dakit nire iharduerako gozatsuenak izan ez ote diren.

Lehen koplak datorren “Puntapijue” dantzariak eta aurre-

kulariak hanka ahalik goren jaurtitzeari deritzo. Estilo onean egiteko, hankak ez du zorutik artez irten behar, erratz kirtena lez, belaun-okar baizik, eta azken aldera, paparraren pare inguruan, bat-batean luzatu. “Puntapijue” izeneko joko zail hau indartsu eta dotore egitea dantzariari estimatzen zaion alderdirik behinenetakoa da.

BESTE HILOTZ BAT

Errepika:

Zenbat samin, zenbat malko
zenbat ohe huts eta hildako!
Zer behar da bizirik irauteko?
Zenbat, noiz arte, zertarako?

1)
Beste hilotz bat eman digute
beste lagun bat ehortzeraz
beste herkide bat aurkitu dugu
itzultze gabeko xederantz
atzean buru makurrak oldean
lurraren dardara minberaz.

3)
Beste etxe bat ezarri dute
atari hutsera begira
berriro herri bat saminki doa
mendira edo hilobira.
Bizi zati bat harantz utzi eta
bera pizturik itzuli da.

2)
Beste gogo bat jarri digute
ezin jasanetik zintzilik
beste senide bat erraustu dugu
malkoak lurrari utzirik.
Nork altxatuko gaitu une hortan
besarkatu dugun etsitik?

Behin Anje Duhalde kantariak esan zidan: “Hitz batzuk egin behar dizkidak aspaldion daramagun hilen segida luzearen zama eta unadura adieraziz. Halako ezintasunetik heldu den auhen larri bat. Zenbat hil? Noiz arte?”. Honelako zerbait esan zidan. Alegia, militantziazatik heriotzari ematen zaion ikur garailea apur bat apalduzik, samin amaigabea nabarmendu. Etsipenetik hurbil egon daitekeen neke etengabe errepikatua. Horixe da galdera-zerrenda baten

bitartez leloak sentiarazi nahi duena. Gero lehen ahapaldiak hilotz bati hilerrirantz laguntzen ipintzen gaitu. Nola aurki genezake herkide bat “itzultze gabeko xederantz”, hila dela suposatzen baita? Hemen hilerrirantzko irudi ezberdin asko dagoz eta bat da nola berandu samar iritsi denak, edo jendetzaren handiz urrundik jarraitzen duenak, norbaitek bete behar baititu bazterrak ere, herkide bat joanean aurkitu duen, baina distantziazatik, andariak bereizten ez direla, edo heriotza haren sinestezinetik, hila bera doala iruditzen zaio, hilkutxa bizkarrean daroala, “itzultze gabeko xederantz”. Eta atzean segizio burumakurra, benetako saminean halaxe izaten baita, lurrak ere bere dardara minbera doluminera ateratzen duela, pauso-hotsaren ondorioz ulertu behar dena. Ahapaldi honetan “ehortzeraz, xederantz, minberaz” oinek oker eman dezakete bertsolaritzako errima arau ohikoetan. Zalantzan egon nintzen eta, esanahiari moteldu gabe, hirurak berdintzeko modu egoki bat aurkitu banu, beharbada horixe egingo nukeen, baina laster pentsatu nuen, kanta eta kontestu honetan, pasagarri ez ezik, adierazgarriago dagozela honelaxe. Bigarren ahapaldian espetxeko ziegan zintzilik aurkitu dituztenak neuzkan gogoan, “Katxue” elorriotarra, esaterako. Hemen ere errima ez da ohikoa, baina bai nire gustukoa. “tzilik-tzirik-tsitik”. Zintzilik ez dago zerbait fisikotik, sentipen batetik baizik, ez da hilotz bat, gogo bat baizik. Eta gu haren oinetan ahozpez, etsia besarkatzen. Egokera horretan malkoak ez dira isurtzen, “lurrari uzten” baizik. Neu egon nintzen “tubo”ko zeldan dakust dena, sapai ertzeko leiho horizontalaz beste guztia lurraren paretik beherantz ehortzia. Hirugarrenean etxeak esanahi bikotxa dauka, euskaldunentzat hain berezko denez. Alde batetik etxe-eraikinak barrutik kanporantz begiratzen du, leihoetatik barik ataritik oraingoan, eta atarian ez du inor aurkitzen. Etxe hutsa kanporantz begira eta han ere ezer ikusten ez duela irudikatzeak zarrastatu egiten nau. Bestetik etxea edo etxeakoak, familia, kanpotik atari hutsera begira dagoz, geratu egin dira, aurreratzeke bildurrez, etxe hutsera sartzeko ikaraz. Herri bat saminki, “mendira edo hilo-

birá”. Hilobira hilotza han uztera edo mendira errautsak zabaltzera. Bidaia mindu horretan bizi zati bat harantz utzi duen herria, “bera pizturik itzuli da”. Ezin nuen kanta etsipen osoan amaitu. Herria beti itzultzen da hilerritik, ez dakit pizturik, baina bai bizi-rik. Kanta-hitz hauek nik egindakoetatik gehientsuen maite ditut, hain testu labur eta ustez argian hain erlazio asko eta bortitzak azaltzen direlako.

BIDE BERRI, ARGI BERRI

1)

Atzo zen egun arrunt baltza
larritasun, zalantza
gaur badut zernahitako arnasa
hau grina bortitza, bizi-poza.

Errepika:

Bide berri, argi berri
asmo berri, kemen berri
eginkizun irekiak
maitatzeko lagun berriak
bakartatean nengoenean
amesten ere ez nuena
Bide berri, argi berri
bizi berri, den dena.

2)

Atzo zen egun biluzia
hutsa eta etsia
gaur nago berjaiotzen hasia
lagunen laztanak berbisia.

Bide berri, argi berri...

Will Tura belgikar kantari ospetsuena omen denarentzat euskarazko hitzak jartzeko eskea etorri zitzaidan ez dakit nondik bueltan. Poematxo bat, edo ideiak behintzat, ez daukat oso gogoan, bidali zidaten eta nik hura euskarara egokitu beharko nuen, neuk nahi nuen modura, zinta batean hartutako doinuaren arabera beti

ere. Ez zen hitz soil batzuk bidaltzeaz amaitu lana. Jean Kluger bitartekariak (eta ekoizleak nik uste) lantzean eskari zehatz bat egiten zuen. Batean, esaterako, doinua ikasi eta testua grabatuta bidali behar izan nuen, bai kantuz, bai deklamazioz, kantari belgikarra ahozkapenaz ondo jabetu zedin. Euskal Herrian hainbesteko zehaztasunera ohitzeke zegoen batentzat bazen nahikoa arazo. Emaitzak ere halaxe ateratzen zaizkigu gero. Egindako lanaz ia ahazturik nengoela, konpact dotore bat iritsi zitzaidan, non hamabost hizkuntzatako hamabost kantetatik hamairugarrena (horrexek hunkitu ninduen gehientsu) hauxe zen: BIDE BERRI (Nieuwe wegen) Will TURA / Nelly Byl / André Lefevre / Basque lyrics: Xabier Amuriza”. Kanta bakotxak hizkuntza bakotxari dagokion bandera dakar eta disko batean behintzat hortxe dakust gure ikurrina ere beste guztiekiko berdintasunean, batetik hamabostera honelako zerrendan: italiara, grekoa, espainola, suediera, portugesa, irlandar ingelesa, frantsesa, katalana, alemana, ingelesa, txekiera, hungariera, euskara, daniera eta azkenik kantariaren beraren nederlandera. Nonbait agertzea kidetasuna bada, hortxe nago ni ere inork ezagutuko ez nauen lekuan, baina behintzat nire hizkuntzaz oroitutua dira (dagozenak baino askoz gehiago falta diren arren zerrendan), segurrenik Europako zaharrena izateak ematen dion bitxitasunagatik. Inguruko hizkuntza handiak hatz luzez isekari irudikatzen ditudanean (“euskara gaizoak laster galdu behar du”), erantzuteko gogoak ematen dit: “Euskara gaizoak daroan beste mende lurrean egiterako, zuena ere gaixotuko da nondibait”. Baina ez diet ezer esaten, gaitzak ustekabeen harrapa ditzan. Bitartean, segurrenik inoiz zapalduko ez ditudan laterrietan, ezagutzen ez dudak kantari batek askoz gutxiago ezagutzen ditudan entzuleentzat nire hitz batzuk zabaltzen dituela jakiteak kosmogoniarantz destxokotu nau, nahizta ni baino ahaltsuago den grabitateak (behingoz neure oneritziz) txokoan barrurago tiratzen didan. Aukeran edukitzera, beharbada ez nioke uko egingo munduz mundu ibiltzeari, baina nago orduan ere ez ote nintzatekeen txoko ibiltari bat besterik izango.

DISPERTSIOA

1)

Izan behar genukezu
Bi elkarren barruti
Ez bazeunde, ez bageunde
Hain elkarren urruti.
Izan behar genukezu
Bi elkarren barruti
Eta ezin izan baizik
Bi elkarren erruki.

2)

Urrutira hel ninteke
luzaturik be beso
ez bazintu ezpataren
jaunak atxiki preso.
Urrutira hel ninteke
Luzaturik bi beso
Zure azal gordeetan
Idazteko bi bertso.

3)

Urruti ta preso ere
Axolik ez lidake
Zure begiak ikusten
Utziko balidate.
Urruti ta preso ere
Axolik ez lidake
Bizi banendi zu eta
Denak itzuli arte.

4)

Ezin zaitut bisitatu
Neure barruan baizik
Nahi bazaitut jantzia ta
Nahi bazaitut biluzik.
Ezin zaitut bisitatu
Neure barruan baizik
Hor zurekin nago beti
Zoriontsu naiz kasik.

Imuntzo eta Belokiren “Louisianara noa” diskorako hitz batzuk eskatu zizkidaten, presoen dispertsioa eta etxetiko urruntasuna kantatuko zutenak. Honelako gaiek, hain mingarriak eta hain bortizki politikoak bestalde, jite dramatikogia hartzeko arriskua daukate. Ez legoke gaizki. Gai gogor bat hurbilki sentitzen duenak zergatik ez du hurbilki kantatuko hurbilki sentitzen dutenentzat? Batzuetan iruditzen zait urruntzea delakoa traizioa edo koldarke-ria ez ote den, nolabait hurbilki sentitzen duenaz beste inor hun-kitzerik nekez lortzeko gainera. Beste bide bat, zailagoa noski, dis- куртsoa poesia bihurtzea litzateke, edukia minkunki desdrama-

tzeko arriskuarekin. Mezuaren bortiztasuna tonu ia maitagarriarekin bat egitea lorpen handia izan daiteke, emaitza halakoa izanez gero, baina norbaitek esan lezake, kasu honetan dispertsioa milaka kilometrotan jasaten dutenek: “Ez gagoz poesietarako!”. Gaiari bueltaka hasiz batera, ondorio insegurreko trataera horretaxe saiatzea erabaki nuen. Ez dirudi oker handirik egin nuenik, oraindik inork ez baitu protestatu, nahizta honek ere ez daukan ezeren garantia izan beharrik, euskaldunen artean behintzat. Kezka literarioei buruz, ezker abertzale zabalki hartuan batikbat, gaitza ez da hainbeste gaitasun kritikorik eza, enteratu ere ez egitea baizik. Bertsoetara itzulita, puntu errepikatu berari bi jarraipen ezberdin emateak alde batetik intimitatea eta bestetik gaiaren adarkatze mugagabea iradokitzen du. Lehen bertsoko “genukezu” formak intimitatea indartzen du. Hiketan ere egin zitekeen, baina maskulino-femeninoen forma bitzuak efektua edo konplikatu edo partzialdu egingo zukeen. Eta gainera erregistro horri ia biguina hartzen ere hasia nago, hain baitago igurtzia, sarritan desagoki. Zalantzarik handiena, mezu aldetik insolentzia bat eman dezakeen amaierako “zoriontsu naiz kasik” pasartean izan nuen. Nola liteke maitearen urruntasun, bakartasun, helgaiztasun dramatikoa norbere baitako egoismo mistikoan kasik zorion bilakatu? Temara joez gero, nork ebalua lezake “kasik” hori? Onena dateke erabakitzea berdin adieraz dezakeela etengabeko gomuta zein maitasun pentsatuaren karnaltasuna. Bateragarriak ote dira? Kasik.

DROGARIK EZ, BAI

1)

Drogarik ez, bai
ez nola bai nola ez
normalkuntza bai
bere mende ez.
Aska gogoa
eta bizi eguna
Udaberritik datorkizuna
moztu edo
ken saltzailea
ez jazarri
zalea
Zigor eta
penak norentzat?
Azpisare
mafioso hoientzat!
Drogarik ez, bai
ez nola bai nola ez
normalkuntza bai
bere mende ez.

2)

Drogarik ez, bai
ez nola bai nola ez
normalkuntza bai
bere mende ez.
Ikus zer duzun
eta zer falta zaizun
lanik ezari
lanez erantzun.
Elkar-lana
zuzpergarria
Lurra, Euskal
Herria
Kirol, martxa
arte, bizia
hor daukazu
drogaz beste guzia.
Drogarik ez, bai
ez nola bai nola ez
normalkuntza bai
bere mende ez.

Drogari buruzko kanta hau ere hitz hutsetan geratu zela uste dut. Ez naiz ondoegi gogoratzen. Gogoan daukadana da non batu ginen, Bilboko San Frantzisko kaleko egoitza batean, kantaren eragileen sentikeraz eta helburuaz jabetzeko. Aspaldi zapaltzeke nengoen eta zapaltzeko gogo gutxi ematen didaten kale haietan drogaren aurpegia ikusi egiten da eta, egia esan, ikaratu egin nau, baita higuinarazi ere. Oso zail egiten zait gai horretaz naturalki eta konprenstioz hitz egitea. Espetxean bizi izana dut drogaren hurbiltasuna,

ez oso barneki ere, ahalik urrunen eta muzintien kokatzen ahalegintzen bainintzen. Bildurra menperatzen saia zintezke, ustezko garaipen txikiek nortasuna handitzen dizutela, baina higuinaren aurka ez daukat estrategiarik. Ni baino gehiago da. Droga mundua nire mundu-ikuskerara fugazki benignoen mamurik itogarrienetakoa da. Inguru guztietatik zulo besterik ez den zuloa. Eman zizkidaten ideiak eta filosofia kantuan sartzen ahalegindu nintzen eta lortu nuela uste dut, baina aukera bata (gaitzespena) zein bestea (normalkuntza), asmatzerik ez dagoen onena barne, gaitz txikiago baina oso handitzat jorik beti ere. Armada bezalatsu. Nahitazkoa ala bolondresa? Popularra ala profesionala? Kakazaharra! Armadaren normalkuntzaren aldeko kanta bat eskatuko balidate, ez dakit zer egingo nukeen. Nahitaez militarra izan beharra baino aukeran uztea hobe izango da, baina niri ez eskatu kausaren aldeko berotasunik, amorruren kontra-garra ez bada, zeina ez dakidan azkenean iraunkorki pilatzen ari zaidan sentipen duin bakarra ez ote den. Droga kontuan iristen naizen sentipenik baikorrena drogazaleak ematen didan tamal inpotentea da. Bai, bai! Badakit nik edaten dudan alkohola eta erretzen ditudan zigarrotxoak ere drogak direla, baina zertarako sartuko naiz barrurago eta argibide gutxiago aurkituko dudan labirintoan? Bila beza bakotxak bestela ere gainean den heriotzarantz hurbiltzeko modurik tristeena. Askatasunaren ahoetariko bat.

EGINEN KOPLAK

- | | |
|--|--|
| 1)
EGIN egin genduen
orain hogeit urte
itxi dauskue baina
desegin ez uste. | 3)
EGIN egiten dogu
“Euskadi Información”
Ez dira gailenduko
ez Aznar ez Garzón. |
| 2)
EGIN egingo dogu
ganera izango
dana lehen baino sendo
eta gazteago. | 4)
Hasia egina da
egina urrea
EGINentzat laster da
urrezko barrea. |

Aulestiar batek, 1998-9-13an, bertso batzuk eskatu zizkidan euren herri aldizkarirako, EGIN egunkariaren itxieraz. Kopla hauexek egin nituen. “Euskadi información” EGINen itxieratik GARAREN sorrerara bitartean kaleratu zen egunerokoa izan zen. Kopla simple hauek ez daukate unearen eta bertsolariaren langintzetako baten lekukotzaz haragoko baliorik. Edo bai. Xarma txiki bat badaukatelakoan nago, lehenengo hiru koplak hasieretik (“EGIN egin genduen”, “EGIN egingo dogu”, “EGIN egiten dogu”) bata bestearikiko eta denek batera laugarren koplako hasieraren parafrasi gisan dakarten intentzioan. Joko horixe baliatu nuen bestela guztiz arrunta izango zen sortatxo honi itxura literarioagoa emateko, ohartutakoan, xarmagarri gertatzen dena. Denboraren buruan, iruzkinok idaztera nindoala, lehen kolpean neu ere ez naiz konturatu. Horregatik idatzi dut “kopla simple hauek ez daukate... haragoko baliorik”. “Eta zelan egin naioazan nik balio bako koplak?”. Barriro arretazago irakurtzen hasi naiz eta: “Joño! Hau polita dok”. Orduantxe jabetu naiz aipatu intentzioaz. Bere lehen puntua huneraino sartua daroan kopla zahar batek dio: “Hasiak egina dirudi / egi-

nak urregoria // mila neska baino gurago neunke / etxean zorro handia”. Ezin diot laugarren koplari beste amai posibleetako bat emateko tentazioari eutsi. “Hasia egina da / egina urrea // urrerik ederrena / gogozko barrea”. Eta “gogozko” honek Xalbadorren bertso famatu bat gomutarazten dit, lehen bi puntuetan zioena: “Irria beti ez ditaikela / bihotz barnetikan egin // gogorik ez balin bada ere / hori egin daike berdin”. Honek beste gauza bat gogorazi dit, baina nori ardura dio?

EGUNEZ EGUNEKO

- | | |
|-----------------------|--------------------|
| 1) | 2) |
| Egunez eguneko | Ilargiak atzetik |
| gauean gaueko | darama iluna |
| ez gabiltz ondo baina | ohetik jaikitzean |
| nahi baino hobeto. | laino zen eguna. |
| Kantatzen dugu zuek | Kantatzen hasi eta |
| ongi izateko | argitu da dena! |
| bestela ez ginaden | Zer ote da, maitea |
| ohetik jaikiko. | soinuak duena? |

Bertso pare hau Joseba Tapiarentzat egin nuen, edo halako oharra daukat behintzat. Erriman ez dira bertsotan ohi den bezain zorrotzak, nahizta ez dudan inondik ere uste laxoegiak direnik. Paradoxakoa badirudi ere, bat-batean errima zorrotzagoa behar da. Argi dago hemen, efektu direktoagoak lortu nahi direnean, errima dela presentzia nabarietako bat, testuaren kalitatean ez baitago mirari etengabea jarduterik. Jarrietan, ordea, sarritan murriztegia den errima laxoturik, testuari beste jagitasun bat eman dakioke. Eta zer esanik ez, kanta baten hitzak direnean. Orduan errima osagai remotoa da, parera badator (ekartzen saiatzea ez dago gaizki), balia daitেকেena, baina, estugarri dela somatzen bada, zabaltzeko kezkarik eduki behar ez dena. Bertso hauek kantuairen eta batik-bat soinuaren goraipean eta apur bat gangar-airean eginda dagoz. Zer ote da lehen bertsoko ondo ez ibiltzea, “nahi baino hobeto” ibilita? Bide batez, “gangar” adjektiboak hiztegieta ikusi ez diodan esanahia dauka hemen. “fatuo-a; engréido-a” diote. Ba, ez bata ez bestea. “Gangarrerria”, horiez gainera, halako lokatasun bat da, portera zoranga, baina zelebre samarra.

ENE IZAR MAITEA

1)

Ene izar maitea
maite ederrena
ez bazina gugandik
hain urrun zaudena.
Maite ederrena
hain urrun zaudena
hurbiltzen ez bazara
alperrik da dena.

2)

Ilargia islatzen
ibai barrenean
zertako dut izarra
zeru gorenean
ibai barrenean
zeru gorenean
ez badut iristerik
betiraun denean?

3)

Eskatzen dut izarrak
ezkuta daitezen
zeren nekatu bainaiz
etsita hain zuzen
ezkuta daitezen
etsita hain zuzen
itxaropena beti
hain urrun ikusten.

4)

Ederrak distantzia
behar du aldare
belaunikatzekotan
ez naiz ederzale
behar du aldare
ez naiz ederzale
edo, banaiz, behar dut
aski dohakabe.

5)

Gauden gu hemen eta
izarrak beude han
sar bedi baimen gabe
lainoa tartean
izarrak beude han
lainoa tartean
zatoz berriz, maitea
bihar goizaldean.

Kopla hauek, ez denak, Kepa Junkeraren kanta baterako eginak, edertasun urrunaz eta txundigarriaz burlatzen dira, edertasun eskuragarria laudatuz. Distantziak ez dira, noski, maila fisikoan ulertu behar, edertasunaren esperientziari bitartean jartzen zaizkion eragozpen moralen edo mitifikazio amesgarrien mailan baizik. Sarritan distantzia beneragarritasun bihurtzen da, zeinaren aurrean "belaunikatzekotan" ez naizen ederzale. Baliabide nagusia izarren ohiko metaforagintzari (beste ikuspegi batetik benetako edertasun eskuragarria izan daitekeenari) buelta ematea da. Edertasunaren estaltzaile litzatekeen "lainoa" hemen babesle, debekua-
ren ezkutatzaile bilakatzen da, baita, zergatik ez, gozamenaren bildukin suabea eta totala ere. Sorta hau maiteenetakoa dut, oso ideia zehatzak, ia filosofikoak, ustez elegantzia lotsagabeaz azaltzen direlako. Ustea neurea da, noski, baina badut konfiantza beste norbait ere engainatuko dudala.

GAUR EZ ZARA ITZARTU

Errepika:

Inor ez mintzearren
isilduko banintz
ez nuke isilduko
denen mina baizik.

1)
Gaur ez zara itzartu
nirekin goizean
bakarrik utzi nauzu
neure ostertzean.
Egunari berriro
gerritik heltzean
itzalak eskatu dit:
"Utzi ni etxean".

2)
Bilatu zaitut begi
zeharkoien xarman
lanaren abiadan
uhinen marruman.
Bakarrik bazkaldu dut
platerekin teman
leihoan ez dut zure
formarik hauteman.

3)
Zurrutak jabetu nau
zutaz une batez
aparra joatean
berriz nago lehen lez.
Bihar ere itzartzen
banaiz zure gabez
ezin dut segurtatu
jaikiko naizenez.

Bertso hauek, bere leloarekin, Anje Duhalderen kanta baterako egin nituen, berak emandako ideia batzuen gainean, orain zeintzuk izan ziren zehatz gogoratzen ez badut ere. Maitasun joan baten

(ez dut esango “galdu” baten, nahizta izan daitekeen gau batekoa) min desesperatua egun guztira zabaltzean, eginbehar inebitableen hutsune aktualizatuak zuloaren handitzaille besterik ez dira. Egunari “gerritik heltzean”, ikaragarri egiten zait itzalak etxean uzteko agintzea. Eguneko xarmek, abiadurak, marrumek, lehenpremiekin, “platerekin teman” bigunduriko bakartateak... denak naroa bere gainean edo barruan daroan hutsera, behar den forma-rik hartu ezinean. Leioa ez da zulo bat besterik, iheserako konfiantzarik ematen ez duena, soraioki ezkututzen baitu norantz jauzi egin daitekeen, bietarantz barrunbea ez bada. Zurrutaren erremedio unibertsalak une bat apartu du, baina laster ezereztu da, bere izaerari dagokionez. Bihar goizean ez dakit jaikiko naizen. Zer egin da? Ahalbideak airean gelditzea, elementu alienoen esku bezala (hargatik “ezin dut segurtatu”), heriotz-usaina ere nabari dela, horixe da hirugarren ahapaldia indar kezkarriaren uzten duena. Batzuetan efektiboena izan daitekeen indar soil eta danbakorra inpreziosoak leundu egin lezake, baina bai bildurraren galeriak zabaldu ere. Kanta honek adierazten duena inoiz ez zait gertatu, baina berdin-berdin sentitzen dut. “Hori ez zitekek!” —ihardesten dute, baina badaitekeela setatzen banaiz, nola neur genitzake sentimenduen intentsitateak? Beharbada norbere baitan bereiz daitezke gertatuen eta gertagarrien arteko marrak, baina gogotik gogora analogien hurbilpena edo urruntasun erremediogabea bakarrik gertatzen zaigu eta horrixek esker bizi da edo balio du literaturak. Ezsentitzailea izan daiteke sentiarazle. Absolutuki eta zientifikoki astakeria izango da, baina nik sinestu egin nuen behin batek beste bategatik esan zuena: “Ni harritzen nauena da nola dezakeen hain edertasunez maitasuna kanta, berak fisik sentitu gabe”. Nire erantzuna erraza izan zen: “Artista zelako”.

Bertso hauetako maitasun ihesiak, behin betiko ausentziak ez dauka amodiozkoa izan beharrik. Beste edozein galera: ilusio bat, herri bat, hizkuntza bat, arte bat... Zerbait handiak alde egin eta, hala ere, eguneroko bizimoduari jarraitu egin behar. Behar-

bada kantariaren asmoan maitasunezko bertsoak izango ziren, baina neuk orain, urte batzuen buruan berrikusi ditudanean, edozein sentimendu sakoni aplikatzekoak direla sentitzen dut. Ez dakit objektua kontzientki utzi nuen indeterminazioan, baina honela kanta baliosagoa iruditzen zait, bestela egin izango nuena baino. Kanta batean leloa oso inportantea izaten da eta oraingo honenak konkrezio indibidualetik baino zabalago ulertu behar dela ematen du.

HERRI URRATS 1991

Euskara, Euskara
jalgi hadi bestara.

1)
Euskararen erromes
heldu gira hemen
Herri Urratsen deia
entzunik Senperen.
Ez behatu bidea
zenbat luzatzen den
emazue urtean
urrats bat bederen.

2)
Mendeetatik heldu
haizen mintzo eder
plazaratu hintzena
Beñat bati esker.
Jalgi bestara eta
hire xarma ager
besta denak euskaraz
izan ditene laster.

Beñat Etxepareren esaldi famatuari hitz bat aldaturik, urte hartako Herri Urratsen lema “Jalgi hadi bestara” izan zen. Hots, euskarak kalea, lagunartea irabaz zezala. Izan ere, errazago lortu dugu, lortu dugun heinean noski, euskara eskolara eta unibertsitatera jasotzea, dibertsiora zabaltzea baino. Mezu propioa, kantak ekitaldi jakin bat identifika dezan beharrezko izaten dena, ahapaldi bakarrean adierazitzat eman nuen eta bigarreneko uztea erabaki nuen. Lehenengoan “Herri Urrats” bera hartu behar nuen orokorrean eta, jakina, bigarrena baino askoz dotoreago atera zen. Komeni ere halaxe zen, ondorengo mezu esplizituari hegada zabalagoa emateko. Ez dakit gaztetandik dakardan Iparraldearekiko joran debekatuagatik (lehen aldiz muga misteriotsua apaiz nintzela iragan nuen bi ordurako) edo beti besta-giro intentsoki bilbetsuan (errefuxiatuen presentzia ugariagatik batez ere) magaltzen gintuen urtegi inguruen xarmagatik, edo ez dakit zehazki zergatik, lehen ahapaldia oraintxe ere gehienik atsegintzen nautenatarikoa da. Errromesen ebokazioa, dei baten jarraipena, mendiz handiko adarrean ima-

jinatzen dudana, urtean urrats bat, errimaren ozentasuna... Beharbada gáinditu ezinean utzi nuen zailtasun batetik dator guztia. Hirugarren puntuan “zenbat luze den” utzi nahi nuen, baina silaba bat falta zuen. Ez dira berdin “zein luze den” (edo “bai dela luzea”), “zer luzera duen”, “nolako luzera duen”, “noraino luze den” eta “zenbat luze den” (edo “zenbateko luzera duen”). Nik haxe nahi nuen. Euskal gramatikak ez du “zenbat” adjetiboekin horrela onartzen. Gaztelaniak ere ez dut uste egitura hori daukanik. Ingelesak bai, ordea, eta euskaraz ere erabilia izan delakoan nago eta, izan ez bada, premia ziztrinagoko mailegurik hartu izan da, hain zehatza eta praktikoa berau, konparatiboan lasai geugandua daukaguna: “Ni baino zenbat luzeago (lodiago, handiago, zaharrago...) zara, ba, zeu ere?”. Lasai erabiliko nukeen, baina silaba bat falta zen. “Zenbatsu” ez nuen jarri nahi, kontzeptua difuminatzen baitzuen. “Zenbatez luze den” utz nezakeen, baina “zenbat” era horretan erabilia atrebentzia bazen, ez nuen egitura atzizki batekin gehiago konplikatu nahi. Banuen hiru silabako sinonimo bat, “zeinbeste” (“zeinbeste luze den”), Bizkaian ezaguna, baina lokalismo hanpatua bertan ere, Iparraldeko kanta baterako urrunegi nekusena. Azkenean “zenbat luzatzen den” utzi nuen, nahizta esanahi ezberdina daukan. “Zenbat luzatzen den” esamoldeak “zenbat luzatzen ari den” esan nahiko luke, hots, bide laburrago itxaron zitekeena luzatzen ikusi arren, ez behatzeko horri. Nik bide osoaren (dakigunaren eta ez dakigunaren) luzera, sentiera pertsonaletik at dagoena, adierazi nahi nuen, errima bera ere politago geldituko zelarrik (“gira-hemen, Senperen, luze-den, bederen”), baina silaba sorgin baten gorabeherak galerazi zidan. Beharbada gaur “zenbaten” jarriko nuke (“zenbaten luze den”). Honek ere “zenbatez” formari ikusitako eragozpen berak lituzke, baina “n” atzizkia ahapaldiaren sonoritate orokorzarrekin batago dator, “zenbatez” formak zailduko lukeena. “Ez behatu bidea / zenbaten luze den // emazue urtean / urrats bat bederen”. Ba, bai. Gaur berau utziko nuke. Norbaitek esango du: “Horrenbeste pentsatuz gero, neuk ere zeozer

asmatuko nitek”. Pentsakizunak oztopo bat (kasu honetan silaba baten eskasa) gainditu beharrak abiarazten ditu. Ordainen bila hasirik, batzuetan berbertan agertzen da, dela sinonimo bat, dela edozein gehigarri edo luzagarri. Silabak gainez dagozenean, laburgarriak beharko dira. Baina inoiz gertatzen da konponbiderik ez aurkitzea, edo aurkitzen denak esanahia interesatzen ez den alderantz aldatzea, edo zerbaitegatik esamolde itsusia edo nahaslea begitantzea. Orduan buruari hamaika bira eman behar izaten zaio. Ez dago aginduen beharrik, berak ematen baititu, batzuetan alperreko ahalegina izateraino. Hortxe dago sena, pentsatzeak beti ematen ez duena, hots, ahalegina galdutzat ez emateagatik, konponbide desgokia edo dudazkoa uztea. Prozesu hau ez da beti kontzientea izaten. Batzuetan zailtasuna ustez duinki gainditu dugu, baina barruak engainatu egin gaitu. Ahaleginak estetikaren pertzeptzioa baldindu digu. Aurkitzen asko kostatakoak ez duela ezertarako balio onartzeko, sena eta sen landua behar da. Bera gabe, zenbat eta gehiago pentsatu, oker handiagoak etorriko dira. Pentsatzea ez da ezeren garantia, ondo pentsatzea baizik.

IBILALDIA 86

1)

Ikastolak sortzeko
heldu zen eguna
helburu bati eman
nahirik erantzuna.
Irakaskuntza izan
zedin euskalduna
herriko haur guztiak
bilduko zituna.

3)

Eskola publikoa
da gure aukera
guraso ta irakasle
saiatuz batera.
Hizkuntza behar dugu
zokotik atera
eskolatik etxera
etxetik kalera.

2)

Geroztik hainbat urte
dugu igaroa
gaur ere zutik dago
orduko gogoia.
Zer den egina eta
zer egitekoa
oraindio zalantzan
daukagu geroa.

Hitz hauek beste gabe adierazten dute Ibilaldi hartako antolatzaileek eman zidaten edukia. Oso gogoan daukat nola egun batez eurekin beren-beregi batu nintzen. Apunte piloia jaso nuen, orri osoak, zer ziren eta zer nahi zuten. Historia, bilakaera, publikorantz norabidea, zailtasunak, instituzioekiko tirabirak... Bizkaiko ikastolen filosofia ez zen orduan denean nagusi zegoen EAJ-PNVren batera gustoko eta Ibilaldia erdi boikotatzen ere hasiak zirela uste dut. Hirugarren bertsoan ageri den “publiko” kontzeptuak gatazka mingarria ekarriko zuen handik urte batzuetara, oraindik ere guztiz sendatzeko dagoena. Ez daukat zehatz gogoan orduko ondo-

eza zertan zetzan, baina bai halako tentsio bat zegoela. Testu eta kontestu guztien eta datu eta data pila baten jabe eginik, jakinaz nien informazio hura guztia ez zegoela kantan islatzerik, nahizta horrenbeste eurek ere aisa ulertzen zuten. “Ez, ez, ez! Hori heuk antz bat hartzeko duk”. Hainbeste konturen artean, hautu bat egin behar zen eta hortxe dago honelako bertsoen gakoa, gehienez gutxi behar izaten baitira, bi edo hiru. Historiarik ezin da kontatu, formula(zio) itxurarik ez zaio eman behar, are gutxiago panfleto usainik... Bo! Apur bat pentsatuz gero, hots, apur bat “ondo pentsatzen” jakinez gero, ez da hain zaila ere. Informazio asko ematen duena gehienez bueltan oso gutxirekin konformatzen da. Entzun baldin badiozu, hark bete du bere egitekoa. Halaxe gertatu zen hemen ere. Bertsoak eman nizkienez, pozik hartu zituzten eta neuk ere atseginez gogoratzen dut urte hartako antolatzaileekin eta Ibilaldiarekin, orohar, izan nuen harremana.

IBILALDIA ELORRION

1)
Babestu nintzan Anboton
Ez dakit seguru nagon
Sorgin danak erretzeko
Agindu dabe Durangon.

2)
Erdella eta Besaide
Txintxibirin aidez aide
Elorriok egin gaitu
lora barrien partaide.

3)
Oizen dabil nire dama
Bizirik libratu dana
Sorgin fama daukanetik
Gehiago maite dodana.

4)
Errebonbillo bonbillo
Ibilaldia barriro.
Arinago egin balei
zetan ibili astiro?

5)
Mugarrako hatxa altu
Berak ezkutatu gaitu
Sutatik libratu eta
Amodioan trabatu.

Elorrion egin zen Ibilaldian Durangaldeko musikarien artean disko bat egitea pentsatu zuten. Nik Berrizko Eneritz trikitilariarentzat egindako kopla hauexek egin nituen. Koplaritza tradizionalan ez da sortazko argumenturik izaten. Alderdi estetikorik deigarriene-takoa bera izanik, horrek ez du esan nahi koplaritzak beste era-bilpenik eduki ez dezakeenik. Kasu honetan, sortaren argumen-tua, edo beharbada zehazkiago, motiboa bistan dago. Hala ere, saia-tu nintzen koplaritzan hain maiteak eta maitagarriak diren ele-mentu naturalez baliatzen, sorginak barru, hauek izpirituak baitira. Elorrioko erreferentziak ere (“txintxibirin”, “errebonbillo bon-billo”) elementu naturaletan sartzen dira, “lora barrien partaide” bera bezala, Ibilaldiaren lema “loran gagoz” izan baitzen. Kopla

sorta nolabait argumentuduna izan arren, ez dago era diskurtsibotan garatua, koplartzaren estilo bisual eta saltarian baizik. Lortua den ala ez, hartan saiatu nintzen eta teoriari berrekiteak gutxienez arriskua ekar dezake, hurrengoan beharbada praktikan ere deskoidatzeko. Edertasuna sarritan deskoidu dohakabe bat besterik ez da. Bera hortxe dago, nabaria, etengabea. Gakoa da norbera haren ondoan postura egokian jaustea, beharbada errakuntza kritiko baten ondorioz. Sorginak badaitezke, zeren sorginkeriak badira, euskara biziaraziko duena bat.

KOPLARI GATOZ BERRIZTIK

1)

Koplari gatoz Berriztik
Oizko beleen azpitik
non dagon ez badakizu
jarraitu geuri atzetik.

3)

Berrizen txuleta ona
hazurra jaten jakona
gero porrusalda bataz
arintzen da bihamona.

2)

Berrizen txirrindulari
handiak eta ugari
Marinok gozotasuna
emon dautso kirolari.

4)

Berriz hantxe daukazue
gogoratzen bajatzue
non bizi garen galdetu
eta esango dautsue.

Kopla hauek Berrizko San Pedro Txiki auzoko Ereña jatetxeko neba-arreba trikitilari entzat egin nituen, parte hartzera zihoazen txapelketaren baterako. Pare bat topikoren gainean osatutako sorta honek ez dauka inolako pretentsiorik. Batzuetan pasadako enkar-guetatik emaitza dotoreak ateratzen dira, baina bistan da hau ez dela kasu horietako bat.

KORRIKA

Bat korrika, bi korrika
milaka korrikari
Euskal Herri guztietan
denok bai Euskarari.

1)
Batzuk dira euskaldunak
besteak euskaldungai
hizkuntzaren jatorria
ez dugunak galdu nahi.
Odoletik baino hortik
gara gehiago anai
guk ere bai, zuk ere bai
esan Euskarari bai.

2)
Eguzkiak sor lezake
milaka argi zuzi
hizkuntzarik gabe gaude
hutsik eta biluzik.
Ez dugu nahi Euskadirik
Euskaraz izan ezik
Esan baietz eta korri
ez gero, orain baizik.

Hitz hauek Korrikaren lehen ediziorako izan zirela uste dut. Lehenengoa ez bazen, oso lehenengoetarikoa izan behar zuen. Doinua 1969. urtean “Derioko abadeen” GOGOR disko klandestinoan erabili genuen “Kantatuaz” izeneko kantarena hartu nuen, Jon Lopategik sortua berau. “Antzinako Historia” kontatzen ari naitzela dirudi, baina niretzat joan den asteburua baino berriagoak dira. Bertsoek argi azaltzen dutenez, “bai euskarari” zebilen orduko lematzat. Izen horrekiko kanpaina barruan, Euskaltzaindiak bul-tzaturik, San Mamesko betekada daukat gogoan, non Jon Lopate-gi eta biok izan ginen bertsolari. Hitz hauen Korrikak sasoi bere-tsuan izan behar zuen. Odolak asko tiratzen badu ere, batzuetan tirokatzeraino, hizkuntzatik “gehiago gara anai” delako arrazoa jo nuen orduan euskarari baietz esateko kinagarritzat. Denbora joa-nago eta indartsuago erizten diot hizkuntzak sortzen duen senti-pen kolektiboari. Euskal Herria nahikoa baikorki banatzen dugu

bi komunitatetan, zeintzuen azpiak pentsakera abertzaleak eta espainoltzaleak definitzen dituela suposatzen den. Beste banakuntza (gizarte euskalduna eta gizarte erdalduna) erabakigarriago dela esango nuke, baina ez naiz ausartzen, ondorio tristeegetara iristeko bildurrez.

MAITASUN AROAK

Maitale baten isil oroimena
entzuten ez den asperena
gogoan isil dabilena
ahantzean gelditzen dena.

1)
Haurra nintzela kontatzen nuen
nola maitemindua nintzen
guztiek irri egiten zuten
ta ikasi nuen isiltzen.

2)
Gaztetxo nintzen eta nioen
"Ez dakit norik maiteko nauen"
eta nenkien hura oroitzuz
eskolatik aldegin nuen.

3)
Gazte nintzela harrotzen nintzen
"nik ezin dut izan baten gai"
eta izen bat isiltzen nuen
hura izanik agian bai.

4)
Heldu nintzela aitortzen nion
"zutaz besterik ez dut maite"
eta isilik neraman hari
ezin esan "urrundu zaite".

5)
Azken azkenik maite nautenek
naramate beste mundura
batek negarrik ez du egiten
ene hilkutxan dator hura.

Bizitzan zehar egin ditudan kanta hitz ugarien artean "Maitasun aroak" hau maiteenetakoa dut. Anje Duhalde musikaren neurria eman zidan, gaia ere maitasunezko zerbait aipatu zidan eta kon-daira xume hau burutu nuen. Bosgarren ahapaldiak dioena oraindik ez dut probatu, baina uste dut horrelaxe gertatuko dela, aurrekoak nola joan diren ikusirik. Ni ez naiz maite-kanten zaleegia, gehienak gezur labainak besterik ez baitira, baina uste dut denok

daramagun maitasun ideal baten atabismoak salbatzen duela maitasun erreala. Usterik gutxienean gertatu ahal izatetik eskcluditu ezin den jauzi ideal horixe da (ideala, jauzia gertatzen ez deno edo gertatzen ez delako) maitasunaren adinik ezaren arrazoi naturala.

Nik umetan ezkontza txiki bat burutu izanaren gomuta zoragarria daukat. Umekeria izango zen, baina benetakoa! Ez genuen ezkontza kontsumatzeko maleziarik izan, baina beste gozamen guztiak inguruan ibili ziren, eta airean geratu ziren, hamaika urterekin komentura eroan nindutenean. Geroztik nire umezaro ahularen, nerabezaro minberaren eta gaztaro kontenituaren zelaian objektu idealak bakarrik geratu ziren, pentsamenaren inpunitatean libreki baina atzemangaitz mugitzen zirenak. Maitasun erreala ukitu nuenako, bizitzako eskarmentu guztiak hartua nintzen eta zelai ideal haiexei esker ikasi nuen maitasuna badenaren eta izan daitekeenaren arteko konposizio inprebisiblea dela. Sasoi batean uste nuen nire pasadizoa guztiz orijinala zela, baina gero beste guztien hitzak edo hitz-erdiak entzunez, (neuk ere ez ditut hitz osoak esan, esanda ere erditzat hartuko baitzaizkit), konturatu nintzen, bakotxaren abiatze eta bilakaera agian ezberdinetik eta sarritan kontrajarritik (idealetik errealera edo errealetik idealera), historia berttua kontatzen ari ginela. Horrexegatik egiten zaizkit gogaikarri maitasun kantak, denek historia berbera kontatzen dutelako, gehienez xehetasunetan ere alderik ez dagoela. Eta orduan pentsatu nuen: "Kantatuko al dut maitasunaren egia zerbaitxo, edertasunarekin zeri-kusia izan dezakeena?". "Maitasunaren aroak" bistaratzean, ez dakit zer agertu nuen gehiago, neure biluztasuna ala besteen ezkutua.

NAFARROA OINEZ 84

- | | |
|------------------|--------------------|
| 1) | 3) |
| Nafartarren lana | Zatozte bertara |
| mendeetan barna | loretik uztara. |
| euskaldun izana | Non bizi Euskara |
| Euskarak darama. | lur hontan ezpada? |
| 2) | |
| Euskara da orga | |
| Nafarroa borda | |
| igan hadi gora | |
| maila publikora | |

Xehetasunak ez ditut gogoan, baina uste dut mezua eta neurriak emanak etorri zirela. Ez dakit lema ez zen “loretik uztara” izan. Bigarren ahapaldiko “maila publikoa” bistan da berariaz aipatze-kotzat hartu nuela, bestela ez bainuen kanta batean horrela enun-tziatuko. Euskara Nafarroatik erauzia izana historikoki mingarria-go da, bera izan baita, izango zituen akats guztiekin ere, Euskal Herriak aldarrikatu duen Erresuma bakarra. Bai, bai! Lehenago ere euskaldunak zeozer izango ziren, hainbeste mendetan irauteko, baina non dagoz lekukotza haiek? Nafarroako erresuma zaharra bera ere urrunegi egiten zaigu. Geratzen zaiguna Nafarroa bera da, oinez edo hegazkinez. Betor lehen-mina kinagarri den heinean, baina historiara begiratzeak sarritan ernegua besterik ez digu eka-rriko. Ez al litzeteke hobe pentsatzea hasi berri dugun historia eder baten erdiestera goazela? Zer dakit zer pentsatu behar den, aurre-ra egiteko! Umetan aldasgorak ez nituen batere maite. Aldatsak izanaz gainera, herriguneko zarraparratik mendiko bakartaterantz ninderamaten eta beti joaten nintzen pentsaketan nondik aldas-gora saihestuko, albobide zelaiak, egiazkoak eta imajinarioak, egi-

nez. Itzulinguru luzeak eta apasionanteak planeatzen nituen, saiatu ere bai sarritan, baina azkenean hantxe agertzen zen nonbait gorantz egin beharra. Ez nuen lortzen aldasgora engainatzerik. Aita ere fantasioso samarra nuelarik, lagundu egiten zidan pentsaketa haietan, orduerdiko bidea ordubetea egin behar bazen ere. Hala ere behin, presa zeukalako-edo, bide zati bat goragotik “tirok, mutil! altza hankok!” agintzen gogaiturik-edo, neure teoriak azaltzen ari nintzaiola, hots egin zidan: “Aldatsa igoteko badakik zer egin behar dan? Pentsamentuak barrenean itxi eta igondakoan deitu, goitik behera harro-harro begiratu”. “Eta etorriko dira?” —galdetu nuen, pentsamentuak errekan utzi ahal izatea ebidentzia bailitzan. “Deituaz batera, oiloak kurrara lez”. “Hain arinak al dira?” —ekin nion berriro, gelditasuna luzatzearren, eta berak: “Haizea baino arinagoak, baina bizkarrean oso astunak dozak, batez be aldasgoran”. Pentsatzeko bizioa aldasgoran hartu nuela uste dut, baina berdintsu izango zen beste edonon. Gero pentsatzeari izate propioa eman nion, ni eta mundua haren gorabeheran bailegozen. Egia bila abiatu ginen eta, aurkitzear nengoela, egia bakarrik ez zela esistitzen esaten hasi ziren. Ez nintzen dezepzionatu. Bakarraren lekuan hamaika badira, hainbat hobeto. Askoren buruan ez da sartzen nola daitekeen jainko bakarrera mugatu, nahi beste eduki ahal izanda. Egiaren aniztasun oparoak dohatsu iraun zuen, susmatzen hasi nintzen arte egiak, ez bakarrak ez hamaikakoak, ez zuela ezertarako balio. Pentsatzeak ere ezin du, beraz, askorik balio izan, aldasgorak engainatzeko ez bada, baina hau umetan ikusi nuen ezinezkoa zela. Nafarroan bada lautada ederrik, oinezaldi osasuntsuari ekiteko. Goazen “loretik uztara”, naturari jarrai, honek ez baitu bi aldiz pentsatzen, etengabe aurreratzeko.

NAFARROA OINEZ 85

Euskarak batzen gaitu
denok bat euskaraz
Nafarrok euskararen
konkistara goaz.

1)
Ezina badirudi
badirudi ere
ekinean ezina
egina liteke.
Lizarrako umeak
lekuko hor daude
euskaraz bizi dira
etxe eta kale.

2)
Euskarak, Nafarroa
zu zaitu sorleku
eta zu, Nafarroa
hark hornitzen zaitu.
Zatoz euskalduntzera
horrek batzen gaitu
Nafarroa ez dadin
hilerri bihurtu.

Urte honetan Lizarran antolatu zuten Nafarroa Oinez, “ezina ekinez egina” lemapean uste dut. Bertso hauek berrirakurtzean, erabat berritu zaizkit Lizarrako antolatzaileekiko harremanetik hunkitu ninduten sentipenak. Errepikaren “konkista”-rekin halako sendotasun martzial bat eman nahi nion, politikoki eta militarki erresuma izan zen Nafarroak ea berkonkista kulturalen ere su bera ezartzen zuen. Konnotazio gerlari eta zapaltzaileak zeuzkan hitz hori, “konkista”, sartu ala ez duda handian ibili nintzen, baina azkenean hortxe gelditu zen, esanez bezala: “Zer arrai! Konkistaz galdu duguna konkistaz berjabetu behar da”. Ez zait gogotik joango lema-
ren edukia Lizarran egiaz betetzen zela adierazi zidatenekoa, bigarren bertsoak dioenez. “Ezina ekinez egina. Daitekeena duk, Lizarran lortua baitugu. Hemen umeek etxean eta kalean ere euskaraz egiten diate, nahizta gurasorik gehienek jakin ez”. Esagerazio emozional bat izango zela pentsatuko nukeen, neure begi-belarriz egiaz-

tatu ez banu egi-egia zela. Ez dakit zenbat ume ibiliko zen Lizarrako ikastolan. Ehundaka batzuk. Gutxiago dakit nola demonio lortzen zuen ikastola hark bere ikasleek eskolan ez ezik, kalean eta etxean ere euskaraz egin zezaten. Gertakari hartaz harriturik, geroztik hamaika lekutan zabaldu nuen berria, euskara kaleratzea Lizarran posible bazen, beste edonon ere berdin izan zitekeen esenplutzat. Ez dakit egoera nola eboluzionatuko zen, baina orduan inpresio kemengarri huraxe jaso nuen eta hobe dut badaezpada ezer ez galdetu, mirariak berean jarraitzen duela pentsatuz gozatzeko.

NESKATXO BAT BADA

1)

A, bada

neskatxo bat bada
egunaren ahizpa ta
gauaren alaba.

A, bada

lotan nagola ere
ezin diot laga.

2)

E, bere

neskatxoak bere
maiteak omen ditu
teilapean ere

E, bere

tximini puntak ere
loraturik daude.

3)

I, hiri

nahi ninake hiri
irekitzen lagundu
lore eder hori

I, hiri

osorik ezin bada
hosto bat edo bi.

4)

O, oro

maitaleak oro
gauerdia baino lehen
jartzen gaitu zoro

O, oro

aurrera egin behar
zoratuta gero.

5)

U, buru

bihotz eta buru
soinu honen zoroak
atzeman gaitu gu

U, buru

sorgin belarrak hartu
beharko ditugu.

Kopla sorta jostaria, Tapia eta Leturiarentzat egin nuena. Bokalen gaineko egitura, doinua (beraz, neurria) eta dena emanda etorri zen. Erromeriarako modukoa behar zuen, trikitiaren dohai bizi-

garria ere nolabait iradoki zedin nahi zutena. “Bo! Hauek gure ideiak dituk. Hik heuk nahi dukana egin”. Ez zen ideia haietara egokitzea hain zaila, ideiak baino gehiago giro bat, ingurune bat, aldarte bat eman baitzuten, zeintzuen barruan ideiak hamaika eratarata zehaz daitezkeen. Lehenengo koplari maitasun jostari-amesti bati forma eman nionean, ia-ia atsegin erotikoa jausi nintzen. “Egunaren ahizpa, gauaran alaba”, lotan ere laga ezin diodana, bera-gazko ametsak bakarrik gogoratzen baititut. Beharbada obsesio-natzen nau, maiteak omen baitauzka “teilapean ere”. Hemen guztiz bestelako erreferentzia rural bat egokitu nuen. Teilapeak diruz beteta edukitzea etxe aberatsei buruzko esakera zen. Aberastasun erlatiboa eta kokolo samarra, benetako aberatsen dirutegiak bankuak baitziren. Teilapea ugaritasunaren ez ezik prezamenaren gordeleku ere bazen, beti ere diru kontuan. Gerran eta gerrosteko konfisku giroan, zilar eta urrezko txanponak (“hamaseiko gorriak”) teilapean gordetzea ez zen beharbada hainbesteko egia izango, baina bai nahikoa maizkorra. Teilapea esatean, ez da teila azpia ulertu behar, hau ez baitzen batere toki egokia, batez ere orduko teila zahar apurtuekin, teilatu azpia baizik, hots, teilatuari eusten dion zureriak eskaintzen zituen bitarte inpentsableak. Hauetan maitaleek, txanda zain, txikituek eta okertuek, (zenbat sufritu behar den, une gozo bat harrapatzeko!) maitasun zelebregia erakutsiko lukete, tximini punta loratuak baikortasun ia poetikoa zabalduko ez balu. Arriskatzeak merezi zuen, elizako kanpaien barkamenez. Ez da derrigorra irekitze osoa gozatzea, gauez itxita utzi eta goizean zabal-zabalik aurkitu duzun lorearen alderantziz, zeinaren misterio xuabea begiratzeko egonarririk inoiz hartzen ez dudana, beharbada misterioa bera gehiago interesatzen zaidalako, obserbazio lehenbizi zoragarritik ezabatuz joan litekeen xarma baino. Distantziatik bitxi atal-bakarra dirudien edozein lore, hurreratzean, unibertso izugarri anizkun bihurtzen da, txikiago eta xeheago beharbada. Egunak biltzen eta gauak irekitzen hauela sentitzen dudana loreño, gaurkoz sobera ase geratuko naun hosto bat edo birekin, ez

osoa irrikatuko ez nukeelako, erromeria soil baterako gehiegi izan litekeelako baizik. Osoak zoratu egin nazake eta zorotasunak ez dauka atzera bueltarik. Bakarra banintz ere, baina asko gaitun soinu honen zoroak atzeman gaituenak. “Alua! Soinuaz ari al hintzan?”.

NI NAIZ

1)

Agur, ongi etorri! Milesker lehenbailehen
ez baitakit zertara etorri zareten.

Hau ez da Garden Palace, ez gaude Nou Campen
ez dugu bakailaorik cocara ematen
uste dut erraturik zaudetela hemen.

2)

Maite zaitut, ma cherie, te quiero, I love you!

Musuak ostu eta besarkadak saldu.

Bidai paralelorik hemen ez daukagu
norbaitek unibertso gordina nahi badu
dortokei kantatzera joango gara gu.

3)

Hiriko ta munduko mister eta missen
gorputzen prezioak airean zebiltzen.

Soldadua fusila garbitzen ari zen
gero koronelaren andrea zerbitzen
zoazte ta ikasi heziz dibertitzen.

4)

Hara talde munstroak argiz eta ketan
video bortitz edo estadioetan.

Ni ez naiz Michael Jackson, I'm sorry benetan
nora kristo zatozte, zeren bila, zertan,
ezinetik bizi den hizkuntza batetan?

5)

Ni naiz Anje Duhalde, zer grazi, zer pena!

Alain Debalde ere deitzen ahal dutena.

Ni naiz ahots basa bat tribu zahar batena

maite ez banau ere entzungo nauena

Zoazte Chicagora! Hau ez da zuena!

Anje Duhalderentzat egin nituen kanta-hitzotan, Euskal Herriko musikarien txikitasun onartua harrotasun bilakatzen da. Baita salapen ere, munduko musikari, musikaera eta musikaleku ospetsuen dependentziaz bizi diren musikazale esporadikoki euskaldunen aurka. “Uste dut erraturik zaudetela hemen”. Ezin dugu munstroekin leihatu “ezinetik bizi den hizkuntza honetan”. Eta zer? “Dortokei kantatzera joango gara gu”. Modernotasunaren antipoda dirudien animaliarik antigualenetako hau beharbada bere mugikeraren mantsoak iraunarazi du hainbeste. Eta iraungo duena! Etorkizuna amaituko da eta dortoka uretara itzuliko da, bere eternitatean bainatzera. Zaila da “ahots basa bat” egunaren erdian distiratzea, baina horregatik ez gara izarrei argi eske hasiko. Beharbada gure arrakastaren sekretua beste erremediorik eza da, nahita ere porrotik bildu ezin duena. Pribilegio hau eskertuko lukete Garden Palace-tik pasatzen diren taldeek, askorentzat euren azkenaren argiztapen izango dena.

NIK BADAUKAT SUDURRA

1)

Nik badaukat sudurra
eta zuk buztana
ni artosoa banaiz
zu gauza eztana.
Nik ez daukat adarrik
laguntxo laztana
zu zara belarriak
antenan dauzkana.

2)

Zuk ez dakizu ezer
nik zerbait badakit
baina ez naiz poztuko
abantailagatik.
Nahi baduzu ikasi
nire botilatik
neu ere hasiko naiz
zure patrikatik.

3)

Nor zaren ez dakigu
baina bai non zauden
galdetzen dizut nola
sartu zaren hemen.
Ea asmatzen duzun
gu nongoak garen
bestela hilko zara
jaio baino lehen.

4)

Nik ez daukat begirik
ez baitzait komeni
beraz, betaurrekoak
tokian ipini.
Nahi baduzu radar bat
Eskatu neuroni
eta ezetz asmatu
nondik natorren ni.

Bertso hauek ez dakit zertarako izan ziren, baina badakit ezertarako ez nituela egin. Begiratu batean aldrebeskeriak eman dezaketena ez dagoz ezein helburuz eginak. Ez nago ziur, baina uste dut oin batzuk ipini eta haien gainean edozer idazten hasi nintzela eta halaxe egingo nuen lehen bertsoa. Nolabaiteko grazia harturik, jokuari jarraitu izango nion. Handik urteetara zirriborroan aurkitu nituenean, alde batetik irribarre eragin zidaten (“belarriak antenan edukitze” zentzuanitz hori, “zu nire botilatik, ni zure patrikatik” eta abar) eta bestetik tristura ematen zidaten eta ez dakit zergatik. Beharbada barruan zerbait apurtua iradokitzen zuten, beharbada

errukarri sentiarazten ninduten, mahai gainera makurturik ariketa filistiarrean, arrazoen zuzentasun naturalaren bihurkerian. Ez dakit. Hementxe dagoz eta begoz, surtako hautsak ere hortxe dagoz-ta.

ORAINGO GAZTERIAK

1)

Oraingo gazteriak
zer egin badaki
goizean oheratu
iluntzean jaiki
argitasuna gaeuz
behar da eraiki.

2)

Goizeko hamarretan
eder krabelina
bera gorria eta
inguru urdina
ikusiko genuke
euliak bagina.

3)

Egunez eguneko
argitasunean
ez al gara gehienok
sortuak gauean?
Izarrik pertxentenak
datoz goizaldean.

4)

Ez hasarratu, ama
goizean goizean
ez al gaituzu sano
ikusten etxean?
Orain lotara goaz
deitu iluntzean.

Kantaren baterako egina dirudien sorta hau ez dut uste inoren musikara ez kopletara heldu denik eta ez daukat gogoan zertarako egin nituen ere. Segurrenik apunte puntualen bat nonbait marraztuko nuen, bertso forma emango nion eta gero, hariari tiratuz, sorta bat osatuz joango zen, helburu baten zain geraturik. Gauak egunari zorrik ez izatera, bigarren ahapaldian edertsuna ridikulutik hur lebilke, eulien ziztrinkeriak objektua beste subjektua afektatuko ez balu. Euliek ikusia izatea ez da, ez, krabelinarentzat (egunarentzat) oso motibo harrogarria, baina bere buruarentzat euliez beste egunkiderik aurkitu ez duenak ere ez dirudi oso talentu garatuan dabilenik. “Txoriak bagina”, “erleak bagina”, egunean zehar diren beste milaka izaki xarmagarritako edozein bagina, oreka poetiko bat geratuko zen, nahizta beharbada ez orijinalegia, baina euli ziztrin horiek dena konnotazio zirtzilez biltzen dute. Ez nengoen

ziurregi metaforaren egokitasunaz, baina uztea erabaki nuen, ea denborak taxua ematen dion. Beharbada eulitzen ari naiz. Eta zer? Neuk ere badaroat gazte bat neure baitan, ez dakit non argi, baina hortxe nonbait, euliak ailegatzeko lekuan. Askotan pentsatu dut bizitzaren zentzurik absurduena istripu bat litzatekeela, autoan noala euli gogaikarri bat leihotik bidali ezinik. Inoiz geratu egiten naiz, baina ez da hala ere erraza, igarri egiten baitute, antza. Leiho guztiak eta maletegia zabal-zabalik, uxagarri guztiak erabili eta ustez hartatik (ez dut “harengandik” jarriko, ezta?) libratu ondoren, abiatu eta bigarren bihurgunerako hor dabilkizu euli pestea usaingailutik belarrira. Habil! Baina euliari ez diozu desarretaz irabaziko. Dios! Leihoa ireki eta zapla hara eta zapla hona, azkenean izaki zirtzil honexegatik destinoa erakartzea besterik ez diat behar. “Hemen datza jenioa, euli bategatik hila”.

RUGBY ERESIA

Hamabost lagun gara
hamabosten aurka
Rugbyaren bihotzak
etsairik ez dauka.

1)
Bakoitzaren jokoa
denentzako dena
horregatik hartzen du
bakoitzak denena.
Hor dago gozamina
rugbylariena
hamabostek batera
sentitzen dutena.

2)
Biziaren eskola
eskola bizia
bizitzen ikasteko
zelai berezia.
Lagunek lagunentzat
emanik guzia
elkartasunerako
kirol nagusia.

3)
Munduan zenbat herri
Diren ezagunak
elkarrentzako arrotz
eta erdaldunak?
Kirol honen hizkuntzan
jokatzen dugunak
herri guztiak gara
Rugbyan lagunak.

1999-11-23an, GARAko zutabea, “Rugbya” izenburu zuela, idatzi nuen:

“Aspaldion ikutu nauten berri hunkigarrienetako bat Aratz Gallastegi getxotar rugbylariaren espainiar selekzioari ukoa izan da. Hobe-

to esanda, euskal selekzioari baiezkoa. Mugak ipini barik ezabatu egin behar direla eta gisako ameskerietatik bizi direnek ea nola bat egiten duten selekzio estalari uko egin gabe selekzio nazionala defendatzea. Beharbada Aratz Gallastegiren erabakia astingarriago egin zaigu, aspaldion dakargun hutsune politikoa dela bide. Izan ere, Lizarra-Garaziko blokea oso geldi dago gero! Rugbylari honen erabakiak eraikuntza nazionalaren erronka begien aurrean jarri digu berriro, bakotxak bere arloan eta mailan egitekoa, noski. Eliteko kirolariak jarrera horri heltzen hastea urratsik popularrenetakoa izan daiteke. Gallastegiri zigorrak etorriko zaizkiola? Ez al diozue, ba, ideia guztiak zilegi zirela demokrazian? Eh, munduko hiritarrok? Urte mordoa izango da Donostia aldeko rugbyzale batzuk rugbybaren himnoa izan zitekeenarentzat hitz bila etorri zitzaizkidala. Gogoia eta borondatea bazuten, baina azkenean asmoa hutsean geratu zen, zerbait handiaren alde dihardutenei bidean maiz gertatzen zaien bezala. Eurek emandako ideiei forma bat eman besterik ez nuen egin. Hitzak hor neuzkan paper batean gordeak eta ohore zait orain ezagutaraztea, Iker Gallastegiren omenez. Motiboak merezi du”.

Nik rugbyaren usainik ere ez neukan, rugbyzale haiek etorri arte. Ez dut sekula jokatu eta ikusteak ere ez nau sekula erakarri. Umeek arbi edo erromalaxa soroetan inoiz egiten genituen triskantzak ekartzen zizkidan gogora, aleak atera eta ostikoa apurtu arte. Rugbyko baloiari itxura horixe hartzen nion eta zelaia ere sarritan arbia atera ondoko soroa iruditzen zitzaidan. Himnoaren hitzak eskatzera etorri zitzaizkidanean, aitzaki horiek guztiak eman izango nizkien, alperrik nonbait, egitekoa onartu egin bainuen, eta geroztik rugbyari beste era batera begiratzen diot. Beste kirol batzuez zaletzeko eta gutxiago praktikatzeko adinean ez bana- go ere, rugbyari karino handia hartu nion, rugbyzale haiei esker. Beharbada hau guztia neure lan bat (neure burua, beraz) maitatzeko itzulinguru bat izango da, baina beharbada maitasuna ez da karino bat sortzeko gauza den egoismo bat besterik. Datorren edo doan norabidean doala, karinoa da gizaki arteko sentipenik

zoriongarrienetakoa. Maitasunak artegatzen duena karinoak lasatu egiten du, kilikili permanentearen gozoan beti ere. Gero Iker Gallastegi bezalakoen jarrerek berotasun gehigarri bat dakartenean, karinoa pasio bihurtuz joan daiteke. Hainbesterik ez nuke nahi, lehen ere pasioek (gehienak neuk hautatu gabeak) gehiegi abusatu baitute nitaz.

XIKITOAK

- 1) Bardin.
- 2) Eder mendiko ermita
han dago gure Benita
otoitz egiten senda dadila
senarraren erreminta.
- 3) Ahuntzaren buztana zutik
azpian zuloa hutsik
sar ezak bertan sudur maitea
eskapa ez dadin putzik.
- 4) Xikito diok Xikito
ez al haiz oraindik ito?
Gure zakurrak ehun kanako
zakila dik eta kito.
- 5) Balu ere ehun gehiago
bat aski dik beretzako
beste guztiak han omen ditik
hiri uzkitik sartzeko.
- 6) Zer jan dudan ez zakiat
tripak bueltaka ditiat
ez baldin bahaiz isil egoten
ahora egingo diat.
- 7) Tentel herriko mutila
lurrerainoko zakila
jokatzen diat ez dakiala
nondik xiko neskatila.
- 8) Agur, Peru ta Maria
hau bukatua da ia
zeruko jaunak gorde dezala
ai gure lehendakaria.

“Xikito”. Elhuyar Hiztegi Entziklopedikoak hauxe dio hitz hone-
taz: “Zuberoako artzainek mendian daudelarik elkarri kantatzen
dioten bertsoa, maiz lizuna izaten dena. Xikito batek bakotxak badi-

zū lau berset, ahal bezain zorrozki huntürrik”. Oskorriko Natxok jenero honetako kopla batzuk ekarri zizkidan, apur bat konpondu eta batez ere sorta bat osa nezan. Lehenengoan “bardin” ipinita daukat. Beraz, orijinala zegoen moduan uztea erabaki nuen. Beste guztiak edo konpondu, edo osatu edo asmatu egin nituen, egintza bakotxetik zenbat egin nuen zehazteko orain gauza ez naizela. Ekarrri zidaten bertsoan, zenbait kopla fragmentuak zirelakoan nago. Emaidza behintzat bistan dago lizuna eta gordin samarra dela. Zazpigarreneko “xiko” edo “xikotu” larrua jotzea da Zuberoan. Azkeneko “lehendakaria” ez dago argi zein den, agintaria ala gorago aipatu organoa. Honezkero baten batek pentsatu izan du: “Tamainuko idazlea bahaz hi be, heuk zer egin heuan ez dakiana. Zalan-tzok argitzea ez zoon, ba, zaila izango!”. Zaila ez, baina endredosoa bai. Badakit oraingoan Natxori eta besteetan behar denari deituta, edo liburu, paper eta diskoei eraginez, gauza hauek guztiak argitzea badagoela, baina bidean aurkitzen ditudan zador guztiak oin-katzen hasten banaiz, ez dut libururik sekula amaituko. Batera zein bestera egin, estimazioan zer alde? Auzia ez da, ordea, hori. Ni neure memorian ibiltari nabil eta hor gauzak ez dira beti utzitako lekuan aurkitzen, nahizta norbera bakarrik ibili. Memoria kutxa bat izate hori, magikoena bada ere, konparazio okerra dela esango nuke, adierazpen egokia aurkitzea zailegi ez balitz. Gomutak adimenari golkora jareiten zaizkion isladak dira. Hauek, lehenengotan jareilearen irudiko eta meneko, gero mugitzen, jostatzen eta euren artean berrislatzen hasten dira, azkenean zein norena den (subjektu alaena) erratu arte. Ai gure lehendakaria, Peru joatean Maria. Zergatik ez alderantziz? Ba, bai. Zergatik ez? Biak bizirik dagozela esan nahi nuen. Oh! Hasi gara gauzak konplikatzen.

ZENBAT ETERNITATE

–Zenbat egun, zenbat aste
Zenbat hilabete!
Zenbat urte, zenbat mende
Zenbat eternitate!

–Zenbat une, oren, egun
Zenbat hilabete!
Urte, aste, egun, une
Zenbat eternitate!

1)

Korneta goiztarrak jo du / jaiki gaitezen
Inork ez du azaldu zertako.
Arratsean ere ez du / inork galdetzen
Gogorik badugun lotarako.
Dagigun, dagidan amets / gure ahalmen
Bakarra bera delako.
Hori ere askatasun / gehiegi omen
Burdina hotsek gaua zatitzen
Ez digute uzten lo egiten.

2)

Ziegan eta patioan / orduen luzez
Badaramat kilometro pila
Oinkada berak zapalduz / betiko oinez.
Mugitzen naiz! Beraz, ez naiz hila.
Egunak pilatzen dira / iragan orde
Banoa, nator, nago, nabila
Nora hoa, ene itzal? / Inora ere ez!
Nahi dut ez nadin gogortu hotzez
Eta pentsamenei / egin ihes.

3)

Ez naiz txori negarti, urrikalgarri
 Kantatzen dut zerk nauen / gatibu jarri.
 Zu zaitut hoben eder / zu kemen berri
 oi Euskal Herri!

Mixel Ducaurentzat presoen omenez egindako kanta honetan, espetxeko denboraren luzea, eternitatea, sentiarazi nahi nuen, berak halaxe eskaturik. Kantaren izena ere “zenbat eternitate” izan zedin nahi zuen. Denbora, jakina, ez da bera luzatzen ez laburtzen. Espetxeko bizimodu batetik errepikatua eta bestetik etengabe izorran-tea da “pentsamenei ihes egiten” (horrelaxe pluralean) saiarazten duena, lortuta ere, berriz eternitatearen gainean utziko zaituena. Bi ahapaldi gogor eta guztiz zinezko horiek ez zuketena egia osoa agertuko, hirugarren ahapaldian presoaren gogoia aipatuko ez balitz. Egin zitekeen, noski, kanta guztia tonu berean, presoa urka-zorian jartzeraino, zenbaitentzat beharbada literarioki estimagarriago izango zena. Horrek espetxea zorrozkiago adieraz zezakeen, baina ez presoan, behintzat euskal preso politikoen, aldartea eta hau ere espetxea da, baita literarioa ere. Barruak ez zidan ematen kanta batean etsipenaren anatomia zabaltzerik, euspenaren hezurdura garailea jarki gabe. Guztiz ulergarri liratekeen kasu bakanak gerta balitez ere, orain arte ez da izan euskal presoan gogoia desespera lezakeen “eternitaterik”.

ZUMAIAKO ARRAUNAK

1)

Zumaiako arraunak
harro egon bitez
hogeita hamar bandera
urte bakar batez.
Jokatu izandako
denak hain suertez
marka horren parerik
sortuko da nekez
gehien ere berdindu
ondu inork ere ez.

2)

Traineru trainerila
eta batelari
Urolako mutilak
abantean ari.
Gorria ta Aristi
ontziko gidari
elkarte bultzatzaile
kaian Aita Mari
bentzutua da gure
Itsaso Kantauri.

3)

Proes, Tolla, Butroia
historian zehar
Bixente, Txino eta
zenbat izen suhar!
Azaina honek haien
apar hotsa dakar
han doa Telmo Deuna
sendo eta azkar
hegatzea besterik
ez zuena behar.

Zumaiatik bizpairu bertso eskatu zizkidaten, arraun taldearentzat himno gisako kanta bat osatzeko, kanpaina izugarria egin zuten urte baten ondoren. Hogeita hamar bandera urte bakarrean, lehen bertsoak dioenez. Jokatutako guztiak hain zuzen. Hau eta beste datu batzuk jasorik, bertso hauexek egin nituen, beste norbaitek musika jartzekotan, edo ez naiz gogoratzen musika baten gaine-

an jarri nituen ere. Azkenean ez dut uste himnoa burutzerara heldu zenik, baina ez nintzen alperrik jardun, bertsoak hementxe gelditu baitira, neure bizitzan zehar zumaiatar batzuekin izan dudan harreman kutunaren adierazle.

4. Doinuak

Segurrenik nire azken bertso liburua izango den hau, neure bertso doinuen bildumatxo bat uzteko ere baliatu nahi nuke. Doinu batzuk neure gomutan ere urrun eta zabal dagozenez gero, ez dakit denak ekarriko ditudan, baina apenas oker handirik gertatuko den, milaka ere ez dira eta. Gutxienez argitasun apur bat ezarriko dut, neurea denik inori edo inorenak niri esleitu ez dakizkidan, bietarik baitago, batez ere bigarrenetik.

Doinuak sortzeko xedeetan, batez ere bi erizpidek agindu zuen nire gogoan. Alde batetik zortziko handi-txikien hegemonia ia gogaikarritik alden du egin nahi nuen, ez, noski, txartzat neuzkalako, horietan lehendik ere ehundaka bazirelako baizik. Horrela plazaratzea lortu duen zortziko handiko bakarra dago, Vivaldi-ren melodia batek iradokia, eta zortziko txikia ere bakarra, Bizkaiko bertso zahar batzuk doinu ezezagun batez kantatzeagatik egin nuena eta plazan sekula erabili ez dudana.

Hamarreko txikitik bakarra dago, neurri honetan ere aukera ugari samar bazegoela ikusten bainuen. Hamarreko handiak lau dagoz, hauetarik oso gutxi ikusiaz gainera, oso ahapaldi gogokoa nuelako, batez ere bakar lanerako. Gainerakoak neurri bereziak esan daitezkeenak dira, ohiko zortziko ahapaldien banaketaz eta erritmoaz beste eredu bat bilatzen zutenak, gehienak beti ere bakarlannerako edo bertso jarrietarako pentsatuak. Badagoz zenbait koplak doinu ere, Bizkaiko koplak zaharrak kantatzeko erabili ohi nituenak eta gero izen bereko diskoan geratu direnak.

Doinuak egiteko bigarren asmoa azken puntua, osoa edo zati bat, errepikatzea zen. Ahapaldiaren barruan ere badira inoiz errepikak. Azken puntua entzuleek errepikatu ahal izatea baliabide guztiz interesgarria iruditzen zitzaidan eta halaxe gertatzen da, bertso ona edo entzuleen gogokoa izan denean. Daukan arrisku bakarra da behin ere kantatua izaterik merezi ez zuena denen aho sufrituetatik bueltan berriro entzun beharra, baina gauzak ez dira egin behar, kasu txarrak konpontzeko, kalitatea edertzeko baizik.

I) AMA ELGOIBARTARRA

Ama Elgoibartarra
 Ella de Orozko
 Neri eskapatu dit
 Con otro morrosko.
 Zazpi urte pasa dira
 Que yo le conozco
 Y por dónde anda(i) ella
 Nik ez dakit asko.

A- ma El- goi- bar- ta- rra e- lla de O- roz- ko
 ne- ri es- ka- pa- tu dit con o- tro mo- rros- ko.
 Zaz- pi ur- te pa- sa di- ra que yo le co- noz- co o
 Y por dón- dean- da(i) e- lla nik ez da- kit as- ko.

"Bizkaiko bertso gintza I Izengabeak" liburuaren 531. Orrialdean "Unas canciones nuevas" izenburuz bertso sorta bat dator, non gaztelania eta euskara grazia handiz nahasten diren. Politenetarikoa hirugarren bertsoa da eta berau jarri dut hemen, doinuaren izena ere, izatekotan, euskalduna izan dadin. Liburu hura egiten ari nintzela jakinik, AEKK, Korrika baten aurre-ekitaldien barruan, selezio bat kantatzea proposatu zidan eta halaxe egin nuen, Bilboko Arenaleko "Boulevard" kafetegiko jantoki edo egontokian, areto gisan prestatu zutena bera. Bederatzi bertsoko sorta hau kantatzeko, doinu ezezagun bat nahi nuen eta garantiarik onena berria egitea zen. Berria, baina itxura oso ezagunak dituenak, noski.

II) VIVALDIRENA

Gernika zer zen euskaldunentzat
 Mundu guztiak badaki
 Historiaren bidagurutze
 Eta bihotzaren zati.
 Kiskalmen hura bota zionak
 Herri errugabe bati
 Merezi luke bere larrua
 Bere hortzetan ebaki.

Ger-ni-ka zer zen eus-kal-du-nen-tzat mun-duguz-ti-ak ba-da-
 ki his-to-ri-a-ren bi-da-gu-ru-tze e-ta bi-ho-tza-ren za-
 ti. Kis-kal-men hu-ra bo-ta zi-o-nak he-rrie-rru-ga-be ba-
 ti me-re-zi lu-ke be-re la-rru-a be-re hor-tze-tan e-ba-ki.

("Laurehun herri, mila bertso berri", 157. Or.) Doinu honen izena "Vivaldirena" izatea estimatuko nuke, melodia iradoki zuen musikari handiaren, mendectan erdi ahaztuaren, eta orain zorionez hain arrakastatsu bihurtu denaren omenez. Joanito Dorronsorok bere "Bertso Doinutegia III", 1448. orrialdean, doinu honen aldaera bat jasotzen du, "Lopategiren doinua" deitzen zaiola esanez. Ondoren dio: "Otsagiko 'pañuelo-dantza' izenekoa oinarritua dago doinua". Kointzidentzia bat izan daiteke, baina, hau egin nuenean, nire buruan behintzat, ez zegoen Vivaldirena besterik. Hona bere "Gloria" ospetsuko "Domine Deus" soloaren hasiera:

374 *Agur sagar beltzeran*

Do - - - mi - ne De - - - us rex ce - le - - - stis
De - us Pa - - ter Pa - - - - - - - - - - -
- - - ter Pa - ter om - ni - - - po - teus

III) AGUR SAGAR BELTZERAN

Agur sagar beltzeran
 Edo beilegia
 Agur betiko hire
 Izar aurpegia.
 Izango haiz ederra
 Baita ederregia
 Ez, ordea, maitea
 Ezin alegia
 Heuk ez sinestu baina
 Hori dun egia.

A- gur sa- gar bel- tze- ran e- do bei- le- gi- a
 a- gur be- ti- ko hi- re i- zar aur- pe- gi- a.
 I- zan- go haiz e- de- rra bai- ta e- de- rre- gi- a
 ez, or- de- a, mai- te- a e- zin a- le- gi- a
 heuk ez si- nes- tu bai- na ho- ri dun e- gi- a.

("Agur sagar beltzeran", ... or.). Doinu honen izena ez dago dudarik "Agur sagar beltzeran" nahi nukeela, zerbaitegatik hautatu baitut liburu honen izentzat ere.

IV) AITARENA

Aita izena entzun beharrak
 Odola jarri dit bero
 Holako gairik izango zenik
 Ez nuen hemen espero.
 Preso nengoen Zamoran eta
 Han gelditu ia ero
 Joan nintzen da bertan nengola
 Aita hil zitzaidan gero
 Nahiago nuke edozer baino
 Hemen bizirik balego
 Hemen bizirik balego.

Ai- ta i- ze- na en- tzun be- ha- rrak o- do- la ja- rri dit be-
 ro ho- la- ko gai- rik i- zan- go ze- nik ez nu- en he- men es- pe-
 ro. Pre- so nen- go- en Za- mo- ran e- ta han gel- di- tu i- a e-
 ro jo- an nin- tzen da ber- tan nen- go- la ai- ta hil zi- tzai- dan ge-
 ro nahi- a- go nu- ke e- do- zer bai- no he- men bi- zi- rik ba- le-
 go he- men bi- zi- rik ba- le- go.

Beharbada nire doinuetan ezagunen edo behintzat erabilien egin den honek ez dauka, neuk dakidala behintzat, beste hiru hamarrekoek bezalako sorbide ezagunik. Doinu honi "Aitarena" edo "Aita izena" deitu ohi zaio, 1980ko txapelketa nagusiko finalean "Aita" gaiarekin kartzelako lanean egin nuen saioagatik.

V) SENTIMENTUA SARTU ZITZ AidAN

Sentimentua sartu zitzaidan
 Bihotzeraino umetan
 Geroztik hainbat gauza mingarri
 Ikusi mundu honetan.
 Euskal Herriaz batera nago
 Bihotz barneko penetan
 Anaiak alkar hartu ezinik
 Etsaiak su eta ketan
 Esan dudana gezurra bada
 Urka nazazue bertan
 Urka nazazue bertan.

Sen- ti- men- tu- a sar- tu zi- tzai- dan bi- ho- tze- rai- no
 u- me- tan ge- roz- tik hain- bat gau- za min- ga- rri
 i- ku- si mun- du ho- ne- tan. Eus- kal He- rri- az
 ba- te- ra na- go bi- hotz bar- ne- ko pe- ne- tan
 a- nai- ak al- kar har- tu e- zi- nik e- tsai- ak su e-
 ta ke- tan e- san du- da- na ge- zu- rra ba- da
 ur- ka na- za- zu- e ber- tan ur- ka na- za- zu- e ber- tan.

(1980ko txapelketako finala, "bihotzean min dut" gaiarekin bakarlanean). Doinu honen abiabidea latinezko "Salve Regina" da, hone-la hasten dena:

378 *Agur sagar beltzeran*



VI) ZUHAITZAK INOIZ HARKAITZAK BETI

Zuhaitzak inoiz harkaitzak beti
 Bortxaz bihurtzen aizkora
 Hona berriro ustez betiko
 Utzi genuen Zamora.
 Ezin sinetsiz begira nago
 Gora, behera, albora
 Nongo indar gaiztok gakartza berriz
 Lehengo azkonar zulora
 Ez dakit jainko, sorgin, deabru
 Ala zein aker adora
 Ala zein aker adora.

The musical score is written on five staves in a single system. It features a treble clef, a key signature of one sharp (F#), and a common time signature (C). The melody is simple and folk-like, with a mix of quarter, eighth, and sixteenth notes. The lyrics are written below the notes, with hyphens indicating syllables that span across multiple notes. The piece concludes with a double bar line.

Zu- hai- tzak i- noiz har- kai- tzak be- ti bor- txaz bi- hur- tzen aiz- ko-
 ra ho- na be- rri- ro us- tez be- ti- ko u- tzi ge- nu- en Za- mo- ra. E- zin si-
 ne- tsiz be- gi- ra na- go go- ra, be- he ra, al- bo- ra non- goin- dar gaiz- tok ga- kar- tza
 be- rriz lehen- go az- ko nar zu- lo- ra ez da- kit jain- ko, sor- gin, de-
 a- bru a- la zein a- ker a- do- ra a- la zein a- ker a- do- ra.

("Menditik mundura", 204. Or.). Seminarioko "Schola cantorum"-ean zirrara handia egiten zidan euskal melodia indartsu bat kantatzen genuen, gartzelaniaz noski, eta Ama Birjinari dedikatua nik uste. "Euskal melodia" esan dut, baina ez nago ziur. Susmoa daukat Guridiren konposizioaren batean-edo ez ote dudan entzuna. Nolanahi ere, melodia ederra, honela hasten zena:

380 *Agur sagar beltzeran*



VII) AGUR HAINBESTE POZ EMAN DUZUN

Agur hainbeste poz eman duzun
 Lazkao Txiki maitea
 Kostako zaigu gure plazetan
 Ez zaudela sinistea.
 Ekarleontzat mingarri bada
 Zu hilobian uztea
 Beste mundua zurekin ez da
 Izango haren tristea
 Zerbait balego desio nuke
 Zure ondoan piztea
 Zure ondoan piztea.



A- gur hain-bes- te poz e- man du- zun Laz- ka- o Txi- ki mai- te- a
 kos- ta- ko zai- gu gu- re pla- ze- tan ez zau- de- la si- nis- te- a.
 E- kar- le- on- tzat min- ga- rri ba- da zu hi- lo- bi- an uz- te- a
 bes- te mun- du- a zu- re- kin ez da i- zan- go ha- ren tris- te- a
 zer- bait ba- le- go de- si- o nu- ke zu- re on- do- an piz- te- a
 zu- re on- do- an piz- te- a.

(Lazkao Txikiri hilerrian kantatu niona). Doinu honen oinarria musika gregorianoa da, "De lamentatione Jeremiae profetae" izeneko erostak, hain zuzen.



De la- men- ta- ti- o- ne Je- re- mi- ae Pro- fe- - - tae

VIII) ZAMORAKO SUGINTZA

Ke azpitik su gainetik
 Gar artetik ihesi
 Uhuka sei ehizi
 Hauts eta putz ahal zen dena
 Erre eta erauzi
 Erre eta erauzi.
 Ai gartzela Zamorako
 Nola geratu haiz hi
 Eskerrak sei apaizi
 Ez zaik ezer sano utzi
 Egik sutan garraisi
 Egik sutan garraisi.

Ke az- pi- tik su gai- ne- tik gar ar- te- tik i- he-
 si u- hu- ka sei e- hi- zi hauts e- ta putz ahal zen
 de- na e- rre e- ta e- rau- zi e- rre e- ta e- rau-
 zi. Ai gar- tze- la Za- mo- ra- ko no- la ge- ra- tu haiz
 hi es- ke- rrak sei a- pai- zi ez zaik e- zer sa- no
 u- tzi e- gik su- tan ga- rrai- si e- gik su- tan ga- rrai- si.

("Menditik mundura", 196. Or., "Zamorako sugintza" izeneko sortaren lehenengoa).

IX) TRUMOIA ORTZI

Trumoia ortzi beltzean hoska
 Pertzean zortzi arbi egoska
 Gauaren barren bi erbi herren
 Lauaren hurrengo bosta
 Lauaren hurrengo bosta.
 Denok berdinak garela zuhaitz
 Beretik omen gatoz-ta
 Bihotzak ezetz diosta
 Nik ez ditzaket jaun hoiek maite
 Nahizta ifernua kosta
 Nahizta ifernua kosta.



Tru-moi-a or-tzi bel-tze-an hos-ka per-tze-an zor-tzi ar-bi e-gos-ka
 gau-a-ren ba-rren bi er-bi he-rren lau-a-ren hu-rren-go bos-ta
 lau-a-ren hu-rren-go bos-ta. De-nok ber-di-nak ga-re-la zu-haitz
 be-re-tik o-men ga-toz-ta bi-ho-tzak e-zetz di-os-ta
 nik ez di-tza-ket jaun hoi-ek mai-te nahiz-ta i-fer-nu-a kos-ta
 nahiz-ta i-fer-nu-a kos-ta.

("Anje Duhalde Amurizaren kantari" diskoan "Barruaren barrutik" izeneko sortaren lehenengoa).

X) NAUFRAGOARENA

Tximistak dzist-dzast goiz eta arrats
 Haizea norantz lainoak harantz
 Baditut mila min edo grina
 Laurehun gozo, seirehun garratz
 Laurehun gozo, seirehun garratz.
 Oi, Anboto, bizkar zorrotz
 Erraldoi mendetsu hilotz
 Oiztik egiten diat hots
 Emaidak arren heure zati bat
 Nik hiri bihotz eta hats
 Sentimenaren berri dezagun
 Hik ikas eta nik ahantz
 Hik ikas eta nik ahantz.

Txi- mis- tak dzist dzast goiz e- ta a- rratshai- ze- a no- rantz lai- no- ak
 ha- rantz ba- di- tut mi- la min e- do gri- na lau- rehun go- zo, sei- rehun ga- rratz lau- rehun go-
 zo, sei- rehun ga- rratz. Oi, An- bo- to, biz- kar zo- rrotz e- rral- doi men- de- tsu hi- lotz Oiz- tik e-
 gi- ten di- at hots e- mai- dak a- ren heu- re za- ti bat nik hi- ri bi- hotz e- ta
 hats sen- ti- me- na- ren be- rri de- za- gun hi- ki- kas e- ta nik a- hantz hik i- kas
 e- ta nik a- hantz.

("Anje Duhalde Amurizaren kantari" diskoan, "Anbotorekin trukean" izeneko sortaren lehenengoa). Doinu honi "naufragoarena" deitu ohi zaio, 1982ko txapelketa nagusiko finalean naufrago baten paperean kantatutako bertsoengatik. Joanito Dorronsorearen "Ber-

tso Doinutegia IVⁿ, 2204. orrialdean, doinu honen transkripzioak zati bat falta du eta erritmoa ere apur bat aldatua dator, nire jatorrizko asmotik behintzat.

XI) NESKAZAHARRAK ETA APAIZAK

Neskazaharrak eta apaizak
 Hartuko ditudan aintzat
 Eskatu didate gaitzat
 Ai,ama, nola josi elkarri
 Banaka dituzten gaitzak!
 Haltzak bihotzik ez badu ere
 Eduki lezake haitzak
 Biguntzen badu ekaitzak
 Tximista baten bildurrik ez du
 Maitasunaren zuhaitzak
 Maitasunaren zuhaitzak.

Nes-ka-za-ha-rrak e-ta a-pai-zak har-tu-ko
 di-tu-dan ain-tzat es-ka-tu di-da-te gai-tzat ai, a-ma,
 no-la jo-si el-ka-rri ba-na-ka di-tuz-ten gai-tzak! hal-tzak-bi-
 hotzik ez ba-du e-re e-du-ki le-za-ke hai-tzak bi-gũn-tzen
 ba-du e-kai-tzak txi-mis-ta ba-ten bil-du-rrik ez du mai-ta-su-
 na-ren zu-hai-tzak mai-ta-su-na-ren zu-hai-tzak.

("Anje Duhalde Amurizaren kantari" diskoan, "Neskazaharrak eta apaizak" izeneko sortaren lehenengoa). Joanito Dorronsorok "Bertso Doinutegia III", 1681. orrialdean dio doinu hau Anje Duhaldek sortua dela, baina ez da horrela. Neure doinua da eta diskoan ere halaxe agertzen da.

XII) IZUGARRI BAT

Izugarri bat, izugarri bi
 Izugarrien segida
 Zenbat izugarri dira
 Gure etxean bart gertatua
 Izugarri ta erdi da
 Izugarri ta erdi da.
 Mahai ta ate saltatu dute
 Teilatutik ilargira
 Ni ohapetik begira
 Jango nituen izar guztiak
 Balkoira jaitsi balira
 Balkoira jaitsi balira.

I- zu- ga- rri bat, i- zu- ga- rri bi i- zu- ga- rri- en se- gi-
 da zen- bat i- zu- ga- rri di- ra gu- re e- txe- an bart ger- ta-
 tu- a i- zu- ga- rri ta er- di da i- zu- ga- rri ta er- di
 da. Ma- hai ta a- te sal- ta- tu du- te tei- la- tu- tik i- lar- gi-
 ra ni o- ha- pe- tik be- gi- ra jan- go ni- tu- en i- zar guz-
 ti- ak bal- koi- ra jai- tsi ba- li- ra bal- koi- ra jai- tsi ba- li- ra.

("Anje Duhalde Amurizaren kantari" diskoan, "Izugarri bat" izenburuko sortaren lehenengoa).

XIII) HISTORIAREN HARI ZAHAR HORRI

Historiaren hari zahar horri
 Behar diot orain tira
 Aurrerapenei begira
 Askori horrek begietara
 Ekartzen dio dirdira
 Ekartzen dio dirdira.
 Pentsatzen nago lehengo ibaiak
 Lehen bezain garbi balira
 Zer ur freskoen segira
 Lehen bezelaxe jaunak gaur ere
 Lehen bezela hiltzen dira
 Eta tankera berdin-berdina
 Daramate hilobira
 Daramate hilobira.

His- to- ri- a- ren ha- ri zahar ho- rri be- har di- ot o- rain ti- ra
 au- rre-ra- pe- nei be- gi- ra as- ko-ri ho- rrek be- gi- e- ta- ra
 e- kar- tzendi- o dir- di- ra e- kar- tzendi- o dir- di- ra.
 Pen- tsa- tzen na- go lehen- go i- bai- ak lehen be- zaingar- bi ba- li- ra
 zer ur fres- ko- en se- gi- ra lehen be- ze- la- xe jau- nak gaur ere
 lehen be- ze- la hil- tzen di- ra e- ta tan- ke- ra ber- din ber- di- na
 da- ra- ma- te hi- lo- bi- ra da- ra- ma- te hi- lo- bi- ra.

(1986ko txapelketa nagusiaren finalean, "askoren iritziz aurrerapen

haundiak egin ditu gizarteak. Zer diozu zuk?" gaiarekin, bakar-laneko lehenengoa). Doinu hau aurreko "Izugarri bat" izenekoa bada, 10-8ko puntu bat gehiago sarturik.

XIV) GAI HORREK BADU MAMIA

Gai horrek badu mamia
 Baldin ez banago gor
 Hainbat jende gizaseme
 Ikusten ari naiz hor.
 Ogi-az gain gizonari
 Anitz gauza zaio zor
 Bestela mundu hontara
 Hobe ez gaitezen sor
 Ogiakin justizia
 Behar dugu derrigor
 Hau sinesten ez duenik
 Ba al da hemen inor
 Hau sinesten ez duenik
 Ba al da hemen inor.

Gai ho- rrek ba- du ma- mi- a bal- din ez ba- na- go
 gor hain- bat jen- de gi- za- se- me i- kus- ten a- ri naiz
 hor. O- gi- az gain gi- zo- na- ri a- nitz gau- za zai- o
 zor bes- te- la mun- du hon- ta- ra ho- be ez gai- te- zen
 sor o- gi- a- kin jus- ti- zi- a be- har du- gu de- rri-
 gor hau si- nes- ten ez du- e- nik ba al da he- men i-
 nor hau si- nes- ten ez du- e- nik ba al da he- men i- nor.

(1980ko txapelketako finalean, "Gizona ez da ogi hutsez bizi" gai-

dun bakar-laneko lehenengoa). "Badut gaia, badut nahia" izeneko sortarentzat espetxean eginik, 1980ko txapelketa nagusian lehenengoz publikuan erabili nuen doinu hau Joanito Dorronsororen "Bertso Doinutegia IV", 1818. orrialdean, bigarren puntua janda dator. Erritmoa ere nire buruan zegoenaren aldaera bat da. Aldakuntza hauek normal samartzat jo behar dira, bertsolari bakoitzak hartzen dugun doinua geure erara moldatzen baitugu.

XV) UDALETXEAN BADUT

Udaletxean badut
 Hainbeste denbora
 Noizbait iritxi ere
 Legeen ondora
 Asto baten gainean
 Nator gaur bandora
 Herriak jakitea
 Ona izango da
 Hauxe agintzen dugu
 Hemendikan gora
 Hauxe agintzen dugu
 Hemendikan gora
 Txakurrak katera ta
 Lapurrak zulora.

U- da- le- txe- an ba- dut hain- bes- te den- bo- ra noiz-
 bait i- ri- txi e- re le- ge- en on- do- ra as-
 to ba- ten gai- ne- an na- tor gaur ban- do- ra he-
 rri- ak ja- ki- te- a o- na i- zan- go da hau-
 xe a- gin- tzen du- gu he- men- di- kan go- ra hau-
 xe a- gin- tzen du- gu he- men- di- kan go- ra txa-
 ku- rrak ka- te- ra ta la- pu- rrak zu- lo- ra.

(1986ko txapelketa nagusiko finalean, "udal bandoa" izeneko kar-

tzelako gaian kantatutako lehenengoa). Doinu honek "Agur Xiberua" kanta famatuaren lehen ahapaldiaren hasiera du oinarri: "Sor lekhia ütziarik, gazte nintzalarik". Oraingoan errepika azken aurreko puntuan jarri nion. Bistan dago baliabide honek azken puntuarrekiko espektazioa sortarazten duela.

XVI) KATEAN TXAKUR UMILA

Katean txakur umila
Atean utzirik hila
Bart goizaldean hura etxera
Sartu zaigun lapur pila.

The image shows two staves of musical notation in G major (one sharp) and 2/4 time. The melody is simple and consists of eighth and quarter notes. The lyrics are written below the notes.

Ka- te- an txa- kur u- mi- la a- te- an u- tzi- rik hi- la
bart goi- zal- de- an hu- ra e- txe- ra sar- tu zai- gun la- pur pi- la.

("Herriko plazan" diskoan, "Lapurreta nagusia" izenburudun sorko lehenengoa). Hau eta hurrengo hirurak koplak doinutzat jo behar dira.

XVII) EDERRA ZAREALA


Ederra zareala
 Pentsetan badozu
 Espilu faltso horrek
 Engainetan zaitu
 Badozu
 Engainetan zaitu
 Badozu
 Engainetan zaitu.

E- de- rra za- re- a- la pen- tse- tan ba- do- zu es-
 pi- lu fal- tso ho- rrek en- gai- ne- tan zai- tu
 ba- do- zu en- gai- ne- tan zai- tu
 ba- do- zu en- gai- ne- tan zai- tu.

("Bizkaiko koplak zaharrak" diskoan, "Ederra zareala" izenburudun sortaren lehenengoa).

XVIII) SANTA LUZIETAN

Santa Luzietan gaba da luze
 San Bernabetan egune
 Nobera ondo egon ezkerro
 Ez da erruki lagune.
 Aite yoan da Bituriera
 Ama lepoan hartute
 Aite etorri da Biturietik
 Ama bidean galdute.



San-ta Lu-zie-tan ga-ba da lu-ze San Ber-na-be-tan e-gu-
 ne no-be-ra on-do e-gon ez-ke-ro ez da e-rru-ki la-gu-
 ne. Ai-te yo-an da Bi-tu-ri-e-ra a-ma le-po-an har-tu-
 te ai-tee-to-ri da Bi-tu-ri-e-tik a-ma bi-de-an gal-du-te.

("Bizkaiko koplak zaharrak" diskoan, "Santa Luzietan" izenburudun sortaren lehen biak). Doinua, berez, lehenengo koplarena da, bigarrena gaineratik egiten zaion duo bat besterik ez baita, sortan zehar txandaka nahiz bi abotsetara kantatzeko.

XIX) URKIOLA


Durangon bazkaldute
 Mañarien gora
 Urkiolara goaz
 San Antoniora.
 Askok egiten deutso
 San Antoniori
 Egun batean yoanda
 Bestean etorri.

Du-ran-gon baz- kal- du- te Ma- ña- ri- en go- ra Ur- ki- o-
 la- ra go-az San An- to- ni- o- ra. As- kok e- gi- tendeu-tsoSan An- to-
 ni- o- ri e- gun ba- te- an yoan-da bes- te- an e- to- rri.

("Bizkaiko koplak zaharrak" diskoan, "Urkiola" izenburudun sortako lehen biak). Doinu honen bigarren zatia lehenengoaren bariazio bat besterik ez da, koplak sortari lantzean aire ezberdin bat emateko.

Hauek biak seminarioan ikasi nituen, biak Xenpelarren bertso liburu batean agertzen zirenak. Zortxiko txikian "ezkontzaren bentajak" edo zeritzon sorta zetorren, zeinaren lehen bertsoak zioen: "Nere senarrarekin / daukadan bizitza // kontatuko det inork / ikasi al balitza. // Fina izango zala / eman zidan hitza // akerraren adarrak / bezela gabiltza". Doinu honetan "gasolina madarikatua" eta "bertso berriagoak horma zaharragoei jarriak" jarri eta kantatu nituen, "Menditik mundura" liburuan agertzen direnak.

Sei puntukoan, berriz, "mutil zaharraren bizitza" kantatzen zuen Xenpelarrek, lehen bertsoa honela zela: "Dozena bat bertso berri // gaztien kontsolagarri // nere mingaina sano dan arte / nahi nituzke jarri. // Begiratuaz alkarri // andrerik ezin ekarri // mutil zaharraren despeira zen dan / esango det sarri". Gero doinu honetan "Euskal Herritik aparte" sorta jarri eta publikatu nuen "Menditik mundura" diskoan, epaiketa militarra eta espetxeraztea kontatuz.





BERTSOLARI Liburuak

1

BIZIAREN AZALA
(XX. MENDEKO IPARRAGIRRE)

Xanti Iparragirre

2

ENAZ BANAZ

Xabier Amuriza

3

JOXE AGIRRE: MOZKETAREN MAISUA

Joxean Agirre | Jexux Murua

4

JON LOPATEGI, BERTSOZKO MEZULARIA

Luis Baraiazarra

5

AGUR SAGAR BELTZERAN

Xabier Amuriza

6

BERTSOAREN AZTERBIDEAK

Joxerra Garzia

ZAILDU GABEAK

BILDUMA



1

OSABA TXIRRITA

Joxean Agirre

2

FERNANDOREN HERIOTZA AMEZKETARRA

Koldo Izagirre

3

NIRE UZTAPIDE

Pako Aristi